

Salbador Zapiain  
"Ataño"

## Berezko iltzaillea

\* \* \* \*

# Ovni

Argitalpena: Antonio Zavala

---

Auspoa Liburutegia

304

ZAPIRAIN, Salvador

Berezko iltzaillea ; Ovni / Salvador Zapirain "Ataño" ; argitalpena, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2007.

298 or. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 304)

Aurkibidea

LG SS 641-2007. – ISBN 978-84-7907-560-6

I. Zavala, Antonio, ed. lit. II. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-31"19"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-560-6

Legezko Gordailua: S.S. 641/07

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Salbador Zapi­rain  
"Ataño"

## Berezko iltzaillea

\* \* \* \*

# Ovni

Argitalpena: Antonio Zavala



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**  
Kultura Zuzendaritza Nagusia  
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2007

## Itzaurrea

Salbador Zapirain “Ataño” idazle ugaria mundu ontatik joan zala sei urte pasatxoak dira. Geroztik aren zenbait liburu argitaratu ditugu: *Ondareztat gorrotoa* nobela, 2000-n (Auspoa 267); *Jesusen bizitza*, bertsoan, 2001-ean (Auspoa 271); eta *Markesgaiak* eta *Dirua jainko* nobelak, biak batera 2002-n (Auspoa 280).

Egille ura itzali ondoren ere aren idazlanak plazaratzen jarraitzea nola ditekenez, Auspoaren 280-garren ale ortan adierazten genduan. Baiña emen berriro egingo degu, beste liburu ori artu ez dutenentzat. Onela esan gion:

«Telefonoz ditu zigun –Atañoak alegia, 1997-ko otsaillan–, bisitatxo bat mesedez egiteko, arren. Joakin Berasategi adiskidea eta biok joan giñan, bera bizi zan etxera, Ondarribiko Amuteko komentu zaarrera. Nor giñan abisatu zioten eta bereala azaldu zitzaigun, maleta aundi xamar bat berekin zuala. Onela esan zigun:

–Nere burua lanerako gauza ez da. Ala, nik idatzitako zera guziak emen dituzute, eta oiekin nai dezutena egin zazute.

Maleta xaarra idiki eta paperez beteta zegoala ikusi genduan. Orri aundiak eta makinaz idatzita.

Une goibela izan zan ura. Danok bagenekian, bai berak eta bai gu biak ere, testamentua egiten ari zala. Testamentua, bai; baiña ez munduko ondasunik iñori uzteko, baizik-eta urrearekin ere pagatu ezin ditekenez gure eskuetan jartzeko, bere azken naiaren betetzaille edo *albacea* gu izendatuz. Merezi zuala eta eguna idatzi nuan: 1997-ko otsaillaren 20-a».

Gaurko bi nobela auek ere Atañoek gure eskuetan jarritako altxor artatik atereak ditugu. Ango idazlan-mor-doa ez da ala ere agortzen. Beste batzuk bertan gelditu dira txandaren zai.

Bi nobela auetan aurrenekoaren gaia, *Berezko iltzaillea* deritzanarena alegia, Atañoek Ondarribiko aiton baten aotik jaso zuan. Berak ala aditzera ematen du leenengo orrialdeetan. Berdin egin zuan *Markesgaiak* deritzan nobelarekin ere.

Joko ori sarritan egin oi dute idazleak. Norbaiten aotik entzundako kontakizuna, ederra iruditu, berak txee-tasunez ornitu eta nobela biurtu. Udaberriak urtero egi-ten duanaren antzekoa, beraz: enbor soilla orriz eta lo-rez jantzi, alegia, gure begien atsegingarria izango dan zugaitz ederra aurrean jarri artean.

Aldi ontan, beste danak bezelako gizaki normal bat iltzaille izateraiño nola aldatzen dan adierazten digu Atañoek. Ortaraiñoako pausoak eta bideak zein diran azaldu, alegia. Psikologia-azterketatik ere badu zerbait, beraz, nobela onek.

Gertaera guziak, berriz, Ondarribian bertan koka-tzen dira. Ala, neri ordenagailluz kopiatzen ari nintzala, eta irakurtzen duanari ere berdin gertatuko zaio, Gi-puzkoako erri ori ikusten nuala iruditzen zitzaidan: eliz ederra, gaztelu zaarra, kale nagusia, arrizko orma za-rrak, antziñako jauregiak, arrantzaleen etxeak, itxasoa, ondartzza, Jaizkibel mendia, Bidasoa ibaia, onen beste al-dean Endaia eta abar.

Liburu baten kontaera erri edo paraje ezagun batean gertatzen danean, irudimenak lanik ez du tokia nolakoa dan asmatu bearrez, eta orrek erreztu egiten du irakur-keta.

Denbora berean, berriz, erri edo toki orrek onra berezi bat bereganatzen du, literaturak ematen dion apaingarri orrekin.

Liburu ontako bigarren nobelak oso izenburu eta gai bereziak ditu: *Ovni* alegia. Egazkin auei buruzko beste libururik ba al da euskeraz? Baditeke, baiña nik beintzat ez det ezagutzen.

Nungo gertaera ote da? Au ere Ondarribiko kontua dala ematen du. Erri ortan, edozein izanda ere, *ovni* dala lako oiek badiran ala ez diran asko eztabaidatzen da, garai bateko sorgiñekin egin oi zan bezela. Atañoak, ordea, *suzko bola* esaten die. Dana dala, ausardia bear da, eta ez nolanaikoa, olako gai batekin nobela egiten aste-ko.

*Ovni* oietan gure lur ontatik oso urruti bizi diranak etortzen omen dira gu bisitatzera. Etorri ez-ezik emengo jenderik baitu eta eraman ere bai. *Extraterrestres* esaten zaie erderaz; euskeraz *lurraz kanpokoak* edo olako zerbait bearko luke. Atañoenak ere alaxe ditugu, baiña ez beste liburuetan azaltzen diranen antzekoak, oso ezberdiñak baizik. Eta ortik aurrera ez degu ezer esango, irakurleak jakin-miña galdu ez dezan.

Baiña oiek, nobela ontan agertzen zaizkigun bezelakoak izanda, kontaeraren sinisgarritasuna kolokan gelditzen da. Liburuaren akats bat izan diteke, baiña ez derizkiot orrekin asko galtzen duanik.

Atañoen idazlanen balio nagusia, izan ere, ez dator gaiaren aldetik, izkuntzaren aberastasunetik baizik, bein baiño geiagotan adierazi izan degunez. Aren leen liburua, *Txantxangorri kantaria* izenekoa alegia, irakurtzen asi giñaneko oartu giñan ortaz, eta ez gera errepikatzen aspertuko.

Euskera jatorra eta dotorea praile txiki arena; errikoia eta garbia; legun eta atsegiña...

Arek leen aitaturako maleta gure mende utzi zuan ezkerotik, ni Euskal Erriarekin zorretan gelditu nintzan. Aren idazlanak euskaldunen eskuetan leenbaileen jarri bearra daukat, noski. Kezka ori arantza bat bezela da nere barruan. Liburu danak batera ezin ditezke kale-ratu. Baiña gaurko onekin beste bi izenburu ateratzen ditugu illunpetik argitara, eta Atañoek nere bizkarretan jarri zuan zama arindu egiten zait. Neretzako poza dala esan bearrik ez da, beraz, eta irakurlearentzat ere ala izango dalakoan nago.

A. Z.

# **Berezko iltzaillea**





# Ondarribi

---

Urteen zamapean aurreratatu naiz ni ere. Azkeneko langara iritxi ote naizen espatsu nabil; baiña ez det uste ortik igarotzeko ordua oraindik etorri zaidanik. Jainkoak ala erabakia badauka, berriz, bedeinkatu izan dedilla. Langaren beste aldean bizitza argitsu bat arkituko baidet. Ortarako sortu giñun Jainkoak.

Alare, urte askok izututa ere, ez nioke nere gorputzari nagitasunean murgiltzen utzi nai, oraindik zauli nago ta. Ni baiño gazteagoak asko ikusten ditut, oiña oiñari ezin igarorik. Ez nuke ortaraiño erori nai.

Orregatik, tarteka-tarteka egiten dizkiot Ondarribiari nere ikertxoak, bere inguru zoragarrienak ikusiz: kaia, ondartzza, egin berri duten kai-muturra... Joaten naiz, bada, azkeneko muga jo arte.

Ango arri batean exerita, Ondarribiako inguru zoragarriak aztertuz, nere buruan darabilzkidan oldozpen ezberdiñekin burruka aritzen naiz.

Aurrean Biarritz, bere ondartzza ta etxe txuriekin. Onuntzago Hendaia. Biak euskal erriak, baiña guregandik berex. Aurreraxeago, Irun. Onuntzago eta bertan, berriz, Ondarribi. Urrun xamar Larrun ageri da. Esku-bitara, Aiako Arri mendi kankarra. Atze aldean, Jaizkibel. Aurrera, ia mugarik gabeko itxasoa, zeruak eta urak alkar jotzen duten arte ikusten dana. Andik aurrerakoa ez dago gure ikuspidean. Itxasoa ez baita guk txikitan uste genduen bezin berdiña.

Goitik beera dator ibaia, Bidasoa alegia, itxaso bere ama zaarrari musu ematera; eta, berarekin bat egiñez,

mendi aldeko berriak ekartzen dizkiola. Itxasoa, berriz, bere betiko ezin egonean gora ta beera, bidean arrapatzen dituen arri ta kroska guzietan plastaka.

Ondartzan ere igo ta igo. Ugin bat lertzerako, atzetik bestea. Oraindik ez det sekula Kantauri gure itxas bizi au geldirik ikusi.

Itxasoko aize mee arin arek goxatzen zaitula, bai atsegiña espigongo arri gain artatik inguru aiek guziak aztertzea. An ikusten da gizonaren ezereztasuna. Mugarik gabeko itxaso aren aurrean, leena, oraiña eta geroa datozkit gogora. Gizonak ezer ez dirudi orren aurrean; baiña polliki-polliki bere naiera makurtu erazten ari du.

Ondarribi sortu zala, beraren urte-mugak, kondairak garbi erakusten dizkigu. Baiña nork daki beraren leena, kondaira asi baiño leenagokoa? Nor leenengo euskalduna, erriari izena eman baiño leen itxaso ontara arrantzara atera zana? Noiz ta nola? Nolako ontzia eramango zuen eta geroztik zenbat galduko ziran Ondarribiko uretan? Itxasoak asko ematen du, baiña bai eskatu ere. Oparoa da ematen: eskatzen ere bai, ordea.

Itxasoak izketan baleki, arrituta geratuko giñake, Ondarribian gertatua bakarra kontatuko baligu ere. Baiña ori ixillean joanaren mende dago eta ez digu bein ere itzegingo.

Leenengo bakar arek bere aurrerapenak sortuko zituen, bizi bearrak erakutsita. Geroztik, ark egiña ikusiz gaiñera, joan da gizona bere bizimodua errezten.

Polliki-polliki leenengo bikote artatik asiko zan Ondarribi azitzen, bere izena eman zioten arte. Geroztik, itxaso onen inguruan eta bere aberastasunetatik joan da Ondarribiko bizitza. Orain erri zoragarri bat degu; ederenetako bat.

Garai batean etzan kaiarik izango. Ontzirik aulen ta kaskarrenak zituzten orduan, eta arraixkurik gorrienean biziko ziran arrantzaleak. Ikusiz gaiñera, gero itxas arroari iges egiteko babeslekuren batzuk jasoko zituzten. Agian bakoitzak berea.

Jendea ugaritu alean, aurrerapenak ere etorriko ziran; eta, euskalduna ausarta nola baidan, beren ontzi aul aiekin eun da berrogei ta amar toneladako bale erraldoi baten kontra itxasora ateratzeko bear du gizonak zerbait. Jainkoak jakingo du isats indartsu arekin zenbat arrantzale gizarajo aidatuko zuen bere txalupa ta guzi, an bertan itotzeko. Arrazoiaren paltarik etzuen: bera iltzera zijozen eta bere burua salbatu besterik etzuen egiten.

Aiek etzirala etortzen eta beren maiteak noizbait etsiko zuten galduak izango zirala. Alare, berriak jarraituko zioten len berari. Bizi bearrak begi gorriak baiditu.

Baleak urrundu ziran edo bakandu zituzten. Aurrerapenak bazetozen eta arrapatzen errezagoak. Arraiari eraso zioten, kaia ere aunditu eta berritu, babesgarriagoa egin... Ontziak ere, arraunak utzi ta motorrezkoak.

Arrantza erreztu da, baiña urritu. Orain neke ta arraixkurik gabe aukeran arrapatuko luteke; baiña non dago arraia, mundu guzia orren atzetik dabil ta? Nere txikitan arraia aukeran zekarren arrantzaleak. Kai inguruko soroetan deabruaren usaia zabalduz an usteltzen ziran amaika milla kilo sardiña ta antxoa, zelaien ongari bezela.

Jendea ugaritzen ari zan eta eskari geiago. Arrantzua egiteko aurrerapen aundiak zetozen, arraiaren kaltegarri. Tresna bikaiñak badituzte, baiña zertarako, arrairik ez bada? Leen ximaur bezela soroetan usteldu ziranak baleude orain!... Leengo aukera ura bukatu

zan. Orainak zerbait eusten dio, baiña geroa dator bel-tza edo gorria.

Euskal Erriko kairik geienak arraixku txarrekoak ziran, eta batzuk ala dira oraindik. Ondarribikoa zer esanik ez. Beraren arteera-sarreretan amaika arrantzale galdu da. Orioko barrak beiñepein izen txarra zeukan garai batean. Ondarribikoak berdin; izbera zanean, atera bat baiño geiago izaten zituen, eta danak arraixku txarrekoak. Ia Biarritzeraíño ondartzatza utsal agertzen bazan. Noizbait goitik eta beetik arresiak jarritz antolatu zuten. Gaur dagoen kaia ez da aundia, baiña bai luzea, Amuteraiño irixten dana.

Sagartzazuren ondar lekuan ibai ertzean non-nai badaude txalupak, inguruko langille ta baserritarrenak. Egokiera dutenean itxasora joango dira, legorreko irabazi pixarrari laguntzeko.

Ori dena ikusi du itxasoak, aldaketarik egin gabe. Arrantzaleak, berriz, gizaldi bat galdu orduko bestea dator aurrerapen berriekin. Orain arte olaxe joan da. Itxasoak orroak aterako ditu; ez, ordea, gertakizun oiek kontatu.

Orduan arrantzaleen bizimodua arraixku aundikoa zan, ez ontziak aulak ziralako bakarrik, enbatak uste gabe arrapatzen zituenean batez ere. Gaur ontzi obeak dituzte, azkarragoak eta beste aurrerapenak. Ia utsik egin gabe, ogei ta lau orduz leenagotik antz ematen diote denboraleari.

Ez dute leen ainbeste arrapatuko; baiña gutxiagorekin geiago irabazten dutela uste det. Kaian ez da leen bezelako ixkanbillarik nabaitzen. Orduan arrantzaleen emakumeak zai egoten ziran, ontziak noiz sartuko. Beren buru-saskiak, zumezkoak edo zumitzezkoak, zamatuko zituzten arraiatz. Burute aundi bat jarri; aren gaiñe-

an saskitxo, andik ur jario; esku batean astagailoa; bestea, gerrian babestua; besoak, sendo askoak, ukaldondoraiño agerian; gonak ere motz samarrak, anka zuztar sendo askoak erakutsiz, eta orrela zabalduko ziran, leenengo errian, gero inguruetara, oiuka.

Erostunak betiko saltzailleari itxogingo zion. Beren tratu legea egingo zuten, baiña motxa, besteak aurea arrapatzeko beldurrak. Elkar maiteak izango ziran, baiña saltzeko kontuan etzegoen bromarik. Andik baizekarten sendian bear zutena. Asko umez beteak; gaur baiño ugariago noski. Aiton-amonak ere bai leku askotan. Aiek mantendu ta jazteko nonbaitik atera bearko zuten.

Ontzirik etzutenak, berriz, arraia erosita zijoazen saltzera. Zer irabazi atera bear zuten ura salduta?

Ixkanbil oiek ixildu ziran; baiña txikitan ezagutu genduenok zorutzen egoten giñan emakumea saltzera ateratzeko orduaren zai. Bat saltzen ari zan bitartean, besteak aurea artuko zion. Olaxe ibiliko ziran elkarren leian, zeramaten arraia saldu arte. Erostunak ere, ordea, maltzurak izaki, bazekiten itxasoko ugiñak bezela gora joango zirala, baiña beera ere biurtuko zirala. Leenengoak onenak aukeratuko zituztela? Ajola zien. Saltzailleak zekena izatearekin etzuen ezer irabazten, eta beerrakoan merkexego jarri bearko zuen, arrai guzia saltzezkeroz.

Orduan, arrai geiagorekin, eta lana ere berdin geiago egiñez, gaur baiño gutxiago irabaziko zuten.

Orain zenbait arrai mota arrapazkan dago. Kaiera sartu orduko kajetan sartuko dituzte. Kamioi aundiak bete ta emen salgai jartzerako, Bartzelona ta Madrid alde ortara irixten da, arrairik onena gaiñera,

Euskal Errian, berriz, erri bakoitzak badauka, batere aundiak badira beiñepein, bi edo iru arrandegi. Lan gutxiagorekin irabazi ohea dute gaurko egunean.

Oraindik arrantzaleak badaukate beren bizibidea, arrai mota asko urritu badira ere. Geroak kezkatzen dituenetan. Gaurko ontzi auekin urrutietara joaten dira. Bere garaian badakite arrai mota askotatik aukera ekartzeko, batez ere atuna. Ori dena, ordea, beeraka dijoa; eskea, berriz, azitzen; eta urrutietako ontziak ugaritzen.

Lengo arrantzaleak etzuten noski oraingoei begiratu ez zuten lana egin. Oraingoak ere ez gerokoei. Ortan dago arraixkurik txarrena.

Urteen buruan kai auek guziak arrantzalerik gabe geratuko diran beldurra badaukat, guk ez badegu ikusiko ere, nik ez nuke ortan igerlea izan baiña.

Itxasoan ikaragarria da. Eguneroko sarraskia ere bai, ordea, eta aurrerapen guziekin. Ori beldurgarria da. Arraiak ez dauka babesik. Eizarekin ere berdin gertatuko zaigu.

Ondarribiko kaian, beiñepein, orain ez da arrantzalerik palta. Ontzi aundietan ez ditugu zama eramanezkarrian dabilzan oiek jartzen. Oiek ez daukate emen sartzerik, arrantzakoak baizik. Iger mutur pean arkituko dituzu ontziak, jolaserako ta arrantzarako ere berdin. Aspaldi egindako kaia daukate arrantzaleak. Beste bat berria ta obeto egiña nai luteke.

Agindua daukate non ta nola egin. Garbitu ta laster lanak asiko diran itxaropena ere bai. Alare, denak ez datoz batera, eziña da ta. Baiña beti luzatzen, atzeratzen... Ontziak, zenbat eta aundiagoak, leku geiago bear dute. Beiñepein, asmoak badira.

Alare, beldurrak dabiltz, Ondarribitik Biarritz alde-rako zubia bezela ez ote dan geratuko. Leenengo arria

jarri omen zuten; baiña bigarrenik gaurdaño beiñepein ez.

Udalak ere, lanak egiten asterako, bere neurriak artu bearrak dauzka. Badaki arrantza ez dala ugarituko; or-tatik ez dala leen baiño geiago sartuko udaletxeko ku-txetan. Arrantzaleentzako erreztasuna jartzea ona da; Baiña ereiten duenak zerbait jaso nai izaten du.

Eraman-ekarriko ontzi aundi oietakoak sartzeko mo-dukua izango balitz, orduan oiek irabazi puska bat utzi-ko luteke. Erriari lana eman ere bai.

Exer lekuan, bakar bakarrik baiña jende artean, ol-dozpen auek nerabilzkien, bada, nere buruan. Mundu onek zeraman abailarekin ez ote zan gure itxaso zaar au betiko antzutua geratuko? Zamaketarako ta jolasera-ko bestetarako ez ote zuen balioko?

Kezka auek ez dira nereak bakarrak. Geiagori ere en-tzun dizkiet. Geroko gizaldietarako jipoirik txarrena izango litzake ori.



## Beste kezka bat

---

Oldozpen auek buruan nerabilzkiela, bada, sakeletik kuadernotxo bat atera ta leendik bururatua neukan lan bat egiteko lerro batzuk idazten ari nintzala, arrantzale zaar bat exeri zan nengoen arrian bertan, eskubi aldetik, itxas zabalera begira, joanaren oroipenetan murgildua.

Exeri ta bereala zigarro bat piztu eta bere ari xurgarka itxas araindira begiratzen zuen. Igerrri nion lantegi ortatik erretiratu berri samarra izango zala eta ezin etsia.

Ni idazten ari nintzala ikusi nindunean, zear begiratu bat egin zion arri gaiñeko kuadernotxoari; eta, arnas luze bat artuz, ala galdetu zidan erdi parrez:

–Euskalduna zaitugu, noski?

–Zertatik igertzen diozu?

–Euskeraz idazten ari zeralako.

–Eta arritzekoa al da ori?

–Ez luke ala bear, baiña nere iritzi apalerako bai. Onera datozen geienak margolariak baidira.

–Eta ortik onera irakurtzen al dezu?

–Bai; ondo alare. Oraindik begiak argi dauzkat.

–Bejondeizula! Nik letra kaxkarra det, zu zaartu samarra, berriz, eta betaurrekorik gabe ni euskeraz ari naitzela antz emateraiño ikusten al dezu? Nik ez nioke igerrriko.

–Bai. Larogei urte bete berriak ditut. Urrutirako nere begiak moteldu badira ere, bertara oraindik or nonbait ikusten det.

–Euskeraz idazten ari naizelako arrituko ziñan?

–Egia esan nai badizut, ala egin naiz. Bai poztu ere, ordea. Gure errian ia il dute euskera. Agure batzuk bestek ez degu itzegiten. Karriketari, beñepei, irauli da beste aldera.

–Zoritzarrez egia diozu; eta orain arte erri euskalduna izan dan batek orrekin erruz galtzen du. Saldu du bere nortasuna, famelietan itzegingo dute baiña.

–Nik gure etxeko martxaren berri badakit. Zaarrok beti euskeraz ariko gera. Gazteak ere bai gurekin; baiña gero elkarrekin erderaz. Joera triste ori sartua dago Ondarribiko sendirik geienetan. Zaarrok joan alean, euskera ere badijoa. Negargarria, baiña egi gordiña ori da.

–Bai. Gaur emen nabillen orduetan oso gutxi nabaitu ditut euskeraz. Baiña fameli batek ia negar ere egin arazi dit, eta zuk esan dezun arrazoi orri lepoa moztion. Zuk diozunez, zaarrak itzegiten dezutela euskeraz eta gazteak erderaz. Nik, berriz, bestela somatu ditut. Iru anai-arreba gazte, umetxoak oraindik, elkarrekin euskeraz zijoazen irurak. Poztu zait biotza. «Etzegok oraindik dena galdua –nion nereko–. Gazte euskaldunak ere bazetozek». Beren gurasoak aurretik zijoazen elkarrekin izketan; baiña biak erderaz. Oñetaraiño erori zait biotza. Gurasoak eraman nai ez duten zama seme-alabei bota bear al diete: euskera alegia? Berak euskaldun garbiak izanik, ez dute bide ortatik jarraitu nai. Ejenplu orrekin nora goazke? Seme-alabak, oartzen diranean, erderara joko dute, gurasoak ala itzegiten duten ezkeru.

–Bai. Gure etxean ere bada zerbait olako, bai. Baiña ni ez naiz iñor eta ixilik eraman bearra. Bere lekutik ateratako ezurra bezela nabil ni.

–Arritzekoa ori: eunetik larogei abertzale edo izen ortakoak omen dira, euskeraz dakitenak geienak, eta orren gutxi mintzatzea. Ez baida itz bat ere entzuten karrika auetan.

–Abertzaleak? Izena bai, baiña ez izana.

–Orixe berbera da nere iritzia ere. Bi edo iru elkarrengana bildu, euskaldun izan ta erderaz nabaitzean, ala diot nerekiko: «Auek, zalantzarik gabe, alderdi abertzalaren bati emango zioteken bere autitza, eta nola ari dira orain erderaz?». Ni nabillen lekuan euskera besterik ez dute entzungo, ala bear ere. Abertzale izeneko oiek, ala badira beiñepein, Ondarribi geiena euskeraz nabaitu bear genduke. Baiña ez dira ala. Izena besterik ez daramate.

–Neretzat, euskaltzale ez dana abertzale ere ez. Biak bat bear dute. Abertzale dan edo ez epaitzeko, beraren euskaltzaletasunari begiratzen diot. Ez da aski alderdi abertzaleari bere autitza ematea.

–Naiago det fragista euskaltzale bat. P. N. V.-ko erderazale bat baiño. Euskadirentzat etorkizun ohea dakar leenengoak besteak baiño. Bigarren ori neretzat espaiñolista da. Orrek Euskadi saldu du. Alperrik gabil-tza. «Gora Euskadi» orrekin ez degu ezer iritxiko. Gure aberriak etsai bakarra dauka: gaztelera. Ez Madrid. Beste aldean, berriz, prantzesa. Oiek menderatzen baditugu, gurea da Euskadi. Euskera bizirik daukagun arte, beti erri bat izango gera. Ori galtzen bazaigu, nere iritzirako beiñepein, gureak egin du. Orrek egiten gaitu euskaldun. Beste erriengandik berexten gaitu.

–Arrazoi dezu. Ori galdu dan lekuan, erri xaar onek ere artu du bere jipoia. Ori ez daukagu ukatzerik. Norbaiti entzun nion onoko bertso au:

Atzerritarren mende  
gaude gu aspaldi,  
nortasuna galdutzen  
goaz geldi-geldi.  
Euskera dabilkigu  
gizaldiz gizaldi,  
orri eusten bazaio  
salbo da Euskadi.

–Bertso ori kantatu zuenak zerbaiten berri bazekien.

–Ez gera konturatzen erriaren ia eunetik larogeik abertzaleei ematen diela botoa. Sar zaitez Ondarribiko karrketan eta ez dezu euskerarik entzungo. Non sartu dira oiek? Non dago oien abertzaletasuna? Euskerarekin il zaigu Euskadi.

–Norbaitek min artuko du; baiña, nere iritzi apalean, bere izkuntza bezela euskera utzi ta gaztelera artu duen euskaldunak «Gora Euskadi!» egiten dituen oiua alperrikakoak dira. Benetako aizuna da ori. Gorputz ta anima espainolista. Bearbada euskera musuka ibilliko du, erderaz oni goratzarre egiñez, baiña musu utsarekin ez da biziko. Jan ere egin bear du; itzegin, alegia.

–Erri ontan *korrika* deitzen dioten agermen ori jarri zuten gure etxe aurrean. Diru kobratzeko bazituzten beren kontrolak. Gazte batzuk zeuden. Etxetik atera nintzaneko, iru gazteak oiua egin zidaten: «*Oiga: ¡dinero, dinero!*» –neri eskatuz. «Baiña zertarako?» –galdetu nien. «*Para el fomento del euskera*» –erantzun zidaten lotsa gutxirekin erderaz. »Alazankoa! –erantzun nien–. *El mejor medio es hablarlo*. Ez diguzute adarra gaizki jotzen: euskaldun bati abertzale batzuk euskera indartzeko erderaz dirua eskatu. Nork sinistu bear dizute benetan zabilizatela?». «*No nos han enseñado*» erantzun zidaten.

«Orrenbeste maite badezute, ikasi. Bestela, jarri emen euskaldunak». Olako lotsagabekeriak askotan ikusi ditugu. Eta oiek abertzaleak dira; gu, berriz, fazistak, oiuka aritzen ez geralako. Ez dira oartzen aiek beren biotza saldu diotela Euskadiren etsairik indartsuenari.

–Gu bizi geran arte iraungo du. Or konpon bitez besteak!

–Bai; errez esaten da ori. Orrengatik orrenbeste supritu ta gero, ez nuke mundu ontatik kezka gaizto ori eraman nai.

–Ondarribik egundo baiño eder ta lilluragarriago dauka gorputza. Emakume batek bezela, badaki bere soiña dotoretu ta zaintzen; baiña anima saldu ta gero. Orixe da nik emen arkitzen detan aldaketa gaiztoa. Euskal Erria zana Kastilla biurtu zaigu, deabruari bere bizia salduta. Madridko zilbor zaleentzat tanto bat geiago. Ementxen nago, bada, oldozpen triste auek nere buruan darabilzkidala, itxas zaar oni begira. Azkeneko langaraiño iritxi banaiz ere, ez nuke oraindik ortik aurrera igaro nai. Emengo itxas aurre ontan begiak ase, birikak garbitu, biotza ere zerbait lasaitu... Mugarik gabeko itxaso onek besterik eskeiñi dezaiguke?

–Irurogei urte igaro ditut nik itxasoarekin burruka, maite nituenei ogi koxkor bana ekartzeko. Amaika arraixku, neke ere bai, lagun maiteak itxasoak irensten ikusita. Baiña eziñaren aurrean utzi bearra, ez aspertu naizelako. Esan dizudanez, begiak legor badauzkat ere, biotza negarrez. Nere seme ta billobak itxasoratzen ikusten ditudanean, goibel jartzen zait barrua. Nere aita ta aitona ere, noski, olaxe egongo ziran ni joaten nintzanean. Gure izaeraren legeak olakoxeak dira: beste bati utzi bear lekua, guri asabak bezela. Zer egingo diogu, bada? Etsipenak jo ta beeraka dijoan aiton batentzat eta

bere osasunerako pipirik gaiztoena ori da. Ezer ezin dezula egin eta besterentzat enbarazu. Amabi urtetarako asita, leenengo igo ta igo aldapa gora noski. Bein beerra ka asi nintzan, ordea, eta, zuk diozun bezela, iritxi naiz azkeneko langaren aurrera. Bai al dakit zeren billa? Zer arkituko detan beste aldean?

–Eutsi, aitona, zure sinismenari. Berdin gure azken urte auetan, langa orren aurrean, ori da gure poz bakarra: beste aldean argi ta garbi Jainkoa arkituko deguna. Onerako edo txarrerako, ori gure esku dago, baiña bere borondaterik onenean eskeiñi ziguna emateko. Neri sinismenak ori erakusten dit. Bitartean, ez ditzagun alperrik galdu gure azken urte auek.

–Pozten naiz zu ere itxaropen orrekin bizitzea. Ni ere ala nabil. Zer atera eraziko esan dizut.

–Mundua dijoakigun ezkerro, etzagun betikoa izango zaiguna galdu. Aurrean ezin egonik ikusten degun itxaso zaar ori zenbat ondarribitarrentzat izan ote da illobi?

–Nere gogoan ere amaikatxorentzat bai. Leenagotik, berriz, Jainkoak jakingo du. Orduko kai ta aurrerapen kaxkar aiekin, negar egingo zuten batzuek eta besteak.

–Itxas-ertzeko kai txiki auetan sartzen naizen bakoi-tzean, biotza tristuraz betetzen zait, arrantzarako galduko diran beldurrak. Arraia bukatzean, beste bizibide berrri bat artu bearko dute. Eta itxasoa antzutuko dan beldurrak al zaude?

–Bai, adiskide, daraman martxa ontan. Gure txikitatik gaur arte egin duen baja ikaragarria da gero; eta ori azitzen joango da. Kentzen zaion ainbeste ez baidu sortuko. Arrai mota asko ia galtzeraiño etorri dira. Aspaldi ontan kezka ori badabil nere biotzean ere: itxasoa antzutzen ez ote zaigun ari. Baiña gai ontaz itzegitea etzait

batare atsegin. Utzi zaiogun orri, ta orain barkatu galderatxo bat: nor zaitugu?

–Ez dakit nola adierazi. Ez naiz etxean bestetan ezaguna, eta Ondarribi ontan gutxiago. Atafño naiz, zuretzat ezer esan nai badu izen onek.

–Bai, bai; entzuna daukat, askotan gaiñera. Eta emen artzen dituzun oartxo oiekin zer egin bear dezu?

–Beste liburutxo bat, zuk laguntzen badidazu.

–Alajainkoa! Ori erreza dala uste al dezu? Ortarako asko ikasi bear da.

–Ez, gizona, ez. Neronek asmatuta egin baditut, zuk lagunduta askoz errezago. Kontalari on bat bear da leenengo, eta gai aberats bat. Urrena, berriz, jaulkitzen diotena kuaderno batean idazten dakiena, eta orrekin egiña dago liburua.

–Orduan nik zerbait kontatzea nai zenduke?

–Erdiz erdi asmatu dezu. Ondarribi sortu baiño leen aurreneko arrantzaleak itxaso ontara sartu ezkeroztik onuntza, merezi luken gertakaririk ez ote zan igaroko? Batzuen lanak badakizkigu. Oien izenak jasoak daude. Onak edo gaiztoak ziralako erriak gorde ditu. Baiña zure bizitza luze ortan ez ote da olakoren bat izango? Zuk konta zaidazu dakizun bezela, eta ikusiko dezu nolako liburua aterako degun. Agian bat baiño geiago. Zuk borondate ona badaukazu beiñepein, ori erreza da.

–Euskeraren onerako bada, edozer, beti eraspen aundia izan diot gure izkuntzari eta. Badakizkit istori bat baiño geiago, bat nere lagun batzuen artean gertatua, ez du noski garrantzi aundirik baiña. Senar-emazteen arteko billaukeri ikaragarria bat, eta ixilik gordea. Dakitenak bizi dira oraindik. Oietako bat ni. Atzo genituen lagun oietako baten illetak. Lagun aietatik bi geratzen gera.

–Garrantzia daukan ala ez bukatutakoan igerriko diogu. Ondo kontatu bear, ordea. Or dago ipui baten grazia. Beste izen batzuekin jarri ta kito. Zuk kontatu, bai, ta iñork miñik artu ez dezan gero konponduko degu.



# Aurtzaroan

---

Lau lagun giñan, auzoak. Iru mutiltxo ta neska txiki bat. Mutillak, irurak kinta berekoak. Neska, urte beteren bat gazteagoa, noski. Esan genezake lau mutil giñala. Neska gerora aldatu bazan ere, gaztetan guretako bat zan.

Kasimiro genduen bat. Ordurarte, beiñepein, saillean maitagarriena. Seme bakarra ta maiorazkoa, jakiña. Au etxe onekoa zan. Etxe-bizitza berena zuten; beste bi itzas-ontzi ere bai; arrantzakoak, alegia.

Baiña etzuen aundi agertu naia. Oso maitea genduen; eta, jakiña, seme bakarra bezela, etxean ere ala zuten. Karamelo ta goxoki asko ematen zizkioten. Ez giñun, ordea, bein ere inbiritan edukiko. Lau-bost urtetarako gaztetxo baten biotz gozoa laster asi zitzaigun erakusten. Lauak batera arri txabal baten ondora bilduko giñan. Oraindik orduan bezelaxe dago arri txabal ura; eta, illetatik etxerakoan, bere ondoan egon nintzan atzo. Gazte maitagarri ura baita atzo il zitzaiguna. Gaztetako oroitz goxoak antze berritu nituen.

Laurak batera ara bilduko giñan, bada; ta arri txabal aren gaiñera ustuko zuen bere karamelo-txorrotxoa, eta banaka-banaka dena bukatu arte egingo genduen aukera aldiko bat, eta beti neskak artuko zuen leenengo.

Ordurako bazekien, sei urte ez genituen izango ta ura etzala beste irurak bezelakoa; eta neskak benetan eskertzen zion.

Txerrimuniak ordaiñetan izan oi dira, ta guk ere pozik aukera ori jarriko genduen, aren ejemploari jarraituz.

Guraso maiteak ez ematen, ordea, Kasimirori bezela guri. Karamelotara gabe zertan kastatua bazeukaten. Alare, onek ekartzen zituenean ez genduen atzera egingo. Arri aren gaiñean izango zan gure betiko aukera. Atzo kanposantura eraman genduen ori zan, bada, olako mutilla. Emateko kontuan ona, baiña jenio bizikoa.

Etziguten ondartzara joaten uzten, aundiagoren batek ez bazigun laguntzen. Kalera ere ez. Oraindik arraixku txarra zegoela an guretzat esaten ziguten gurasoak. Jakiña, oraindik aurrak giñan ta...

Ondarribiko karrketan, bai, uzten ziguten. Etzegoen orduan gaur bezelako arraixkurik. Orain ainbeste berebil, moto ta txirrindula etzebillen garai artan. Ondarribi erri paketsua zan.

Etzetik atera orduko elkarrekin giñan, eta askotan amak etorri bear gure billa, bere beste zeregiñak utzita. Orduaren berri ez baigenduen oraindik ikasi. Errita lege bat emango zigun; sudur-zapi batekin garbitu ere bai gure arpegia; musu bat eman ta eskutik artuz etxera. Nere amaren pazientziak etzeukan neurririk.

Bein eskolara joateko adiña iritxi zitzaigunean, nere arreba zaarrenarekin joango giñan ikastera, eta etorri ere bai. Gu baiño urte batzuk zaarra goa, bera ere ara baizebillen.

–Orduan akabo zuen askatasuna?

–Bai; alaxe da. Ez genduen berealakoan ango bizi-modu estuan etsi. Nai genduen egiten oituak baigeunden ordura arte; ta gero maixtra kaxkar erdaldun baten mende an egon bear. Itza ta putza ariko zan, baiña guk ez genduen ezer ere ulertzen.

Gu baiño neska ta mutil aundiagoak baziran. Aiek goitik begiratzen ziguten. Alare, polliki-polliki an ere oi-

tutzen asi giñan, aldaketa auetan denei gertatzen zaiguna baida ori.

Baiña naiz ikastetxean edo bidean, gu laurok berexi eziñak giñan. Bein, gogoan daukat, Kasimiro genduen saillean aundiena gorputzez, izuti samarra baiña bizia, bereala berotzen zana.

Bere moduko batekin lotu zan. Ura bai lotsagabea eta izlari ona. Kasimiro total samarra zan, berriz; eta, asarretzen zanean, motelago oraindik. Baiña urteekin ederki jarri zan. Gure laguna asi zan itzak ezin bukatu-rik. Besteak, berriz, iseka egiten zion.

–Tu, tu, tu... Amar urte badituk eta oraindik izketan ez dek ikasi. Illunabarretan arri azpian txistuka aritzen dan xapo oietakoa dirudik.

Etzion izketa au askotan egin. Ezker-eskubi, bi uka-billak laster zituen muturrean. Beste bi ere bai aguro asko, ez balituzte berexi.

–Izketan ez dik jakingo, baiña muturrekoak ematen bai orratik –sudurretik odol jario ta negarrez zegoenari esan zioten berexi zituztenak. Urrengorako eskarmen-tua.

Maixtrak ikasi zuen ori ta Kasimiro zigortu zuen, *sin comer* utzita. Baiña gaizki egiña. Iñor zigortzekotan, besteak merezi zuela esan zioten maixtrari ikusi zutenak.

Illebete gutxi barru lasaitu giñan. Bai lagunarte artan etsi ere. Baiña beti bagenduen okasioa. Pedro gure irugarren laguna zan olakoa.

Kaniketako jolasa bete-batean zegoen orduan ikaste-txeetan. Eskolan saioskadak egiten genituen etxerakoan, eta karriketan ere bai. Galtzen bazuen, beti Kasimirok zeukan errua eta ari erasoko zion. Zipoka asiko zitzai-ona. Bukaera, berriz, jakiña: muturrak bero-bero

egingo zizkion Pedrori mazpiltzeraiño. Au ormaren ondoan bere burua babestuz, astoak bezela arrantzaka erasoko zion, eta desapioka.

–Ez dek arrazoirik eta beti erea egin bear! Ikusiko dek ni azitzen naizenean! –oiu egingo zion.

–Sekula azitzezkeroz, badek ordu. Urte berekoak gaituk biok.

Aren marruak entzunik, Ixabel urrikalduko zan; eta, Kasimirori begiratu zorrotz batzuk egiñez, negarrez zegoena poztera joango zan. Ixabel au zan gure laguna. Ixil-ixilik, semetxo bat balu bezela, bere gonaren mutur batekin malkoak legortuko zizkion, esanez:

–Ez negar egin, astakume bat besterik ez da ori ta.

Bai au aguro ixildu ere. Orregatik asten omen zan arrantzaka. Ez da gero ume baten maliziak noraiño irixten diran asmatzen erreza. Guregandik berexi ta elkarrekin joango ziran etxera.

Amar bat urte bagenituen ordurako eta Kasimiro Pedroren ondoan mutil bikaiña zan. Neskak ikusten zuen indarrez ere askoz geiagoa zala, eta noiznai karameloz asetzen zuela. Baiña, alare, bestea maite zuen. Itxua bai da maitasuna. Ala izan bear du.

Ordutik asi giñan kaiara joaten. Ango tresnak, ontziak eta arrai tartean barrena, an ibiliko giñan, gure aiten ontzietan igo ta jetxi, lana egin bear zutenei galerazten.

–Alde egizute emendik, umeak! Ez al daukazute beste non jolasturik?

Eta aurrean bialiko giñuzten andik.

Itxaso paketsu ta ona zegoenean, bai paseotxo bat egitera itxasora eraman ere. Baiña barruan genituenak an joango ziran urera.

Ondartzan ere maiz izaten giñan gu. Ia amaika-ama-bi urtekoak, arraiak bezela genekien igari. Lotsa aundi gabe arri gaiñean utziko genituen gure jantziak, eta amak mundura ekarri giñun bezela larru gorriarik sartuko giñan.

Uste al dezu Ixabel, ia gure adiñekoa eta neska azia, gu nola genbiltzan begira egongo zala? Ez orixe. Eranztziko zituen bere soiñekoak eta, gureen ondoan utzirik, larru gorrian sartuko zan gure artera, bere ille orixta bi mototsetan bizkarrean beera eta begi aundi urdinxtak. Gu aspertu arte, guk egiten genduen guzia egingo zuen arek ere, inoxente-inoxente.

Bein baiño geiagotan, an zebiltzan emakumeak ikusita, erritan emango zioten:

–Lotsagabea aleena! Ama aiñakoa egin aiz eta larru gorriarik baldin baabil mutillen artean!

–Eta beste irurak ez al dabilta ala?

–Bai; baiña oiek mutillak ditun.

–Oiek, mutillak diralako, nik baiño eskubide geiago al daukate, bada?

–Utzion pakean –esango zion berarekin zijoan lagunen batek–, berdin begia zabaldu besterik ez dion egingo ta. Burutik zerbait palta din orrek.

Amak ere ikasten zituen alabaren ibillerak eta lotsagabekeriak, emakume aiek esanta, noski.

–Badakin iregatik zer esaten ari zaizkidan?

–Gutxi gora-bera badakit nork eta zergatik. Baiña nik ortan txarrik egiten al diot iñori?

–Larru gorriarik ibiltzen omen aiz ondartzza alde ortan igari, mutillen batzuekin.

–Bai, ama, nere lagunekin, aiek ere larru gorriarik ibiltzen dira ta.

–Ni aiñakoa egin aiz eta ez al aiz lotsatzen?

–Aiek ni baiño aundiagoak dira eta iñork ez die ezer esaten.

–Aiek mutillak ditun, ordea.

Gu bezelaxe, oraindik Ixabel lo zegoen. Baiña urterik atsegiñenak ari zitzaizkigun joaten guri ere.

Neska esnatuko zan leenengo, ia egun batetik bestera. Laurak joan giñan batean, gu, iru mutillak, sartu ondoren, Ixabelek atzera egin zuen.

–Ez al dezu sartu bear? –galdetu genion.

–Ez. Zuen erropak zaintzen geratuko naiz –esan zigun apal-apal.

Andik aurrera ere guk berdin jarraituko genduen. Ixabel ere gurekin etorriko zan, baiña etzan erantziko. Oiñetakoak kendu ta urean ibili, guk bukatu arte. Nork erakutsi zion ori?

Gu baiño leenago esnatu zan; baiña etzuen alare gurre saillik utzi.

Baiña noizbait berexi bearra izan genduen, eta ba-koitza gurasoak aukeratu ziguten bidetik abiatu giñan.

## Berexi bearra

---

Eskolatik iru mutillak batera geratu giñan. Ixabeli gurasoak jarraitzeko agindu zioten, baiña etzuen nai izan. Bere iru lagunak geratzen ziran ezker, etzala joango, gu baiño urte bete gazteagoa izan arren.

Andik aurrera jostera bialtzen zuten; baiña laurak banaka geratu giñan alare, Kasimiro ez besteak, Ondarribian. Au, zerbait geiago ikasi zezan, eta bitartean bere burua mantentzeko, morroi txiki bezela seminario batera biali zuten gurasoak. Ez, noski, apaiztarako. Alaba geiago bazituzten, baiña semerik bera bakarra.

Beste guziak emen utzi ta joan bearrak naiko naigabeak eman zizkion. Ainbeste urtean elkarrekin ibilitako lagunengandik berexi, alegia. Eta bere erri xaarrear bezelako askatasunik etzuela izango andik aurrera. Zenbat urte igaro bearko zituen ain gutxi.

Kasimirok ama illa zuen. Umezurtza zan, bada. Amonak egiten zuen etxekoandretza. Aiton-amonak, beraz, bizi zituen, sasoi onekoak oraindik. Eta iru arreba ere bai, bera baiño zaarragoak.

–Aizak, Kasimiro: ikasteko gogorik bai al daukak? –esan zion bein bere aitak, itxasorako gaztetxea zala ta.

–Orain arteko maixu kaxkar orrekin ez, beiñepein.

–Ori dek. Emengo eskolak utzi bearko dituk, baiña ez ikasteari. Beste aizeak artu bearko dituk. Orren bearrean izango aiz. Emen daramakigun martxan ez dit ire bearrak oraindik beiñepein. Baiña arrantzan jarraitu nai badek, eta Jainkoak nik bezela, i geratuko aiz emengo martxaren buru. Gure ondasunen jabe ere bai. Alperrik

denbora galdu ez dezaken, zerbait geiago ikasi ta obeto preparatzea komeni zaik.

–Arrantzara joateko zaleturik nengoen ni ta...

–Utziok orri oraindik beiñepein. Lana egin nai badek, etzaik paltako. Ontzako urreak baiño obeto izango dek ortatik. Ire lagunak ere ez dituk oraindik arrantzara joango, neri beren gurasoak esan didatenez. Pedro maxkarrarekin beren buruausteak izango dizkitek. Alde batera, aula ta eskasa; bestera, berriz, tonto samarra. Astarra baiño egoskorragoa. Ori iñorako ez dala geratuko dek. Etzekitek zer egin orrekin. I beiñepein joango aiz, eta ez oso leku txarrera.

Kasimiroren aitak Pedrorengatik ziona dena egia zan. Aula, alperra, tontoa, denak izango zituen; baiña deabrua berbera ere baiño gaiztoagoa.

–Orduan nik zer egin bear det?

–Amabi urte dauzkak eta beste urte pareren batean naiago nikek beste zerbait geiago ikastera joango baintzake. Agian ire toteltasuna ere kenduko litekek, ortarako maisuak badituk eta.

–Ni, aita, aspertua nago ikasteko kontuan.

–Bejondeikela, motell, oraindik lau reglak ez dituk ikasi ta. Ik orain dakiken ainbeste nik ere bazekit. Ez dit injenierotza ikastera joango aizenik esaten. Emengo martxa eramateko ez dek orrenbesteren bearrik. Baiña orain dakiken baiño zerbait geixeago bai, batez ere trabarik gabe itzegiteko moduan.

–Naiago nuen, bada, nik arrantzara joan.

–Arrantzako ontzian ik zer egin bear dek? Orain an lanean ari geranoi enbarazu besterik ez.

Bere lagunak utzi bearrak, agian betiko, min ematen zion Kasimirori. Baiña, aitak beste leku batera joateko



agintzen zion ezkerero, etzan bere kalterako izango; eta ala galdetu zion berriro:

–Orduan nik zuen arrantzarako martxa utzi egin bearke det?

–Ez dik iñork olakorik esan. Ez dik i besterik gizonekorik etxe ontan, eta aspalditik belaunez belaun daramakigun martxa oni jarrai lezaiokenik. Gu baiño zerbait jantziagoa nai iñuket. Arrantza jolas bat dala uste al dek? Orren gogozko bazaik, aukeraren paltarik ez dek izango. Itxasoarekin ere burrukak egin bearke dituk. Aitonak aiña urte itxaso barrunbe ortan pasatzerako, aspertuko aiz ederki. Ez dek non joaren paltarik izango. Ekaitzarekin ere ire burrukak egin bearke dituk. Ire biziaz etsitzeraiño orduak etorriko zaizkik, itxasoasa erre dagoenean. Ni nabillen ontzian ere ikusi izan dizkit ontzitik aize erauntsiak gizonak kendu ta itotzen; eta ezin salbatu. Illebetetarako tristura sartzen zidak neri olako batek biotzean, ontzira joan ta aren utsuna nabaitzean. Beren maitei orren berri eman bearra ere ez dek oso atsegiña. Ez dek arrantzarik utziko. Gure asabak arratoi bat baiño beartsuagoak itun. Gure aitona eman zioken gaur artu degun gorako au. Eutsi zaiogun eta, aal badegu, jaso. Sartu-ateerak zuzen eramateko kontularitza ikasi bear dek. Oso erreza dala esan zidaken ire osaba apaizak.

–Eta nora joango naiz, bada, ni?

–Seminario batera.

–Nik ez nuke apaiz izatea nai.

–Leen ere bein baiño geiagotan esan dit emen gure martxari ik jarraitu bear diokela, arrantzale bezela alegia. Apaiz ez dekala izan nai? Karrera txarra litzakela uste al dek ori? Guk baiño buruauste gutxiagorekin ba-

po bizi dituk oiek. Guk lanak ezin buruturik gabiltzan bitarte, gure larritasun ta ixkanbillak ikusiz pake-pakean eta kaian gure artean pasiatzen ibiltzen dituk oiek. Baiña ortarako ere norbaitek bear dik. Danetarako zegok jendea mundu ontan. Geienez gurasoak jartzen dizkitek seme-alabak abian beren bidean. Seminario batera joango aiz, baiña ez apaiz ikastera, ango morroi txiki bat bezela baizik. Ango garbitasunak egin ta apaizgaien maaia jarrita, bitartean ere burua mantenduko dek. Zerbait sari ere emango ditek; eta egunero, goiz ta arratsalde, bi ordu ta erdi izango dituk ikasteko. Maisu onak ere bai.

–Olako leku batera joan bearrak lotsa ematen dit. Iseka egingo didate. Ni ez bainago lagunarte ortan oitua.

–Etzekit zergatik. Ire antzeko geiago ere badizkitek an. Bat ondarribiarra, gaiñera: olako baserritakoa. An dagoen maisu bat ire osaba dek, ama zanaren anaia. Beste guziak ere i bezelako euskaldunak dituk. An bezelako errespeturik, zerbait ikasteko, iñon ez dek arkituko.

Kasimirok etzion ori dena sinisten aitari. Ango biziera atsegiña zala iruzurtuta, baietza emateko ipuiak zira-la oiek denak. Ez baizituen bere Ondarribiko lagunak galdu nai.

–Eta nola dakizu ori dena?

–Ez nauk izan zaarra. Ire osabak, goitik asi ta beraiño, etxe guzia erakutsi zidaken. Etzidateken neri olako aukerarik jarri.

–Eta urruti al dago etxe ori?

–Ez, motell. Gipuzkoan bertan, Mutrikun. Saturran deitzen ziotek. Ondarribian biziko baintzake bezela dek ura iretzat. Itxaso bizia aurrean. Asarre dabillenean,

etxeraiño sartzen dituk ugiñak. Etxetik ogei metrora asten dek ondartzat luze bat. Emengoa aiñakoa bai, noski. Ire arrantzako gogoak asetzeko ez dek leku oberik arkituko. Mendi aundi batzuek inguratua. Ez dek atzera egingo, noski?

–Ez, aita. Olako lekura ez. Gaiñera, zure eskaria agindu bat da neretzat. Bai-baidakit nere onaren billa zabiltzala.

–Bejondeikela, Kasimiro. Ama bizi izan bazan, musuka jango iñun. Urte pareren bat igaroko dituk an. Amalau urte betetzean ekarriko augu, noski, aitari laguntzera, aitona ere ezer gutxitarako zegok oraintxe ta.

–Eta noiz joango naiz?

–Ia udara guzia ire mende daukak emen, agorraren erdi aldera arte. Apaizgaiak joan baiño amabost bat egun leenago, ango martxa jartzera. Baiña bizi adi lasai, alde zurretik ikasiko dek eta.

Ortan geratu ziran.

Bear zituen jantzi ta trasteak eramateko, andik eskatu bezela, moldatu zituen aitaren amak, eta joateko egunaren zai geratu ziran. Etzan asarre Kasimiro, leku berriak ikustera joango zan ta. Baiña etzituen onek bere iru lagunak aaztu.

Udara guzia elkarrekin igaro zuten. Pedro, *Maxkarra* esaten ziotena, pot eginta geratu zan. Beste iruren artean ñañoa. Neska ere benetan luzatu zan.

Igande arratsalde batean laurak joan ziran ondartzara. Baita Ixabel ere, ia emakume egiña, oraindik gaztea izan arren, bere eskolako lagunak ezin utzi zituena. Kasimirok zorro aundi bat zeraman eskutik txintxilik.

–Zer ote dakar or? –galdetzen genion guk elkarri–. Pastelen batzuk agian.

Leenengo, beiñepein, igari egin bear genduen. Gu, beti bezela, larru gorririk murgildu giñan itxasora. Gu-retzat etzegoen lotsik, oraindik beiñepein. Iñoiz baiño saio luzeago ta obea egin genduen. Auskalo berriz noiz urbilduko giñan elkarrekin.

Ixabel ikusten genduen supritzen zegoela, pozik sartuko litzakena, baiña lotsaz.

–Atoz gure saillera, oso ur epel ta goxoa dago ta.

–Ez –erantzun zigun–. Oiñetakoak erantzita urean ibiliko naiz, zuek aspertu arte.

–Zaude pixka bat. Orain oroitzen naiz. Nik badet zuretzat ortarako jantzia.

Zekarren zorro artatik atera ta eman zion.

–Nere arrebak eman dit zuretzat, berak txikiegia duela, nai badezu beiñepein.

–Eskerrik asko, Kasimiro. Pozik gaiñera.

Bereala aldatu zan eta bere arekin egin zuen igari.

Pedro Maxkarrari etzion onik egin. Baiña bazekien beste bi mutillak joanda bera ta neska biak bakarrik geratuko zirala, ta ordu ori etorri arte espatsu zegoen.

Atera ziranean eta jantzi, Kasimirok arri gaiñean utzitako zorro ura zabaldu zuenean, lau prantzes opil ebaki ta erdian lau urdai azpiko xerra eder banarekin prestatu zituen. Baita iru txikiko ardo gozozko botil bat ere. Laster irentsi genituen guk opillak, eta ardoa ere bai. Gero karamelo xorta eder bat. Onenetik onenera artzeko, beti bezela, neskak asi zuen aukera. Bai onek, leen iñoiz ez bezela, esker beroak eman ere.

–Zeñek eman dizkizu auek denak, Kasimiro? –galdetu zion Ixabelek.

–Amonak, beti bezela.

–Naiago nuke nik ere olako amona bat baneuka. Pozik konbidatuko ziñuzteket –erantzun zion.

–Josten ikasten dezunean irabaziko dezu. Orduan azalduko da zure biotz on ori –erantzun zioten.

Katu erdian jarri giñan, noski, eskerrak lagunak ekarri zuen ardo gozoari. Uraxe bai ona zegoela.

Olakoxea zan Kasimiro. Berarentzat ematen ziotena ere, arek beti lauron artean partituko zuen.

Ixabel beiñepein kontentu zan, ez merienda bakarrik, igari ibiltzeko jantzia ere eman zion ta.

Oiek guziak eginta ere, neskak Pedro Maxkar ura maiteago zuen Kasimiro baiño. Benetan espatsu geratu zan gure Maxkarra, txikia baiño aurreratuegia ta gaiztoa. Berekiko ala omen zion: beste bi mutillak zijoazela nai zuten lekura eta uzteko beste biei pakean, neskaren belarrietaraiño ez bazan irixten ere.

Azken agurra ematerakoan, negarrez asi zan Kasimiro. Beti elkarrekin ibili giñan lagunak utzi bearra minbera zan aren biotzarentzat.

Ixabel, katu erdian bera ere, begiak ñir-ñir egiten zioten; eta, oillanda aurrerakoi oietako batek bezela, negarrez zegoen Kasimirori musu bat eman zion.

–Orregatik ez negar egin, Kasimiro. Etortzean berriz ere emen arkituko gaituzu –esan zion.

Bazirudien bere ama zala. Baiña Pedro espatsuari etzitziaion ondo iruditu eta, setaz betea, ala esan zion neskari:

–Orri musu ematen al diozu?

–Ez. Arpegi maxkar ortan zuri emango dizut.

Gorri-gorri egiña geratu zan Maxkarra.

Urrango egunean, bere aitarekin batera, maleta txiki bat eskuan, Debako ostatu batean sekulako bazkaria

egin ondoren, joan zan Kasimiro seminario artara. Sai-  
lleko lagunik maiteena galdu genduen. Beste irurok  
maiz oroitzen giñan artaz, Ondarribian geratu arren,  
gutxitan elkarrekin biltzen giñanak.

## Nere txanda

---

Neska, Isabel, setatsu samarra bera ere, eta uko egin zien gurasoei: bere lagunak ez baziran joaten, bera ere etzala eskolara joango.

Tuntun samarra, landare bikaiña bazetorren ere gorputzez, argitasun gutxi zeukan buruan. Ikasteko motza. Beartuko zuten nai izan balute: baiña denbora galtzea zan. Maisuak ere etsitakoen saillean utzia zeukan. Etzuen negar askorik egin geratu zalako, eta jostera bialli zuten, oraindik gaztetxoa, baiña an zerbait egingo zuen itxaropenetan.

Pedro ordukoz ñañu bat geratu zan, gerora zerbait azi bazan ere, iñorako etzala, arratoi-txakur baten antzera. Txokorik txoko besteren gauzen jabe egiteko ere lotsa aundirik etzeukan arek.

Amaika belarrondoko artua zan, lapurretan arrapatuta. Kaia ta arrandegiak barrena ibiliko zan, askotan eskean. Alare, neska gazte arek maite zuen ura.

Azkenean, beraren aitak Kasimiroren aitaren ontzian egiten zuen lana ta, aren eskariz, zerbait egingo zuela eta artu zuten. Baiña aske zan orduetan etzuen onek ere Ixabel aaztuko, belarrietaraiño etzitziaion irixten baiña. Neskak eraspén aundia zion. Ez dakit maitasuna zan edo urrikaltzen zalako. Noiznai elkarrekin ikusiko zenituen, nobioak bezela.

Nik ez nituen begizkoak, ez bat eta ez bestea. Mutilla berekoi utsa zan; beti txarrerako. Neska, berriz, tuntun samarra izan arren eskolara genbiltzanean maitagarria, argi-oillarra bezela arrotu zan gero. Denak ziotete-

nez, Ondarribiko neskarik ederrena bera zetorrela. Baiña Maxkarrarekin ibiltzea etzan lotsatzen.

Txikia barrun beltzekoa zetorren. Lagunartean kas-karrena. Ezin mantendu ta jazteak ere naiko lanak ematen zizkion. Leen esan bezela, lapurretan arrapatu ta epelak artua, berriz. Gizartea gorrotatzen zuen, bada, arek. Ari on egiteak etzuen balio. Isekatzat artzen zuen. Neskak muzin egingo balio, ez dakit zer gertatuko litzaioken.

Nik ere, bada, biak utzi nituen. Kasimiro nuen nik benetako laguna. Ez nintzan aiekin ibiltzen, Ondarribitik ez banintzan atera ere, baiña aien sailletik bai.

Errira jexten nintzanean ikusten nituen; baiña itze-gin gutxitan. Neska beti ere tratuan atsegiña zan. Beste-a, ez ikusia eginta, txokorik txoko zear begiratuka, karramarroa bezela zearka-zearka bezela igesi joango zan bazterren batetik.

Lotsa ta amorrua, biak batera ematen zizkidan arek neri, Kasimirori ere berdin, gure ondoan kaskarra ta txarra zalako, noski.

Baserri batera biali niñuen aitak morroi, itxaso alde ortara joan naiago nuen baiña. Busti aldi eder bat artuta Ondarribitik etxera ninjoan batean, aita leer egiña zetorren itxasotik nere bi anai zaarragoekin, eta bertatik ala eraso zidan, berak zekien moduan:

–Bazkaltzera joango aiz, noski?

–Bai, aita. Asmo ortan noa beiñepein, ordua da ta.

–Eta irabazi al dek?

Ni, zer erantzun ez nekiela geratu nintzan.

–Amairu urte gaiñean dituk, eskolara ez dek joan nai, lanik egin ain gutxi, eta beti besteren kopeteko izerditik bizi bear al dek?



–Zuekin arrantzara joaten ez didazute uzten, ta nik zer besterik egin bear det, lanik ez badidazute ematen?

–Itxasoan ez diagu ire bearrik. Naiko jendea bagaituk arako. Baiña etxea alper ta jalez betea zeukagu; lanerako gutxi. Gure irabazia ez dek aski denak mantendu ta ondo jazteko. Beste norabait joan beariko dek morroi. Ere burua mantendu ta patrikarako ere zerbait emango ditek an.

–Eta non dago etxe ori?

–Atzo itzegin nin ire osaba Santirekin. Ea ez al detan itaurrean ibiltzeko moduko semerik galdetu zidan; arek pozik artuko lukela. Baietz erantzun nioken. Eskolara joan nai etzuen anka luze bat baneukala alperkerian, beti ondartzta alde ortan jolasean ibiltzen zana. «Gaiñera, ire besoetakoa dek». «Joxe Mari orduan?». «Uraxe. Anka ta besoak luze askoak dizkik. Sapaian zintzilik dau den armiarma buru aundi oietakoa zirudik. Ikusiko dek emendik sei bat urterako nolako arraunlaria aterako dan ura, gorputza zerbait sendotzen bazaio. Etzetorrek gai txarra. Baiña orain, beiñepein, alperkerian bizi dek». «Datorrela; beso zabalik artuko diagu» erantzun zidaken. Joango al intzake?

–Bai, aita. Pozik gaiñera. Ura beti ona izan da nerekin; eta emen zer egin ez dakidala baiño naiago det, itxaso atsegiñagoa litzaidake baiña.

–Itxasorako olako zaletasunak badauzkak, etorriko zaik, motell, ortarako ere garaia.

Alaxe joan nintzan eta, egia esan nai badet, etzitzaidan bein ere damutu. Itxas inguru au osasunarentzat ez da txarra izango. Ez, ordea, baserria ere. Giro ona dagoen guzietan kanpoan zabilta. Itxasoan beti ura arkituko dezu. Pakean dagoenean gozo, asarre dagoenean

gaizto, ez du beste aldaketarik. Ura ta ura. Baserriak, ordea, badauzka beste ikusgarri atsegiñak, itxasoak ez dauzkanak.

Udaberria zoragarria da, bazter guziak lorez jazten dituenean. Xoxo, birigarro ta beste txori guziak kantari somatuko dituzu. Kuku alperra ere basorik baso an ibiltzen da. Dena orlegi. Sagasti zabalak, elur malkoz beteak baleude bezela, loretan. Soro ta belaze guziak zer esanik ez. Denean bizi berri baten jaiotza. Udaberriak lanez gaiñezka jartzen gaitula; beste gaiñerakoan, atsegiña da baserrietan.

Udara berdin. Ezeren paltarik ez daukazu. Eskua luzatzea aski, nai dezun igali mota guzia artu ta jateko. Dena dator oparo. Eguzkia artu nai badezu, aukera. Iges egin nai badiozu, berdin.

Udazkenean, arrapa-aala guzia etxera bildu. Negu luzerako izadi guzia larru gorriarik jarriko da. Bere apaingarriak bota ta gero, badu bere tristura.

Alare, negua nik baserrian ondoena igarotzen nuen. nere txolarteenkin. Ez nuen jolas gaizki egiten. Gaiñera, ondo jan ta edan ta erdi alperkerian, basoak berriro jazten asten diran arte.

Lau giro oiek benetan atsegintzen dute baserriko bizitza. Nik, beiñepein, iru urte zoragarriak igaro nituen, eta garai ortan sekulako mutilla egin nintzan. Nere lana etzan itaurrea bakarrik izaten. Beste lantegi asko daude baserrian. Baiña idien aurretik konten ibiltzen nintzan, xoxo, birigarro ta kilkerren kantuak entzunez.

Bai ta igandeak aske geratzen zitzaizkidan. Xox pizar batzuk ematen zizkidaten patrikarako; eta, errira jextean, ondartzan nere deabrukeriak egiten nituen, baserri aietako lagun batzuekin bilduta. Gero, zerbait artu

ta illuntzerako baserrira. Aitak ez banindu arrantzara deitu, ni pozik geratuko nintzan bertan.

Errian Pedro ikusiko nuen, baiña beti ez ikusia egingo zidan. Urte oietan zerbait azi zan.

Ixabel ere ikusten nuen, bere amalau urterekin landare bikaiña. Illea bizkarraren berdintsutik moztua, ikusgarria zegoen. Iñoiz itzegiten nuen berarekin. Loreak botatzen nizkion, berak ere bai neri, baiña ez nion bein ere eraspenik izan ari. Orduan ta gutxiago. Zerbait bazuen arek nere begiak asetzen etzituena. Bein ala esan nion:

–Aizu, Ixabel: orain joango al ziñake larru gorririk gurekin igarira?

–Orduan umeak giñan. Baiña ni bezin lotsagarriak ziñaten zuek –erantzun zidan, koloreak zerbait gorritzatuz.

Bai; emakume ederra zan. Atzo genituen bere illetak. Larogei urterekin joan da mundu ontatik.

Iru urte baserrian igaro nituen, bada; ta len esan det, aitak ez banindu deitu, antxe geratuko nintzala. Itxasok baditu bere erakargarriak; baiña baserriak ere gutxiago ez.

Anairik zaarrena soldadu joan zitzaidanean, aitarekin arrantzarako bidea artu nuen. Irurogei urte baiño geiago itxasoarekin burruka ibilia nauzute, bada.

# Kasimiro

---

Au apaiztegian utzi genduen. Oso maitea zuten an. Bai aalegiñak egin ere apaizgoa ikasteko, bertan geratu erazten. Baiña beti ezezkoa ematen zien. Seme bakarra zala eta bere aitak itxaropen osoa semeagan jarria zeukala, itxas-ontzi bien martxarako.

–Aizazu, Kasimiro: zergatik etzera gure artean gertatzen?

Baiña etzan ori bere osaba apaizaren aolkua:

–Gogoa badaukazu, geratu. Baiña ez emengo maisuak esaten dizutelako. Zuk aita ta aiton-amonak daukazu jaso bearrak, Jainkoaren agindu bat dalako. Emengoa, berriz, borondatezkoa da.

Kasimiroren erantzuna adarra jotzeren bat izaten zan beti:

–Ez, jaunak, ez. Baiña, nere semeren batek naiko bazu, aalegiñak egingo nituzke onera bialtzen.

Oso atsegiñak igaro zituen arek bere iru urteak, bitarako joan zan baiña. Konten zegoelako eta ikasten aurrerapen aundiak egin zituelako, beste urte beteko epea eman zioten sari bezela.

Onekin urtero nituen artu-emanak. Udaran etortzen baizan ta iru illebeta Ondarribian igarotzen zituen. Baiña etzion ikasteari uzten. Bere osaba apaiza ere, erritarra, etortzen zan eta astean iru aldiz deituko zuen bere etxera.

Kasimiro askotan igotzen zan gure baserrira. Etzan alperkerian egongo. Lagunduko zidan nere egin bearretan. Nagusiak, nai zuen frututik jan aukera uzten zion.

Oso mutil bikaiña etorri zan. Pilotari amorratua. Ondarribian etzan ari pilotan irabaziko zion bere adiñekorik.

Saturraraneke etzeukala Ondarribiko itxaso onen aurrean burua zertan makurturik esaten zidan.

Ugin ikaragarriak etortzen zirala ondartzan gora, goiko arresia gaiñetik eragiteraiño. Indarrean gaiñetik pasa ta aurreko zelaira joaten zirala. Noiznai meza ematen ari ziran lekuraiño nolanai sartzen zala ura.

Baiña denetan ikusgarriena egundoko arkaitzak zeudela, eta itxasoak aiei ematen zien eraso ikaragarria zala. Ainbesteko arrokak jo ta gaiñetik eragiñez gora igotzen zirala zipriztiñak, amuitzak sortuz; eta, eguzkia zanean, milla koloretan jartzen zituela. Arkaitz arte artan urak sortzen zuen zurrunbuilloa beldurgarria zala. Tarteke guzietatik indarrean ateratzen zala ura. Ondarribik etzeukala alakorik.

Oso kontentu zebillen, bada, an Kasimiro. Bere baiña egunero ia Ondarroaraiño igari. Ango kaia bertan zeukatela. Ikusten zituztela, Ondarribin bezela, ontziak itxasoratzen; baita sartzen ere, batzuetan naiko lanekin, itxaso asarre zegoenean. Izgoretan seminarioa jotzeraiño igotzen zala iñoiz. Bestetan, berriz, Ondarroako ondartzarekin bat egiten zuela Saturrarangoak.

Noizbait beiñepein etorri zan Ondarribira betiko, eta aitaren ontzian jarri arrantzan.

Ordurako ni ere itxasoan nenbillen, baiña nere aitaren ontzian. Pedro, berriz, Kasimiroren aitaren bigarren ontzian, baiña ez onekin. Ez omen zuela ezer askorik egiten; baiña goseak ez bazan ilko, nonbait lana egin bearra zeukan.

Nerekin etzuen ezer ere jakin nai. Kasimiroekin ere ez. Gure ondoan lotsagarritzat zeukan bere burua. Ixa-

belen atzetik bai, ordea; eta onek jarraitu egiten zion. Gurekin lotsatu egiten zan kaskarra zalako agian; baiña etzan ori bakarra. Arroa zan ortzetatik oiñetaraiño, eta etzuen gure ondoan eskasagoa bezela azaltzea nai. Baiña neskarekin ibiltzea etzan batere lotsatzen. Eta berezko gizon-iltzaille bat zetorren, bada, Maxkarra.

Neska-mutillak an ibiliko ziran Ondarribiko karriketant, gutxi bezelako bikote nabarmena. Bazirudien neska bastoi lodi batekin zebillela, leporaiño etzitzaion irixtentan.

Maxkarra motza zan ta lodia. Ondo egiten asi ta bukatu gabe geratua, uste gabeko gaitzen batek artara utzia.

Ondarribi guzian etzala neska ederragorik izango zioten askok; eta, Maxkarra mozkote arekin ikusita, arriturik geratzen ziran. Etzuela arek bere buruaren edertasunik aintzakotz artzen. Besteak ere etzuen usteko, noski, aren ondoan parregarri geratuko zanik.

Kasimiro etorri zanean, bada, neska oraindik jostera joaten zan. Batean irurak elkarrekin topo egin genduen, eta biak bata bestearentzat arriturik geratu ziran.

–Zu al zera, gu lautakoa, neskatx alai ezin egon ura? Guk sortzen genituen xox pixar guziak irabazten zenizkiguna! –esan zion Kasimirok.

–Bai; uraxe bera. Eta zu, berriz, Kasimiro –zuzen asko arpegira begiratu.

–Bai, Ixabel. Iru urteren buruan banator etxera.

–Mutil zoragarria etorri zera.

–Eskerrik asko. Ez dezu zuk ere geroztik ezer askorik galdu. Goizean mendi atzetik azaltzen dan eguzki berbera dirudizu. Zure ille ori garrondoan bera, begi urdin aundi oiekin irripartsu, zure izkera lasaia... Ia ni ai-

ña luze bazera. Erriko jaietan erregin aukeratu bear zaitugu.

–Ajajajai! –par egin zuen lasai–. Ni baiño aurreragokoren bat izango dezu, bai, onezkero. Gozoa etorri zera zu andik.

–Badakizu nolakoa joan nintzan. Aundiago ta gizonagoa etorri naiz. Baiña leengo sentimentuak berberak dauzkat nere biotzean, ezeren arrokeririk gabe.

–Bai; gorputzez ederra etorri zera. Sentimentuak ere ala diozu. Baiña benetan zorionak ematen dizkizut: leengo mingain motel ura pizkortu zaizu.

–Eskerrik asko. Kosta zait, baiña iritxi det. Emen eza-gutu ninduzun bezin mazala etorri naiz, detana lagun artean zabaltzeko kupirik gabea. Baiña oraindik gaztea ta urte batzuk onak igaro nai nituzke, aske erri ontan, aitari lagunduz. Ez daukat besterik. Arrebak erabat bana-ka-banaka joan zaizkit. Aiton-amonak zaartuak. Beldur naiz ez ote nauten lotu eraziko norbaitekin, nik nai baiño leenago. Esan dizudanez, amona naiko kaxkaildua arkitu baidet.

–Bai. Geronekoan elizatik erteeran ikusi nuen. Itze-gin ere bai berarekin, eta autsi samarra iruditu zitzaidan.

–Ongi arkitua, bada, Ixabel. Leengo amar, amabi urte aiek bai zoragarriak zirala, iñolako kezka txarrik gabe.

–Ongi etorri, bada, zu ere. Benetan egia diozu: gure urterik onenak aiek ziran. Ez da beste alakorik etorriko.

–Agur, bada, Ixabel. Bastoia zai daukazu.

–Ni ez naiz bastoiarekin ibiltzen.

–Kale-ertz artatik begira daukazuna nor da, bada?

Begiratu ta ikusi zuenean, gorri-gorri egin zan neska; eta, arpegia eskuarekin estaliz, parrari eman zion.

–Beraz, ori da nere bastoia?

–Neri ala esan didate. «Zer moduz zebillek Ixabel?» –galdetu diot bati. «Ondatu samarra. Itxura ederreko zegok, baiña bastoiarekin zebillek» erantzun dit. Arritu-ta utzi nau. Ura zan neskarekin!... Orain emen ain eder ta osasuntsu ikusirik, nere lagunaren ateraldiren bat izango zala pentsatzen det.

–Bai. Errukitu egiten natzaio. Guk oraindik orduan bezela jarraitzen degu. Baiña izen txarra ari du artzen. Lapurretan noiznai arrapatzen dute, ta jipoi ederrak ere artua da.

–Nere aitaren itxas-ontzian ari omen da lanean?

–Bai. Zure aitak ere, ni bezela errukituz, artu zuen.

–Ez dago gaizki. Orrek ere badauka bizitzeko esku-bidea. Agur, bada, Ixabel. Pozten naiz ain eder ta osasuntsu arkitzea.

–Agur, bada, Kasimiro. Ni ere pozten naiz. Mutil zoragarria etorri zera. Ta ez diguzu orduko lagunei meriendatxo bana emango?

–Ez dago gaizki pentsatua. Baiña iru bilduko gera. Zure bastoiak ez du naiko.

–Or konpon dedilla. Nik esango diot bastoirik gabe ibiltzen ere badakidala.

–Eta zurekin asarretzen bada?

–Geiena berak galduko du. Beste bastoiren bat billatuko det orduan.

Agurtu ta Kasimiro ta ni joan giñan andik.

–Neskatx aunditu ta ederra badago ere, orren biotza leen bezin apal ta xumea zegok. Gozoa, atsegiña... Ez dik iñoren goratzarrerik aintzakotz artzen.

–Bai. Nik ez dit alako jardunik eduki. Baiña bastoia zebillek esna-ametsetan orren atzetik. Onek, berriz ja-



rraitu egiten ziok. Baiña ez dit sinisten auen maitemintetan. Neskak adarra jotzen ziok, eta azkenean gaizki bukatuko ditek.

–Bikote lotsagarria geratuko dek bestela ori.

–Eta orrek aditzera eman diken merienda eman bear al diguk?

–Nik, al badet beiñepein, pozik. Baiña bastoia ez dek etorriko, eta leengo laguna etsai amorratua egingo zai-guk.

–Berezko gaiztoa dek ori. Orren burua ez dek jatorra.

Agurtu ta bat batera ta bestea bestera joan giñan. Orduan atera zan ezkututik bastoia, ta espatsu ta amorruez betea urbildu zitzaion neskari.

–Nor unan mutil ori?

–Ez dezu ezagutu?

–Ez nik, ire ta Iñakiren ezaguna dala besterik.

–Amabi urtera arte elkarrekin ibili giñan ta...

–Nor? Kasimiro al unan ori?

–Uraxe berbera.

–Oraindik orrekin al abillen?

–Zer du, bada? Ezin ote nezake nik mutillekin itze-gin? Igaz etorri zanean, musu bat eman nion. Oraingoan bestea. Ain mutil zoragarria azaldu zaigu. Dotorea benetan.

–Utzion orri pakean.

–Zer dala ta? Ondarribian guziak utzi ta zurekin bakkarekin itzegingo ote det, bada? Ni aske-askea naiz, Pedro. Zuregatik nai detana egingo det, eta orregatik beiñepein ez geiegi berotu.

–Orduan utzi egiten naun?

–Eta bein ere artu al zaitut?

–Ondo zegon ori, Ixabel?

–Ez-ta gaizki ere.

–Orduan ori aukeratzan den?

–Nik ez det iñor aukeratu. Lagunik maiteena leen ori nuen, zeukan guzia ematen ziguna. Amaika karamelo jan genduen orrek emanta. Ez dauzkat, Pedro, nik aaztuta. Beti ni artzen nindun denen aurretik. Zergatik ez det agurtu ta berarekin itzegin bear? Zuk ainbestexe eskubide daukat neri atsegin zaidana aukeratzeko. Biok elkarrekin ibiltzen bagera ere, ez dan baiño geiago uste izan.

–Eta orri jarraitu bear al dion?

–Ori, Pedro, nik pentsatu ta erabakiko det. Oraindik beiñepein gaztea naiz. Urte asko daude or aurretik. Ondo etorri ta ala arkitu gaitulako, meriendatxo bat eskeiñi digu. Zuretzat ere badago, nai badezu joan, lekua. Zu ere konbidatzeko berak esan dit ori.

–Ez, Ixabel. Ez naiz ni geiago oien saillean sartuko.

–Ni joango naiz, bada. Pozik gaiñera. Aien ondoan kaskarra zeralako ezin dituzu ikusi. Arrokeria da ori guzia, Pedro.

–Jaten dezutena zital biurtuko al zaizute!

Eta, amorrüz, masailleko bat eman nai izan zion, baiña neskak etzion utzi.

–Anka-puntetan jarri bear ko dezu, ni arpegian arrapatzezkeroz. Zitala? Zedorri zera, zedorri, olako zitala. Ori al da zure maitasuna? Zu besterik ez dago, noski, mundu ontan zuretzat.

Lotsatua ta amorrüz, Kasimiro etorria madarikatuz, joan zan andik Pedro, ortzak erakutsi zizkion neska agurtu ere gabe.

–Dijoala –zion neskak–. Zer pentsatuta bizi ote zan ori? Orra bastoia galdu.

Zer esan bear zuten beste biak? Jostetik zetorren ta xuxenean etxera joan zan. Baiña Kasimirok eskeintzen zion merienda etzuen galduko. Neska tuntuntzat ba- zeukaten ere, ez batzuek uste aiña. Aldetik eta jardunez ikasi nai zuen mutillaren berri, ea txikitan bezelako bio- tza ote zeukan jakiteko.

# Itxasoan

---

Kasimiro, esan degunez, aitari laguntzera joan zan, eta Pedro zebillen ontzira. An elkar ikusiko zuten.

Ni ere ordurako aitaren ontzian asia nintzan. Eme-zortzi urtetik gora ginjoazen iru mutillak. Neska, urte beteren bat gazteagoa. Ametsetan asteko garaia.

Leen esan genduen Kasimiroren aitak bi ontzi zituela. Batean bera zebillen eta bestera biali zuen semea.

Itxasora zijoan saillera sartu zanean, denak, zaarrak eta gazteak, agurtu zuten Kasimiro, nagusiaren semea bezela. Pedro Maxkarra, ordea, atzera geratu. Au bakar-ti ta gizarte-etsaia biurtu zan. Baiña Kasimirok arengana joan ta eskua luzatu zion agurtuz.

–Kaixo, Pedro, aspaldikoa. Urteak dituk ez autala ikusi, leen ain bat giñanak. I ere ontzi ontan abil orduan?

Etzion agurrik ukatu; baiña ez argitasun aundirik eman ere. Bestela, langilleak ontzi artatik kentzeko eskatuko zioten nagusiarri. Itz batzuk egin zituzten, baiña gutxi. Kasimirok, nai etzuela igerri zionean, utzi zion.

Kasimiro ontzi artan ikusiak etzion atsegin aundirik eman Maxkarrari. Ango patroia Ixabelen osaba zan. Aren mende, beraz, lan egingo zuen Kasimirok, ango martxa ikasi arte beiñepein.

Au mutil gazte alai zan. Ondo ezi ta itzegiña. Denekin ederki konpontzen zan. Patroia kontentu zegoen nagusiaren semearekin; baiña Pedrorekin ez. Lanik egi-ten etzuelako ez, noski. Agindutakoa xuxen beteko

zuen. Noiznai, ordea, bazetozkion kejak: bati au ebatsi ziotela; besteari ez dakit zer... Arrantzaleak erne zebiltzan nor zan ori arrapatzeko; ta, jakiña, ontzitik kalera botako zutela. Lantegian ez dago olako bat edukitzerik.

Pedroren juzkua egiten zuten. Au sartu ezkeru asi baiziran lapurretak. Bein Kasimirok arrapatu zuen, bere trasteak aztertzen ari zala.

–Zer egiten dek emen, Pedro? –esan zion.

Besteak, alako amorruzko begiratu bat eginta:

–Nik ez al zeukat bizitzeko eskubiderik?

–Beste guziak bezela; baiña ez lapurretarako. Neri ainbestexe ordaintzen ditek iri ere. Oso griña gaiztoa artu dek, Pedro. Erortzen baaiz, eta arrapatuko aute, denak begi-belarri zebiltzak-eta, botako aute ta kito. Gero non sartuko aiz? Lapur sona daukanik ez ditek iñon artzen.

–Orduan bota nazazute ta kito. Itxasoak bazeukak ni ezkutatzeko naiko lekua. Berdin nerekin ez dik munduak asko galduko.

–Gaizki pentsatzen dek, Pedro. Ni naizen bezelakoa nauk, eta ez dit beste bat izan nai. Beetik, ni baiño txarragoak asko zeudek. Goitik ere bai, ordea, obeak. Ire gaiñetik berdin, baiña bai azpitik ere. Oiek denak beren burua il bear al ditek? Oso gaizki pentsatzen dek. Bakoitzak dan bezelakoa azaldu bear dik. Orretxegatik gurekin zapuztu aiz. Bazirudik lotsatu egiten aizela, eta orrek ez dik ala bear. Txikirik ez balitz, ez uke aundirik. Bakoitzak badizkik bere bentajak. Jainkoak egin gaituen bezelakoak gaituk.

–Munduak etzidak ezer askorik eman, eta etziot zor aundirik ere.

–Orrela pentsatzen badek, zoritxarrekoa izango aiz orain ta beti.

–Eta salatu egin bear al nauk?

–Oraingoan ez, beiñepein. Baiña orrela jarraitzen badek, arrapatuko aute, katua sagutan bezela zebillek jendea eta.

–Ni ez nenbilleken lapurretan. Labain txiki bat ebatsi zidatek eta aren billa, ea arkitzen ote detan.

–Gezur ori etzegok gaizki asmatua, iñork sinisten badik. Edorri izan ta neri arpegira bota lapurra naizela.

–Biok bakarrik gaudek emen, eta baneukaken irekin itzegiteko gogoia.

–Motell, oraintxe baiña aukera oberik...

–Zertan sartu aiz i Ixabelekin tratuan?

–Barkatu, Pedro, baiña ez aiz bein ere lagun on bat izan. Ez-ta gizona ere egundo. Emakume kontuekin bator onera, nik soldaduska bukatu arte etzeukat ezkontzeko asmorik. Beste lau urtean baleudekek neregatik aske. Lau urtean neska batekin ibiliko naizela uste al dek? Neregatik aske zegok, motell, Ixabel, nai badek musuka ibili ere. Urteen buru libre badago elkarrekin asi gindezkela? Balitekek. Ortan ere gora begiratzen dek, beiñepein; ez ire berdiñekoari edo beeragokoari. Eziñezkoa iruditzen zaidak Ixabel irekin uztartzea. Erri ontan dan neskarik ederrena bera dek, noski. Alare apa-la. Etziok bere buruari garrantzirik ematen, gaztea dalako agian. Neregatik, beiñepein, iretzat zegok. Baiña ainbat urtetan ibili geran bezela ibilita, arekin itzegiteko ainbeste eskubide emango diguk. Espatsuegi izatea txarra dek, neskaren biotza irabazteko.

–Etzekit, bada. Leenago beti neregana etortzen uan, ta orain iges zebillek.

–Jakiña, leengo bere bi lagun etorri gaituk eta. Ik, berriez, iretzat gure sailletik berexi nai uke. Orduan aurra

uan, gaiñera. Orain emakume egin dek. Datorren igandean meriendatxo bat eskeiñiko ziet gaztetako lagunei. Aiek biak joango dituk. Ik ere nai badek joan, konbidatua ago. Ondartzan, seirak alde ortan, busti bana artu ta gero.

–Ez nauk joango, nere bizkar par egiteko bestetarako ez dek ori ta.

–Or konpon. Edorri berexten aiz. Barkatu, Pedro, baiña arrogorik ez dit oraindik iñon arkitu.

Kasimirok etzuen salatu, baiña griña gaizto ura kendu zitzaion.

# Merienda

---

Igande eder bat zan eta irurok ondartzara joan giñan, leengo oiturari jarraituz, eta elkarren errespetoz ez giñan larru gorririk ibili. Bakoitzak baiñurako jantzia barrutik genduela joan giñan. Ixabel ere jakiña. Artu genduen gure busti aldia, ez oso motxa.

Azkenekoa, noski, elkarrekin. Bazuen bere tristura. Txikitako urte aiek ez geneuzkan aaztuta. Zalantzarik gabe, aiek zirala gure urterik zoriontsuenak. Etorkizunak etzuen orduan gure buruan lekurik. Oraíña bizitzen genduen. Baiña bein begiak zabaldu ezker, gerokoari begira jartzen gera; eta, ura guk nai bezela ez badator, naigabea ugari.

Irurok artu genduen, bada, busti aldi eder bana, eta Pedro ez joanak naigabe eman zigun. Ura, ordea, amorratua zegoen bere izatearekin, eta iñork etzeukan errurik. Ez-ta berak ere.

Guraso bikaiñak zituen. Bera etorri zan alakoa. Antuxina zirudien. Arroa zan benetan. Denak burutik beera irri egiten ziotela iruditzen zitzaion; eta, karramarrua arri artean bezela, zearka-zearka ezkutura joango zan.

Bere gurasoak beldurrak zeuden ez-egitekoren bat ez ote zuen egingo.

Utsun ori nabaitu genduen, bada, irurok, ez aren bearrean geundelako.

Ondartzako lanak bukatu ondoren, bazter batera joan giñan. An sua piztu ta, gerok genekien bezela, moldatu genduen merienda eder bat; eta, jakiña, aparitarako ere balio zuen arek.



Ia kilo banako txuletak, ederrak ekarri zizkigun Kasimirok, eta surtako brasetan erre. Alako busti aldia artu ta gero, etzan gaizki etorriko.

Arrantzaleen oitura ori da. Etxean arrai jaten oituak gaude; eta, norabait jatera joaten geranean, geienetan beiñepein, okela aukeratzen degu. Kasimiroren ateraldia, bada, oso atsegiña izan zitzaigun. Litro bat ardo ekarri zuen eta etzan asko geratu. Gaiñetik artzeko, pastel batzuk. Ori zan gure merienda. Nere ustez, garai artarako naiko oparoa.

Ez giñan presaka ibili. Esan liteke eguzkia joan ta illargiak bertan arrapatu giñula.

Gizarte zoragarria zan ura, irurontzat atsegiña. Baiña bazuen bere tristura: leen esan detanez, azkenekoa izango genduela, noski. Gure gaztaroa joan zan eta baikoitza bere aldetik abiatu bearko genduen, geron buaruaren jabe laster egingo giñan ta.

Merienda artan, bada, danetik itzegin genduen. Kasimirok kontatu zizkigun seminarioan igaro zituen urteak, benetan zoragarriak. Lan geiegirik ez; egunero itxasora. Ondarribiko kaian bizi balitz bezela joan zitzaiola ango egonaldia, eta bein baiño geiagotan eskatu ziotela sar zedilla apaiztarako. Onela erantzun omen zien:

–Seme bat baiño geiago izaten badituz, baliteke aietakoren bat etortzea. Baiña seme bakarra naizen aldetik, aitari lagundu bear diot.

Nik ere, bada, baserriko nere egonaldia kontatu nuen: oso atsegiña izan zitzaidala ango bizimodua. Kasimirok, andik etortzean, urtero bisitak egiten zizkidala: baiña etzirala egundo Ixabel ta Pedro araiño igo.

Neskak laster eman zion orri erantzuna:

–Ezin ziteken Pedrorrekin, etzidan uzten ta. Egun santu guzian itzala baiño geiago etzan urruntzen nigandik ura. Kasimiroren aitak bere ontzian artu zue-nean, ura nere lasaitasuna! Elkarrekin ikusten ginduz-tenak par egiten ziguten. Pedro, berriz, sinistua zego-en, ta dago oraindik, ni benetan nabillela. «Zertan za-biltza zu ñaño orrekin, ni aiñakoa egin zera ta?» esa-ten zidan amak. Aitak, berriz: «Uztan betiko arratoi-txakur ori, lapurra den ta». Zer nai zenduteke, bada? Etorri egiten zait eta ezin, bada, aurrean biali. Eskolu-meak bezela gabiltza gu elkarrekin. «Agur, Ixabel! Ba-zoazela betiko bastoiarekin» esango zidaten beste ba-tzuek. «Non dezu bastoi ori?» galdetuko zidan Pe-drok. Nik banekien zergatik esaten ziguten, baiña ez nion miñik eman nai.

–Zurekin ikusi ta kargu artu zidan –esan zuen Kasi-mirok.

–Baita neri ere bi aldiz –Ixabelek.

–Ni baserritik jexten nintzanean, iñoiz berarekin itzegiten nuen –esan nuen nik–. Baiña, Ixabel ez bazan tartean, izketaldi motxa ta bereala egingo zidan agur. Nik aolkutxo bat emango nizuke, Ixabel. Etzaiozuzla itxaropen geiegirik eman. Oso txarra omen da ori. Ume izatetik erten giñan. Benetan maite dezulakoan, txoratu-ko dezu; ta gero, ezezkoa artzean, dator gorrotoa. Gero beren buruak ildakoak bai omen dira.

–Ez det uste berriz etorriko danik. Lotsatu egiten da-la esango nuke.

–Oraindik ortarako umeak gera –zion Kasimirok.

–Ez, Kasimiro, ez. Zuk emezortzi urte beteak dituzu. Nik, berriz, amazazpi. Bein baiño geiagotan dantzara atera naute ni.

–Baiña orrek ez du esan nai eske datozkizunik, jolas-tu nai dutela baizik.

–Eta nork: Pedrok?

Algara gozoa egin zuen neskak.

–Belarrietatik eldu bearco nioke.

–Utzi zaiogun, neska, kontu orri. Nik, beiñepein, soldaduska bukatu arte ez det ezkontzerik pentsatuko  
–esan nuen nik.

–Ez-ta nik ere –Kasimirok.

–Baiña ara joaterako zergatik ez laguna? Nik emen asko ezagutzen ditut olakoak –erantzun zuen Ixabelek.

–Gu ere emendik aurrera asi giñezke. Emezortzi urte ezkerok, gizartean sartuak gaude. Aurki errikok jaiak ditugu eta Ixabel aukeratu bear degu erregiña.

–Kontuz! Bestela, arrotu erazikok nauzute.

–Ez dezu orduan ezer askoren bearrik. Bat umiltzeko ere ez da txarra.

–Pelotariak ere ari dira beren bikoteak egiten. Zergatik ez guk? –Kasimirok.

–I menderatuko auen pelotaririk etzegok gazteetan. Biok egingo diagu bikote ori. I, gaiñera, banakatan ere aterako aiz. Ez dik ire urtez beerakoetan iñork irabaziko. Seguru nagok ortan.

–Ez dago gaizki pentsatua –zion neskak–. Ni erregin jartzen banazute, neri tokatzen zait irabazleei txapelak jaztea.

–Bai musu ematea ere, ordea.

–Agure zaar bati baiño geiagori eman izan diot. Zuei pozik, berriz; bi masailletan, gaiñera.

–Pedrok ikusten bazaitu bazterren batetik, sutukok dizu.

–Egia. Naigabe ematen dit eta benetan urrikaltzen natzaio.

–Gizarajoa, zortzi urtera arte mutil polita zan ta...

–Benetan al dijoa pelota-txapelketa ori? Asi baidira moldaketan. Leenengo, bertan egin bear degu berexketa edo banaketa, eta bi onenak aukeratu ta txapelketara atera. Iri irabaziko dikenik etzegok emen. Ez-ta Ondarribia guzian ere. Ortarako laguntzaren paltarik ez diagu izango.

–Nik benetan txalotzen det zuen asmo ori.

Itza ta putza bazter guziak naastu ondoren, bakoitza bere etxera joan zan illunarekin batera, apaltzeko gogo aundi gabe.

# Ixabel erregin

---

Erriko jaiak etorri ziran. Ez dira denentzat berdiñak izaten; edo bakoitzak zer duen gogozkoena, ari eusten dio eta artan saiatuko da. Zenbaitek egun oiek zurrutean igaroko ditu, eta beti mozkorra.

Ixkanbillik maite ez dutenak, berriz, erritik anka egingo dute. «Gazte txoro oien zalapartak entzuten ezin egongo gera» diote, naiz leen berak alakoak izan. Gazteren batzuk, berriz, batez ere neskak, dantza ta dantza aste guzian. Lanean baiño geiago nekatuko dira jai oietan.

Egun ori etorri baiño leen gure bi mutillak beren auzoan zabalkundea egin zuten: Ixabel, neska kaska oria, aukeratu bear zutela bertako jaien erregiña. Bakar batzuk ez besteak alde zituzten.

Kaxkarin samarra izatea bazitekela, baiña geiennen iritzian merezi zuela leku ori. Emezortzi urte beteak eta oso neska ona zala. Ixkanbillik maite etzuen oietakoa. Ederrez, berriz, auzo artan etzion iñork irabaziko. Euskaldun garbia, berez ondarribiarra, oso sendi ezagunakoa. Titulo oiek guziekin merezi zuen erregiñaren lekua. Gazteen lana zan. Zaarrak gutxi naastu ziran. Aiek maian ospatzen zituzten jaiak.

Leenengo, beiñepein, bere borondatea eskatu zuten. Lau gazte joan zitzaizkion; bi aietakoak, betiko lagunak.

–Arratsalde on, Ixabel –agurtu zuten.

Au jostetik etxera zetorren.

–Baita zuei ere –erantzun zien.

Etzuen galdetu bearrik. Gutxi gora-beera bazekien zertara zetozen.

–Badakizu, noski, ez dizugu esan bearrik, erriko jaiak gaiñean ditugula.

–Ari dezuten moldaketari begiratzea aski da ori jakiteko.

–Eta gogozkoak izaten al zaizkizu?

–Amon bat naizela uste al dezute? Jauzi ta dantzan ibiltzea atsegin zait neri ere. Egun batzuk lanari utzi ta ixkanbil ortan sartzeta ez da gaizki artuko duen gazterik. Badakit aste guzian lanean baiña geiago nekatuko naizela, baiña ordu onean datozela.

–Dantzari trebea omen zera. Ala diote.

–Ori Kasimirok jakingo du. Nor bere buruaren epaitzaille izatea txarra omen da, ala daukat entzuna, beti bere alde itzegiten duelako.

–Orduan elkarrekin ixilka dantza-saioak egiten dituzute, txapelketara joateko asmoan edo.

–Ez naiz dantzari egokia. Baiña ixilka ta gordea bein ere ez. Erritik kanpora ateratzen bazera, eta elkarrekin ainbat urtetan len eskolan ibilitako neskatxa bat mutillak arkitzen badu, arritzekoa al da dantzara ateratzea?

–Orduan zuek biak itza emanak zaudete?

–Ez da olakorik. Ori ta ni zuek bezin askeak gaude. Beste batek dantzara deituko baniñu, ni berdin joango nintzake.

–Eta Pedrokekin ere ibiltzen al zera?

–Nik ez dakit bastoiarekin dantzan.

Kasimiro ta Ixabel disimulatuko zuten, baiña naiko maiteminduak zebiltzan. Agerikoa zan ori etzegoen esaltzerik. Elkarrekin itzezin ondoren, banaka joango ziran inguruko erriko jaietara. An, ordea, bat egiten zuten.

Arratsean etxeraiño lagunduko zion neskari mutillak. Emeretzi urteak zeuzkan onek eta etzan ori iñorentzat arritzekoa.

–Erriko jaietan nai al zenduke erregiña izan?

–Egia esan, ez litzaidake atsegiña izango.

–Zenbaitek zorutzen bere baietza emango luke.

–Ori bakoitzaren aiurria da. Batzuk beren buruak denen aurrean agertu-zale izaten dira. Ni, ordea, ez naiz olakoa. Etzait batere atsegin alderdi guzietatik neri begira daudela oartzea.

–Besteren bat orduan aukeratu bearko degu?

–Nai badezute, auzoak ni aukeratzen banaute, ez det atzerarik egingo. Ezetz esango banu, arrokeri bat izango litzake. Aukeratzen nautenei iseka egitea. Ez gera beti nai degun bidetik ibiltzen.

–Ondo dago. Ortan ederki agertzen diguzu zure nor-tasuna.

Jaiak asi baiño bi egun leenago egin zan izendapena. Auzoak, batez ere gazteak, Ixabel aukeratu zuten.

Etzan au oso konten geratu. Baiña, auzoak ala nai zuten ezkerok, bere bete bearrak etzituen utziko. Baze-kien beretzat etzerala jaiak izango. Bere askatasun ta la-saitasunak ere galduko zituela. Iñon garrantzizko zan lekuan an azaldu bearko zuela bukatu arte. Bera ango buru, denei irripar egin bear. Baiña, geienera jota ere, iru egun izango ziran.

# Pilota-txapelketa

---

Ari baimena eskatzera joan ziran lau gazteentzat, erriko jaiak etzuten eraspén bat besterik: pilota.

Aurreko igandeetan egindako joka aldietan, bi bikote geratu ziran jai-egunean jokatzeko: Kasimiro ta bere lagun Iñaki batetik, eta bestetik auzoetan txapeldun geratuak jokatu zuten azkena, erriko txapelketa. Bana-ka, berriz, Kasimiro ta beste ondarribiar batek. Amaiketán jokatu zuten, eta erriko pilota-plazan.

Jokatzera joan ziranean, bete-betea gaiñezka zegoen plaza. Erregiña ere ageri zan, bi txapel aundi aldamenen-an zeuzkala, berak nai zituenari jantzi ta musu bana emateko.

Lau pilotariak sartu ziranean, ongi etorri bikaiña egin zieten; baiña etzan dirurik jokatu, amateurrak ziran ta. Etzegoen zalantzarik erregiña noren alde egongo zan. Urrengo egunean jokatu zuten, berriz, banaketa-koa.

Txotx egin genduen eta besteak irabazi ziguten. Atzelaria ni nintzan. Leenengo sakea biurria egin zidan, baiña jaso nuen doi-doi. Etsaiari eskura eman nion. Nai zuen bezela moztu zuen pilota. Bai Kasimirok jaso ere, eta bi paretak motxak eman zizkion, etsaia nora etzekie-la utzirik. Aiek ango txaloak! Jenderik geiena gure alde zegoen.

–Sakeak bat, erretoak esperantza! –oiu egin zuen apuntatzailleak.

Sake zorrotza egin zion Kasimirok. Bai besteak jaso ere. Nai bezela zeukan pelota uts egin zuen lagunak.



Plaza artan ez baizegoen oitua. Bolara batean berdintsu joan giñan; baiña azkenean guk galdu genduen. Errudun ni nintzan. Pelota bizi ta gogorregia zan neretzat, eta eskubia ondatu zitzaidan. Irabazleei egundoko txaloak jo zizkieten, merezi zuten ta.

Aiek gure aurretik joan ziran, eta Ixabelek jantzi zien txapela, oitura zanez musu bana emanta.

Guk ere bagenduen, ordea, gure saritxoa. Aiek txapela ta kopa zituzten. Guretzat ere bazan kopa. Ondoren, besteak bezela, muxutxo bana ere bai. Erregiñak zer gertatu zitzaigun galdetu zigun.

Nik eskua erakutsi nion: iltzea neukala jarria eta ezin niola indarrik eman. Ori zan guzia.

Pedro Maxkarra ere an ikusi nuen bazter batetik begira, guk galdu genduelako txaloka. Benetan poztu zan.

Urrengo egunean goiz-goizean ikusi nuen Kasimiro.

–Eskuak ondo al dauzkak? –galdetu nion.

–Bai, motell. Pala baiño gogorrakoak dituk nere atzaparrak.

–Eta bai al daukak irabaziko dekan itxaropenik?

–Amar-amabira arte berdintsu ibiliko gaituk. Baiña andik aurrera ni gaillenduko nauk. Arek baiño kuadro ta erdi geiago atzeratzen dit eta ura ni baiño geiago nekatuko dek. Aurrean deabrua bada ere, joko atzera joango zaiok. Askotan ikusi dit nik ori. Atzelari on batekin edozeiñi lan gaiztoak emateko modukoa dek.

–Baldinbetan, beiñepein, ea bat bederenik irabazten degun.

–Ortan ez beldurrik izan. Bestela, itxuraren kontrako pelotaria dek.

–Bi txapela jaso besterik ez genduenak...

–Eskuak ondatu ezkeroko alperrik dek. Iri kalte egin zin pelota bizi arek. Nik badet leenengo sakea, uraxe aukeratuko dit.

–Lasai aterako al aiz?

–Ez; baiña irugarren tantorako jarriko nauk. Atzo utsegin nuen ura. Bestela, ez nin modu artara galduko.

–Ondo zegok. Lagun batzuekin an izango nauk tantorik onenak txalotzeko.

Etorri zan ordu ori. Bezperan irabazi zutela ta arro azaldu ziran beste aien lagunak. Banakakoa ere irabazi baietz uste osoan zetozen.

Erregiñak bota zuen duro zillarra. Ortan ere suerte txarra: etsaiak irabazi. Oso sake txarra egin zion, bezperakoa baiño okerragoa. Arin-arin saltoka-saltoka etorri ta botea egiñik jauzi batean jo zuen indarrean. Kasimirok bai jaso ere, baiña eskura. Bolea bizi bat eman zion eta tanto. Urrengoa ere berdin.

–Sakeak bi! Errestoak itxaropena!

Egin zuen irugarren sakea ta gaiztoenetakoa, gaiñera. Kasimirok bai jaso ere eta, malezi guziarekin, bolera arrapatu etzezan, ezker pareta joaz. Ori zan botilleroak eman zion aolkua.

Aidera artzeko asmoan asi zan bestea; baiña, ezin arrapatu zuela ikusitakoan, zabalera bota zuen, dejada txiki bat egiñez. Etzuen atzearekin ezer jakin nai. Kasimirok igerra zion eta arrapatu. Etzeukan, ordea, txanxetako gogorik. Bere indar guziarekin atzera jo zuen, etsaiari buruaren gaiñetik eragiñez.

Pelota ura saskitxoan utzita, bezperako gordin bizi ura artu zuen. Eman zion lagunari nolakoa zan ikusi zezan. Bote bat edo bi egin ondoren, ala esan zion:

–Au gu bezelako gazteen saskitxoan sartzeko esku-biderik etzegok.

–Aizak: guk atzo pelota onentxengatik galdu genin.

Buru egiten zuenari kentzeko ura andik eskatu zion.

–Atzo jokatu zuten ire bi lagun aiek eskatuta sartua dek. Atzo ona bazan aiei komeni zitzaielako, gaur ezin kenduko diagu iretzat txarra dalako.

–Ez det pelotarengatik irabazi detala esaterik nai –esan zuen Kasimirok; eta ura utzita beste bat artu zuen.

Sake luzea egin zion, ez oso arrimatua. Besteak baita jaso ere. Baiña Kasimirok indarrean atzera bota zuen; besteak ekarri. Leengo bidean joan zan pelota berriro. Beste bosteren bat jo aldi egin zituzten. Azkenean Kasimirok jaso zuen tantoa, atzean arrimatuta.

Begira zeudenak igerri zioten bestea aurrelari ona zala, baiña joa gaillenduko zala. Amar aldera arte olaxe joan ziran. Baiña etsaia nekatu zan, eta bat bestearen ondoren aidean eraman zuen Kasimirok partida. Ango txaloak!

–Aupa Kasimiro! –oiu egin nuen nik.

Irabazlea ta galtzaillea biak besarkatu ziran.

–Ni baiño geiagoa aiz –aitortu zuen mazal-mazal bigarrenak.

Txapela artzera joan zanean, Kasimirori jarri zion txapela erregiñak, eta oitu bezela musu eman ere bai. Baiña mutillak erantzi ta erregiñari jantzi zion.

–Zuretzako au, Ixabel. Zuri eskeintzen dizut.

–Eskerrik asko biotz-biotzez. Benetan estimatzen det –erantzun zion neskak.

Batzuek ontzat eman zuten mutillaren ateraldi au; besteak ez. Zer egingo degu, bada?

Tarte batetik begira an zegoen Pedro, bere eziña mardaturik.

Urrengo egunean, gazteen artean etzan besterik itzegiten: Kasimiroren ateraldia, oroigarri bear zuen txapel la neskari eman.

–Zergatik ez, oraindik nere etxera etorriko dek txapel ori ta?

–Artu duenarekin batera, noski.

–Besteak ala ulertzen badu...

Amaika joan ziran Kasimiro ta erregiñari zorionak ematera. Baiña beren txikitako lagunik maiteena lotsak ezkutatu erazi zuen.

Jaiak joan ziran. Gure urteak ere bai poliki-poliki. Soldadu joateko garaia iritxi zitzaigun. An somatu nituen Kasimiro ta Ixabel, erregin izana, ezin agurturik. Neskaren begietan etziran malkoak urruti. Nik ez neukan alako buruausterik. Oraindik aske-askea nengoen.

–Lasai zaitte. Urrun samar banoa ere, etorriko naiz tarteka. Bi urte, gaiñera, bereala joango zaizkigu.

Gutan iñork uste etzuen, Maxkarrak tailla arrapatu zuen. Izan ere, egundo txutik jartzen al zan?

Gu baiño suerte obeagokoa izan zan ura: Donostirako aukeratua. Kasimiro Burgosera. Ni, berriz, Madridera.

Pedro noiznai etxean zan eta neskari ikertxo bat egin gabe etzan geratuko. Onek beti ondo artuko zuen, baiña jakiñaren gaiñean jarri ta gero:

–Kasimirori itza emana daukat eta obe dezu beste zure modukoren bat billatu.

Etzan, noski, dena egia izango. Sumindu zan Maxkarra:

–Oraindik norbaitek pagatuko din au.

–Ez dakit zergatik. Bakoitzak egokiena zaiona aukeratzan du, aal badu beiñepein; eta nik ere ori egin det. Ez dizut egundaiño itxaropenik eman.

–Etzekiñat. Norbaiti esan omen dion gaztea aizenala ta ez aizela bastoi batekin ezkonduko.

–Zedorrek begiratu besterik ez dezu nere belarrieta-raiño etzerala irixten. Biontzat litzake lotsagarri gu biok ezkontzea. Zure tamaiñatxokoak non-nai badaude. Askotan entzungo zenduen, gu biok ikusita, lagunak nola agurtzen ginduzten: «Agur, Isabel! Bazoazela bastoiarekin!».

Maxkarra, ori entzun zuenean, masailleko bat emateko asmoan asi zan, baiña neskak etzion utzi.

–Kontuz. Pedro. Nik ere baditut bi beso biziak. Anka-punten gaiñean jarrita etzera zu nere masaillera-iño irixten.

Neskak gogor egin ta esandako isekarengatik sumindu zan gure Maxkarra; eta orduan andik zijoazen arrantzale batzuek entzun zioten:

–Ez ditun atsegin guziak izango, ez, ik ere!

Soldadu-jantzian etorri zitzaion, bada, neska txoratu-tuko zuelakoan; baiña ura beti Pedro.

Ni ere azaldu nintzan beste batean. Karrikan ikusita agurtu nuen Ixabel. Berak kontatu zidan Maxkarrak zer esan zion eta jotzen asi zitzaiola; baiña etziola utzi. Zemaiginta joan zala andik.

–Ume kakatsua izan da ori beti, txikitandik asita. Berearekin atera bearra, ta gero ta okerragoko jenioa ari zaio jartzen, arroa baita. Ikusten du bere ezereza ta eziña. Bekaizkeri gaiztoa du Kasimirorentzat, ta neretzat ere bai. Baiña, nere iritzian, zuretzako aundiena. Aukera, ordea, norberak egin bear du.

–Txatxua aleena! Esan nion ez nintzala bastoiarekin ibiliko.

–Ixabel, obe dezu itzik ez esan ortaz Kasimirori.

–Ez dakit, bada, ez ote dan okerrago izango. Au gaiztakerira joango da eta erne ibiltzea komeni zaigu.

–Kasimirok ortaz kargu artzen badio, okerrago izango da.

Maxkarra ta Iñaki oraindik jaiekin zeudela, etorri zan Kasimiro Burgos aldetik. Ordurako bazekien Ixabelek, eta Irungo geltokiraiño joan zitzaion itxogitera.

Trenetik atera orduko, an aurrez aurre ikusi zuen agurtzera joana. Poztu zan mutilla. Neskaren maitasuna benetakoa zala orduantxe antz eman zion, eta parrez-parrez agurtu zuen.

–Ongi etorria zure etxera, Kasimiro.

–Ongi arkitua zu ere, Ixabel –erantzun zion mutillak, zoriontsu.

Biak leengo tranbe zaarra artuta etorri ziran Ondarribira. Nik ikusi nituen eta poztu nintzan. Lagunaren zorionak atsegin ematen zidan neri. Maxkarrak ere ikusi zuen Kasimiro tranbetik jexten. Ez det uste ni bezela poztu zanik. Orduan ere leenengo bururatu zitzaiona, seguru asko, desapio gaizto au izango zan:

–Oraindik nik berexiko zaituztet.

Berezko gaiztoa izaki.

Gaztetako iru lagunak elkarrengana bildu giñan berriro. Laugarrena gordeketan zebillen. Baiña bera joan zan leenengo koartelera.

Olako atzera-aurrera batzuen ondoren, bukatu genduen soldaduska; eta, iñork uste etzuen, leenengo ni ezkondu nintzan. Ez dago esan bearrik beste biak ere an zirala. Arritzekoa: Maxkarra ere konbidatua geratu zan. Baita joan ere bere moduko andregai batekin; neska biartekoa, baiña alaia eta polita.

Bazkaritan, aukera izan zuen batean, ala esan zidan Ixabelek belarrira...

–Urrikal zait neskatxa maitagarri ori.

–Nor diozu? –galdetu nion.

–Pedroren andregai. Ain goxo, alai ta bizia da ori, eta tratu txarra emango dio orrek. Errukarri zait benetan.

–Ez det olakorik pentsatzen nik, Ixabel. Norbait maite bear du orrek ere.

–Edo norbait bear du bere petralkeria asetzeko. Denbora izango da testigu. Orrek ez du bere burua besterik maite.

Orixe esan zidan, bada, Ixabelek belarrira.

Bigarren, berriz, Kasimiro ta Ixabel ezkondu ziran, ixkanbil aundi gabe, Guadalupen. An nintzan ni ere emaztearekin. Bere andregaiarekin baita Maxkarra ere. Baita bazkaritan dantza-saio ederrak egin ere neska bizi arekin batera.

Ni baldarra izan naiz lan oietan. Orregatik, nere emazteak etzuen dantzatu nai izaten. Kasimiro ere aldrebesa oso. Ixabel ez. Baiña arritzekoa: Maxkarra dotorea. Ez omen zuela dantza-doiñuaren puntu bat ere utsegiten. Bere andregai bixi arek ere bazekien ori. Etzuten leenengo aldia ura.

Maxkarrak ere etsi zuen bakarrik. Bizitze ori tristea zala. Beti auzokoen zorionak ikusiz etzan pasiatzen ibiliko. Beste irurak baiño urte beteren bat geroago ezkondu zan. Baita leengo bere lagunak konbidatzeko ausardia izan ere. Jakiña, bera besteenetara joan baizan.

Gu geron emazte ta guzi joan giñan, gizarteak nola-koa bear zuen erakustera eta lagunarekin batera pozten giñala. Baita zorionak eman ere bostekoa eskeiñiz. Gu bi gizonena artu zuen, baiña Ixabeli muzin egin zion.

Ori ikusitakoan, ezkontzera zijoan andregaiak negar egin zuen, eta barkazioa eskatu zion Ixabeli; eta ez dakit senargaia bakarrik utzi ta nola etzuen alde egin gurekin batera, guk ala egin genduen ta.

Ixabelek askotan esaten zigun berari ziola gorrotorik aundiena, bastoi batekin ezkonduko al zan esan ziolako. Baiña bera etzan asko naigabetu; ezkontzera zijoan neskak ematen zion benetako kupira.

Laurok gure martxa artu genduen, bada. Maxkarrak eta Kasimirok ontzi batean lan egiten zuten ezkondu aurretik. Gerora ere bai, baiña onen ontzian; eta, leen esan degun bezela, Ixabelen aita patroiz.

Argi itzegiten zuten bi lagunak elkarrekin. Ezkondu ta martxa artu zuenean, bere onera sartu zala zirudien Pedrok. Alare, denborarekin egin zuen bere billaukeria.

Goiz batean, Kasimirok alai-alai ala esan zidan:

–Atzo illunabarrean izan diagu leenengo aurra. Semea bera.

Zorionak eman nizkion.

–Nerea ere bidean zetorrek.

–Maxkarrari ere esan ziot. Arek ere zorionak eman zizkidak; eta, nere ustez, benetakoak gaiñera. Etzeukak neretzat erra gaiztorik. Baiña nere emaztea ez dik begien aurrean ikusi nai, on egiteko beiñepein, iseka egin ziolako edo.

Maxkarrak ere izan zuen eta senar-emazteak joan ziztaizkion zorionak ematera, leen egindako muziña aaztua. Ama poztu zan. Leendik zituen biak ezagunak eta adiskideak. Baiña Maxkarra etzuten etxean arkitu. Onek oso gaizki itzegiten omen zuen bi aiengatik. Etzioten aren galderarik egin, zer erantzun etzekiela anbat utziko zutela gaixoa ta.



–Zer dezute: mutilla edo nexka?

–Nexka degu.

–Eta zer izen jarri bear diozute?

–Dolores, Biar bataiatuko dute.

–Dolores, izen tristea da ori. Baiña geienoi egi biurtzen zaigu. Zorionak, bada, Maritxu. Orixe izaten da ezkonberrien ametsa. Eta ondo konpontzen al zerate?

–Barkatu. Naiago det ortaz ez itzegin.

–Barkatua dago.

Gero amonarekin itzegin zuten luze ta zabal, eta au benetan izutua zegoen: oso tratu txarra ematen ziola bere erraiñari.

–Aita bizi balitz, bialiko luke etxetik –esan zuen.

Nork pentsatu bear zuen denborarekin aur ura izango zala Kasimiroren seme zaarrenaren emaztea?

Etixerakoan, Ixabelek ala esan zion bere senarrari:

–Ez ote zegoen gero gaur Maxkarra etxean?

–Litekena da. Jai dute. Baiña zertarako gaizki epaitu?

Laurok bagenituen geren ondorengoak. Auek ugari-tzen joango ziran.

Iruk beti lagun jarraitu genduen. Oporraldiak batera artu ta, aurten onera, urrengoan bestera, bi sendiak elkarrekin ibiliko giñan. Oso egun alaiak igarotzen genituen. Pelota-saio ederrik egin ere bai.

Bein, Kastillako erri batean, joan giñan eta bazuten gure erri auetako antzeko pelota-plaza. Gu jokatzeko ikusten ginduzten ango erritarrak eta gure bizkar apustu txiki bat egin zuten, erri artan ziran bi onenei jokatzeotan. Apustu egin zutenak jarri zuten dirua. Erritar guziak itxu-itxuan aien alde zeuden, baiña arrotzak ateratzen irabazle.

# Estropadak

---

Alardea ikusgarria izango da Ondarribiko bertako askorentzat. Egun ortarako datozenentzat zer esanik ez. Baiña estropadak giro ohea jartzen dute, batez ere arrantzaleen artean.

Jokatu baiño illebeteak leenagotik asten dira moldaketak. Koadrilla jarria dago, baiña egokitu egin bear egun ortarako. Egun batzuk aurretik asiko dira apustuak.

–Oriok Ondarribiari sei segundo baietz! –oiu egingo zuten Orioren aldekoak. Auek beti arro etortzen ziran.

–Amar ezetz! -erantzungo zuten ondarribiarrak, beti azpitik.

Jainkoak daki zenbat diru jokutzen dan egun ortarako erri txiki oietan.

Ondarribiarrena arritzekoa zan. Sona aundia zuen, baiña aspaldian etzuen irabazi. Urte artan bazeukan itxaropena. Ainbeste arrantzale dan erria, baserriak berdin, eta etzuela aspaldi artan banderarik ekarri!

Ez dira, noski, beti urekoak eta legorrekoak ondo konpontzen. Bestela, denak ondo artu ezkeru, emengo gazte jendearekin treiñeru bikaiña jarri litekela uste degu.

–Aurten edo egundo ez! –zioten ondarribiarrak.

Elkar artuta moldatu zuten treiñeru bikaiña. Aien artean geunden Kasimiro ta ni. Patroi on bat ere billatu ziguten.

Eguna baiño ondotoxoz leenagotik urte artan ere apustuak. Onenbeste segundo Ondarribiari baietz!

Emengoak ezetz! Momio aundiz jotzen zuten beti orio-tarrak. Banderarik geienak eramanak aiek baiziran. Ixkanbil gogorra zegoen Ondarribi xaarreen ere.

–Ez al degu, bada, bein ere banderarik ekarri bear?

Etorri zan eguna. Zortzi treiñeru ziran ateratzekoak. Ondarribi ta Orio batean. Au zuten Kantauri ertz ontan oillarra.

Txotx egin ta Ondarribiari Santa Klara ugarte ondoa tokatu zitzaion. Ugiñak bazterra jo ta atzerakoan oztopo aundia egiten omen ziotela treiñeruari. Besteak, berriz, zurrunbuilloa sortzen zuela eta ezin omen zitekela bear bezela arraunketarik egin.

Ori dena egia izango zan, baiña balizak obeto jarri zitezkenak. Neurtu zutenean, metro batzuk luzeagoa zala ango txangoa oartu ziran. Gaizki neurtua, alegia.

Santa Klara, Igeldoko egala, Kontxa, Urgull edo Gaztelu-mendia, arkaitz ta guzi, jendez josia zegoen.

Asi aurretik, oraindik oiuka, «Onenbeste baietz eta ezetz!» ari ziran apustulariak.

Estropada jokatu zuten inguru guzia itxas-ontziz betea zegoen, nork bere errikoei laguntzeko asmoan etorriak. Itxaropenez joan ziranen batzuek, txisturik jo gabe etorri bear ko zuten. Irabaztunak, berriz, treiñeruen atzetik sartuko ziran, eta aizkatuko zituzten txistuka inguru guziak.

Gure treiñeruak jarri ziran, bada, lerroan. Begira zeudenak urduri, naiz beren erriko treiñerurik ez izan. Baiña denak bazioten bat edo besteari beren begi ona. Sutu zan arteerako tiroa. Ozenki entzun ere.

–Ea, mutillak! Jo oraintxe!

Puntetara erten ziranean berdintsu zijoazen. Ziabogara orduko, bi atzera geratu ziran. Bear bezela egoki-

tzeko aiña denbora etzutela izan ta Orio ta Ondarribik ziaboga batera artu zuten. Etorrera ikaragarria egin genduen biok. Baiña, Santa Klarara urbildu giñanean, Orio aurreratu zitzaigun. Ondarribiarrok jotzen genituen aalegiñak, baiña alperrik izan ziran. Iru segundoren aurrea artu ziguten.

Orioko ontziak atzetik etorri zitzaizkigun, bazter guziak gortu bearrean txistuka, lerroan jarriz. Ondarribiatik ere baziran joanak, baiña umil asko aldegin zuten andik. Diru-mordoska bat eramán ziguten.

Alare ez geneukan itxaropen guzia galduta. Urrengo igandean jokatu genduen berriz. Iru segundoren bentaja deus ez baita.

Bandera zeiñek ekarri jokatu genduen, eta ez al zitzaigun orduan ere bazter artatik tokatuko! Ez geunden, bada, oraindik etsita. Leengoa bezelako beste saio bat geneukan jokatu bearra.

Ondarribian negar egin zutenak baziran. Itxaropen geiegirekin joan giñan ta, kukuak oker jo zigunean, etsipena artzen zailla.

Treiñeruak trukatu egiten zituzten orduan, ta ortan ere bentaja pixarren bat izan zitekela. Oriotarrena, bada, Ondarribiak artuko zuen; eta onena, Oriok. Udalak ontziak jartzeraíño ere iritxi izan ziran, jokia berdiñagoa izategatik.

Orio bigarren saiorako sekulako arrokeriarekin ari zan momio ikaragarrian dirua jokutzen. Leen iru segundo kendu bazizkion, oraingoan amar baietz. Etzan asko jokatu. Leenengoan galdu zutenak min zuten eta etzeuden berriro geiegi arraixkatzeko moduan. Irabaztunak jokatu genduen baita etxea ere.

Etorri zan, bada, egun ori. Kaxkar samarra: euria ta aizea, eta tarteka aterruneak. Itxasoa ere zakarra zegoen. Non-nai ikusten ziran ardi txuriak.

Zurrunbuillotua zegoen itxasoa. Ugiñak garbi, bat bestearen ondoren, datozenean, arraunlariantzat ez da txarra. Patroia iaioa badute, beren etekiña ateratzen die ugin auei. Baiña orduan itxasoa balantzatsua zegoen. Urpeko eragiña, alegia, ta ori arraunketarako txarra da.

Eguraldi kaskarra izanagatik, etzuen jendeak atzera egin. Aurrekoan bezelatsu zeuden Kontxako inguruak. Geiagorik ezin ziteken ta ori da, noski, jenderik geiena bildu erazten duen kirola.

Aurretik, *kontsolazioa* deritzana jokatu zuten. Ontan ere bazuen jendeak bereen zoramena. Irugarren geratu edo seigarrena, alde aundia zegoen, batez ere erri bate-tik besterako erra gaizto orrengatik.

Ura bukatutakoan, bi oillarrak atera giñan. Orduan bik jokatzen baizuten bandera norentzat. Jakiña, txapel-duntzarako bi jokotako denborak batzen zituzten, eta Oriok bere bentaja bazeraman: iru segundo. Etzala ori asko? Ez; baiña guk, bandera ekartzezkeroz, ori ta geiagoko kendu bear. Orrengatik diru gutxi jokatu zan.

Tiro-otsa entzun genduenean, jauzita bezela atera giñan. Bein itxasora ezker, andik aurrera begiratzailleentzat alperrikakoa zan. Itxas naasiak ontziak irentsi bali-tu bezela, batean azaldu, bestean gorde, etzitzaion antzik ematen nola zijoazen.

Ziaboga ematerakoan, oartu ziran zerbait aurrerago-tik zijoala Orio; baiña Ondarribiak zuzendu zuela leenengo treiñerua. Ugin batek azio kaskarra egin zion Oriori. Estuasunik larrienean ontzia okertu. Bitartean, besteak aurrea artu. Andik Santa Klara arte etzitzaion

antzik ematen aurretik nor zetorren. Bein ugartez barrura sartu giñanean, bai Ondarribi zetorrela leenengo. Baiña ain bentaja txikia, kenduko ote zizkion gero iru segundo aiek?

Andik sarrera arte jo zituzten beren aalegiñak. Bai jendea ere erne. Ondarribiko ontziak txistuka zetozen atzetik, bandera ez bazuten eramango ere saio ura irabazia zeukatela.

Alako batean sartu giñan. Aspaldian ez genduen alako leer egiñik artu. Ia ogei minutuko txangoa, eta beti egiñaalak jo bear. Etsaiak ez iges egitezkeroz jarria da ori. Bien joera berdintsua zan,

Jendeak, txutik jarri ta kontatu zituen Ondarribi sartu ta Orio arteko palakadak:

–Bat! Bi! Iru! Lau! –oiu egin zuten ikusleak, denak batera. Lau palakadaren bentaja kendu geniela ta garai-le zala Ondarribi. Baiña ain justuko lana, etzegoen arrokeri aundirik. Buelta ematerakoan galdu zuen bandera Oriok.

Goitik laster eman zituzten bakoitzaren denborak. Ikusleak uste zuten baiño gutxiago kendu genien. Lau segundo eskax, baiña irabazteko naikoa. Etziran lau palakada osoak izango. Abailla ortan ezin lezateke arraunlariak iraun. Segundo bat eskax kendu zioten elkarri bi txangotan. Etzegoen alde aundirik batetik bestera.

Txaloka artu giñun jendeak, aldekoak jakiña, nork irabazi zuen ikasi zutenean. Batzuk alai, besteak triste, zabaldu ziran Donostiko karrikak barrena. Ango tabernentzat irabazia.

Udaletxean, bandera ematerakoan, goratzarre pixar bat egin ziguten. Eta jendea, inguruko erri auetakoak beiñepein, beren etxeetara joan ziran, estropada bikain

ta estua ikusi zutela ta pozez irabazleak. Galtzailleak, berriz, alako mutil jendea treiñeruan ta zer gertatu ote zitzaien, galdutako penetan ezin irentsirik.

Bereala azaldu ziran aitzakiak. Olako mutil ondo ezik atera zala ta etzuela bere lana ondo egin.

–Datorren urtean berriro aurrez aurre ikusiko gaituk, Jainkoak nai badu.

Donostiko zarata beiñepein bukatu zan, eta ikusi ez duenak ez daki zer dan ori. Emakumeak, berak jokatu-ko balute bezela, gizonak baiño zoratuagoak, eta urtero berdin.

## Erriaren omena

---

Autobus batean etorri giñan arraunlariak. Gu gaiñean gentozen, jokatu bezela jantziak, geron arraunak eskuan genituela. Patroia leenengo, irabazitako bandera zabalduarekin. Errera, Antxo, Errenderi, Irun... Denetan egin ziguten beren omena. Gu, berriz, arro.

–Emen orrela artzen gaituztenean, zer izango ote da Ondarribian? –genion.

–Ez dek katurik ere geratuko gure bidera atera gabe.

–Au geiegia dek, motell.

–Utziek pakean. Ikusiko dek: emakumeak-eta zora-tuenak.

–Galtzen degunean, berriz, gu berdin saiatzen gaituk. Orduan erria triste. Begiratu kaskarra ta muzin egi-ten zigutek.

–Alako egunak ere izaten dizkiagu ta, gaur beiñe-pein, ar dezagun erriaren omena. Ezin beti supritzen biziko gaituk.

Ondarribi guzia banderaz jantzia zegoen. Alegia, berdea zanak balio zuen omen ortarako. Ondarribiko arraunlarien margoa orlegia, berdea, baida. Bide guzian zintzilikarioen paltarik ez genduen. Gogoan daukat, Amuteko kaputxinoen aurretik igarotzerakoan, bide gain guzia, konbentutik platanoetara, bai Bar Antonia-ren etxera ere, amaika pertza, baita pisontziak ere, ba-zeudela txintxilik, ia buruarekin ukuitzeko moduan. Berdea izan ezkeru, dena ondo zegoen.



Arrantzaleak etziran errian bertan geratu. Beren omena egiteko, auzotaraiño atera zitzaizkigun.

Jerusalengo Jesusen sarreraz oroitzen nintzan. Oni ereiño-abarrekin goratarreka atera zitzaizkion. Emen ere amaikatxoren eskuetan ikusi nituen arbazta berdeak, gure margoa alegia.

Jende gazteak aupatzen ginduzten oiuka:

–Aupa Ondarribi!

Baiña baziran tartean arrantzale zaarrak, gizon kanquilla galantak, begietan malkoak zerizkiotela, zoramezez esku ematen zigutenak, zorionak opatuz. Berenkiko ala pentsatuko zuten:

–Guk ere aalegiñak egin genizkin, baiña ez genin Ondarribirako olako garaipenik iritxi. Gu ere norbait bagiñun, bada. Beti aurre samarrean ibili bagiñan ere, ez genin olakorik lortu.

Gu, berriz, erriaren omena jasoz, aurrera. Ainbesteko jendetza atera zitzaigun, etzegoela berebil bat ere igarotzeko modurik. Tutuka jardungo zuten, baiña etzien iñork biderik idikitzen.

Bide-ertzaiñak suminduak zebiltzan, aien egiñaalak alperrik ziralako, bidea ta karridak aske utzi erazteko. Iñork etzituen aintzakotz artzen. Berak ere ezin bidea zabaldurik, berriz, jendeak autobusera begiratzen zuen, aspaldi artan berak ezin zuten garaipen ura iritxi zutelako, aiek nor ote ziran ikusi nairik.

Autobusa, bidea ezin idikirik, aurrera zijoan geldigeldi, ibildeun batean bezela. Jendea, berriz, ugaritzen. Azkenean, bidezaiñak, alkatea arrapatu zutenean, ari eraso zioten:

–Ez al dezu ikusten jende onen itxumena?

–Bai; baiña nik zer egitea nai dezute?

–Ez diotela besteri biderik uzten.

–Ori konpontzea ez al da zuen egitekoa?

–Bai; baiña ezin degu, ta ezin gentzake au orrela burutu.

–Kontuz! Etzazutela gaurko erri onen poz ta zoramen au odola ixuriz garrastu. Zerok ikusten dezute onez onean eziña dala. Aurki, gaiñera, aske geratuko da bidea. Baiña, Jainkoagatik, etzazutela erri au naigabetu, garaipen onekin zorabiotua dago ta. Laster etorriko da bere senera.

–Salatu egingo degu ta au dena zure bizkar joango da.

–Utzi, bada, gaur pakean, eta zatozte biar eta konponduko gera. Baiña ez indarkerian asi.

Bide-ertzaiñak erretiratu ziran, eta lasai geratu zan alkatea.

Poliki-poliki sartu giñan Ondarribira. Dena ikurrin ta zintzilikarioz betea zeukaten. Leioak ere berdin. Zebait agintarik pozik artuko zuten bat-bateko alako arrera. Zoragarria zan benetan. Elizako ezkillak dilin-dalan-ka ari ziran. Su-ziriak eten gabean zijoazen aidean, zantpetako aiekin zerbait arrigarri Ondarribian gertatzen zala adieraziz. Ori guzia amalau arrantzale ta nekazari omentzeko, segundo eskaxez garaitu ziralako. Erriak ezagutzen ditu bereak. Musika ta txistulari. Dena gu-xiegi iruditzen zitzaien gu aupatzeko.

Udaletxera iritxi giñan. Patroiak balkoitik egatu zuen bandera, erriari erakutsiz. Onen oiua aixa entzungo zan Biarritzik ere:

–Aupa, gora Ondarribiko arraunlariak!

Aski zan. Ainbestez aspertuak geunden. Bai; omen bikaiña egin ziguten. Baiña ez bagendu irabazi?

Ixkanbil ta zarata ura bukatu zanean egingo ziguten benetako ta maitasunezko omena, billaukeri-izpirik gabea.

Gure emazteak atera zitzaizkigun beren aurrak besotan zituztela. Aien zorionak eskeintzea bai zala benetakoa. Musu banarekin bukatu zan gure agurra. Aurrak guk besoak artu genituen eta pake-pakean joan giñan etxera.

Egia esan, aspertuak geunden. Goiz-goizetik asita, gure estropada besterik ez generabilkien buruan.

Etzuten gure emazteak estropada ikusterik nai izan, amonak aurrak zainduko zituela esanagatik. Etzioten lan geiegirik eman nai. Irratiz, bai, dena ondo entzun zuten.

–Naiko lanekin orratik? –galdetu ziguten.

–Bai. Bentaja ere baziguten. Aiek ere amaren semeak dira. Bageneukan etxera biltzeko gogoa. Berdin illunabarrean berriro jaiak izango ditugu. Ondarribian ez da musika ta dantzaren paltarik izango. Leenengo txupiañoa entzun orduko asiko dira emengo jolas ta dantzak, arratsa aurreratu arte jarraituko dutenak.

Illunabarrerako kanpo aldetik bildu zan jendea, aspaldi artan alako garaipenik izan etzuen erriaren pozarrekin bat egitera. Karrikako bazter guziak gaiñezka egin zuten, ango dantza ta musikarekin batera alai ango gazte jendeak kantatzen zuela:

Bat, bi, iru, lau, bost, sei, zazpi,  
Ondarribiak Oriori irabazi.

Orrekin esana zegoen dena. Beste erriren bat izan bazan Ondarribiarekin ixtillutan ibilia, etziran ainbesteraño poztuko. Baiña orduan Orio zan Kantauri barrun on-

tan txapelduna ta oillarra, eta ari irabaztea garaipen aunditzat artu zuten.

Estropada oiek ere joan ziran, bada, guretzat. Bizi be-  
arrak lotu giñun eguneroko lanari. Ezer gertatu ez balitz  
bezela, urrengo egunean gure ontziarekin arrantzara  
ginjoazen, bezperako omenak aztuz. Ontziko lagunak  
biotz-biotzez zoriondu ginduzten, Pedro Maxkarrak ez  
besteak. Garaipenak eta erriaren omenak etzioten ari  
onik egin. Ura beretzat bizi zan, eta ez besterentzat.

Edozein langilleren bizia aspergarria da benetan, al-  
daketarik ez duena. Arrantzaleena bearbada zaillagoa  
oraindik, eta arraixku geiagokoa. Baiña ez da leku bate-  
an exerita egotekoa. Baditu bere atsegiñak. Itxasoaren  
aldaketak ere bere bizitasuna ematen diote arrantzaleen  
bizitzari.

Nik sei alaba izan nituen. Kasimirok bi seme ta ala-  
ba. Pedrok bi alaba.

# Pedro edo Maxkarra

---

Leen esan degunez, garai bateko gure lagun maitea izan zan au. Zortzi urtera arte gu bezelako bat, jostarie-netakoa. Gero zearo aldatu zitzaigun. Maiz itzegiten degu ontaz, baiña ez degu garbi nolakoa zan agertu.

Esan bezela, zortzi urtera arte mutil alaia zan, jostaria, eta kaniketan onena. Ixabel-ta ibiltzen ziran elkar ezin menderaturik.

Gu asi giñan gora ta gora luzatzen, neska zer esanik ez, eta Maxkarra, berriz, enantxo bat bezela geratu zitzaigun, gero zerbait azi bazan ere. Soldaduskarakoan doi-doi arrapatu zuen tailla.

Atzeratua utzi genduen eta benetako ezin ikusia artzen asi zitzaigun, bere ustez guk iseka egiten geniola-ko. Baiña maite genduen. Aundi-txikian al dago gizon baten izaera? Baiña ala artu zuen. Sailleko parregarria zala ta errukiz artzen genduela gurekin.

Zortzi urtetan gure berdintsua zan. Amabietan etzan gure leporaiño irixten. Orduantxe erremindu zan gure Maxkarra. Ixabel zuen oso maitea. Ez neska zalako. Orduan guk orren berririk ez genekien. Denetan goxoena ura irudituko zitzaion eta arengana biltzen zan. Gu zakarregiak izango giñan.

Amasei urteetan, bada, kaxkar ta maxkarra zan. Gaiñerakoan, etzuen gorputz aldrebasa. Arpegiz ere ez itxusia. Baiña maxkartu egin zan eta bere gurasoak ere azkenerako "gure maxkarra" deitzen zioten.

Ixabel zuen bere lagunik maiteenetako bat; eta, bere modukoa geratu bazan, etzan ainbesteraíño erremindu-

ko. Baiña amabi urteetarako neskak azi-burua artua zeukan. Alare, gu bi mutillak utzita, arengana urbiltzen zan. Baiña bein eskua buru gaiñean jarri neskak eta iseka gaizto au egin zion:

–Etziñake, Pedro, nere bastoitarako aldrebesa.

Maxkarrari, beiñepein, benetako iseka iruditu zitzaion. Ala da, gaiñera, baiña batere malizi gabe esana, noski.

Ori entzutean, sumindu zan gure Pedro, eta pozik joko zukeena, gure beldurrak atzera egin zuen.

Bein Kasimirok eta nik sailletik aldegin genduenean, biak geratu ziran elkarrekin. Neskak, noski, errukia zion. Ordurako Kasimirorekin asia baizan.

–Aizazu, Pedro: zu ta ni ez gera ondo etortzen. Ba-koitzak bere modukoa artu bear du. Zu, berriz, nere leporaiño etzera irixten. Nik beste bat daukat neretzat aukeratua, eta obe dezu zuri ondo datorkizun bat billatu. Erri ontan ez dago emakume paltarik.

–Bazekiñat, bai, norekin abillen.

Eta masailleko bat ematen asi zan, leen esan degunez. Besteak, ordea, etzion utzi, eta asarretu samarra ala esan zion neskak:

–Zuk nere arpegia arrapatu? Ez-ta anka-puntetan jarrita ere.

Orduan Maxkarrak labana eduki balu, bertan sartuko zion ondoraiño. Baiña amorratua ala erantzun zion:

–Oraindik nik kenduko dizkiñat ire arrokeriak.

Eta betiko berexi zan neskarengandik ere.

Kaximiro ta ni ezkondu giñanean, etsi zuen. Ustez beretzat zeukan laguna galdu zuela eta beste arrantzale baten alabarekin ezkondu zan, bere tamaiñako neskaxa

batekin. Baiña, jendeak zionez, berak merezi baiño ohea.  
Guk elkarri esan ere bai:

–Aizak: neskatxa ona dek ori. Orrek arrazoitara sartuko dik gure Maxkarra.

# Terexaren kezkak

---

Gorroto ikaragarria zien Kasimiro ta bere emazteari, batez ere azkenekoari. Alare, bein baiño geiagotan lapurretan arrapatuta, etzuen biali. Maxkarrak baiño erruki geiago ematen zion bere emazteak. Onek Terexa zuen izena. Ain gozo ta atsegiña eta bi alaben ama.

Gizona lanetik bialita, zer egin bear zuen arek? Errukitzen zitzaiolako ere, orretxegatik amorratzen zan oraindik geiago Maxkarra. Onek arrazoi bat nai edozer astakeri egiteko eta ezin billatu.

Neri ere zearka begiratzen zidan. Bere kaxkarkeriak ezin zuen nere ona ere eraman. Bere etsai baten errukiz bizi zala pentsatzeak ozkia ematen zion. Kasimiroren lekuan beste bat egon balitz, aspaldietan kalean lanik gabe geratuko zan. Berak baiño erruki geiago ematen zion, bada, bi alabatxorekin zeukan emazteak.

Langilleen artean zabaldu zan Pedrok Terexari tratu txarra ematen ziola; eta gizontxo ura, kanpoan eta etxean, bietan zala otso.

Beti zeletan, beti gaizki pentsatzen, on egiña isekatzat artzen dutela, gizontxo oiek dira, izan ere, gizartean arraixkurik txarrenekoak.

Egun batean, Maxkarraren emaztea etorri zan galdezka ta eske Kasimirorengana.

–Egun on, Kasimiro.

–Baita zuri ere, Terexa. Naigaberen bat badarabilkizu biotz ortan. Benetan triste zatoz.



–Nere gizonak zure ontzietan lan egiten duen jakin nai nuke.

–Bai, Terexa. Lapurretan askotan arrapatu degu, baiña ni artaz baiño zutzaz geiago errukitzen naiz. Ez det biali. Ez-ta egingo ere, ikaragarrizkoren bat ez badu egiten, aren kaxkarkeriak olakorik ez luteke merezi baiña.

–Eskerrik asko, Kasimiro. Baiña neri ez dit xentimorik ematen eta ez dakit oraintxe zer egin. Amona ta bi alabak nola mantendu bear ditut, bere irabazirik ez badi dit ekartzen?

–Baiña, Terexa: arek ere besteak bezela artzen du.

–Eta erdia bederenik ezin al zaidazuke neri eskura eman?

–Ori, Terexa, zuen etxea konpontzen astea izango litzake. Nik ez daukat ortan sartzerik, eta deabru arekin ez dago jolasik. Nik beti bezela emango diot, eta zuek konpondu bearako dezute. Epailleak bai; ori egin lezake.

–Alabatxoak amonari utzita lanera asi bearako det orduan. Jaten degun pixarra, arraia, eskean biltzen det. Baiña jazteko ere zerbait bear degu. Ijitoak baiño gaizkiago jantziak darabilzkit bi alabak.

–Etzaite an da emen eskari ibili. Olako lekutara zatoroz. An emango dizute zuri tokatzen zaizun lana. Zerbait jasoko dezu, eta bear aiña arrai ere bai, jateko.

–Eskerrik asko. Biar an nauzu.

–Bai, joan. Nik leenagotik itzegingo diet.

–Ez dezu gutxi egiten, nere gizona dan bezelakoa izanta lantegian edukitzen. Illunabarrero, ura noiz etorriko beldurak egoten gera gu.

–Amabi urtera arte elkarren lagun izanak gera gu. Ordurako ere bere kaxkarkeriak nabarmenak ziran. Gaizki zabiltza orduan zure senarrarekin?

–Esan ez dizut, bada, ura etxean ikusteko beldurrak aidean gabiltzala? Utsarengatik jo egiten nau kupirarik gabe. Aspaldi ontan ez dakit arrazoi on bat eman didan. Alabatxoak, berriz, amonarengana iges egiten dute. Ari begirune aundia dio. Ama du ta etxea ere arena baita. Le-kaime sartzeko nenbillela iruzurtu nindun. Geroztik amaika aldiz damutu zait kalabaza ez emana. Langille ta ongille guziengatik gaizki itzegiten du. Bi omen dauzka mundu ontatik biali bearrak, bere asmoak betetzeko.

–Eta nolako asmoak diran badakizu?

–Ez, Kasimiro. Iñondik ere onak ez dira izango.

–Eta nor dira enbarazu egiten dioten oiek?

–Bat seguru asko ni izango naiz, noski. Bestela ez ninduke orrela ibiliko.

–Eta bestea?

–Ori ez dakit. Baiña txarrerako kontuan listua da nere senarra.

–Listua? Ez det uste, Terexa. Gaiztoa bai. Bera aundia ez da, baiña ortatik ondo ornitua dago. Guk ere badakigu gaizki egiten; baiña ni ez nijoa bide ortatik.

–Auxe inpernua etorri zaidana, zeruan bizi bear nuen!

–Nere aldetik, beiñepein, nezakeana lagunduko dizut. Or daukazu lantegia eta bear dezun arraia ere bai. Jainkoak bedeinkatzen gaitu. Gure ontziak arraiz beteak datoz, ta eskerrik onena urkoari laguntzea da. Baiña gizonaren saria bi erdi egitea ez dago nere esku. Ezin nin-teke beste famelietako gora-beeretan naastu. Ori epaille-aren egitekoa da. Baiña obe dezu pakean eraman, bestela zuretzat okerrago izango litzake ta.

–Badakit ori, Kasimiro. Lanaren bidez irabazteko modua izan ezkeru, andik aurrera konponduko naiz.

–Agur, Terexa, ta suerte on bat izan dezazula. Jakin nai nuke, orrek galdu nai dituen oiek nor diran.

–Zu ere beldurtzen zaitu orduan?

–Aurrez aurre ezin duten kakatsu oiek dira okerrenak. Nik ez diot on besterik egiten. Baiña gizartea maite ez duten ero gaizto oientzat, iseka egitea omen dala ori. Ezerentzat artzen ditugula, alegia, eta errukiz laguntzen diegula.

–Nik ere badakit nitzaz urrikalduta lana billatu didazula. Baiña mesede orregatik biotz-biotzez eskerrak ematen dizkizut. Bestela zer egin bear nuke?

Ori esan ta joan zan emakume gaixo ura. Kasimiro, berriz, an utzi zuen, ari poz pixar bat emanta, baiña galdu nai zituenak nor ote ziran burutik ezin kendurik.

Kasimirok neri agertu zizkidan Terexaren itxilluak eta Pedroren zemaia.

–Kakatsua leena! Nolako asmoak ote darabilzki bu-ruan? Joka darabilki orduan andre gaixoa. Emakume fi-ña da, bada, ori. Eta aurrak nola azi bear ditu, gizonak saririk ez badio ematen?

–Olako lekutan eman nioken lana, eta geroztik an zebillek. Ez dik sari izugarririk, baiña arrai paltarik ere ez.

–Ederki egiña. Txakurraren martxa zeraman orduan, aurrak amari utzi ta bera jolasean.

–Ori dek. Berak egin bear, gaixoak, lana. Eta bere asmoak betetzeko enbarazu egiten dioten bi oiek nor ote dituk?

–Benetan badio, bagabiltzakek erne. Gu bietakoren bat bai.

Orduan ortan geratu giñan, baiña kezketan.

# Oporraldiak

---

Mundura etorri bear ez luteken oien kaxkarkeriak utzita, urtero bezela gure amabost aldiko oporrak egitea erabaki genduen. Urte guzian beti lanean eta griña gaiztokoan artean bizi bearrak nazkatu edo aspertu egiten gaituela. Bizitza ere bazijoakigula: ta patroiairen esku ontziak utzi ta oporretara joan giñan.

Ni nere emazte ta alabekin, eta Kasimiro bereekin, Andaluzi aldera joan giñan. Mundu au zerbait ikusi eta ango jendea nola bizi dan ere ikasi. Udara aldi luzea Ondarribian igarotzen zuen andaluz jator bat bagenduen adiskidea. Gure ontzietan itxasora joatea oso atsegin izaten zitzaion, ez egurastera bakarrik, bai guri arrantzan laguntzera ere.

Bera bizi zan lekutik urruti zeukala itxasoa esaten zingun. Iñoiz joaten bazan ere, Mediterraneo aldera. Itxaso ustela deitzen zion; illa, alegia. Ez Kantauria bezela. Emen bezelako ez izgora ta ez izbeerarik etzeukala arek, eta leku kixkalgarria. Bere bizilekuan ere berotik obeto zeukala.

Askotan, beraizik ere, San Migelak aldean etortzen zan, emengo uraren bizitasuna ikustera. Itxasoaren orroa entzunez eta ugiñak arkaitzetan ibiltzen zuten borroka gaiztoari begira ezin aspertu.

Bein, gure ontzian joan zan batean, eguraldi ederra zegoela, arratsalde erdira sortu zuen enbata. Jaunari eskerrak, ez gaiztoenetakoa. Baiña gure andaluzari zer pentsatua eman zion. Alare, arrantzaleak ikaratzen etziranean, etzan bera ere ainbesteraño larritu. Guadalupe-

ko Amari eraspen aundia omen ziola. Ori, andaluz batek esateko, ez da gutxi. Legorrera arte, ari arrenka aritu zitzaien.

–Orrela bizi al zerate itxaso ontan zuek? –galdetu zizun, bein kaiaraiño sartu ta lasaitu zanean.

–Bai, jauna. Baiña ekaitz au ez da ezer ere. Okerra-goak igarotzen ditugu. Itxaso au bizia da, bizia.

–Bai, bai. Euskaldunen odola bezela. Itxaso onekin burruka dabillena, ezin liteke motel ta petral oietakoa izan.

–Larri ziñan, noski? –galdetu genion.

–Neri beldurgarria iruditu zait. Ez baidet oraindik itxasoan olakorik arrapatu. Baiña, zuek lasai ikustean, ni ere ala egin naiz: lasaitu.

–Guk itxasoko berri badakigu. Legorrekorik ez degu ikasi –esan zion Kasimirok, zerbait erantzuteagatik.

Bai andaluzak aguro jaso ere:

–Oporrik egiten al dezute? –galdetu zigun.

–Urtero, batera edo bestera. Bizi au motza da ta beti lanean ezin ariko gera –erantzun genion.

–Atozte datorren urtean nere finkara, zuen emazte ta aurrekin. Ikusiko dezute amabostaldi bat zoragarria nola igaroko dezuten. Egun oiek aspertu gabe pasatzeko naiko lekua badezute nere barrutietatik atera gabe. Gipuzkoa guzia aiñakoa bada ia nere finka.

–Ori da, ta arek ematen dizunarekin alperkerian bizi,

–Bai. Bada zerbait olako –mazal-mazal aitortu zigun andaluzak–. Baiña jende asko mantentzen da andik eta ez daude nerekin asarre. Zaldi basatiak baditut. Emen plazetan ibiltzen diran zezen oietakoak ere bai. Leen esan detana: fameli askori ematen diot nik bizia. Ura ez dago, au bezela, baserrika neurtua. Nik egunak bear di-

tut zaldiz, nere barrutiak ikusteko. Atozte eta berriz etortzeko gogoia egingo zaizute.

Alaxe, bada, andaluz mazal aren eskeintza oparora onartuz, eguneroko neke ta emengo ixtilluak aztuz, bi sendiak joan giñan.

Andaluz zaldunak Madridgo geltokian itxogin zingun. Andik aurrera auomobillean bere etxeraiño. Bagenekien etzigula xentimorik kobratuko. Orregatik, gu ere ez giñan eskutsik joan. Legatz eder batzuk eraman genituen. Bai andaluzak ondo ixtimatu ere.

Fameli ura dena leendik ezaguna genduen, esan bezela udara aldia Ondarribian igarotzen baizuten. Kaiako arrantzaleen ixkanbil ta zalapartak entzutea oso atsegin izaten zitzairen, itz bakarrik ez bazuten ulertuko ere.

Beso zabalik eta musuka artu ginduzten. Gurasoak zerbait begenekien erderaz, atzekoz aurrera bederenik, baiña gure seme-alabak baterez.

Iritxi giñanean bazkal ordua zan, eta bikaiña jarri zinguten. Berak ala naita, leenengoa, beiñepein, guk Ondarribian egiten genduen tankeratsukoa. Andik aurrera aien oituretara makurtu giñan. Ala bear ere. Aien etxean geunden eta asekada ederrak egiten genituen. Bazkalondo luze askoak ere bai. Gure gazteak eta angoak laster elkar artu zuten. Bai keiñuka bederenik elkar ulertu ere.

Gu arrituta geratu giñan ainbesteko barrutiak, eta geienak ordekek, erdi utsik ikusita. Bai; fameli asko bizi ziran, baiña batzuk mixeri gorrian. Beren nagusia jainkotzat zeukaten. Bazirudien arek mantentzen zituela. Aiek, gizarajoak, etziran barruti artatik ateratzen.

Gu arrantzaleak giñala esan genien. Ontzi txiki batean, itxasoarekin burruka eta arraixku txarretan nola ibil-

tzen giñan bizimodua ateratzeko. Baiña, itxasoaren berri etzekiten ezkerro, etziguten ulertzen.

–Ez al dago, bada, an legorrik? –galdetzen ziguten.

–Bai; baiña legorra ez dago emen bezela utzia. An mendi ta ordekek baserriz beteak daude. Barruti gutxi-ekin ateratzen dute beren bizimodua. Emen erdi utzian dagoen lekuan, an lareun milla bizi gera. Eta zuek zenbat bizi zerate emen?

Nagusiak erantzun zigun:

–Bi millatik gora ez.

–Eta zenbat dira lantzen duten lurraren jabe?

–Ni besterik ez. Au dena nerea da.

–Gurean, berriz, geienak lantzen duten lurraren jabe dira.

–Auek, beren gisa ta lurraren jabe utzi ezkerro, ez luteke ezer egingo.

–Jakiña, morroi dauzkazute beren erara. Lan egiten erakutsi egin bear. Ez ume txikiak gurasoen mende bezela eduki, beti gizaldiz gizaldi ezeren aurrerapenik egin gabe. Nagusiak tresna berriren batzuk ekartzen badizkie, konten. Ez baidaukate berak modurik. Nagusiak mantentzeko aiña emango die, ta beste gaiñerakoa berak jaso.

Ea gu langilleak giñan galdetu ziguten. Baietz, baietz; nagusi ta langilleak giñala.

–Eta nola ateratzen dezute, lanik egin gabe, amabost egun oporretan bizitzeko aiña, irabazirik ez badator?

–Gure itxas-ontziak lanean ari dira; ta, jakiña, badator irabazia.

–Zuen itxaso ori nolakoa dan ikusteko badaukagu, bada, gogoia. Ez degu oraindik olako suerterik izan.

–Berdintsu bizi gera. Guk ez genduen Andaluzi alde au sekula ikusi. Akperrik da langillea beti bere lanari lotua bizitzea.

Aiek agurtu ta aurrera jarraitu genduen. Bidean ginjoazela, zaldizko bat urreratu zitzaigun, plazetako zezenak zaindu ta mantentzen ari ziranen buru bezela zegoena. Nagusiak ala esan zigun:

–Ez gera emengoak bakarrak ara joaten. Angoak ere badakite onera etortzen. Zaldi gaiñean datorren ori zuen erri aldekoa da: euskalduna.

–Eta euskeraz badaki?

–Jakingo ez du, bada? Emengo neska batekin ezkondu zan, eta onek ez dauka ara bizitzera joateko gogorik. Zaldizkoa urbildu zanean, ala agurtu genduen:

–Arratsalde on. Zaldiz ibiltzeko giro al dago?

Jauzi batean jetxi zan, oiuz ziola:

–Baita zuei ere! –banaka-banaka denei esku eman ez-. Euskaldunak emen? Alajainkia! Urtea bada ez detala euskeraz itzegin.

–Bai; baiña zu leenago etorri ziñan.

–Onek ekarri erazi nindun. Emen lana eman zidan. Nik ondo irabazten det. Beste gixaixo oiek ezer gutxi. Nongoak zerate?

–Ondarribiko arrantzaleak. Urtero bezela, amabost aldiko oporrak artu ditugu; eta, zuen nagusi au udara aldean gure itxas-ontzietan ibiltzea atsegin zaion oietakoa baida, opor oiek bere finkan igartzea nai bagenduen eskeiñi zigun, eta gu etorri egin gera.

–Ederki egiña. Ez du orregatik kiebra joko, ez.

–Aberatsa da orduan?

–Zenbat interes duen ez dakien oietakoa.



–Eta zu nongoa zaitugu?

–Oiartzungo semea.

–Eta erri xaar ura ikustera joaten al zera?

–Aspaldi ontan ez.

–Ondarribia zoragarria bada ere, Oiartzunek ere badauzka bere edertasunak. Ango baillara ura bikaiña da gero.

–Bai. Aiako Arri aldetik begiratuta Errenderi jotze-raiño ura lilluragarria da. Baiña joan bear det. Emazteak eta seme-alaba txikiak ez dakitela euskeraz, ez dakit nola konponduko geran.

–Gure seme-alabak ez dakite erderaz, baiña begiraiezu emengoekin nola konpontzen diran.

Gero nagusiarekin itzegin zuen, eta an ikusi genduen zezen bat nola zekarten illa, arrastaka, bi zaldiren artean.

–Burruka asi dira ta besteak bi adarrak sartu dizkio sabeletik. Zezen oien adarrak ezpatak baiño zorrotzagoak dira.

Agurtu genduen gure oiartzuar andaluza; eta, mugarik gabeko barruti aiek ikusiz, igaro genduen arratsalde guzia. Guretzat leku kiskalgarria da ura. Ezin izerdirik kendu. Ango jendea, berriz, ortara oitua dago.

–Eguzkiaren sarreran, Ondarribian bezela aterako ote du ipar aize atsegin presku ura?

–Bai zera! Eguna bezin kiskalgarria arratsa. Aizerik ez, gizona. Ez an Kantauri bezelako itxaso bizirik eduki inguruan. Onek bere eragiñean zabaltzen du mendi aldera aize atsegin ura.

Amabost egun igarotzerako, garbi esan, aspertuak geunden, ezeren paltarik ez bageneukan ere. An oituentzat ederra izango da ura; baiña Kantauri inguruan bizi

geranontzat, kiskalgarria. Gau ta egun ezin atsedetik artu.

Eskerrik beroenak eman ez etorri giñan. Seguru bagenekien berriro fameli oparo ura Ondarribian ikusiko genduela, eta “datorren udara arte” esan ta etxerako bidea artu genduen.

# Maxkarra enbarazuak kentzen

---

Ango oporrek bukatu ta alai gure errira sartu giñanean, berri kaxkar bat eman ziguten: Terexa, Maxkarra-  
ren emaztea, oso gaizki zegoela.

Gu Andaluzira joan giñanean, berarekin itzegin genduen; eta osasuna saltzeko ere bazeukan arek, baiña kezkatu zegoen.

–Ez ote da gero ori enbarazu egiten zioten bietakoren bat izango? –pentsatu zuten gure opor zaleak.

–Litekena da. Bagabiltzake erne.

Berak lana bazeukan Kasimirok emana, arraia ere bai aukera etxerako ta eskertsu zegoen benetan. Alabatxoak mantendu ta jazteko aiña irabazten zuela; baiña bere gizonak tratu txarra ematen ziola berari, ta alabei ere bai, ta gero ta okerragoa. Ala esaten zigan:

–Ez dakit alabatxoak artu ta ez ote detan aldegingo. Baiña amagiarrebak ematen dit pena. Neretzat ain da ona.

Emakume ura ondo zegoen, bada, gu Andaluzira joan giñanean.

Baiña batean lantegitik etorri omen zan etxera, alai lanera joan ondoren, sabelean miña jarri zitzaiola ta ezin zezakeala lanean jardun. Eguraldi txarra zala ta Maxkarra etxean zegoen, eta sarreran ala eskatu zion Terexak:

–Mesedez, Pedro: sendagillea deitu zazu. Goizean ain ondo joanta, ez dakit zer detan. Sabela kiskaltzen daukat, noski.

–Deituion Kasimirori, ea lana bezela sendagillea ere ekartzen diken.

–Arek gure fameliari on egin ziolako, orrela jarri al zera?

Etzion galderari erantzun.

–Ori ez den ezer ere. Janak ez din onik egin. Bereala pasako zain.

–Ez dakit zer dan, baiña deitu zazu, mesedez. Nik ezin det geiago.

–Txorakeriak! –esan ta aldegin zuen.

Orduan Terexak amagiarrebari dei egin zion. Onek ura erraiña zuen. Maxkarra, berriz, semea. Amona xuxenean etorri zan. Bai-baizekien tratu txarra ematen zio-la ta laguntzea naiko zuela. Ikaragarriak esaten zizkion.

Agertu zanean, oatzean arkitu zuen, eta biurri-biurri egiña, oiñazetan.

–Zer den? –esan zion-. Ez al aiz lanera joan?

–Bai; baiña sabeleko miñak eraso didate eta ezin det iraun. Erraiak kiskaltzen dauzkat. Nere gizonari deitu diot sendagillea ekartzeko eskatuz, eta ala esan dit de-sairez: «Txorakeriak!», eta aldegin du emendik.

–Oraintxe bertan deituko zionat.

Esan ta egin. Adierazi zion medikuari nola arkitu zuen erraiña eta, aal bazuen beiñepein, leenbaileen azal-tzeko, oiñaze gaiztoak zeuzkala ta.

Elkarrekin etorri ziran eta sendagillea xuxenean gai-xoaren gelara sartu. Orduantxe, ala bear ta, etorri zan Maxkarra; eta, medikua bere emaztearekin somatu zue-nean, amari eraso zion:

–Nork deitu du sendagillea?

–Nik, Terexa oso gaizki zegok eta.

–Eta nere baimenik gabe?

–Nor aiz i etxe ontan? Nere semea aizela, zoritxarrez; besterik ez. Etxe au nere gurasoengandik zetorkidak. Ez-ta ire aitak ere etzekaken onekin eskubiderik. Baiña leenengo iri eskatu dik medikua ekartzeko, eta ez dek aintzakotz ere artu.

–Terexak ez du ezer, aitzakiak besterik.

–Aitzakia duen edo ez sendagilleak esango dik. Orrekin ez diagu ezer ere galduko. Ortarako ordaintzen zioagu.

–Bai; alperrik nekaraztea.

Ernegatua zegoen ama bere semeak errain maiteari, batere arrazoirik gabe, tratu gaiztoa ematen ziolako.

–Beldur al aiz aztarren txarren batzuk billatuko ote dizkion?

–Zer aztarren gero?

–Ik ematen dizkioken tratu txarrenak.

–Bai; begiratu orduko karraxika asten da.

–Nere erraiña ez dek orren izutia. Urrea balio duen emakumea dek ori, ik merezi ez bezelakoa. Semea aut. Oraintxe jarri giñun ondo, lana ere billatu zin ta.

–Bai. Kasimirok arkitu zion. Jainkoak daki nola da-biltzan.

–Irekin baiño obeto. Ez dek, beiñepein, zailla. I mundura ekarri iñuanean, obe nin librako ogi bat egin banu. Ura jango nin ta kito.

Auek elkarrekin ari ziran bitarte, sendagillea arritua zegoen, Terexaren oiñazeak zertatik zetozen jakin nairik. Ondo aztertu ondoren:

–Oiñazeak al dauzkazu?

–Bai, jauna; ta ikaragarriak.

–Leen olakorik nabaitu izan al dezu iñoiz?

- Bai, jauna, apendizitisarekin.
- Ez ote dezu orain ere olakoren bat izango?
- Ez, jauna, kendu zidaten ta.
- Ia sukarrik ez dezu. Zerk ematen ote dizkizu olako oiñazeak?
- Nik ez dakit, baiña oso gaizki nago.
- Goizean zer artu dezu?
- Beti bezela, katillukada bat kapesne.
- Danik eta galduena egonta ere, ezin lezake orrek olako oiñazerik eman.
- Nik ez det, bada, beste ezertxo ere artu.
- Zere bizimoduz etsita al zabilta?
- Ni ez, jauna, ez naiz ondo bizi baiña.
- Eta etxekoekin ondo al zatoz?
- Amagiarreba neretzat amarik onena da. Baiña senarrarekin denok gabilta gaizki. Ez da jatorra. Oso alderdi gaiztoak ditu. Orduan etxean arekin ez da atsegin izaten.
- Oso susmur txarra egiten det, Terexa.
- Baiña zeren susmurra?
- Garbi esango dizut: zuk zitala edo edena artu dezu.
- Barkatu, jauna. Ni kristaua naiz eta ez det olakorik egingo, ez banaiz erotzen. Nere borondatez ez det benenorik irentsi. Baiña eman badidate?
- Edena artu dezu edo eman dizute, ta laster mundu ontatik eramango zaituena, noski.
- Terexa negarrez asi zan. Etzan arritzekoa, orain bizi-pozean sartu zanean.
- Ez da egia izango ori, jauna.
- Bai, zalantzarik gabe, noski.
- Jesus! Ori ere eman digute orduan?

–Bai, Terexa. Iñoren susmur txarrik egiten dezu?

–Bai, jauna. Baiña ez nuke iñor orrela epaitu nai. Berdin, zuk diozunez, ez dauka erremediorik.

–Orain zaila izango da, jan dezunean. Baiña bai urdaila garbituta. Ez dezu, bada, norbait benetan maite dezunaren juzkoa egingo?

Terexa bere baitan itxi zan eta etzion erantzun.

–Gaur egunean aurrerapen aundiak badira, eta sendagai indartsuak ere bai. Agian ez dizute gaiztoenetakoa eman. Nolakoa artu dezun bageneki...

–Nik susmurra detana baldin bada, baliteke sobratu zaiona atzeko armario txiki ortan gordetzea, onekin ez banaiz iltzen ere berriz emateko.

Beste trasteen artean an arkitu zuen.

–Auxe eman dizute, Terexa. Oraingo indizio berri batzuk badute onen aurkako indarra. Errian ez dira izango, baiña leenbaileen ekarriko bagenitu...

Eta eden ura berak ezkutatu zuen.

–Alare obe dezu elizakoak artu. Naiko dezu, noski.

–Bai, jauna, bai. Baiña ez da orrenbestekorik izango.

–Sendagaiak garaiz etorriko balira, baneukake itxaropena. Obe dezu, alare, esan dizudana egin. Baliteke luze samar izatea eta konturik gabe geratu ziñezke.

Andik atera zanean, eztabaidaka somatu zituen ama-semeak. Sendagillea serio ikusi zuenean, izutu zan amagiarreba.

–Zer du nere erraiñak?

–Lotsa ta amorrua ematen dizkit kontatu bearrak ere. Norbaitek benenoa eman dio.

–Alabatxo oien amari edena eman?

–Bai; ta elizakoak ematen azkar ibili, konturik gabe geratu liteke ta.

Amak zorrotz begiratu zion semeari; eta, bi eskuekin arpegia estaliz, negarrari eman zion.

–Ezin liteke ori, sendagille. Etzenduen asmatuko. Nork eman bear zion ori?

–Terexak badaki, baiña ez du esan nai izan.

–Zuek itxurak egiten dituzute, dena dakizutelakoan. Jokatuko nuke ez duela tripa-miña besterik –isekaz bezela zion Pedrok.

–Beste norbaitek ez dakit ez ote dituen ala egiten –sendagilleak.

–Etxe ontan orri edena emango dionik ez da. Kanpoan emango zioten.

–Goizeko kapesnea besterik ez duela artu esan dit.

–Orduan oiñaze oiek ez dira zitalarenak.

–Jokatuko dizut burua.

–Nola jakingo degu ori?

Sendagilleak bere sakeletik atera zuen botilla bat.

–Au zure armario txikian zegoen. Emendik eman diozu. Ez ori bakarra. Emakume ori joka mazpildua dago. Zu al zera bere senarra?

Pedro ixilik geratu zan, baiña amak erantzun zion:

–Bai, jauna. Onen emaztea da ura.

–Emakume ori iltzen bada, ez da gero au ortara geratuko.

–Orduan laster ilko dan zalantzak dituzu? –galdetu zion amonak.

–Ez dizut olakorik esan. Eden aul samarra da, eta baidu erremedio bat ona. Ori billatu bear det leenengo. Bai-



ña elizakoak ematea ondo egongo litzake, korderik gabe gelditu liteke ta.

–Elizakoak orri? –esan zuen semeak.

–Aldegin zak nere begien aurretik, zerri batek aiña sentimentu ez daukak eta.

Amagiarreba xuxenean erraiñarengana joan zan, eta biurrituta karraxika asi nairik arrapatu zuen gaixoa.

–Sendagilleak ezer esan al din?

–Bai, ama –ala deitzen zion–. Obe detala leenbaileen elizakoak artu.

–Naiko ditun, noski?

–Orixe! Ez det sinisgabeko bat bezela joan nai.

–Gaizki ago orduan?

–Errai guziak kiskaliak dauzkat.

–Sendagilleak bazeukan aterako aizen itxaropena, onen erremedioak aguro billatzen baditu –esanta, atera zan gelatik.

Etxean bertan bizi zan beste fameli bat. Beren adiskidea zuten ta ango andreari eskatu zion mesedez ea bikarioarengana joan ta elizakoak leenbaileen ekartzeko abisatuko zion. Amona negarrez somatu zuenean, ikaratu zan bera ere.

–Nor daukazu, bada, orren estu?

–Nere erraiña Terexa.

–Baiña nola, goizean elkarrekin joan gera ta?

–Edena eman diote.

–Benenoa? Jesus! Baiña nork?

–Ez dakigu. Goizeko kapesnea besterik ez duela artu esan dit berak. Naita edo naigabe, etxeko lana da ori.

–Bai, emakumea, bai.

Eta xuxenean joan zan. Bitartean, amagiarrebak bear ziran puskak jarri zituen; eta, musu bat emanik, ala galdetu zion erraiñari:

–Ez unan, bada, edorrek naita artuko?

–Ez, ama, ez. Ni konten bizi nintzan orain.

–Eta noren susmurra egiten den?

–Pedrorena, ama. Ordu artan ez da sukaldean besterik sartu.

–Baiña senar batek bere emazteari ori egitea ere...

–Bein baiño geiagotan esan dit, bere asmoak betetzeko, mundu ontan bik enbarazu egiten diotela. Leenengo badarama. Nor ote da beste ori? –zion Terexak negarrez–. Baiña barkatzen diot. Alaba gaixoak errukitzen zaizkit.

–Kuidadu oiek utzi intzan munduan. Iltzen baaiz, beiñepein, ni egingo nau billobatxo oien jabe, juezetara joango banaiz ere, berdin nere semea beretzat biziko den ta. Koxkortu ditun, gaiñera.

Amona, beste musu bat eman ta atera zan andik, Madalen bat egiña, erraiñaren egoera triste arekin izutua.

Bazkalondoan etorri zan apaiza eta Pedrorrekin topo egin zuen ateetan.

–Nere baimenik gabe elizakoak etxera?

–Neri leenbaileen ekartzeko abisatu didate.

–Ez da etxe ontan elizakorik sartuko.

Izketan nabaitu zituenean, ama azaldu zan eta, arri-turik, apaizak ala galdetu zion:

–Neri onera etortzeko esan didate, ta onek ez digu uzten.

–Nere partetik deitu zaituzte eta etxe au nerea da.

–Orduan sartu giñezke?

–Bai, jauna. Ortarako deitu zaitugu. Leenbaileen, gaiñera, bera zai dago ta.

Galerazi nairik asi zan Pedro. Baiña apaiza sakris-tauarekin etorria zan eta onek bultzada bat eman ta sar-tu ziran.

Larri arkitu zuen. Bere lanak bukatutakoan, galdetu zion amonari:

–Emakume onek zer du?

–Sendagilleak dionez, edena artu du. Ez berak naita; eman egin diote.

–Ondarribian ere bai al dira olakoak? Arratsaldean etorriko naiz.

Ori jakin orduko, gu bi fameliak azaldu giñan. Baiña benetan eroria zegoen Terexa, begiak itxita, iñoizka «Ai, ama!» esaten zuela. Alare ezagutu gindun. Gure emaz-teak musu bana eman zioten. Itzegiteko nola etzan gau-za, ez genduen nekatu erazi nai izan. Baiña zer pentsa-tua eman zigun. Guk, gure ustez, beste mundura arte agurtu genduen.

–Nork eman ote dio eta zergatik?

Amonak erantzun au eman zigun:

–Ez da iru ordu erraiñak esan didala: bere asmoak betetzeko, bik enbarazu egiten omen diotela bere sena-rriari eta berarekin bat daramala.

–Eta ez dizu esan bigarren ori nor ote dan? –galdetu genion.

–Ez du jakingo. Bestela, kontatu gabe etzan geratuko.

–Bere deabruzko buru ortan nolako asmoak ote da-rabilzki?

Bere gurasoak sartu ziranean, gu atera giñan; baiña erne ibiltzeko erabakia artuta.

Medikuak esandako sendagaia billatu zuen eta, au etortzerako, Terexa lo zorroan sartua zegoen. Amonak alperrikako lana izango zala esan zion.

–Ez orixe. Uste det garaiz arrapatu detala. Beneno au oso motela da, baiña suprikizun gaiztokoa.

Bere ziztakoa eman zion eta onela esanta joan zan:

–Biar garai ontarako etorriko naiz.

Arrats guzian Terexaren anai batek zaindu zuen.

Urrengo egunean, sendagillari berdintsu zegoela iruditu zitzaion. Okerrago ez, beiñepein. Laugarren ziztakoa ematera etorri zanean, arraixkutik aterea zegoen. Begiak zabaldu ta izketa ere egiten zuen zerbait. Esku emanez, kontentu ala esan zion sendagilleak:

–Zorionak, Terexa, Oraingo ontatik atera zera.

–Benetan al diozu ori? Ez dit oiñazerik ematen, ez.

–Zalantzarik gabe. Sendagaiarekin asmatu degu.

–Eskerrik asko, jauna. Baiña aiek oiñazeak!

–Ez naiz batere arritzen. Egun batzuetan jarraitu zazu emen, indizioak bukatu artean. Biar garai ontarako emen izango nauzu, eta amari ere eman berri on ori. Ez baidet etxean arkitu.

Terexa atsedean artu ta ondo zaindu bearra zegoen. Maxkarraren ondoan tratu txarra artuko zuela eta gura-soak bere bi alabekin amonaren eskariz baserrira eramane zuten.

Bere berri gabe ori egin zutelako sumindu zan gure Pedro. Ortan arrazoi pixarren bat bazeukan, noski. Baiña ixilik geratu zan, bere pekatuaren berri epaileak ikasiko zuen beldurrak.

Bat ez besteak, denak poztu ziran. Leenengo tiroa utsegin zuen.

# Aizunkeria

---

Ondarribi guzian zabaldua zegoen Terexari benenoa eman ta laster ilko zala. Berri gaizto ori noiz entzungo zai zegoen erria.

Etzan, ordea, olakorik gertatu. Aoz ao bereala ikasi zuten Terexak onera eman zuela eta bere bi alabekin gu-rasoak baserrira eraman zutela, Maxkarrak asitakoa bukatuko zuen beldurrak. Mirari ez ote zan izango zital gaiztoa emandako emakumea orren aguro sendatzea? Beiñepein, egia zala laster zabaldu zan.

Andrea il zori zegoela ta etzan, noski, Maxkarra asko naigabetu. Sendatu zitzaion ontan askoz serioago zebillen. Egunero joaten zan arrantzara, leen esana dauka-gun bezela, Kasimiroren ontzian. Errukiz artu zuten ta an jarraitzen zuen.

Emaztea sendatu zitzaiola berri on ori ikasi zutenean, denak zorionak ematera urbildu zitzaizkion, ontzian sartzen ikusi zuteneko. Etzien asko eskertu.

–Aizunkeria besterik ez. Ajola dizute zuei. Itxura, ori dek egiten dezutena.

–Aizak: aizunkeri ori irea izango dek. Emen denok poztu gaituk, Terexa sendatu dala jakin degunean. Ondarribian batek bakarrak artuko zin pena, eta ori i aiz. Ebaki-ebaki egiña eduki dek ik urrea balio duen emakumea. Gaixoa! Erri guziak etziok besterik –esan zion ontziko patriiak, Ixabelen aitak alegia.

–Zuk zer ikusi daukazu nere emaztearekin? –erantzun zion.

–Nik ezer ez. Baiña kristaua nauk eta benetako atsegiña ematen zidak nere langille lagun baten zorionak, eta orregatik eman dizkit. Baiña ordurako ire pekatu gaizto orren berri banekiken, eta gurasoak beren etxera eramatea ere oso ederki egin ditek. Etzegoken gaixoa ire ondoan seguru. Ori dek nik entzun ta sinisten detana.

–Orduan zuk ere ontzat artzen dezu nere berri gabe emaztea kendua?

–Ondo pentsatu ezkeru, bai. Berdin xuxperten ari zanari indartzen ez ion utziko. Bere gurasoak ori esan zidatek. Itzegin baidet aiekin.

–Zer ikusi daukazute nere emazte ta alabekin? Aizunkeria besterik ez!

–Leen ere esan dit kristauak generala, eta aiek laguntza bear ditek. Ik ez diek emango, baiña guk bai. Ezin duenari laguntzeak atsegin ematen ziguk.

–Bai. Itxurak egin. Aizunkeria!

–Ik nai dekana esan, baiña andrea sendatu zaikela ta ez aiz geiegi poztu. Emaztea etxera ekarri nai badek, epaileak arrazoi emango dik ortan. Bazekiat, ordea, ez aizela arengana joango. Pekatu gaiztoren batzuk azalduko bailirake. Ni pozten nauk, beiñepein, eta torizkik nere zorionak.

Eta eskua luzatu zion. Etzuen Maxkarrak oso gogoz artu, baiña legea kunplitu zuen.

Patroiarekin izketan ari zala sartu zan Kasimiro. Onek ere, bada, eskua luzatuz bere zorionak eskeiñi zizkion. Alare etzuen atzera egin.

–Eskerrik asko –esan zion–. Artuko nauzute, noski?

–Orain arte bezelaxe jardungo dek gurekin lanean; eta etxerako arrairen batzuk eramane bai badituk ere, nik ez dit galeraziko.

–Nik ez dit iñoren limosna bearrik.

–Obe, obe. Arrazoitara sartu aizen itxura dek ori.

–Ori zergatik esaten didak?

–Nik bezin ondo dakik. Ez digu kontatzen ari bearrik.

–Bai. Nere emaztea sendatuak poza emango balikek bezela. Aizunkeria besterik etzebilek emen.

–Txatxukerian ortara asi aizen ezkeru, garbi esango dit: emengo langille guziak i baiño geiago poztu gaitzik uste gabeko ire emaztearen berpizte orrekin, eta etxean ire amari geratu zaion buruaustea ere zer dan bazekia-gu. Ik nai badek eta ez badek, lagunduko zioagu bi alaba aiek azitzen, eziñean ikusten bade-gu.

–Orain arte mantendu dizkiagu.

–Ezin susperturik ari dan emazte gaixoak bai. Ez ire laguntzak. Kristauak gaituk ezin duenari laguntzeko.

–Sari geiago emaidak eta ez dituk goseak ilko.

–Ematezkeroz, emazteari; baiña ez iri.

–Ik zer ikusi daukak nere emazte ta aurrekin?

–Munduko legeetan ezer ez. Kristau geranok ezin duenari laguntzea beartuak gaudek. Ire amak orixe eskatu ziguken, Terexa il zori zegoela ikustera joan giñanean. Ezagutu gaitziken, baiña ezin garbitu zin itzik.

–Eta zer ikusi zeneukaten arekin?

–Leenengo, gaixoak bisitatzea ebanjelioko agindu bat dek. Bestetik, gure langille baten emaztea. Ez ori bakarra; langille ere bai.

–Erdi zorabiotua zegoela burua naastu bai, egin zenioten zuek ari. Etxea zaintzeko ez diagu beste iñoren bearrik.

–Ori etzekit. Baiña umil ta negarrez etorri zitzaiguk bein, ea ik kobratzen uan sariaren erdia ari emango

genion. «Eziñean al zabiltza, bada? Besteak bezela ko-bratzen du» esan nion. «Nik arengandik bizkarrekoak besterik ez det artzen» erantzun zidaken. Ni ez nintzala iñor besteren famelian sartzeko. Baiña lana nai bazuen billatuko niola. Baita egin ere. Ori dek guzia. Emen etzegok aizunkeririk. Egintzak ugari bai.

–Bai. Nik benenatu nuela; ala diozute.

–Egun auetan ez dek besterik entzuten. Neregatik bego bizirik. Atera dek, beiñepein; ta alare denbora izango dek testigu.

–Ik ere orduan zalantzan jartzen dek.

–Bai, Pedro. Ez dit aizuna izan nai. Terexari entzunaz gaiñera, nere kezak badizkit. Jakiña, segurantzirik ez. «Bere asmoak betetzeko bik enbarazu egiten omen dio-te nere gizonari». Ire emaztearen itzak dituk oiek. «Eta nor dira bi oiek?». «Bat, beiñepein, zalantzarik gabe, ni. Bestela ez niñuke narabilkien bezela erabiliko. Bestea nor izan liteken ez dezu susmurririk egiten?». «Ori ez da-kit. Bere asmoak nolakoak diran ere ez». Orain ik jakin-go dek buru ortan zer darabilkiken.

Pedrok etzion erantzunik eman. Baiña lotsik gabe:

–Orduan jarraitu nezake emen.

–Langille bezela nik etzeukat orain ire kejarik; eta kanpoko esamesagatik ez dit iñor lanik gabe utziko. Baiña bigarren ori nor dan ez jakiñak naiko kezak ematen zizkidak. Agian Jesus Judasekin bezela nabillek, ni nola galduko egokiera billa dabillen bat ontzian daramadala.

–Ik nai dekan bezela pentsatu; baiña nere emazte ta aurrak ez ditek ire laguntza bearrik. Emaztea bi alabe-kin gurasoak eraman ditek, suspertu arte, beren base-rrira.



–Bejondeiela! Ederki egiña!

Andik laster gaixo geratu zan Pedro. Egun batzuk igaro zituen. Emaztea il ezaren naigabea izango zuela zioten batzuek.

## Ama-semeak

---

Gaixo aldia pasa ta bereala asi zan lanera, eta bearko, ezer gutxi edukiko zuen aurreratua ta. Amak zaindu zuen. Lanera asi zan, baiña emaztearekin bezela irabazi guzia beretzat. Amarentzat xentimorik ez. Ama-semeen artean bereala asi ziran eztabaidak.

–Aizak, Pedro –esan zion onez onean–. Badakik, noski, nik ere jaten detala, eta jantzi ere bai. Nik etzeukat aurreraturik. Ez nauk lujo aundikoa, baiña etxe baten jabe dan amonatxo bat bezela azaldu nai nitek.

–Orrekin zer esan nai didazu?

–Ori ez ulertzeko ez aiz i orren tontoa. Ik jaten dekana eta jantzia ezin nezazkek nik patrikatik atera. Ire irabaziaren erdia ekatzak eta konponduko gaituk. Berdin emazte ta alabak ez ditek ire laguntzaren bearrrik. Gurasoen etxean bizi dituk eta, Terexa lanera asi arte, aien bizkar joango dek. Berdin ik txakur ar baten martxa egin dek: edorri aske geratu eta aurrak amari utzi.

–Nere irabazia bear det nik.

–Or konpon adi orduan. Nik etxearen errenta kobratuko dit, bai, ta nai dekena egin zak.

–Ni ez naiz patrikan xentimorik gabe ibiliko.

–Eta beste fameliko gurasoak nola zebiltzak? Ik aiña irabaziko ditek. Amar seme-alaba dituztenak badi-tuk. Ik ere mantenurako ezin badek, leku ederrean zeudek. Zergatik benenatu uan emaztea? Eta ire atzapar gaizto oietatik askatuko bada, gurasoak eraman

bear izan ditek bi alabekin, ire ondoan etzeudeken seguru ta.

–Deabruzko arrazoia da orratik ori. Nork eman zion Terexari zitala?

–Ik, Pedro, ta ez beste iñork. Erriak ere bazeukak orren susmurra. Baiña nik seguru bazekiat. Semea auten ezkeru, ez aut galdu nai. Amari ukatzen badiok, biali egingo aut etxe ontatik; eta, erraiña lanerako moduan jartzen danean, bere alabekin etxera ekarri. Emaiok amari ere edena eta il zak. I ere norbaitek laster galduko au. Elizakoak artu aurretik esan zidaken Terexak, nere galderari erantzunez: «Au, ama, Pedoren lana da. Goiz artan sukaldean etzan ura besterik sartu. Baiña barkatzen diot». Beste beldur gaizto bat ere bazeukaken gaixoak: «Ez dakit alabekin ere ez ote duen beste orrenbeste egingo». Zalantza gaizto ori zeukaken emakume maitagarri arek. Orregatik, zutik jartzeko moduan jarri danean eraman ditek gurasoak, bere alabak ta guzi. Zuen gela garbitzera joan nintzanean, bi poltsa txiki arkitu nizkin; eta, zer ote ziran erakustera eraman nituenean, benenoak zirala esan zidateken. Ez nauk gezurretan ari.

–Bai; susmurrak.

–Ik nai dituken aitzakiak jarri, baiña ori etzegok ukatzerik. Terexak ez dik zalantzarik egiten. Nik ere saria eman eraziko banikek, epailearen aginduz ez uke zailla ori eta, espetxean bukatuko ituke munduko egunak.

Entzuten ari zan salaketak amorrus jarri zuten, baiña amari zer egin?

–Nik nere burua mantentzeko aiña nonbaitik aterako dit; eta, zorriak jango baaute ere, nik ez dit ire garbita-

sunik egingo ere. Gelan sar adi, bai, eta or konpon adi. Urrea balio duen emaztea ez badek geiago maite, egunen batean damutuko zaik ederki.

Makillarekin jotako txakurra bezela, purrustada batean aldegin zuen etxetik Pedrok.

# Izurritea

---

Aspaldidanik ia urtero izaten degu munduak zear izurritea. Europa aldean, otsail inguru ortan, gripe esaten diogun orrek egiten digu bere ikertxo. Eraman ere bai berarekin batean amaika gizon ta emakume, gaitzak menderatuak dauzkan zaarrak, baiña bai gazteak ere.

Ni kontatzen ari naizen garai artan, gogorrenetakoa zan. Egoaize erre batek jo zuen otsailleko egun batzuetan eta orduan sartu zan emen gripe ori. Baiña illebeteetan entzuten genduen Asia aldetik bazetorrela. Poliki-poliki beti aurrera, gaur nazio bat, biar bestea; gudatean bezela, gaur erri bat, gero bestea.

Izurrite gaizto oientzat alperrik dira arresiak. Denen gaiñetik igarotzen dira. Ikusten ez degun xomorro ori kaiñoiak baiño beldurgarriagoa da. Esaten ziguten jende asko zeramala ankaz aurrera.

–Asia aldean bai –zioten–. Atzeratuak bizi dituk eta zerekin kontra egin bai al zeukatek an?

Beren buruak zerbait pozteagatik zioten ori; baiña aurretik zekarren beldurra ikaragarria zan. Ez-ta guda-rozte bat baletorke ere bazter guziak txikituz, alako izua.

Europan sartu zan eta emen ere bere sarraskia egiten zuen, aurrerratuagoak izanagatik. Zomorro txiki arek etzuen atzera egiten. Pipiak erdi jota zeuden oiek larri zebiltzan.

–Ez ote dute onera baiño leen geratuko? –zioten.

Biotzetik zeudenak ia erabat eramaten zituela, ots gaizto orrekin sartu zan Ondarribian. Asko il ziran. Aietako bat nere aita. Egun batzuk tristenetakoak izan ziran gure errian. Sendagilleak bazeukaten zer egiña. Etzuten egun oietan atsedena artzeko aukera aundirik izan. Apaizak ere maiz zebiltzan Ondarribi-ko karriketean, txintzarri-otsa zeriotela, elizakoak eraman ta eraman. Noiznai entzuten genituen il-ezki-otsak, eliz dorreko kanpaiak danbaka; eta, jende-moltsuak il-kaja bizkarrean zekartela, kanposantu aldera. Bat pasa orduko, atzetik bestea. Eriotz-giroa zegoen, bada, Ondarribian.

Kolera zerbait izango zan, baiña Euskal Errian etzuen izurrite arek eriotz geiago egingo. Alare, eriotz aiek guziak ulerterrezak ziran: leendik gaixo zeuden eta gripe orrek ematen zien palta zutena.

Baiña bazan ustez eriotz bat ulertzen zaila eta egun batzuetan esames ugari ekarri zuena. Goiz batean entzun genduen eta txundituta geratu giñan: Kasimiro galdu zala bere ontzitik, arrantzara zijoala.

Etzegoen itxaso txarra. Aize pixka bat bazebillela; baiña itxasoan ain oitua zegoen gizon gazte ura urera botatzeko etzuen nolanaikoa bearko. Arraixku pixka bat bazegoela ez degu ukatuko. Orregatik, arrantzaleak abaillan zijoazen ontzi barruan arrantza-lekuraiño.

Kasimiro atera zan zer moduzko itxasoa zegoen ikustera. Zutik, inguruko uraren eragiñari begira zegoe-la, Pedro ere egin zuen arteera; baiña ura etzala arentzako lekua ta bereala sartu zan barrura.

Bide luzean joan ondoren, arrantzaleak oartu ziran nagusia palta zutela.

–Bai; ordu erdi badek atera zala.

Bereala joan zan bat, eta izutua sartu. An etzan Kasimirorik ageri.

–I igo aizenean an al zegoken? –galdetu zioten Pedrori.

–Zutik begira geratu da, baiña aize pixar bat bazebillen.

Patroiak begiratu zorrotza egin zion Maxkarrari, «Alu orren lana ote da? –berekiko pentsatuz–. Orixe banekei, laster uke bera ere itxasoan».

–Ea, mutillak! Gaurko arrantzak utzi bearko dizkiagu!

Buelta eman zuten, baiña aren aztarrenik etzuten arkitu.

–Jainkoak jakingo dik non erori dan, ia ordu bete ontan palta uan ta.

An arrantzan zebiltzan ontzi aiek guziak aztertu zizutuzten inguru aiek; baiña Kasimiroren arrastorik etzuten atera. Etsi zutenean, aspertuak, naigabetuak, arrai bat ere arrapatu gabe, etxerako bidea artu zuten.

Beste ontzian lan egiten zuen Kasimiroren aitak ere laster ikasi zuen semeari gertatu zitzaiona. Arraixku gaiztoetan eta gogor ta latz oitutakoak, alakoak leendik ere ikusiak zebiltzan ontzi artan; baiña beren nagusia galduak min eman zien.

Zer gertatu ote ziteken galdetu zioten berriro Maxkarrari. Bera baizan azkeneko ikusi zuena.

–Leen ere esan dizutet. Nik etzekit besterik. Ontzi gainean zut-zutik dagoela utzi dit. Zebillen aize arek ezin zezakeen bota ura. Ontziaren uste gabeko eragin batek bai.

Batzuek sinistu zioten: uste gabeko eragin oiek txarrak izaten zirala ta bazitekela. Baiña beste askoren bio-

tzetan zalantza gaiztoa geratu zan. Bai-baizekiten txikitatik etzerala ondo konpontzen; eta orduko nes karen gorra-beeragatik zala guzia. Alare, ainbeste urtean eta ontzi batean biak, bazuela aaztutzeko ordua.

–Ontziaren jabea, beiñepein, galdu zaiguk. Emendik egun batzuetara or azalduko dek bazterren batean sasoiko gizona itota.

–Eta orain alargunari nork emango dio berri ori?

–Ez al da patroia ren egitekoa?

–Nik ez dit ortarako biotzik.

–Zertan ari zerate eztabaidaka? Aitaren ontzia ez dek emen gurekin ibili? Onezkero kaian dek ura, eta jakingo dik beraren erraiñak.

Sartu ziranean, bada, Ondarribian zabaldua zegoen: Kasimiroren ontziko gizon bat palta zala, baiña oraindik etzekiten nor. Alargunak, ordea, bai, palta zanaren aitak esanta.

–Nor da galdu dan ori? –galdetzen zuen Ondarribiko jendeak.

–Ontziaren jabea: Kasimiro.

–Etzegoen, bada, ain itxaso gaiztoa.

–Eriotz estraiñoa, illa bada beiñepein. Bi bakarrak ziran gaiñean.

–Eta nor zan bigarren ori?

–Pedro Maxkarra.

–Terexa bere emaztea il nai zuen ura?

–Orixe bera, benetan deabrua.

–Ezer ere ez dakiela ez dio?

–Ura barrura sartu zanean, bakarrik eta zut-zutik geratu omen zala.

–Arritzekoa gizon sasoiko ori orrela deskuidatzea.



–Berekin ekarri al dute gorputza?

–Aalegiñak egin ta ez dute billatu.

–Nola dakite orduan ito dala?

–Izan liteke ontziren batek billatu ta jaso izatea. Baiña Ondarribikoak ez. Bestela, onezkero ikasi genduen. Gau illunean erori ta ia ordu erdian oartu gabe, nork billatu bear zuen ura?

–Bai; ori ala da. Baiña billatu arte ezin liteke etsi.

–Egun gutxi barru irratiak barreiatuko du olako lekutan gorputz bat arkitu dutela; baiña beti ere itxaropen pixar bat.

–Bai: milloi batetik bat. Baiña beti ere itxaropena.

Kasimiroren aita onen seme zaarrenarekin etxera sartu zanean, zerbaiten susmur gaiztoa artu zuen Ixabelek. Arpegian antzeman zien berri txarren bat bazekarkiotela.

–Egun on, Ixabel, guretzat gorrienetakoa da baiña.

–Baita zuei ere –erantzun zien urduri.

–Zerbait entzungo zenduen, noski? –galdetu zion, malkoak zerizkiola, galduaren aitak.

–Bai, aita, bai. Zoritxarrez, olakoak egiak ateratzen dira –iturri batetik ura bezela malkoak ixuriz–. Ito da orduan Kasimiro?

–Ala esan bearuko, bere gorputzik ez badegu billatu ere.

Une batean negarrak agindu zuen an: eta Ixabelek, naigabea zerbait arindu nairik, bere seme ta aitagarrebari musu bana eman zien, onela galdetuz:

–Eta nola gertatu da ori?

Aitak dena kontatu zion, zekien bezela.

–Orain ere petral ori tarteko al da? –zion Ixabelek Pedrorengatik.

–Bai; eriotz estraiño bat, galdu danaren lagunetan susmur gaiztoa utzi duena. Itxasoak jan du gizon sasoi-ko bat. Urrengoa nor izan giñezken ez dakigu. Suarekin jolasean dabillena erre egiten omen da; eta itxasoarekin, berriz, ito.

–Orain zer egin bear det nik? –zion negarrez Ixabelek.

–Laguna palta dezula, baiña ezin biziaren beldurrik ez eduki, semeak ere azi zaizkizu ta. Kristauak geran ez-kero, pazientzian negar egin dezagun, geroko itxarope-nik gabe, arrantzaleok olako ustegabeetan oituak gaude ta. Ez dezu sinisten orduan ura uste gabe erori danik?

–Ez, aita. Zuri entzun da gero, norbaitek bultza ote dion susmur gaiztoa dauka nere biotzak.

–Eta nor jarri nezake nik orain ontziaren buru?

–Kasimirorekin zebillen patroia baiño jatorragorik ez dezu billatuko. Baiña zaindu semea. Beldur naiz norbait ez ote dabillen naaspil ortan. Terexak ere iges egin zuen bi alabekin etxe ortatik.

–Etxeko ondasunak eraman nairik?

–Eriotz ori ez da interesagatik egiña. Gorrotoa dabil jokoan. Txikitatik lau lagun izan giñan, eta nik oien gri-ñak ederki ezagutzen ditut.

Kontatu zion Terexak bere amari esana. Suak artu zuen arrantzale mazala.

–Olakoa al da petral ori? Eta bigarrena norengatik zion ez dakizu? Bestela, bereala auzitara eramango nuke.

Ixabel bere seme-alabekin zaintzeko moduak egin nai zituen aitonak.

## Bastoiia nai al dezu?

---

Ixabel alargun geratu zan, bada. Ez dakit ala bearta edo Maxkarrak bere zemaia bete ote zuen. «Nik oraindik elkarrengandik berexiko zaituztet». Zergatik esan zuen ori? Gero Ixabelekin ezkonduko zalakoan? Bere emaztea iltzeko ere aalegiñak egin zituen, eta oraindik etzegoen seguru.

Ori zeukan Ixabelek buruan sartua; eta, orri bueltak ematen ari zala, oraindik Kasimiroren gorputza billatu baiño leen, triste zegoen alargunarengana etorri zan Pedro, garai bateko maitasunak oroitu eraziz.

Errukiaren izpirik gabe, dolumiñak ere eskeintzeke, itzetik ortzera ala eraso zion alargun naigabetuari:

–Bastoiia nai al dezu?

Ernegazio batek artu zuen Ixabel.

–Zer adierazi nai didazu orrekin?

–Biok alargun gaudela.

–Eta zer geiago?

–Biok nai badegu ezkondu, iñork ez digula galeraziko.

Orduantxe, bat-bateko eskeintza orrekin, oraindik illetak egin baiño leen gaiñera, Pedoren egoskorkeri ta gorrotoa noraiñokoa zan, bi eriotz egiteraiño alegia, emaztearena ez bazuen iritxi ere, erdiz erdi ulertu zuen dena Ixabelek. Baiña oraindik beste galdera bat egin nai zion, argiago aren biotzaren berri ikasteko.

–Eta zertarako bear det zu bezelako bastoi bat?

–Babesteko, baiña bai emateko ere.

Ixabelek ezin irentsi izan zuen birao gaizto ura.

–Or dezu nere erantzuna, deabruen deabrua zeran orrek!

Eta itxu-itxuan egundoko masaillekoa eman eta zili-purdika bota zuen Maxkarra.

–Leengo laguna ezagututa ez det arkakoso bearrik. Zoaz il zori utzi zenduen emaztearengana. Etzuen gaizki egin etxetik aldegitia. Eta neri supri arazteko asmoak dituzula badakit.

Sudurretik odola zeriola utzi zuen. Zutitu ta erasotzeko asmoan asi zan Pedro. Baiña Ixabel, ain sumindua zegoen, gogor egiteko aurreratu zitzaion.

–Josexo, atoz mesedez! –deitu egin zion etxean zeukan seme zaarrenari, amabost urteko mutil gaztea. Maxkarra etzitzaion oni sorbaldaraiño ere irixten. Lasterka etorri zan amaren deia entzunda, eta gizon ura ikusi zuen odola zeriola.

–Orrek bota zuen galdu zaigun zure aita itxasora, eta orain nere billa dator.

Etzion bi aldiz esan. Joxetxo bere beso luze aiekin gaiñera zijoakion, baiña orduantxe azaldu zan Kasimiroren aita.

–Zomorroa aleena! Zer abil i emen? Arrapatzen baaut azkeneko txangoak egingo dituk onera.

Paiñueloarekin odola txukatuz joan zan andik desapioka:

–Ez den au ortara geratuko!

–Ez dit uste –erantzun zion aitonak–. Berriz nik emen arrapatzen baaut, auzitara joan bearko dek.

Josetxo ere, bada, ama zaintzeko asmoan zegoen:

–Nik berriz emen arrapatzen bazaitut, txitoarena egingo dizut.

–Orain seguru badakit orrek ondatu duela Kasimiro.

–Erne ibili bearko diñagu. Orrek berea egin naiko din, bere burua galduko badu ere.

–Eta lanetik biali egin bear al dezu?

–Oraindik, beiñepein, olakorik ez, okerrago jarriko uken ta. Kasimiroren berri jakiten degunean, ikusiko diñagu.

Au goizetik zan. Arratsaldean beste goxoagoko iker-txo bat izan zuen Ixabelek: Terexa, Maxkarraren emaztea, izarrak baiño ederragoko bi alabekin azaldu zitzaion. Luze ta zabal itzegin zuten, elkarren ixtilluak kontatuz.

–Laguntzen dizugu naigabeen. Gu larri gabiltza, baiña onera ere ekarri du orrek ezin bizia.

–Zu orduan, Terexa, seguru zaude?

–Egongo ez naiz, bada? Bik enbarazu egiten ziotela, ta ni Jainkoak dakien bezela salbatu naiz. Ni ta nere alabak ez gera orren bazterrera urbilduko. Onezkero beste erasoren bat izan nuen, ez balira nere anaiak gogor jarri. Alare, erne gabiltza ama-alabak.

–Oraindik nere senarraren gorputza billatu baiño leen, ezkontzeko bere burua ezkeintzera etorri etzait, bada? Bere arrokeri ori ezin eraman det eta egundoko masaillekoa eman diot. Ez bagaitu pakean uzten, auzitara deituko duela; ortan dago nere aita.

–Neri zitala eman zidanean egin bear genuen ori. Baiña nere bi alaben aita izaki.

–Kasimiroren aitak arrapatzen badu, itoko du.

–Baita nik ere! –oiu egin zuen Josetxok, bere semeak.

–Munduak ez du asko galduko. Gela batean bera bakarrik bizi da. Amak garbitasuna egiten dio, baiña ez mantenurik eman. Ez baidio xentimorik ere luzatu nai amari.

–Eta nola mantendu bear dituzu alabak?

–Aal detan bezela. Zaarrenak amabost urte gaiñean ditu, eta emendik aurrera bere burua mantentzeko moduan da. Lanera ere asi berria naiz. Baserrian, berriz, denak, zaarrak eta gazteak, benetan maite gaituzte.

–Bai; bi alabak zoragarriak dauzkazu.

–Jaungoikoak aren palta nolabait ordainduko al di-zu! –esan ta joan ziran.

# Kasimiro

---

Billatzeari utzi zioten. Iñondik etzetarren aren berri-rik. Tiburoi zaar batek ez bazuen jan, an edo emen inguruko ondartzaren batean azalduko zala. Ori zan geien-irritzia.

Beti ere, nonbaitik aren berririk entzuten ote zuten, itxaropen pixar bat bazegoen oraindik beren biotzetan, illa billatzen etzuten arte. Aiek zijoazen bidean, Irlanda ta Prantzi aldeko ontzi asko ibiltzen baizan arrantzan. Illuna zan, bai, baiña ala bearra tokatu ziteken aietakoren batek billatzea.

Illetarik ere ezin zitzaion egin, gorputza arkitu gabe.

Dena ixilik eta etsipena artu zuten garaian, irratiak zerbait aizkatu zuen: Irlandan, ustez itoa zegoen gizon gazte bat uretik atera ta eramana zala ango arrantzaleen fameli batera. Aalegiñak egin da gero ekarri zutela bere onera; baiña oraindik burua naastu samarra zeukala eta etzuela izenik eta nongoa zan garbi azaltzen; eta nor zan agertzeko, berriz, ageririk etzekarrela.

–Ura ote da? –zion Kasimiroren aitak–. Berdin iñon ez diagu bere gorputzik arkitzen.

Itxaropen pixar bat pizten asi zitzaien

Urrengo egunean, beste berri gaizto bat entzun zuten, irratis ura ere: ango ondartzaren batean itotako gizon bat arkitu zutela. Bere ezaugarriak ematen zituen: gizon gazte bat, bere luzeera, illearen kolorea, Kasimiroren ezaugarriak ziran. Zalantza gaiztoa sortu zuen onen maiteen artean.

Bietan nor ote zan Kasimiro? Gerorako utzi gabe, urrengo egunean joan zan aita lagun batzuekin bere ontzian, itoa arkitu zutela esan zuten lekura.

Kanposantura eramana zeukaten. Ara azaldu zan aita xuxenean. Ixabel ta bere seme-alabak zai zeuden, andik zetozen berriak entzuteko.

Gorputz arek egunak zeramazkien illa. Bere semea galdu zan ainbeste bai. Aundiz ta illearen kolorez Kasimiroren ezaugarriak ziran. Baiña etzan ura. Itxaropenak oraindik jarraitzen zuen.

Aitaren palta somatu zuenean, Maxkarra Ixabeli ordaiñak ematera joan zan. Semea lanera joana zan, eta ama aal zuenarekin bere burua babesteko prest zegoen. Il edo bizi, baiña etzuen oillo bat bezela arrapatuko.

–Emen nauk ordaiñak ematera –esan zion arro-arro eroska arek.

–Artzeko ere etzabiltza leku txarrean –erantzun zion emakumeak.

–Gaur ez den aitona emen.

–Ni, bai, ordea. Suzko armarik ez badakartzu, leengo martxa eramango dezu.

–Bastoiababesteko ta jotzeko izaten den.

–Balio ez duenean autsi ta sutara botatzeko ere bai. Emen daukat bastoiaren etsaia.

–Txorakeriak utzi ta zergatik ez diñagu ezkondu be-  
ar biak, alargun gauden ta?

–Leen jo ta bota nuen bastoiarekin ezkonduko ote naiz? Zoaz Terexarengana. Ura da zure benetako emaztea. Arek ere utzi egin zaitu, ezertarako balio ez dezulako, noski.

Igerri zion Ixabelek Maxkarra izutu egin zala, bestea edozertarako moldatua ikusi zuenean.



–Aldegin zazu nere aurretik. Bestela, buru egoskor ori nik bi puska egingo dizut. Zuk edendu zenduen emaztea eta il dezu Kasimiro, nere senar maitea –bota zion arpegira, asarre bizian.

–Gezurretan ari zera, Ixabel. Ori nai zuen, baiña ni emen nator bizirik –erantzun zion aldamenetik ain eza-guna zuen abots batek.

Ametsa ote zuen edo ez atzera begiratu zuen.

–Kasimiro! –oiuka esan zuen negarrez ta parrez eta besarkada batean lotu zitzaion, beste itzik ezin asma-turik.

Maxkarra lasterka ezkutatu zan nonbait. Une berean aitaren aldetik abisua Irlandatik emana: ondartzan itota billatu zuten ura etzala Kasimiro.

–Ez gaituzu ikusten elkarrekin gaudela?

–Auxe da ustegabekoa, Kasimiro, denok itoa ziñala-koan geunden ta!

–Ni, berriz, bizirik etorri. Zer esan dezu ondartzan billatu zuten ura etzala Kasimiro?

–Irlandatik abisu etorri zan ango ondartzaren batean gizon gazte bat itoa arkitu zutela. Eman zituzten ezau-garriak oso zureak ziran. Aita bere ontzian urez joan zan; baiña ikusi ondoan biali digu abisua.

–Arritzekoa! Ni, berriz, ito ta gero piztua etorri. Zer egiten zuen petral orrek emen?

Ixabelek txeetasun guziekin kontatu zion bien artean zerabilkiten eztabaida, eta azkenean jo egin bear izan zuela.

–Ederki egin diozu. Ez dedilla geiago nere aurrean jarri. Nik bai itoko dedala, baiña legorrean. Orain garbi azaltzen da Terexa gixaixo arek esan ziguna: ura ta ni il-da, zuek biak ezkondu.

–Terexak bere alabekin ikertxo bat egin zidan atzo. Lanera asi berria da. Bi alabak zoragarriak dauzka.

–Aita etortzen danean kontatuko dizkizutet nolako ixtilluak ibili ditudan.

Errian zabaldu zan berri ori, eta bazeukan nork zorrionak eman. Ango txeetasunak eskatzen zizkioten; baiña aita azaldu arte etzuela itzegingo.

Poztu ziran bereak, baiña bai erria ere. Kasimiroren famelia benetan maitea zan Ondarribian.

# Gora-beerak

---

Aita ere azaldu zan, bada. Berak gutxiena uste zuena atera zitzaion bidera.

–Zer dala-ta i emen? Iruzurtu egin al gaituk? –zion zoriontsu aitak.

–Ez da olako billaukeririk nere burutik pasa. Ordu gaiztoak igaro nituen. Ustez ito nintzan, baiña emen nago, eta nere biziari eusteko gogotsu.

Biak etxera etorri ziranean eta bazkaltzen ari zirala, kontatu zizkien txetasun guztiekin bere itxilluak:

»–Leenen-leenengo, beiñepein, itxaso ona zegoela. Aize pixar bat bazebillen, baiña ni bezelako gizon sasoi-ko bat itxasora botatzeko modukoa ez. Bultza ta erausi ninduten, beraz. Nik, zut-zutik, itxasoan zebiltzan argiegi begiratzen nien, ea guk sareak bota nai genituen lekura arrantzale asko zijoan. Lasai nere pentsakizunekin bakarrik nengoela, iñor ontzi gaiñean zebillenik oartu gabe, indarrean bultza ninduten atzetik eta itxasora erori nintzan. Baiña ez bota ninduen nor zan ezagutu gabe.

»–Ni emendik ateratzen banaiz, atzapar auekin itoko aut! –nere leenengo oiua.

»Ontzia abaillan zijoan. Nola entzungo zituzten nere karrasiak? Bereala galdu nuen bistatik.

»–Ederki geratu nauk oraintxe!

»Bere garraztasun guzia biotzera ixuritzen zidala, ikusi nuen bultza zidan ura nor zan. Baiña berandu. Jesussek bezela, nere langilleetan neukan Judas; eta, egokiera etorri zitzaionean, berak egin zuen berea. Nik ez

nion, berriz, on besterik egin. Bizi geranon artean ere bagera benetako deabruak.

»Itxasoan, illunpean eta bakarrik geratu nintzan, bada. Orrek bati emango dion tristuraz oartuko zerate, noski.

–Bai. Ez diagu asko pentsatu bearrik.

»–Poliki-poliki igari, nekatzeko beldurrak, eroritako lekutik ez nintzan urrutiratu, oartu ta leengo bidetik etortzen baziran, baiña seguru asko arrantzan asi arte etzirala oroituko.

»Nere egoera, bada, larria zan. Ikusten nituen beren argira nola zebiltzan, batzuk aurrera, besteak atzera. Ezkututzen ziranean, aien itxaropenetan ezin egon. Bein baiña geiagotan zuzen-zuzen nere aldera. Emen nagoela oartuko balira... Amar metrora, ondotik pasa ta kito! Aren itxaropena ere galdu zan. Ni aal nuen bezela atsedentzen nintzan, ea an zebiltzan ontzi aietako batek ikusten ote ninduen. Baiña illunpe artan zailla zan ori. Nere indarrak ere bazijoazen. Orduantxe ikusi nuen gordin nere azkena, eta on besterik egiten ez nion baten billaukeriz. Igari abiatzea alperrikakoa zan. Jainkoak jakingo zuen legorretik zenbat milletara arkituko nintzan.

»Bat zuzen-zuzen nere aldera zetorrela ikusi nuen. Baita ontzia ezagutu ere, eta gaiñean zijoazen bi gizonak berdin. Ez dakit nola ez ninduten jo. Baiña nere oiua an galdu ziran. Ontziak zeraman otsarekin nola entzun? Ura ere joan zan eta utzia antxe geratu nintzan.

»Geiago ere igaro ziran urrutixeagotik. Bi ordu nera-mazkien. Otzak ere ondatzen ari nindun. Orduantxe, bada, azkenetan nintzan. Baiña Jainkoak etzuen ni an itotzerik naiko.

»Berta-bertatik igaro zan bat. “Orra nere azkeneko itxaropena” nion nereko. Gaiñean zijoanak ikusi edo urean norbait galdua ote zebillen iruditu zitzaion, eta ontzia atzera itzuli zuten, nere zorionerako, eskerrak Jainkoari. Artu ninduten ontzira, baiña etziran arrantzaleak. Kontrabandistak ziran. Ain auldua nengoen, legorrera atera nindutenean korde gabe geratu nintzan. Irlandako baserri kaskar batean ezagutu nuen nere burua. Emakume gazte bat, ez dakit ezkondua zan, eta beste gizon bat, sendagillea noski, neuzkan ondoan.

»Begiak zabaldu nituenean poztu ziran biak. Emakume gazte arek, irripartsu, musu bat eman zidan, gaiñera. Nik oraindik lanbro pean ikusten nituen.

»Poliki-poliki asi nintzan ernetzen. Baiña memoria galdu nuen. Nere izenez ere ezin oroitu. Biotzeko eraso txikiren bat izan ote nuen orduan baditut nere zalantzak. Geldi-geldi, galdutako memoria etorri zitzaidan, eta gertatutakoaren berri eman ere bai, baiña aiek ezin ulertu.

»Lau egun olaxe igaro nituen. Ondo tratatzen ninduten. Ez ninduten ateratzen uzten, eta nik leenbaileen etxera etorri nai nuen. Beti atea giltzatua eta ni gela barruan. Aiek etzuten euskerarik ulertzen. Ondarribiaren izena bai, ordea. Alako batean, euskaldun bat, an lan egiten zuena, errenderiarra. Orduantxe konpondu gihan. Onek Ondarribiko ontzi batera eramango ninduela. Fameli ona zan benetan. Atea ixten zidaten nik ez iges egiteagatik. Ez baininduten nora ez nekiela baka-rik utzi nai. Bitarteko orrek zuzendu zituen nere pau-soak. Etzuten ezertxo ere artu nai izan. Baiña errenderiar orren bitartez zerbait biali egin bearko.

–Bai, motell, merezi ditek eta.

»—Ixtillu oiek denak igaro ta etxeko sarreran Maxkarrara ta nere emaztea arkitu ditut, benetan asarretuak, muturka asi zori. Laster ezkutatu da. Orren lana da. Uste gabeen bultza ta bota ninduen. Ez dedilla, bada, geia-go nere aurrean jarri. Bestela, nik legorreen itoko det.

Bere senide arteko ta Ondarribi guzia poztu zan. Errian alako susmur txar bat geratu bazan ere, etzuten Maxkarrik salatu. Bereala ezkutatu zan eta etzuten uste ura berriz Ondarribian azalduko zanik. Amona bakarririk geratu zan. Leendik ere alatsu zegoen, bai. Orduan Terexa bere bi alabekin amonarengana joan ziran bizitzera. Bai merezi zuen bezela zaindu ere.

Urteak bazituzten etzutela Maxkarraren berririk. Baiña iñoizka entzuten zan olako lekutan ikusi zutela. Beraz, bizi zan oraindik, eta beti arekin erne, bazterren batetik azio txarren bat ez ote zien egingo.

# Azkena

---

Ixabelen seme zaarrena gizon egin zan. Soldaduska bukatu ta etxera etorria. Maxkarraren alaba ere berdin, zaarrena batez ere, ama bezelako alaia, langillea ta eraskorra.

Neskaren ama ta mutillaren aita il nai izan zituenaren alabarekin maitemindu etzan, bada, mutilla? Mutillaren gurasoak etziran, noski, oso konforme. Baiña aita alakoa izana zer erru zeukan alabak? Etzuten, bada, erazgozpenik jarri; eta, jakiña, ezkontza bidean zetorren.

Guadalupen izango zala eta, igarotako ixtilluak aaztuz, aundikiro nai zuten ospatu. Bi aldeetakoak eta bi ontzitako langilleak an izango ziran. Baiña Maxkarra bi-zi bazan, bere azken agerraldia egingo ote zuen bazeukan jendeak beldurra. Ala gertatu ere.

Elizako lanak bukatu ta atarian musuketa ari zala, emakume batek karraxi egin zuen. Bereala tiro-otsa, zulgaitz baten ondotik sutua, baiña urruti xamarretik, zallantzarik gabe Ixabeli zuzendua. Samindu nai zuen eztaia, bere alaba etsairik amorratuenaren semearekin ezkondu zalako. Baiña, ala bearta, perdigoiak bere ama arrapatu zuten. Baiña otza egiten zuelako ondo jantzia zegoen amona erdiz erdi joagatik, arramaxka batzuk besterik etzizkion egin.

Salta zan jendea, baiña etzuten arrapatu. Arma bertan utzi ta nonbait ezkutatu zan. Uste gabeko eraso orren larritasunak pasa ziranean, ala zion Ixabelek:

–Neretzat zeuden perdigoioiek zuk artu dituzu.

–Eskerrak otzari, ondo jantzia etorri naiz.

–Ori bizi dan arte, bagabiltzake erne. Orrek, berea egin arte, ez du etsiko.

–Bi eraso egin dizkizu, baiña biak utsegin.

Eguna, beifnepein, ondo ospatu genduen. Saillean bainintzan ni ere, emazte ta guzi. Maxkarrak nolako joera artuko zuen beldurra ematen zigun. Alare. azkeneko utsegiñak eta ama jo zuela etsaiaren partez, etsipena artua izango zuen.

Bein, arrantzatik etxera zetoze, urak bere joaneran zeramala arkitu zuten aren gorputza. Itxasora bota zuen, bada, bere burua? Ortan bukatu zan, bada, Maxkarraren bizia. Ain gazte jostari ta alaia, bere buruari orrela egin zion justizia. Orduantxe lasaitu ziran bere ingurukoak.

Bastoi batekin ezkonduko al zan, Ixabelek egindako isekak egin zion aldaketa ikaragarria izan zan. Nola li-teke orren utsagatik bat ortaraiño gaiztotzea?

–Ori gabe ere, ez dakit agian ez ote zan berdin jarriko. Berezko iltzaillea zan ura. Esnatu zanean azaldu zitzaion griña gaizto ori. Oroituko zera, noski, Iturriozko gizon-iltzailleaz?

–Gogoratuko ez naiz, bada? Nor ez?

–Aren jeniokoa zan au ere. Baiña etzitzaizkion gauzak ondo atera,

–Eta epailleak zer egiten zuten berari ez emateko merezia?

–Errian murmur bat ibili zan, baiña etzekiten ezer segururik. Bere artekoetan ixildu zan aren zitalkeria.

Mundu borobil ontan zenbat olako ez ote da gertatuko urtearen buruan?



Libururik egiten banuen bat emango niola berarentzat; eta, eskerrak emanez, berriz ikusi arte agurtu nuen gure arrantzale mazala.

**Ovni**



# Eztabaidak

---

Amerika alde artatik sekulako otsak zabaldu ziran; baiña gure lurralde onetan siniskaitz zegoen jendea.

–Beti urrutiko indarrak –zioten batzuek–. Gu baiño jakintsuagoak edo aaltsuagoak al dira, bada?

Urte Zaar illunabarra. Lanetik atera ta ezeren presarik gabe zeuden zurrutero batzuk, urrengo egunean jaia baizuten. Etxera baiño leen, alegia, bertako tabernatxo batean, baxoerdi bana aurrean zeukatela, aldizka tragoxka bana egiñez. Aspaldiko oitura ezik, gaurkoa ere ala izan bear du, zoritxarrez azitzen dijoana. Baxoerdi bana, bada, bakoitzak, zurrutean ari ziran bero asko, batzuk beiñepein.

Larunbateroko oitura batzuentzat, eta beste askorentzat egunerokoa ere bai, bat bestearen ondoren. Uste gabe, sariari, etxeraiño baiño leen, arindu aldi ederra ematen diote, ajola aundi gabe.

Izan ere, ezer ere artu gabe lau ordu luze lanean igaro ondoren ezin etsi, asteko saria oraindik berekin daramatela eta Urte Zaarra ospatzeko, naiz jakin etxekoandreak aparti on bat jarriko ziela. Aurreko egunetan sari bikoitzak artu baizituzten.

Urte Zaarraren eriotzari etzion jendeak negar askorik egingo. Aurrekoa gaiztoenetako bat omen zala eta beren neurriak artu bear izan zituzten.

Urte Zaarra eta Berria tripazaien jaiak dirala beldurrik gabe esan gentzake. Gau ortan lertzeraíño ariko dira, urteari azken ona emateko. Jentillen kutsu aundiko jaiak dira. Egun oietan ez diote kastuari begiratzen. Le-

en aipatu ditugun zurrutero oiek egunari berea eskeintzen zioten, bada. Ortarako omen dira Urte Zaar eta Berriak. Baiña Eguberriak ez. Oiek kristau kutsu berezia daramate, zoritxarrez guk biak berdintzen baditugu ere.

Askorentzat Urte Berriak omen dira goxoenak. Baiña neretzat ez, eta kristau bezela pentsatzen dutenentzat ain gutxi. Jainkoak zeruak ereki zizkigun egunak dira.

Egun ortan sekulako eztabaidak baziran, bada, gure aieka ontan. Ovni izena jarri zioten ontzi estraiño bat ikusi omen zutela erri gain artatik igarotzen; baiña erriko jende txeea oso siniskaitza zegoen.

Erriaren leenengo galdera «bai ote ziran» zan; eta, jaikiña, ez baziran ezin ikusi. Arrazoi orrek etzeukan erantzunik. Orduan bere beroan zegoen eztabaida ori; okasiorik gogorrenak zerabilzkiten. Gaur, berriz, zearo aaztua dago ori. Dena gaixo edo gezurtien lana ote zan, edo Amerikatik asmakizun arrigarriren bat. Alare, gizon jator askoak baziralakoan mintzatzen ziran.

Iru taldetan berezia zegoen erria; eta, goraxeago esan degunez, egundoko eztabaidak izan zituzten elkarrekin. Ia itxu-itxuan sinisten zutenak batzuak; sail ortan gizon zentzudunak baziran. Beste batzuak entzun bakarra; etsiak, ajola gabeak.

Irugarren saillean, zirikatzaillak; etzeukaten iritzirik. Sua piztu, eztabaida zaleen bizkar par egiteko. Ori oiek etzuten berriketan aritzeko aitzaki bat besterik. Asiko ziran eztabaidan. Txakurra ta katua bezela jardun ondoren, bakoitza berean geratuko zan.

Leengo bi taldeen jokoak ori zan. Irugarrenak ere siniskaitzak ziran. Etzuten bere iritzirik emango. Batzuen arrazoiak entzun eta aien eztabaidak berotu. Axiatu, alegia.

–Idixkoa edo urruxa dan jaiotakoan ikusiko diagu  
–zioten maltzur-maltzur batzuek.

Baita aitortu ere oietako bat erri guziaren gaiñetik la-  
sai-lasai igaro omen zala, eta ikusi zutenak asko zirala.

Bigarren agerraldia baizan; eta, ziotenez, askok ikusi  
zuten gaiñera. Ezezkoak ere zalantzak jartzeraiño; baiña  
etzuten aitortuko.

Amerika alde ortan, olako erri gaiñetik baju-baju iga-  
ro omen zala, askotan gaiñera. Begi argiak zeuzkaten, eta  
obeto ikusteko moduak. Munduak zear asiko ziran laster.

Illunabar artan tabernan ari ziran, bada, lau edo bost  
lagun eztabaidaka. Orduan denen izketa gaia ori zan:  
zorioneko ovni. Ori egia ote zan edo gezurra ikasi nai.

–Amaika berriketa bazerabilzkitek. Nik ez det sinis-  
tuko, ez badet ikusten –batek.

–Ik ateratzen dituk eltzetik babak! Irekin bat nato-  
rrek ni ere. Ikusten duten geienak erabat mozkor edo  
lausoak ikusten dizkit. Olako tresnarik oraindik gizon  
jator baten aotik ez dit entzun azaldu zaiola kontatzen.  
Oien esanak nola sinistu gero?

–Kontuz! Guk ez badegu sinisten, ondo zegok. Baiña  
ez ditzagun besteak gezurtizat artu. Oiek fede onean  
ari dirala sinistu naiak ondoren txarrak ekarri lezazkek.

–Bart ikusi dutenak asko dituk; eta, dirudienez, ez  
denak jende txeea. Erriko alkateak ere ikusi omen dik.

Eta zionari ala erantzun omen zion batek:

–Urrutiko intxaurrak or ari zerate esaten. Gaur erri  
onen gaiñetik etzaiguk, bada, bat pasa? Gordiñegi epai-  
tzen gaituzute. Nere emazteak ere espiritua daraman  
edaririk ez dik edaten. Etzioken, bada, mozkorra ere,  
ikusitua zuela aitortu zuenean; eta basakatuak baiño ere  
begi bista ohea zeukak arek.

–Bai. Aspaldidanik ezagutzezn dit ire emaztea; baiña begi bista ona daukala al diok arek? Betaurreko aundi batzuekin ibiltzen dek. Kristal lodi aien atzetik ezin lezakek ondo ikusi goi oietan dabillenenik, ezagutzeko moduan beiñepein. Lauso puska bat bazeukak, nere irizian, emakume arek.

–Bai. Urte batzuek badizkik, bai. Gazte batek bezela ezin lezakek ikusi; baiña zalantzarik gabe egia diola.

–Ori dek ukatu ta ukatuko ez detana: erriko jende txeea egitan ari dala. Baiña ez al dituk iruzurtuak ibilliko? Irudimenak joko txarrak egiten bazekik gero.

–Or dek nere aita ere. Atzo garbi-garbi kontatu zigutek ikusi zuela arek ere, eta egundo moxkortu ez dana.

–Ez uan edana egongo; baiña leen esan dedana: irudimenak bazekiela joko txarrak egiten. Izan ere, ortaz ainbeste itzegiten diagu eta beti buruan darabilkigun ura azkenerako ikusi egiten degula iruditzen zaiguk, eta benetako egitzat artu, batez ere urtez aurreratu samar oietakoak.

–Zenbat ate ainbeste maratil jartzen badakizute beiñepein, beti zeronarekin geratzeko. Ez dituk mozkorrak edo lausoak edo burugabekoak izango, baiña dena dakizuten oietakoak zerate zuek eta...

–Maratillak bai; ondo jarriak, ordea. Nik nere arrazoiak ematen dizkit. Ikusi dutela kontari ari diran oietakoak, gaiñera, geienak gaixoak edo arroak dituk. Bana-ka batzuk izendatuko nizkikek. Ik ere ala esango uke.

–Ago ixillik, olako astakeririk esan gabe. Zer ikusi zeukan ortan?

–Aundia, motell. Olakori ere azaldu omen zaio, eta aidatuko ditek bere izena.

–“Orrek ere ikusi al du?” esango dik jendeak. Zerbait izango dek orduan. Txoro aize gutxiko gizona dek ori. Ez da itz jario oietakoa ere.

–Eta zer irabazten dik orrekin?

–Izparringi, irrati eta telebistetan orretaz itzegiten dutela, eta erriko jende txeeak ere aotan darabilkiela. Orren izena leen bazanik ere etzekitenak goratzarreka ariko zaizkiola. Batzuak ondo bearbada; beste asko, berriz, gaizki. Baiña bere izena, nongoa dan, nolakoa, zer opizio daukan, non bizi dan, zaarra edo gaztea, ezkondua, bere txeetasunak zabalduko dituzte. Bearbada, baita bere argazkia ere. Errian, berriz, oso ezaguna dala. Fameli onekoa, aberatsa edo beartsua. Jakintsua edo ez. Jakiña, gizon ori badala, beiñepein, berri zaleak astinduko dute.

–Askori nazka emango lioteken berriak dituk, baiña beste zenbaitentzat atsegiñak: milloikak ixillean bizi geran artetik atera duela bere burua.

–“Nor da ori?” galdetuko ditek askok. Olako baserri edo kalean bizi dana. Beste batzuek, berriz: “Ori al da ikusi duena? Nik ezik etzeukak orrek ere jakintsuaren itxura aundirik. Orri sinisten dionak ere ez, noski, geiegi”.

–Egunetan olaxe ariko dituk: asko alde, beste asko aurka. Baiña gizon ori badala, beti ere arrokeria.

–Ori ikusteko ez dik jakintsuaren bearrik. Begi bista ona!

–Bere txeetasunak ulertzeko bai, ordea.

–Bai, astakaria ugari! Ortarako batek Salomon izan bearrik etzeukak; eta danik-eta jakintsuenak ere begiratu batean ezin lezazkek orren txeetasunak ulertu

–Bai. Astakeria ta arrokeria, biak batera. Entzun dedilla, beiñepein, bere izena.



–Agian tonttoren bat izango dek eta...

–Ez, motell. Adimen zorrotzekoa eta asko ikasi ta ikusia.

–Baiña pillakoa bere adimena. Bere izen-abizenak idazten ez dakiena, baiña errian dan baiño geiago azaldu nai duena. Or zegok kroska: arrokeria, Txomin!

–Oien berri obeto jakin gabe gaizki epaitzen dituzute.

–Balitekek ortan ik arrazoi pixar bat izatea. Baiña erriaren aurrean aotan ibiltze ori atsegiña dek askorentzat, motell.

–Eta ikusten dutela esaten duten jakintsu izeneko oiek ere olakoak al dituk? Bat baiño geiago bazebiltzak or.

–Asko, beiñepein, bai. Denei berdiña azalduko zaiek. Ikusten badute, beintzat, ezjakin batek baiño zenbait etekin geiago aterako ziotek. Jakintsuari buruan sortzen zaizkion oldozpen sakonen batzuak besterik ez.

–Etzekit oiek, baiña i bai agola burutik egiña. Irea bai dala arrokeria.

–Argi askoa zegok nere adimena. Beren buruak azaldu nairik dabiltzan oiek bezelakoa ez nauk ni.

–Motell, oiengatik esaten ari aizen ori artu ezak iretzat. “Pulamentu aundiko gizona dek ori” esango dutela, alegia, iregatik ere. “Ondo pentsatu ta gero emango dik orrek bere iritzia”. Orregatik ari aiz dena ukatzen eta gaizki esaka. Or etzegok besterik; ik diokena: arrokeria.

–Bai, bai. Balitekek ortatik ere zerbait edukitzea. Ez nauk santuetakoa. Alare ez nauk ondo epaitzen. Nik ikusten badet, aitortuko dit. Bestela, ez.

–Kilkerra bezelaxe kontu kontari ariko intzake i ortaz.

Orduantxe sartu zan aien artera Joxe, ezezkoen buruzagia. Arratsalde onak emateko ere betarik utzi gabe, ala galdetu zioten:

–Ik zer diok ortaz, Joxe? Ovnien gorabeera, alegia.

–Aundia dek, orain ere ortaz mintzo zeratenean. Nere berri badakizute eta geroztik ez dit aldaketarik egin. Nik ez dit sinisten oraindik, baiña ez zuek bezin gordin iñor epaitu ere. Denok dizkiagu geren arrazoiak.

–Orduan arrazoia arrazoiarekin zapaldu nai uke?

–Zoro ederra niñuke, bestela. Ez niñuke eztabadaidaka ariko. Sinistu eta kito. Baiña arrazoiak milloikak, motell. Gero ta geiago gaiñera. Sinisteko baiño, askoz geiago ez sinisteko, neretzat beiñepein. Ni atzera-aurrera emen nabillek, eta ez dit oraindik olakorik ikusi. Atzo karrika ontan bertan batzuei azaldu omen zitzaikeen. Neri ez, ordea, leku berean ibillita. Agertu zitzaiela esan zidatenean, oiei entzunagatik, barkatu, siniskaitz geratu nauk benetan. Or tartean gizon sonatuak izanagatik, ez dit esango beren buruak aundi egi-teagatik gezurretan ari diranik. Iruzurtu litezkek, ordea, beste edozein kristau seme bezela. Izarrak gorde-azaldu ibiltzen dituk zenbait arrats girotan. Illargiak ere arrigarrizko itxurak artzen bazekik, batez ere goi ori laiño ziplaiez jantzita dagoenean, eta eguzkia bitarteko, zenbait illunabarretan, beiñepein. Arratsean, berriez, egazkiñak. Izar igeskor oietakoak ere bai. Gaur olako ikuskariak maiz izaten dizkiagu, jende asko txorra arazteko modukoak.

–Baiña jakintsuak txorakeri oiekin nola naastu litezkek?

–Ni ta i bezelaxe. Oiek ikusteko ez dik jakinduriaren bearrik, begi ta buru argiak baizik. Zaarrak badira ikusten dutenak, kontuz!

–Bakoitzak bere iritziak zeuzkak, baiña nik sinisten dit.

–Or konpon! Etzaidak batere gaizki iruditzen. Jainkoa ere, jakintsutzat dauzkazuten askok ez ditek sinisten. Beste askok, berriz, bai. Eta i zergatik ago itxu-itxuan baiezkotan? Azaldu al zaik?

–Ez dit olako egokierarik edo suerterik eduki. Baiña ikusitakoak badituk eta nik zergatik etziet sinistu bear?

–Nik ortan begirune aundia dizutet: bakoitzak nai duen bezela. Ortarako zegok askatasuna. Baiña entzuna beste gabe sinisteak etzidak adimenik betetzen. Arrazoi kaskarra dek ori. Alare, “zenbat buru, ainbeste aburu” esaten ditek, eta amaika milloi geiago badituk ikusi ga-beak eta sinisten ez dutenak. Besteren doiñura dantzan baabil, amaikatxotan iruzurtua ibilliko aiz.

–Ikusi ta ulertzen deguna bakarrik sinistezkeroz, gu-re jakinduria motxa izango uke, bada.

Oñaxe aritzen ziran orduan, eta gaur oraindik ere bai, taberna askotan.

Joxe zuten, bada, askok beren filosofoa. Nor zan ori?

# Joxe jakintsua

---

Erri guzietan izaten dira bat edo beste, erdiko jendearen gaiñetik berezten diranak. Zerbaitetan besteengandik nabarmentzen diranak. Besteak baiño geiago ikasten jardunak ez badira ere, badute alako berezko bat, pillakoak ez dutena. Doai bereziren bat, Jainkoak eman-dakoa.

Nik ezagutu izan ditut olakoak. Baita gaur ere. Askotan entzuna daukat nik ori:

–Bearbada ez dek eskola aundikoa izango, baiña gizon artetsua dek ori. Edozein lanetarako tajutsua. Balio dik orrek –esango ditek esku lanetan iaioa dalako.

Erriak laster ezagutzen ditu olakoak eta pillatik aguro berezi. Oiek ez dute lanaren paltarik izango

Tarteka izaten dira beste batzuk izlari egokiak, galdera guzientzat erantzun egokiak billatzen dituztenak. Ez ditut aien artean bertsolariak jartzen. Auen doaia bai arrigarria dala. Edozer gertakari estraiñu gertatzen danean, guzientzat billatzen dute dagokion erantzuna, eta jakinduriz itzegin. Mingain gozokoak, itz jario dotoreak eta erriko jende askok aolkua eskatzen dieten oietakoak.

Olakoxea zan, bada, Joxe. Edozein galderari billatuko zion zegokion erantzuna; bere muturra, alegia. Errian “Jakintsu” izenarekin bataiatua. Erdera zaleak era izaten ziran tartean, “*Todo saber*” esango ziotenak.

Inguru artan guzian au oso ezaguna zan. Orregatik, eztabaida askotan, jendeak jakin nai izaten zuen jakintsuaren iritzia. Gazte-gaztetik zan au bere zentzuduneko galdera-erantzunakgatik ezagutua.

Fameli ederreko bost anai-arrebetatik bera zan gazteena. Beren etxebizitzatik urbil zeukaten itxasoa. Zaarrena etxera ezkondu zan eta bere bizibidez arrantzalea zan. Bigarrena zurgina, Joxe bezela. Bi arrebetatik bat arrantzale batekin ezkondu zan. Bestea, berriz, lekaime sartu. Etziran aberatsak, baiña oso fameli onradua eta errian maitea.

Gurasoak arrantzale ziran ezkerro, zaarrenak, maio-razkoa zanez, aien bizibidea artu zuen; arrantzale, alegia. Arrai saltzaille ziran, berriz, bere emazte ta arreba. Esan degunez, bestea, lekaime, India alde ortan mixiolari. Fameli osasuntsu, elizkoi, langille ta ongillea.

Joxe, gure jakitsuak, gazteenak, alegia, zurgin ikasi zuen. Etzeukan arrantzarako gogorik. Berak zionez, arraixku txarreko lana omen zala. Osabaren bat itxas asarre aldi batean galdua, eta opor askoko lanbidea.

Bere adiskide batzuen lantegian asi arazi zuten gurasoak, pintxe bezela, oraindik gaztea, sari pixka bat kobratuz. Bitartean opizioa ikasiko zuela. Gorputzez ez txiki, ez aundi; bitartekoa, baiña egokia.

Leen esan degunez, bere iritziak eta galdera-erantzunak arrazoiz babesten omen zituela, eta jakinduriz. Dena zekien bezela agintez itzegiten zuelako, "Jakintsua" jarri zioten izena, eta erritarrak deitura orrekin ezagutzen zuten. Erdiak etzuten bere jatorrizko izenik jakingo. Lasai, paketsua, bere itzak ondo neurtuz eta patxadan itzegiten omen zuela. Arentzat, galdera guziak bazuten erantzuna.

Bere ordu libretan liburu asko irakurtzen zuen oietakoa omen zala. Etzan, bada, dana lastoa ortatik zetorkion itz jario goxo ura, eta lagunak baiño zerbait jakintsuago erritarren artean azaltzen zala.

Lanean ari zan zurgin-olako alabarekin ezkondu zan, bere gurasoen naiaren aurka, aideak ziralako. Auek benetan asarretu zitzaizkion, azken aldera zerbait adiskidetu bazitzaizkion ere.

Badakigu billobekin nolakoak diran amonak. Bein anagorriak asi ziranean, bada, amona ezin ziteken aiek ikusi gabe bizi. Arek autsi zuen bi sendien zaputz ori.

Baiña kabia palta. Gurasoenak beteak zeuden. Ezin zitezken aietara ondo ezkondu. Orduan ari ziran inguru artan etxebizitza berriak egiten. Joxe zurgiñak ere an egiten zuen lana. Aietako batera ezkondu ziran, bada. Ezkondu baiño leen, auek antolatu zuten, bada, beren etxea.

Etzan Joxeren gogozkoa. Ezta emaztearena ere, noski. Etzeuden etxe pillan bizitzen oituak. Baserri lege batean jaioa ta azia zan gure Jakintsua, oso ikuspegi ona zeukana. Orain, berriz, kaiako etxe pilla bateko bizitzan sartu ziran. Andik itxasoak bakarra ikusten. Bare, patxadan zegoenean, ikusgarria. Dena txalupa txikiz betea, txipiroi arrantzan. Gaiztoa zegoenean, berriz, ixtilluak, bazterrak astinduz uraren jauziak, eta txalupak arraixkuan, kaiara ezin sartuz.

Baserritik etxe pillara egindako aldaketa orrekin etzuten asko irabazi. Gurasoak, beiñepein, etzieten asko lagundu. Baiña kalera zetorren baserritar fameli batekin trukatu zuten. Etzuten negozio aundirik egin. Beren etxebizitza berria zan, eta artu zutena aspaldiko etxea. Gaurko fameli berri batentzat jartzeko moldaketa asko egin bearra. Baiña bien naia ori zan ezkerro, etzeukaten elkarri kezkek ematen aritzeko arrazoirik. Denborarekin eta pazientzi puxka batekin, eta sos batzuak uztearekin, berak nai zuten modura jarri zuten etxea.

Zugaitz batzuen erdian jaso, etxeraiño bide zabala, baratz txiki bat inguruan, oso ikuspegi ederra, itxas aldera beiñepein.

Laster bertako gorabeerak kontatuko ditugu. Baserria olakoxea zan; eta bertako nagusi berria eta liburu onen aintzindari egingo duen Joxe zurgina, Jakintsua zeriotena, leen esan degunez gizon gozo ta langillea, or bizi zan.

Udara ta udazkeneko giro zoragarrietan atsegiña zan an bizi ta andik begiratzea itxasalde ortara, dana txalupa txikiz eta aundiz betea. Aundiak urrutira joaten ziran, illebeterako askotan. Txikiak, batelak, gizon bakarrekoak, itxas zabalera ateratzera ausartzen etziranak, Bidasoa ibaiaren sarreran egingo zuten arrantza, Endaia ta Ondarribiko tarte ortan. Txipiroia dala edo angula, ori itxas ontzi txikiz betea egoten zan.

Illunpean txalupa guziak beren argiarekin ibilliko ziran, eta itxasoak dena ipurtargiz betea zegoela zirudien.

Mendia utzi ta itxasora jexteko eta murgiltzeko go-go emango die Jaizkibeleko egal kixkalgarrri ortan begira jartzen diranei; lurrarekin beti burruka ari bear duten nekazari gizarajoei, alegia. Baiña ori da bizi bearraren legea.

Itxasotik dakartenetik gaur egunean ez da ezertxo ere ondatzen. Saltzen dute nola edo ala, merkexeago edo garestixeago. Kaiara sartu ordurako, onena Barzelona, Madrid eta uri aundi oietara eramango dute. Gure gazte denboran, berriz, inguruko soroak ongarritzen zizutzen sobratzen ziranak. Gaur jateko ere pozik artuko luke jendeak. Gaur ez dago olako beldurrik. Arrapatu orduko saltzen da an edo emen.

Baserrikoa, nekazariak egiten duena, alegia, askotan arri erasuren batek arrapatu ta kito. Bere lanak utsean

geratuko dira. Nekazaritza beeraka dijoa emen. Emengo goa baiño merkeagoa dakarte dena kanpotik, eta guk egiña galdu egiten zaigu. Asarre dabil nekazaria.

Guda kontuan ere esan gentzake mundu guzia gudan dabillela. Orduan ere berdin zan. Gudak ezeren aurrerapenik ez dakarrela ederki agertua dago. Gaur oraindik astakeri guzi oien gaiñetik, il, txikitu ta erraus-tu berdin jarraitzen dute. Oraingo aurrerapenekin, ber-ritz, erri osoak kiskaltzen dituzte. Irabazleak ere galeran dira. Erriak sortzen duen dirua, armak egiteko.

Kontu kontuan ere, bada, ondarribiarren kondaira oso aberatsa da. Eraso gaiztoak izan omen zituzten; ga-raipen ederrak ere bai.

España guziko bei sariketan ere sari bikaiñak atera izan ditu. Leenengoak ere bein baiño geiagotan.

Azoketan ere landare saltzen, orain berrogei bat ur-tera artea, ugari aukeran Ondarribi ta Ibarra jotzen ge-nituen. Orain, erri zaarrari ondo eransten etzaizkion or-migoizko kale-etxe berri oietakoak azpian artu dituzte. Baserri zoragarri guziak eta nekazaritza beeraka dijoaz. Diruak ez baidu biotzik.

Olakoxea zan garai batean Ondarribi, eta olakoxea da gaur. Orduan euskalduna zana, gaur erdalduna, dena edo geiena. Badirudi, zoritxarrez, euskeraz itzegiteaz lo-tsatu egiten dirala. Jakinda ere, ez dute itzegin nai izaten.



## Fameli berria

---

Etxe berriarekin trukaturako baserri lege txiki artara itzuli ziran, bada, Jakintsua ta bere emaztea, eta banaka-banaka or etorri zitzaizkien beren seme-alabak, seitaraiño.

Esan degunez, Jakintsuaren guraso ta anai-arrebarik geienak arrantzaleak izan ziran. Emazteak, berriz, arrai saltzailleak. Jakintsuak aldatu zituen, bada, ordura arteko oitura ta bizibideak. Au zurgina izan zan, eta lantegiz kanpora ere dei asko izaten zituen etxe askotatik, bertako bazter eta txokoak konpondu, txukundu ta antolatzeko. Batez ere ixilla zalako, onek kontatuta etzuten etxe artako gorabeeren berri ikasiko.

Irungo zurdindegia batean egiten zuen, bada, lana alzarigintzan, bere emaztearen guraso ta onen bi anaiekin, auen tailerrean, beren etxetik urrun xamar.

Beta zuenean joaten zan itxasora ere. Bazuen onek ere bere batel txikia, Bidasoa ondoan bizi diranak geienak bezela. Baita baserritarrak ere. Gaur oraindik ez da oitura ori galdu, batez ere txipiroi garaian. Lantegietan ari diranak larunbat illunabarretan joaten dira, arratsa aurreratu artean arrantzan aritzeko. Igandean atsedena artzeko naiko denbora badaukate; igande osoa, alegia. Arrantzan oitua dagoen batentzat zailla da itxasoaren lillurak ez eramatea. Gure Jakintsuari ere ori gertatzen zitzaion: ezin etsi. Andik zekarren arrai pixarra etzan gaizki etortzen. Bein mutiko zaarrena kozkortu zitzaionean, berekin eramango zuen, opizioa erakusteko; eta semeak benetan eskertzen zion beratzaz oroitzen zalako.

Aitak ere begiak luzeak zeuzkan: gutxi gorabeera, bertako maiorazkoa bera geratuko zala taillerrean.

Orain egazkin geltokia dagoen aurreko ibai paketsu ortan ibiltzen ziran.

Baiña, alare, mendia maiteago zuen, noski; eta jai arratsaldeetan, txakurra ta eskupeta artuz, galerazia etzegoen guzietan, eizera joateko oitura zuen, ez zoratu oietakoa zalako. Ori etzuen aitzaki bat besterik, ango aize garbia ausnartzeko. Txakurrari ere, aste guzian katean zeukanari, lasai aldi bat eman. Bera, berriz, izerdi puska bat ateratzeko asmoan. Gazterik geiegi ari zan gizontzen. Ta emazte ta amagiarrebari utzi arratsalde guzian etxea konpondu zezaten.

Izan ere, eguna argitu baiño leenago, lanera aterako zan goizero etxetik. Bera bizi zan lekutik urruti xamar baizegoen tailler txiki ori, eta neke gutxiko lantegia. Etzan izerditzen, eta entrama oneko gizona izaki.

Negu partean, berriz, sarrera-erteerak biak illunpean egingo zituen. Larunbata arte etzituen seme-alabak ikusiko ere. Goizean lotan utzita joango zan. Andik etortzerako, berriz, auek lotara joanak.

Ori da langillearen legea, famelia azitzezkeroz: lane-ra, morroi bizi bearra. Bide zabal ederra zeukan etxeraiño. Berebilla erosteko dirurik ez, ordea. Txirrindula batean joan da etorriko zan. Emazteak bide erdira eramango zion bazkaria, ezkon berritan beiñepein. Gero, senarrak berekin eramango zuen, eta bere amagiarrebarren etxean berotu ta bazkaldu, ostatuan asi ezkeron irabaziaren erdia berak kenduko zion ta.

Bat bestearen ondoren, sei seme-alaba izateraiño iritxi ziran, oraindik denak eskolara zebiltzanak. Aiek jantzi, aiek mantendu eta eskolako zorrak ordaintzen,

naiko buruaustek bazerabilzkien gure Katalin gaixoak. Ori dena, bakarraren irabazitik atera bearra

Etixerakoan, negu partean beiñepein, aldapaxka bat igo ta gainbeera artzean, urrundik ikusiko zuen bere etxea, illunpean geiena, baiña sukaldeko leio txiki batetik ipurtargi baten antzera azalduko zan argia.

–Ai, Katalin gaixoa –pentsatuko zuen gure Jakintsuak–, egun guzian ar bat baiño geiago geratu ez eta biar lenengo jeikiko zera, ta oraindik txutik.

Seme-alabak lotara biali ta txintxo itxogingo zion senarrari, au lanetik etorri arte. Bazkariarekin joaten zan ezker, ez baizeukaten izketarako betarik; eta orain elkarrekin apalduko zuten, egun guziko gorabeera guziak elkarri emanez.

Bazkaritan, seme-alabak etxera etortzerako etxean egon bear baizuen. Baiña etzan alperrik egongo. Josten edo elastikoren bat edo galtzerdiren batzuk egiten ariko zan. Gizonak, zebillen lekuan, izango zuen norekin itzezin eta zirika aritzen zitzaizkion, betiko buruaustek berriuz lasaitzeko moduan. Baiña gure Kataliñek ez. Egunik geiena bakarrik igaroko zuen, seme-alabak eskolara igorrita. Ori zan gure gazte denboran etxeoandreen martxa. Baita gaur oraindik ere ama gazteen bizitza. Alare, gaur sendi guzietan badituzte irrati ta telebista, beti oroipen aspergarriak aztu erazteko. Orregatik itxogingo zion senarrari, arek ere apari beroa artu zezan, bitartean elkarren berri ikasiz.

Lanera dabillen gizonak ere izaten ditu bere estuasunak; eta, jakiña, kutizi asko utzi bearrak, fameli gazteak dauden bitartean beiñepein. Sei seme-alaba txikiren artean bizi dan amak ere, badu naiko lan aiek denak gobernatzen.

Katalin jeikiko zan leenengo; arratsean oierakoan ere bai azkenengoa. Maitasunaren lanak dira oiek. Bein borrontatez artu zuten gurutzea, maitasunez eraman da eziñak burutzea. Etxean ondo konpontzezkeroz, bearrezkoa da ori: elkarrentzat bizi; ejenplu ona eman seme-alabak azitzeko. Zoritxarrez, gaurko egunean fameli askotan palta dan batasuna da ori.

Igande goizean, lenengo mezetara jetxiko zan aita. Au etortzean, amarekin batera seme-alabak, eta egoarte guzia aitak seme-alabentzat izango zuen, auek amari pakean utzi zezaioten. Txintxoia zan ortan gure Jakintsua. Arratsaldean, berriz, eguraldiak laguntzen bazuen, beiñepein, mendirako txangoa, txakurra eta eskupeta berekin artuz.

Ardangeletan, beartuta ezik, oso enbarazu gutxi emango zuen. Gizartea atsegin zitzaion, jakiña. Jakintsua izen ori etzioten jarriko ezagutuko ez balute. Baiña alperrikako berrikerarik ez. Geiegian sartu ezker, berriz, eztabaidari neurriak artzen ez da erreza.

Gogoan edukiko zuen Seneca-ren iritzi sakona: “Zenbat eta geiago gizonen artean jardun ta itzegin, orduan eta gizon ezago biurtzen naiz etxera”. Orregatik gure Joxeri ere jarri zioten bere erritarrak zeraman izengoitia.

Baratz txikiko martxa, beiñepein, geiena emazteak zeraman. Seme-alabak azi aiñean zerbaitetan lagunduko zioten. Baiña Joxek ezin zezakeen. Ortarako astirik etzeukan, urte giro askotan beintzat.

Elkartasun aundia zegoen baserri txiki artan, eta eztabaidak ere izango ziran. Ori ere ez da itxura txarra. Maitasunik etzan paltako eta pakeak agintzen zuen baserri artan, baiña bata bestearen iritziak errespetatuz.

Olaxe bizi ziran orduan, eta gaur ere bai. Baten irabazi utsetik alako famelia aziko badute, juxtu-juxtuan gerri-

koak estututa bizi bearko dute, noski. Maitasunak alde egingo balu, ango pake ta batasunak ez luteke luzaro iraungo.

Gizon langille, paketsu ta atsegiña zan, bada, gure Jakintsua. Beti umoreko, bere lagunak benetan maite zutena. Gutxi ta geiegirik gabe, pasamoduan zebiltzan; baiña erromatarrak zioten *aurea mediocritas* baiño eskaxago, noski.

## Urte Zarra eta Berria

---

Urte Zaarra ta Berria ez dira kristau jaiak. Elizarenak ain gutxi. Paganotarren kutsua daramate. Oiek aundiki-ro ospatzen ditugu kristau geranok ere, baiña jan da edan bestetan pentsatzen ez degunok. Jentillen sarean erori gera; kutsatu egin gaituzte. Baiña ez da batere arri-zekoa, supritu bearrari iges egin nai izaten diogu ta.

Eguna etorri baiño leen asten gera aparti on baten eskari, bazkaria aaztu gabe, jakiña. Baiña apartia lepo egin da leertzeko modukoa izan dedilla. Bestela, urte berri guzia goseak igarotzea bezela litzakela, ez badute gainez eginta zaarra bukatzen.

Etxeko apartian geiegi jan ta gero, jakiña, ez da mozkorrik paltako, etxean asitakoari jarraitzen badiote. Denetarako badago jendea. Tabernariak ori nai dute. Festa oiek ez dute neretzat, beiñepein, Eguberrietako goxotasunik izaten.

Jaungoikoaren Semea, zeruko pakea ta askatasuna utzirik, zeruetako ateak zabalduz, etorkizunaren itxaropena ekartzera etorri zan eguna. Bere jaiotzarekin erakutsi zigun garbi asko ez giñala mundu ontarako bakarrik jaio. Gure aragi ustelkor onen barruan bazala zerbait illezkorra.

Gure Jainkoak ez du gure bearririk. Betikotasun osoan bere baitan neurri gabeko zoriontsua da. Dena dauka berekin; dena berea zeruan eta lurrean. Guk ez diogu, bada, ezertxo ere erantsiko. Neurri gabeko maitasunez kiskaltzen dauka Jainkoak biotza; eta bere zoriontasuna guri eskeintzeko egin zan gizon. Guk ez diogu, bada,

pekatua eta esker txarra besterik emango. Gure pekatua barkatzeko etorri zan, bada, mundura, eta artu zuen guk merezi genduen kastigurik gaiztoena.

Ori degu Eguberrien esan naia. Baiña ortatik dator-kigun zoriona aaztu egin zaigu, eta dena sabelari eman diogu. Dena tripazaien festa biurtu ditugu Urte Zarra eta Berria. Eguberri jaiak ere gaurko egunean ez dira besterik.

Eguberria da leenengo mailla. Ortik asten gera. Urte Zaarra eta Berriak jarraitzen diote. Iru egun auek Jaunari esker emateko bear luteke, baiña gure sabelari ematen dizkiogu.

Sekulako otsak aterako ditugu. Jolasa ere bai ugari. Baiña dena gorputzaren atsegiñerako. Ortan bukatzen degu dana. Igaz amaikak Urte Zaarraren eriotza txaloka artu zuten. Etzan aientzat oso txarra izan. Berriari ere ongi etorri goxoa egin zioten. Bere jaiotza ikusi zuten, baiña eriotzik ez. Asko pentsatzen etzuten etxe askotan eriotzak dei egingo zuen.

Ondo ta kontentu bizi ziran asko berekin eraman ere bai, eta gaixo ta ezertarako ez dan ta besteren bizkar bizi diran asko bizirik utzi. Ez gutxi aberastu ziranak, betiko porrot eginta mixeri gorrian erori ere bai. Beartsu geratuak, alegia.

Majiñatxo bat lana ta etxeko pakea galdu dituztenak ere bai. Senar-emazte bereziak ere ugari. Igaz alai ta zoriontsu bizi ziranak beren eskuz beren buruari bizia kenduak ez gutxi. Ezin kontaalak asitako urtea igaroko duten itxaropen guziak galdu ta etsiak bizi diranak. Eta zergatik ez esan? Suerte ona izan dutenak ere ez gutxi.

Aurki, zaarra aztutzeko, au madarikatuz ordu gaiztoak igaro zituztelako, lepo egin ta parrandara joango

dira. Ona artutakoak, berriz, eskerrak emateko, denak dute beren arrazoia datorren berriari asiera ona emateko asmoan. Baiña bukatzerako egingo ditu billaukeri politikak, gure bizimodua ozpintzeko.



# Aparia

---

Eguna etorri baiño ondotoxoz leenagotik asiko ziran aparia moldatzen. Nik, gure famelikoaren antzekoa egingo zutela uste det beste sendirik beartsu geienetan. Aberats oien berri ez det ikasi.

Ganbarara jasotako igali legorra izango zan, gurean beiñepein, asiera emango zuena, Jainkoari eskerrak emanetz, ezeren nekerik kosta gabe Berak duan ematen zigulako. Ori gazteentzat, batez ere. Guk baiño ortza obeak zeuzkaten. Baiña zaarrak ere ez giñan begira egongo. Gozo askoak egiten zitzaizkigun. Bazetozen tarteka urrak, intxaurrak, mizpira ustel biguiñak... Oraintxen ere balitxeudek, ez ituke gaizki etorriko.

Sagarrak eta beste zenbait olako, oiek denak amak bildu, txukun asko ganbarara jaso ta osto txikitari ondo zainduak. Amaika azterketa egiten zituen amak. Iñoizka saltzera eraman ere bai. Orrekin emango zitzaion apariari asiera.

Gero, lotarako aragia edo okela astuna omen dala eta arraia izaten zan: bixigua edo arrosela arranparrillan su brasetan errea. Gozoagorik ezin ziteken izan. Gaur, olakorik billatu nai badezu, patrikari astindu ederra eman bearko diozu, eta orrek ematen du miña.

Gaztaiña aukeran, orduan beiñepein, eduki arren, ez genduen jaten. Asegarría omen da ori. Pastedetik bai, ordea, batez ere gazteentzat. Baiña zaarrak ere ez giñan ortan atzera geratuko.

Oiek denen gaiñetik, bukatzeko, arroza. Iñork ez dezala esan goseak geratu danik. Aukera aurrean jarriko

zitzaion. Au zaarrak eta gazteak berdintsu jango zuten. Zaarrak kafea artuko zuten, kopaxka bana patarrarekin. Gazteak larrebilloa, baiña ondo gozatua.

Emen aipatzen ditugun baserri txiki artakoak ere, aurrekoen legeetan jarraitzen zuten. Oitura bezela, apari on bat egingo zuten; baiña etziran parrandara joango.

Leenengo, beiñepein, aitak maaia bedeinkatu zuen. Ori eguneroko lana zuten, senar-emazteak biak ziran sinismen berokoak eta. Poliki-poliki joan zan aparria. Baiña neska-mutillak, baita aien gurasoak ere, elkar zirikatzen aritzen ziran. Noizbait gazteenak lo kuluxkaka asiko ziran eta bukatuko zuten aparria. Baiña gurasoak, seme-alabak lotara biali ta gaua aurrerratu arte, urte artako gertakari garrantzitsuenak naastuko zituzten.

Zorrik etzeukaten. Artzekorik ere ez, noski. Batasuna ta pakea, berriz, etxean. Osasuna, saltzeko ere bai. Beren aberastasuna, zalantzarik gabe, seme-alabak zirala esan zezaketen. Iltzera zijoan urtea madarikatuz, alare berria ainbestean igarotzea nai. Beren munduko bizitza etzijoan gaizki. Eskerrak emanez, orixe eskatuko zioten berriari ere.

Biak elkarren ondoan, leio batetik erri aldera begira entzungo zituzten Urte Zaarraren agurra eta Berriaren sarrerako iskanbil eta zalaparta guziak. Arrats artan gaubela egitea etzan arritzekoa. Odolkia bezela beteko zituzten sabelak eta ori zerbait lasaitzezkeroz ibiltzea komeni zitzaien. Bestela, nola atsegindu? Bitartean, berriari ongi etorria egingo zioten.

Karriketan inpernuko soiñua ari zuen, dantzan ibilli nai zuenaren aitzakigarri, eten gabea. Txistularien doiñua ere entzuten zuten tarteka-tarteka, atzekoz aurrera bederenik. Bertsolariak ere bai kantari aiekin batera. Zer

esanik ez parranderoen iskanbillak, gau giro ederrari erantzunez.

Lo egin nai zutenak, batez ere zaarrak eta gaixoak, etxe txuloan egongo ziran, erriko zalaparta arekin nazkatuak, arrats ori leenbaileen igarotzeko zoratuak, baiña berak gaztetan berdin egiten zutela aitortu nai ezik.

Beste batzuk, eta ez gutxienak, ikusi-mukusin ibilliko ziran, erriko giroa nolakoa zan ikasi nairik. Beste batzuk leiotik begira. Parrandarako zaartuegiak, lotarako gogo aundirik gabe, antxe egon denbora pasa.

Alako batean, elizako kanpantorrean jo zuten ama-biak. Beste konbentuetako txikiagoko kanpai guziak jarraitu zioten dilin-dalanka. An zebillen jendeak, ordurako katu erdian asko, oi u egin zuten.

—Ongi etorria. Urte Berri!

Su ziriak ere aidatu ziran, lo zeudenak esnatuz, illunpe artan beren argitasun ta otsa mendirik mendi zabalduz. Bitartean, txistuka eraso zioten kaian zeuden ontzi guziak, txikiak eta aundiak. Gogotsu, une batean beiñepein orrela jarraitu ondoren, denak bat-batean ixilik geratu ziran. Karriketan iskanbilka zebiltzan geienak, noski, banaka-banaka erretiratu ziran; baiña berezko parranderoak bere artan jarraitu zuten goiza arte. Orduan ere etziran danak etxeratu, gau txorien markak austeraiño. Mozkortuak geienak erretiratu ziran. Urtero berdin: iskanbilla ugari, baiña etzekarten aurrerapenik.

Gure senar-emazteak ere, leioan begira zeudenak, karrikan parrandan geratu zirane kaso aundirik egin gabe erretiratuko ziran goizerako, joandakoak oroitzuz: berak ere leenago alakoak egiñak zirala, an zebiltzanen antzera ibilliak. Alare, ainbeste zurrut egin gabe eta garbiago. Etzuten neska-mutillak ainbeste marruskada egi-

ten. Aien garaiak joan ziran, bada, ta inbiri pixar bat biotzean zeuden begira.

Gazteak jolastu ditezela orain. Gaurko parranderoak ere, zartzaroa arte bizi baziran, berak bezela leiotik begira egon bearko zuten ixil-ixilik, joandakoaren miñez. Bizitzaren legea orixe da. Baiña sinismenaren indarrez egin dezagun dena, beste leku oberako bidea daramakigula oroitzuz.

Txaloka ta zoramenez artu zuten Urte Berria, ez gazteak bakarrik, baita zaarrak ere. Baiña eguna igarotzerako bati baiño geiagori etorriko zitzaion negarra: igaz or ibilli ziranetatik zenbat etziran paltako aurten? Baiña leiotik begira zeuden senar-emazteak ere bazuten etxean negarra:

–Gure Madalentxo triste dabil atzo ezkerero. Alabatxo orrek ez dakit zer duan. Galdetu diot; baiña, berak erakutsi didanez, agiñeko miña.

–Besterik ez?

–Ez det uste. Ondo jan du, gaiñera. Baiña ez bazaio pasatzen, jai auk igaro ondoren, sendagillearengana eramango det.

–Ume alaia ta jostaria da, bada, orixe, gaixoa. Arrazoi dezu: biarko ez bada gaizkiagotzen beiñepein, zuk diozun bezela, jaiak igarotzean sendagillearengana eramango degu. Ez du, noski, ezer askorik izango.

–Leen ez naiz oroitu esatea: nola il dan nere etsairik amorratuena. Gaixo samar zegoela banekien eta banuen ari bisitatxo egiteko asmoa, mundu ontatik joan baiño leen elkar barkatzeko. Nik, beiñepein, aalegiñak egingo nituen. Ia eskuetaraiño lotu giñan. Ez naiz egundo orduan aiña berotu. Jende geiago bazan eta etziguten utzi.

–Bai; zerbait entzun nuen, ardangelako tabernariak esanta: etziñuela egundo ørduan aiña asarretua ikusi. Eta zergatik zan ori?

–Ovni zikin oien gora-beeragatik. Ez nion sinisten. Beartuak al gaude, bada? Geroztik ez degu elkarrekin itzezin, ez beldurragatik. Leenengo bero aldia igaro ta arraixkua joana dago. Baiña banuen Eguberrietarako pakeak egiteko asmoa. Ala bearko du, bada, eta onela desapio egin zidan: «I baiño leenago erortzen banauk, oietako baten billa etorriko nauk, emen arrapatu ta bizirik inpernura eramateko». «Etzegok beldur gaiztoa –erantzun nion–. Olakoak Jaungoikoak ondo lotuko dizkik. I aurretik joaten baaiz, a zer pakea neretzat! Gorroto orrekin baabil, ere burua an betiko sartzeko ez abil leku txarrean».

–Oiek erdi broman jaulkitako esaera biurri batzuk ez al dira?

–Bai. Ortan arrazoi dezu. Baiña pakeak egin gabe alde egin bearrak naigabe ematen dit. Olakoxea zan gure gizona.

–Ez da oitura txarra. Jarrai ortan. Borondate onekoak maite ditu Jainkoak.

Esanak esan, lotarako erretiran:

–Agur, Urte zaar, eta ongi etorria zu, Berri ori!

Eta, Jainkoari eskerrak emanaz, xuxenean atsedentzera joan ziran, baiña Madalentxoren ondo eza oroitzuz. Ez al zuen ezer askorik izango!

Karrikako ero aiek zebiltzala, nai bazuten, goiza arte iskanbil ta parrandan. Bitartean, nolako astakeriak etziztuzten egingo!

# Urte Berri

---

Urteoroko sendi aren oiturak olakoxeak ziran aspal-didanik, agian gazteak, sasoiara etortzean, naastuko zuten guzia baiña...

Ildako Urte Zaarra ezin zitekean, entzun degunez, aientzat ain gaiztoa izan. Ezin kejatu zitezkean. Baiña Berria ainbestekoa izan zedilla. Ori eskatzen zuten.

Igande ta jairik geienetan, uste gabeko ezbearren bat ez bazuten, beiñepein, utsegin gabe, goiz jetxiko zan Joxe mezetara. Andik etorri ta gosari legea egiñez, leen kontatu degunez, etxean geratuko zan bakarrik; eta emaztea bere seme-alabekin jetxiko zan ondoren. Egoarte guzian etzuen etxean lan paltarik izango.

Urteoro bezela, egunsentian jetxi zan, bada, errira. Oso goiz giro atsegiña argitu zuen, garai ortan gutxitan bezelakoa. Izotz pixarren bat bazala, baiña egun gozo baten itxaropena.

Benetan sinisten zuen oietakoa zan gure Jakintsua. Kristau on batek bezela entzungo zuen meza santua. Etzan legea betetzeagatik bakarrik sartuko elizan. Ortan xuxena zan.

Karrikan, berriz, urteoroko martxa arkitu zuen, baiña gero ta zikiñago ta okerragotzen. Aurtengoa benetan nazkagarria, giro ona zegoelako, noski.

Mozkor ta lizun ugari. Neska ta mutil, elkarri elduta, txakurrak baiño lotsagarriagoak, bazebiltzan, zutik ezin egonik, karriketan ezin kabituz. Estropozorik txikienean ankaz gora zijoazen zilipurdika. Birao zikiñen zerrendak ugari, sube gorriaren miztoa baiño gaiztoa-

goak. Ezin zutiturik, alako batean oiuka asiko zan aldamenekoaren laguntza eske. Ura ere zilipurdika eroriko zan. Arrastaka, lau anken gaiñean, nai ta zutik ezin jarriarik, biak, txanda ezin arturik, gorrienak botako zituzten. Bein bat mozkortu ezkerero, mingaiñak ez baitu galgarik.

Jainkoak duan emandako doai ederrenetako batekin Egillearen izena madarikatzen... Ez omen dakitela zer egiten duten. Badaezbada, etziran bedeinkatzen ari. Oiek txerriarena egiten dute; ez oilloarena. Egilleak osasun on batez gaiñera urte berri goxo atsegin bat biali eta urdeen antzera lokatzetara murgildu ta bertan naastakatzen dira, eta beren bizi Emale ta Euslearen izena itzetan eta egintzetan kakazten dute, ez oilloak bezela. Auek, edaterakoan, gora begiratu eta duan ematen dienari eskerrak ematen dizkiote.

Aulkirik geienetan bazeuden binakoak kokatuta, aldamenekoaren gorputzaren ondoan babestuak; eta beste asko geiegi edanak, baiña oraindik txutik eta jolasean, balantzaka eta tabernako atea bustitzen. Kanean zeuden argi-mutillari elduta ere bai, berari pixa egiten.

–I baiño argiago nagok ni –esaten zioten argi-mutillari–; eta eskerrak ixuritzen diton gasolinari. Bestela, bereala itzaliko intzake.

Goitika botatako apari garestiak jaten bapo ari ziran erriko txakurrak. Aiek bai Urte Berriaren sarrera ondo ospatuko zutela! Arratsero alako otordu bat etzitzaien gaizki etorriko.

Argi-mutil ta etxeko sarrera guziak bustiak zeuden. Inguru guzi artan, legortean ura emandako zugaitzak bezela, sartzen zuten geiegia norabait bota bear. Izketan ere total mintzatzen ziran. Etzitzaien ondo ulertzen. Zazar xamarrek bazebiltzan ziraldoka, mozkor-mozkorrak.

Batzuek euskeraz, besteak, berriz, erderaz, abestirik li-  
zunenak entzuten ziran, beren mingain toteldu arekin  
itzak ezin garbituz.

–*Konpañeo* –esan zion mozkor aietako batek Joxeri–.  
Ekatzu mesedez zigarrotxo bat.

Gutxitan ibiltzen zuen, etzan erretzaille zoratu oieta-  
koa ta. Baiña orduan bazeramazkien, eta atera ta piztua  
ezpaiñetan jarri zion, ederki kostata.

–*Merzi boku* –esan zion eskerrak emateko–. Gaur ov-  
ni oietako bat ikusi baietz!

–Ez nikek ezetzik esango. Baiña bai bat baiño geiago  
ere. Leen ere, ikusi duten geienak, i bezela argituak ibi-  
liko itun.

Eta aurrera jarraitu zuen. Orduantxe zetorren gazte  
talde bat, leer eginta noski, neska ta mutil, inpernuko  
auspoa joaz. Beraren aurretik igaro ziran, baiña tankera  
onean, baserriz baserri eskean ibillitako gazteak. Soiñu  
jolea ta berekin zetorren taldea xuxenean elizara sartu  
ziran. Poztu zan gure Jakintsua:

–Oraindik badituk oitura zaarrak maite dituzten  
gazteak.

Bat batean, auek sartu ziran atetik, nabaitu zan txin-  
txarri otsa. Tristetu zitzaion biotza Jakintsuari. Zer izan-  
go ta elizakoak! Ala jainkia! Betekada geiegiaren lanak!  
Aurretik mutil kozkor bat, txintxarria joaz, dizpil piztu  
bat eskuan. Atzetik apaiza, miserereka, parrandan zebi-  
lleta biotzak billaukeri gaizto bat egindako batengana.

An zebiltzan mozkor aiek etziran asko izutu. Berean  
jarraitu zuten. Etzuten aintzakotz artu ere.

Joxeri zarrazta bizia egin zion, eta belauniko jarri zan  
urrikalduta. Gaixoaren alde otoi egin zuen biotz-bio-  
tzez, gure aita bat errezatuz.



Karrikako ikuskari arekin naigabetua, ixil-ixilik eta xuxenean mezetara sartu zan, berekiko ziola:

–Oni esaten omen zaiola Urte Berria ondo ospatzea, txerriak bezela lokatzetan murgilduz iraulka. Aurten goitik datorren suak ez bagaitu kiskaltzen, gure Jainkoak bere eskutik utzi gaitun itxura besterik ez dek izango ori. Nik gau pasa maite? Parranda ere bai, bearbada, au baiño garbiagoa, ordea.

Elizan sartu zanean, biotza oiñetara erori zitzaion gizarajoari. Zortzi besterik etzituen ikusi, eta atso-agure zaar batzuk ziran. «Gure sinismena baziak!» pentsatu zuen. Alare, poz pixar bat eman zion inpernuko auspoa joaz etorri ziran gazte mordoska ura ikusteak. Etzuten mezarik entzun gabe erretiratu nai.

Apaizak etzuen itzaldirik egin. Zertarako? Norentzat? Elizako arrientzat? Zortzi aiton-amona eta gazte batzuk besterik etziran eta...

Kanpora ateratzerakoan, barrukoak eta leen elizakoak eramanez zijoan apaizak topo egin zuten berriz ere. An ikasi zuten mutilla illa zegoela.

–Goian bego –esan zuen Joxek–. Jaungoikoaren errukiak etzeukak neurririk eta berekin ar dezala. Danongatik zegok aldarean. Il dan gizarajo orrentzat eta bere etxe koentzat etzegok Urte Berririk. Olakoxea dek mundu au. Urtearen sarrera txaloka artutako batek utzi dik mundua.

Kontatu dizutegun ori ikusi zuen Jakintsuak goiz artan. Ajolagabekeria! Eguberriak ere berdin-berdin ospatu zituzten parranderoak.

Etixerakoan, ola-alakoak zirala pentsatuz zetorrela, aspaldiko lagun zaar batekin topo egin zuen, eta izketan geratu. Ura txintxo mezetara zijoan. Bera, berriz, etxera.

–Orain ere –esan zuen berekiko Joxek– ovni dalako oien aztarrenak berriro bearko dizkigu. Bera ezezkoen alde zan bezela, beste ura baziranen aldekoa izaki.

–Urte Berri on, Joxe –agurtu zuen–. Goiz abil.

–Jaietako nere oitura au dek. Elizak azpian artuko gaitun beldur ikaragarria zeukagu. Etzekit zer ikusteko gauden.

–Zergatik diok ori? Iñor gutxi ziñatelako? –erantzun zion lagunak.

–Ori dek. Zortzi besterik ez giñun, motell. Iru, beiñe-pein, lotara sartuak. Mendiz mendi eskean ibillitako batzuek eman ziotek mezari itxura pixar bat. Joan dek gure sinismena –serio samar erantzun zion Joxek.

–Nik ez nitek beste orrenbeste esango. Ik esandako gazte oiek ateratzen ikusi dizkit. Txintxo asko erretiratu dituk.

–Aiek eman zidatek poz pixar bat. Baiña mozkor ta biraolari ugari bazebillek karrika oietan. Ajola ziek oiei, beren zakua ondo ase ezkerro.

–Zer egingo zioagu, bada? Ik dioken bezela or dabil-tzan geienak, mundu onekin dena bukatzen dala uste ditek, eta au al duten ondoena pasatzen saiatu.

–Zertan ari dituk orduan sinisten ez dutenari birao-ka? Eta erri ontan mozkor oiek besterik ez al dek bizi?

–Jakiña, i goiz abil. Baiña gaberditik gora apaltzen dutenak, eta erdiak bederenik ala egiten ditek, aiek beranduago agertuko dituk.

–Orduan ere ez dituk, ez, elizak geiegi beteko. Tabernak bai, ordea.

–Ortarako dituk, eta or barruan lanean ari diranak ortik ateratzen ditek beren bizimodua –erantzun zion lagunak.

–Errian tabernen erdiak baleude, ohea uke. Naikoak eta oraindik geiegi ituk.

–Alperrik ari aiz predikuan. Batzuen zoriona moz-kortu ta zilipurdika ibiltzea dek. Iretzat, berriz, mendian. Gauzak diran bezela ar itzak, eta sinistra nazak: au urtetik urtera goraka joango dek, gaztedia ere bide ortatik ziek eta.

–Urdeak bezela jartzen ari gaituk.

–Ez ituke bestela orrela ibilliko.

–Osasunari jipoi ikaragarria eman besterik ez.

–Ortan irekin bat natorrek, baiña oien atsegiña ortan zegok.

–Ezeren atsegiñik bai al zeukak orrek?

–O konpon ditezela. Ni beste bidetik joango nauk. Baiña ez nauk or dabiltzanak epaitzen ariko. Nerekin zeuzkat naiko lanak.

–Bejondeikela, motell! Sekula arrazoi on bat eman badek, auxe dek benetakoa. Neri Jakintsua esaten zidatek, baiña ez niñun ortaz oroitzen. Gure biotzeko pakea ortan zegok. «Zuek epaitzen dezuten bezela izango zerate». Bejondeikela! Lezio ederra ematen didak, motell.

–Utziogun arazo orri pakean, Joxe. Berdin gure berriketagatik orrela ibilliko dituk. Ez ditek aldaketarik egingo. Eta ez al dek beste ezer entzun?

–Bai, zoritxarrez. Or karrikan dabiltzan oien birao zikiñak ugari. Urte Berriari asiera bikaiña eman zioagu. Etzekit besterik. Zuzenean elizara joan nauk, eta ez dit iñorekin itzegiteko egokierarik eduki.

–Ovni esaten dioten oietako bat pasa omen da baju-bajutik erri onen gaiñean barrena. Sua bezelakoa, globo dizdiratsua. Asko omen dituk ikusi dutenak.

–Eta bakarra ikusi al ditek?

–Ikusi dutenak ala esan zidatek.

–Arritzen nauk kalean dabillen jende narrats orrek nola ez dituen dozenaka ikusi. Baneukaken galdera orren beldurra.

–Ez al dek ortan itzegin nai edo...?

–Ez dek orregatik. Atzo ere bitan eraso zidateken eta nazkatua naukatek.

–Ire berri bazekitek eta zer atera erazi.

–Nik ere bazekit irea, baiña ez nauk orregatik zirika ariko. Eta bazekit gaur bazkaritan berriro zipoka ariko zaizkidala etxean.

–Abaillan joan omen dek. Suzko bola bat omen zirudiken.

–Ez al dik karrika au erre, bere biraolari ta guzi?

–Erriari gorroto gaiztoa diok. Utziek pakean eta lasaiago biziko aiz. Egunen batean norbaitek kargu artuko ziek.

–Aolku ona dek ori. Ala egin bear nikek, baiña laster aaztutzen dizkit ematen dizkidaten aolkuak. Nere erri xaar au ez dik iñork nik baiño geiago maite. Baita moz-kortuta dabilzan gizarajo oiek ere. Baiña Jainkoaren izena kakazten dute eta deabruaren izkuntza dek ori. Orri zioik benetako gorrotoa.

–Utziek oiei pakean. Leen ere esan dit. Beste ori, diotenez, zerbait izango dek.

–Nik Santo Tomasena esango dit. Bere barrura sartzten ez naizen arte ez dit sinistuko. Denak ikusi dutela eta neri etzaidak agertzen!

–Orrenbesteraño egoskortu al aiz?

–Begira, Iñaki: i lasai abil eta izketarako etorri aiz. Baiña nik etzeukat betarik. Etxera joan bear dit. Zai zegok emaztea, bere seme-alabekin mezetara etortzeko.

Urrengo beta geiagorekin biltzen geranean, patxada obean itzegingo diagu, zabal eta luze. Ulertuko didak, noski, ondo.

–Bai, Joxe. Bazekit ire iganderoko martxaren berri.

Lagun ura agurtuta, urrats luzean etxera etorri zan. Ordurako parranderoak erretiratu ziran.

Azkok mozkortu ta biraoka artu zuten, bada, Urte Berriaren sarrera. Paganotarren jaia bezela, alegia. Laster azalduko itun kalegarbitzailleak. Naiko lana jarri zuten mozkorrak aientzako ere.

Malentxo azaldu zitzaion leenengo Joxeri, eta alai samar. Poztu zan aita, etzuela gauza aundirik izango. Ama, berriz, mezetara jetxi zan bere seme-alabekin batera.

# Bazkaritan

---

Ibillian-ibillian, bazkaritarako garaia etorri zan noiz-bait. Joxek seguru bazekien ovniren kontua erriko jendearen aotan zebillela, eta etxean ere berrituko ziotela, bera egoskor eta sinisgogortzat zeukaten ta.

Sei seme-alaba beren gurasoekin batera biltzen ziran maiaren inguruan. Gurasoak ere oraindik gazte samarrak eta sasoi onekoak.

Jaten asi baiño leen, kristau zintzoak ziran eta, betiko oitura zuten ezkeru, aitik bedeinkatu zuen maaia gure aita batekin. Ondoren, berriz, salbea illen atsedenerako. Gure etxean oitura ori berbera genduen. Oraindik ere Euskal Errian sendi asko izango dira maaia bedeinkatuta jaten dutenak. Zoritxarrez, gaurko egunean geiago, noski, jana ematen dien Jainkoaz oroitu gabe egiten dutenak. Bedeinkapena bulatu ondoren, «On egin deizuela» opa izan zien aitik.

–Baita zuri ere –erantzun zioten.

Eta asi zuten urtearen leenengo bazkaria. Bazegoen maaian tristura pixar bat, baiña ez beldur zuten aiñakoa. Bezperan naiko beldurra sartu zuen, baiña orain alai zegoen. Alai edo ez, aren gorabeeragatik bear zan bezin goibel.

Ordura arte jolasa, parra ta musua besterik etzan Madalentxo. Alabarik gazteena zan ori. Goizean, beste iñork ez bezela, aitortu ta Jauna artu zuen. Arritzekoa zan amar urteko neskatxa batean. Ez baizion iñork agindu.

Maieko tristura uxatzeko, onela opa zien berriro aitik:

–Jainkoak arkitu gaitzala datorren urtean gaur bezin bat egiñak eta osasuntsu

–Ala bedi –erantzun zioten.

–Zu etzaude ondo eta badezu zerbait –galdetu zion Madalentxori amak. Aitaren baikortasunik etzeukan onek.

–Ez, ama. Joan zait oiñazea. Arratsean min eman dit benetan, baiña orain ez daukat.

–Non artzen dezu miña?

Beatzarekin ezkerreko masailla erakutsi zuen.

–Ori ez da ezertxo, Madalentxo. Agiñeko miña da ori. Biar joango gera sendagillearengana. Ondo badago, konpondu. Ondatua badago, berriz, kendu.

–Eta agiñik gabe nola jango det?

–Zure amonak bat bakarrik ez dauka bererik. Baiña ondo jaten du.

Madalentxoren erantzunarekin poztu ziran danak, eta beste grazi bat artu zioten Urte Berriari eta bazkariari

Egun artako jendearen esamesak berritu zituzten bazkari artan: zorioneko ovni oien gorabeerak, alegia. Katalin eta seme-alabak gogotik eraso zioten aitari. Au, beti bezela, ezezkoan.

–Zorionezko ovni oiek ez diranik ez dezu esango, noski, orain. Erri ontako askok ikusi omen dute. Aien artean, alkateak berak ere bai. Nondik datozen eta nora dijoazen ez badakigu ere, badabiltzala, beiñepein, ez dago ukatzerik.

–Gaur eliz atarian galdera orixe bera egin didate. Nere lagun maite batek, gaiñera. Alare, ni oraindik leengoan nago. Baietza emateko ez det arrazoi berririk arkitzen. Oiek ez dira, nere iritzian, erdi gaixo ta txoro batzuen esamesak besterik. Ipui batzuk, alegia. Baiña zuek ere beti “omen dute” diozute. Ez dezute zerok ikusten.

–Ori esateko zer arrazoi daukazu? –serio galdetu zion emazteak.

–Leengoak berberak. Ez det berririk billatu, ez kontrakorik eta ez aldekorik. Aski ditut leengoak. Baiña badirudi eliz atarian nere lagunak egindako galderak emen berritzen dizkidazutela, eta berriro aiei erantzungo diet, Katalin.

–Ez dakit norekin itzegin dezun ere.

–Ez dezu asko galduko. Gizon atsegiña da, baiña baietza aitortu arazi bear gauza guzien gaiñetik. Ez du besteen arrazoirik entzun nai. Benetan atsegin zaidan elkarrizketa da ori neretzat. Baiña zuek ere nolako arrazoiak dauzkazute badirala esateko?

–Gureak ere betikoak: askok ikusi omen dutela. Oien artean, leen esan bezela, baita alkateak ere. Orri ez al diozu sinisten?

–Ari baiño leenago sinistuko nioke Madalentxori. Ontza bete lodiko kristalak badauzka betaurrekoetan. Lausotu ta erdi itxua dago gizon ori, Katalin. Leporaiño zaragia bezela beteko zan, ta espirituaren sua biotzean. Zer ikusi bear du orrek? Kristal baten bitartez begiratzten badiogu, aren kolorekoa agertzen da dana. Eta alkate izateak ematen ote dio iñori doai berezirik? Arrazoi oiek ez dute batere balio.

–Ez dizut ori ukatuko. Baiña zuk diozun bezelako txoro aizerik ez du edukiko orrek.

–Alajaiñetan! Badu txorakeriak uzteko adiña. «Erorrek ikusi al dek?» galdetu diot lagunari. Ezetz erantzun dit. Orain zuk ere erantzun didazu, baiña zuri ere etzazu azaldu. Azaldu zaion batekin ere ez det oraindik itzegin. Denetan «omen du eta diote» esanez or dabil-tza. Eta gu ere or gabiltza oien artean, baiña etzaigu



azaldu. Aurten bukatzen du bere agintea gure alkate jaunak. Bera berriro aukeratzea nai lutekenak ikusi omen dute, eta azkenean berak ere bai, jakiña. Ortik aurrera urrats bat ere ez du eman arazo orrek. Beti besteak dira ikusi dutenak. Zure arrazoi orrek indar gutxi dauka, Katalin. Beti atzera-aurrera emen dabil ontzi ori, baiña oraindik ez degu iñork ikusi, eta denak beraren atzetik.

–Bai, noski. Ori ere ala da. Baiña zergatik esan bear dute gezurra?

–Torizu arrazoi bat egokia: bere izena erriaren aurrean zabaltzea nai dutenak. Alare, ez diot gezurra diotetik esango, geienengatik beipeñein. Irudimenak joko txarra egiten diela bai. Amaika olako entzunak gaude.

–Baiña ikusi dutenak ez dira, ordea, txoro, arro edo gaiztoak.

–Bat bakarrik ez jatorrik. Erriko bikarioak ikusi al du?

–Ori ez dakit. Baiña elizatik ateratzen al da?

–Bai mendi oietan barrena ibillaldi luze askoak egin ere.

–Erriko alkatea ez da orren umea.

–Arritzekoa da bein ta berriz arrazoi orrekin zatotzenez. Umea balitz, errezago sinistuko nioke.

–Ez ote dituzu gordiñegi epaitzen? Eta bikario jaunak ikusi duela esango balizu?

–Ez dago orren beldurrik. Sinisberegia zera zu, Katalin. Naiko itxuratiak, bada, oiek. Zuk ere ez dezu ikusi.

–Ortan arrazoi dezu. Esana besterik ez dakit.

–Leen ere askotan esan dizut ori dala nik galdetu dieten guzien erantzuna: «Ez det ikusi». Ez det uste neri azalduko zaidanik.

–Ez nuke beste orrenbeste esango –erantzun zion emazteak.

–Ainbeste itzegiten da ortaz eta azkenean, arian-arian, buruan sartzen zaigu –jarraitu zuen Joxek–. Beraren txetasunak aztertu nairik asten gera, eta buruko irudimenak aurrean jartzen digu. Ikusiko bagendu bezela agertzen zaigu. Ez da ori beti gogoan darabilkigulako besterik. Asko erdi gaixoak, buruan argitasun gutxikoak. Eskaxegi jaten dutelako ere bai askotan. Jainkoa danik ez dute sinistuko, baiña sorginkeritan bai, noski.

–Orduan oiek gaixotzat dauzkazu –emazteak.

–Leen ere askotan esan dizut ez daukadala ortan zalantzarik. Ikusten dutela oiuka dabiltzan geienak bai.

–Alkatea ez det nik oien artean naasten –emazteak.

–Jainkoa ote degu, bada, ori: iruzur ezin litekena? Ez al daukazute beste arrazoirik? Arek ere, galdetuko bagenio, ez duela ikusi esango liguke azkenean.

–Ez da Jainkoa izango; baiña eroa ere etzuten kargu ortarako aukeratuko. Bestela...

–Urte mordoska bat bada au gertaturik; baiña oroituko zera zu ere, noski, Katalin. Ezkioko Ama azaldu zala ta sortu zituzten istilluak.

–Bai. Oraindik aurtxoan nintzan, baiña amak kontatuta badakit zerbait.

–Askok sinistu zuten benetako Ama Birjiñaren agerpenak zirala. Batzuek zalantzan zebiltzan, baiña sinistearen alde. Orduan Ama Birjiña edozeiñek ikusten zuen, batzuek modu batera, besteak bestera. Gozo-gozo maitasun jario azaltzen zitzairen batzuei. Baiña bazan bat, beti ikaragarria azaltzen zitzaiona. Beti asarre, guda zalea, gizon gaiztoak iltzen eskuan ezpata zorrotz bat gorrituarekin, odol jario ikusten zuena. Katalina Erauso baten antzera. Bizirik larrutzen ari balute bezela, sekulako karraxiak egiten zituen Ama ikusten zuen gizon gi-

zarajo arek. Illunabarrero azaltzen zitzaion. Entzuleak errukiturik egoten ziran aien iskanbillak entzuten. Berrez oñatiarra zala uste det.

–Ama Birjiña guri erakutsi diguten bezelakoa bada, beiñepein, gizonak iltzen ikustea baiño ba al da zerbait nazkagarriagorik? –zion emazteak.

–Zetorren gudaren moldaketak egiten ari zirala, noski, ni bezelako jakintsu batzuek ziotenez. Ori zeukaten zenbaitek gogoan: Ama Birjiñak, alegia, sinisgabeko guziak iltzea nai zuela.

Zerua goibel bazegoen, Ama Birjiña jexterakoan utsun bat egiten omen zala. Laiñoak bi aldeetara erretiratuz urdin-urdin jarri, tarte artatik igarotzeko, zabaldu zuen norbaitek.

Ori entzun zuen gure auzoko bat, egia ote zan jakiteko asmoan joan zan.

–Nik jakingo dit gezurretan ari diran edo ez –zion joan aurretik.

–I baiño buru argiagokoak bazebiltzak or, baiña oraindik illunpean zegok ori.

Errosarioa esaten ari zirala, ura beti zerura begira zegoen. «Ama, Ama!» oiuka laster asi zan bat.

–Gezurra! –oiu egin zuen gure auzoak–. Etorri bada ere, ez zerutik.

–Olako batzuk baziran, sinistu nai etzutenak, noski. Sinistu nai genduenontzat etzetorren argitasun aundirik. Ama Birjiña beti leku batean eta leenengo ikusi duenari agertzen zaio, eta ez edozeiñi, nonai eta noiznai.

Azkenerako, Altzako enparantzan platano baten gainean ikusten zuena ere izan bear zuen. Neska koxkoren bat, noski. Ainbeste itzegiten al zan, izan ere, irudi-

pena egia bezela artzen dute azkenean buru aulekoak. Ez gaitezen sinisberegiak izan. Ori ez da ona, Katalin.

–Gordinegi epaitzen gaituzu. Jakiña aien artean ere gaixo asko ibilliko dala. Baiña danak ez dira ala izango.

–Askotan, zalantzarik gabe, geiegi edanak ere bai. Leen esan dizuedan bezela, argiegi, alegia. Auleriak jokatokoak ere bai tartean.

Neronek ikusi ta entzundakoa kontatuko dizut orain. Senar-emazte gazteak bizi ziran. Baserriaren jabea zan alabarekin ezkondua gizona. Beren baserri xaar ura antolatzen berebiziko dirutzak bota zituzten aiek, leenbaileen ordainduko zituztelakoan.

Estuegi artu zuten ordaintze ori, eta begi luze. Konpondu aurreko ametsak etziran betetzen. Gizon gizarajoak, lana galanki egin ta etzuen pulamentuzkorik jaten. Barauak, berriz, geiegi luzatu ezker, ondoren txarrak ekartzen dituztela badakizute. Auleriak jotta, irudipen estraiñoak sortzen zitzaizkion; eta zorrak ezin ordaindu orrek oraindik geiago estutu erazten zuen.

Gizon gazteari naastu zitzaion, bada, burua, eta irudipen beldurgarriak ikusten zituen, beretzako beiñepein, illunabarrero. Bein illunabartu ezker, atarira aterako zan eta ego aldetik azalduko zitzaion. Elizakoak balira bezela, noizbeinka txintzarri otsera bere etxe alderuntz zetozela diru eskatzera zetozenak. Zorretan zeuzkanak, alegia. Gure gizon ezkonberriak ero baten gisa oiuka asiko zan, inguru artako baserritarrak batzuk nazkatu ta besteak, berriz, urrikaltzeraiño.

–Zertan zatozte onera? Orain etzeukagu dirurik. Emaiguzute ortarako denborarik eta dena ordainduko dizuegu.

Emazte gaztea, berriz, larrituta bizi zan, gizonak betiko burua galduko zuen beldurrak. Arek ez baizuen txintzarri otsik entzuten, eta ez intxixu edo eskalerik ikusten ere.

–Ez al dezu txintzarri ots ori nabaitzen? –esaten zion emazteari.

–Inguruko txakur zaunkak besterik ez nik.

–Guri dirua aurreratu ziguten oiek ez dituzu ikusten?

–Illargia eta bere azpitik dijoazen laiño banaka batzuk besterik ez.

Baiña, alare, gizonak oiuka jarraitzen zuen.

–Ordaintzeko zorrak eta, bestela, etxea ustutzeko eskatzen didate orain da beti.

Emazteak bazekien an etzegoela olakorik. Irudipe-nak zirala oiek denak. Etzekien zer erabaki artu, eta gizona gero ta okerrago eta aulago zijoan.

Gizon ura gaizki zebillela eta lagun batzuk urrikaldu zitzaizkion. Agian deabrua izan litekela or tartean zebillena ta, azkenean, erriko bikariori eskatu zioten etxe artara joan ta ea mesedez deabruaren kontrako araoketak egingo zituen. Bestela, gizon gazte ura betiko ondatuko zala. Bikario jaunak ala erantzun zien:

–Egunero bi txuleta jaten baditu, laster sendatuko da. Ez du orrek araoketa bearrik. Ez du geiago txintzarri otsik entzungo; ez beragana datozen artzailleak berriz ikusi ere. Auleria zebillek or, ez deabrua.

Ondo mantentzen asi zanean, ez omen zuen alakorik ikusi ta entzuten.

Joxe eta Katalin, bakoitza berearekin geratu ziran: gizona ezezkoan eta emaztea baiezkoan, zalantzan beinpein eta berriro ortaz itzegiteko zoratzen.

Bazkari gozo baten ondoren lo xuxta eder bat eginta jeiki ziran, beti bezela, pake-pakean senar-emazteak.

Jaiero, eguraldi ona bazan beintzat, betiko oitura zuen ori gure Jakintsuak, leen ere esan degunez: esku-peta eta txakurra artu ta mendi aldera joatea eizera. Baiña itz orrek esan nai duen bezela ez, beiñepein. Zerbaiten aitzaki bear zuen, aste guziko kezakak bota ta aize garbia arnastuz eta mendi alde ori ikusiz, bere biotza zerbait lasaitzeko.

Ni bezela, bakarrik dagoen baserri batean jaio ta azia dagoen batentzat, ango eiz kantari otsa, udaberri ta udara aldean, kaleko mozkorren biraoak baiño atsegiña goa da. Ezin burutu kale gorrian. Gure Jakintua ere ala oitua egongo zan. Menditarra zan ura ere eta ezin etsia jaieroko txango ori egin gabe. Ango giroan eta lagunekin itzegiñez biotza lasaitzen baita.

Aste guzian katean zegoen txakurrari ere atseginaldi ederra eman. Nagusia eskupetarekin ikusi orduko, jauzika ta iskanbillaka asten zan, katea autsi bearrean zaunkaka. Askatzen zuenean, Joxe abiatu zai bi edo iru buelta emango zizkion etxeari. Arra beteko mingaiña zintzilika, arnaska ta larde jario, bazterrak astindu, atsegiñez zorabiotua. Gero, katean lotua, aste guzian asper-tuko zan gizarajoa. Ura ere Jainkoak askea egin zuen, baiña gizonaren indarkeriak ogi kozkor batekin iruzurtuko zuen.

Emazteak atariraiño lagunduko zion Joxeri.

–Agur, Katalin. Ezeren okerrik ez badet, emen nauzu betiko garairako –esan ta ateratzen zan etxetik mendi aldera.

Senarra ezkutatu arte begira egongo zitzaion atzetik. Nolako oroipenak ote zerabilzkien buruan? Ondo bizi

ziran. Sei seme-alaba ederrekin betea zeukaten kabia. Jainkoak ondo bedeinkatu zuen beren maitasuna.

Senarra bakarrik mendiruntz jolasera; baiña emaztea ere bakarrik etxe txuloko lanetan. Aurki seme-alabak etorriko ziran. Amonari laguntzera joanak baiziran. Aparia jartzea gerorako utzita, biaramonean garbitzeko gobara egosteko moldaketan ari zan.

Zortzi lagunen erropak garbitzea etzan orduan txorakeria. Gaurko aurrerapenik etzegoen ta belauniko jarrita ar losa txabal baten gaiñean garbitzeko astindu berarko zituen, eskuekin marruskatuz eta gero eskobillarekin ar losa aren gaiñean joaz.

Gizonak norbait bai omen gera. Lanean leertzeraiño beartzen omen gaituzte. Egia, noski; bai atsegin aldi ederrak tarteka artu ere, ordea. Baiña amak etxe barruan daraman bizitzarekin guk ez genduke etsiko

Biaramonean gobara egosteko moldaketak egiten ari zan, bada. Baiña amonari lagunduta lasterka etorri ziran etxera seme-alabak. Etzuten ama bakarrik utzi nai.

–Orren presaka etortzeko zer dezute? –galdetu zien amak.

–Oraintxe gure etxearen gaiñetik igaro da; ta, aita etxean balego, arekintxe itzezin nai genduke.

–Jaietako martxa duen ezkerero, eskupeta eta txakurrarekin mendira joana dek. Baiña arekin alperrik zabilzate. Berak ez badu ikusten, bestek esanarekin ez dik egundo sinistuko.

–Menditik etortzen danean itzegingo degu.

Amak meriendatxo bana eman zien; eta, illuna gaiñean zuten ezkerero, etxean amari laguntzen geratu ziran.

## Gudari xaarra

---

Ama etxe txuloan lan da lan ari zan bitartean, Joxe, olakorik pentsatu gabe, ovni bazanik ere aaztuta, mendi aldean zebillen. Ez, noski, eizean. Aitzaki orrekin aterra. Beti itxitura batean sartua bizi zan, eta buruan pentsamentu biurri asko zerabilzkien. Ea bere kirio ta giar lotuegiak eta nagituak lasaitzen zituen. Gazterik, gaiñera, etzedin geiegi gizendu ta alpertu. Tailler batean sartua beti, lana bai, baiña neke gutxikoa. Izerdi erazten etzuen. Orregatik, bere iganderoko txangoa etzizaion osasunerako gaizki etorriko.

Leen esan bezela, etxe zaintzaille zeukaten eiz txakur aundi ura ere bazeukaten aste guzian ate aurrean katean lotua. Ari ere olako arratsalde bat mesede egingo zion. Joxe etzan, bada, eiza bakarragatik joaten mendira. Orduan, neguan bazeuden ere, egoak jotzen zuen eta oso giro epel eta atsegiña zegoen egoteko ere.

Mendian zebillela, bada, bere aita zanaren lagun batekin topo egin zuen.

–Gaurko nere ibillerak bukatu dituk –esan zuen berekiko, aiton ura beragana etortzen ikusi zuenean.

Joxek “gudari xaarra” esaten zion aiton orri. Gaztetan bere aita zanarekin gudari ibillia izan bear zuen, eta bien artean aurre oietan igarotako ixtilluak, batera bildu ezker, beti berritzen. Joxek memoriz ere ikasi zituen.

Gudari xaarra asper eziña zan ortan. Lagunak aspertu ta nekarazten edukitzen bazituen ere etziok ajolarik, bere erretolika bukatu arte. Arek, berak bezelako zorarena zeukatela uste zuen gertakari aiek jakiteko. Etzion



lagunari izketan utziko, bereak kontatu arte. Elkarrizketa guzietan, bein zerbait luzatu ezkeru, inguru-minguru azkenean gai ortara eramango zuen laguna.

Gudari sutsu oietakoa zan. Kontatzen asten zanean, bazirudien burruka aurrean zebillela euskal mendietan. Alako zoramenarekin kontatzen al zituen, izan ere, berari gertatutako ixtilu aiek. Berak zionez, larrialdi gaiztoak igaroa zan; amaika arraixkutan jarria. Beartu ezkeru, pusilla berriro artzeko ausarditsu oraindik ere.

Gure Jakintsuak orrekin topo egin zuen, bada, gudari xaarrak ala nai zuelako, noski. Eiztariarentzat, arratsalde galdua.

–Betiko itz jarioa emen diagu –esan zuen berekiko Joxek.

–Kaixo, Joxe! Etzaitut aspaldian ikusi. Nik baiño sasoi ohea daukazu, ala jainkia! –agurtu zuen.

–Ongi etorria, Mikel. Sasoi edukitzea arritzekoa al da, oraindik berrogei urtez beera naiz ta? Zu ere batere gabea etzera. Gaur oraindik aiton bapoa zaude. Memoria, berriz, gutxik bezelakoa.

–Bai; izandakoaren itzala. Artxanda alde ortan ibiltzen giñanean, etsan atsegin nere aurrean. Larrogei urte gaiñean ditut. Alare, onenbestean nabillenean ez naiz asarre. Amaika gazteagoko joan dira; eta, oien artean, bizia aberriari eskeiñitakoak nere maitagarri asko. Aulago dabiltzanak ere ikusten ditut, eta ez gutxi, nabillen lekuan. Jainkoak eskerrak ematekoa da ori.

–Zure adiñean zu aiña izatea aski det nik ere.

–Danok, zaarrak eta gazteak, ate batetik igaro bearko degu. Ordu onean izan dedilla. Igande askotan somatzen zaitut mendi alde auetan, aspaldi ontan elkarrekin ez badegu itzegin ere.

–Bai; ea kaleko kutsuak kentzen ditugun. Bearbada ez naiz eizera ere ateratzen. Aspaldi ontan ez det tiro bat sutu. Baiña asteko egun guziak etxean eta itxian daramazkit, eta aitzaki orrekin jaietan nere burua askatu. Txakurrari ere arratsalde on bat eskeiñi. Neri ezik, orri ere etzaio gaizki etorriko. Goizean, mezetarakoan, karrikan ikusitako urdekeriak gogaitu naute. Oraindik mendiak garbi samarrak daude. Auek zikintzerako deituko al gaitu Jainkoak beregana.

–Nik ere badakit zerbait orren berri. Gure gazte denboran etzan olakorik. Sinismena galdu degu eta kito. Jainkoak ez badu mirariren bat egiten, mundu au gero ta okerrago joango da, zoritxarrez.

–Birao zikin oiek ezin ditut burutu.

–Zure mendirako joera ori ez dago gaizki pentsatuta. Nere txangoak motxak dira. Gero ta motxagoak, gaiñera. Garai bateko nere Bizkai aldeko antxintxikak bukatu ziran, anka ankari ezin eragin aiñeraño etorria nago ta. Beti berdiñean, aldapari iges eta beti arrastaka. Munduari azken agurra egin artean, oraindik atsegin ematen diguten lekuak ikusi, joanak ausnartuz. Azkenengo langaraiño iritxia nago ta sarrera noiz zabalduko didaten zai. Maitagarria baita bizitza au. Makal samar ibilli arren, iñork ez dauka emendik alde egiteko gogorik. Bestean obeto izango gerala itxaropenik ez da palta. Baiña beti ere zalantza, irabazi egin bear baita. Ez datoz emen gaizki eskuratu berri ditudan bertsoak. Zuk ezta-ri ona daukazu ta kanta itzazu danak banan-bana.

# Azkeneko langan

---

Bideak barna aurrera jaio  
orduko mundu ontara,  
egun goxoak aiña samiñak,  
negarra edo algara.  
Begiak lauso, gorputza nagi,  
biotz aul onek ikara,  
urrun ikusten banuen ere  
iritxi azken langara.

Aldapak gora igo ta igo  
nere lenengo urteak,  
bizitz betean ikusten nitun  
aurretik joanak besteak.  
Baiña gainbera asi bearrak  
gora orduko gazteak,  
neri tristura ematen zidan  
orren aguro uzteak.

Larogei urte bete-beteak  
sortu nintzala mundura,  
nere biotza beti taupaka  
erloju baten modura.  
Aren antzera geratuko da,  
nekeak dakar matxura,  
bizi nai onen larritasuna,  
langan sartzeko izura.

Urte aleok laster joan dira,  
zer da munduan egiña?  
Nere bizitzan nik eduki det  
pozak ainbeste samiña.  
Ondo bizitzen saiatu arren  
orain artean eziña,  
alperrik gabiltz, ez dago bean  
gizonaren atsegiña.

Larogei urte bete-beteak,  
oraindik banabil txutik;  
biotz aulduan makal aldiak,  
arnasa nagi barrutik.  
Indarrik gabe daukat gorputza,  
ez nabil ondo burutik;  
langa mugara igaro arte  
biziak nakar eskutik.

Aspertu gabe bide luzean  
gorabeera ixilla,  
iritxia naiz illun urratzen  
langa ondora umilla.  
Agure xaar txutik eziñik  
garai bateko mutilla,  
itxaropentsu banator ere  
bai al dakit zeren billa?

Beti aurrera azken mugara,  
ez dira izan goxuak  
mundu onetan ara-onera  
eman ditudan pausuak.  
Beti neretzat zigor, neke ta  
atsekabezko musuak,

langa ondoan alare larri,  
igaro nai ez gaixuak.

Larogei urte bete-beteak,  
geldi aldia bidean,  
neri txikitan eskeiñitako  
sari on baten galdean.  
Alare larri, nere biotza  
daukat beldurak aidean,  
zer arkituko detan ez jakin  
langaren beste aldean.

–Auxe dek nere gaurko egoera.

–Norenak dira bertso oiek?

–Ataño deitzen dioten praille xaar batenak.

–Badit bere entzutea.

–Ederki agertzen du emen zaar auek nola bizi geran.

–Atsegin zaizkit eta urrengo iganderako ekarri bear dizkidazu.

–Ori besterik ez bada, pozik.

–Bat zaartzen danean, maitagarriagoa da bizeitza.

–Bai, ta utzi egin bear. Betiko agurra tristeia izaten da. Zoragarritzko beste bizimodu batera omen goaz; baiña, arrastaka bada ere, luza dezaigula oraindik bizia eskatzen diogu Jainkoari.

–Bizi bearrak ere lanak ematen dizkigu, baiña iñork il nai ez.

–Utzi zagon elkarrizketa triste ori, guk nai edo ez bere orduan etorriko zaigu ta. Eta zer diozu oraingo eiztari berri auengatik: txantxangorririk ere ez digutela errespetatzen?

–Gu ere gure txikitan zerbait bagiñan; baiña auek gure neurri guziak aspaldi pasa dituzte. Martxa ontan gaizki goaz.

Joxek antz eman zion izketarako etorria zala, ta ordubete baiño geiagorako itz jarioa asiko zutela. Arekin bildu ezker, ori jakiña zan.

–Giro gozoa daukagu, beiñepein, ta zer egin aundirik ez, berriz. Geiago aziko geran itxaropenik ere ez. Aritz sendo onen aldamenean exeri gaitezen, zutik nekatu egingo gera ta.

«Beldur nuena auxe uan» pentsatu zuen Joxek. Baiña etzegoen ezetz esaterik. Bestetik, ordea, gauza berriak ikasten zituen beti, gudari xaarrak kontatuta. Onek, berriz, etzuen besterik nai: ainbeste maite izan zuen lagunaren semearekin izketalditxo bat egitea.

–Eskerrik asko, Joxe. Nere naiari laster antz eman diozu. Ez nuen besterik nai. Denbora nolabait igaro bear degu ta izketarako bestetarako ez degu oraintxe bali. Ortan, bai, laster joaten zaizkit orduak.

Auteskundeak izan berriak ziran, eta Euskadi naigabetu ontarako ondoren triste samarrak. Bere paparroa bete-betea zekarren ortaz, eta ustu nai zuen, bere kezak lagunari azalduz.

–Emen neretzat leku gozo ta atsegiña dago. Exeri gaitezen, bada, bertan, baiña ez al dizut arratsaldea galeraiziko?

–Aize gozo ta epela dabil, beiñepein, eta au beti arrerako.

Beren bizkarrak aritz sendoaren gerrian babesturik exeri ziran. Joxek eskupetari, gizartean oitura dan bezela, lagunaren aurrean kendu zizkion bere bi kartutxoak. Txakurra, berriz, bil-bil egiña etzan zan, aiek itzegiten

zutenaren ajola aundi gabe. Nekatu samarra zegoen eta bertan loak artu zuen. Gudari xarrak eraso zion:

–Oraintxe jan, edan, lo ta izketarako bestetarako ez naiz gauza. Idia bere adar ta guzi irentsiko nuke, eta oillloaren otorduak egiten ditut. Odola lodi omen daukada-la, ta sendagilleak jaten galerazi. Orixe bear nuen orain, muxarrak bezela lo egiteko. Mingaiñean, ortxe daukat indarra. Erreuma aundirik ez daukat or beiñepein.

–Badakizu alako erderazko esaera ura: «leen dantzatua ez digu iñork kenduko». Urte bapoak pasea zaitugu zu ere, noski.

–Arrazoi dezu. Agiñeko min bat ere ez det eduki ia irurogei urtera arte. Alare, gorputza nagituagatik, eskerak mingaiña aske ta zauli ta nere buru aundia argi geratu zaidanari.

–Oraintxe, bada, Mikel, ez daukazu aukera txarra. Larogei urte auetan ixildu etzaizun mingain orri eragiozu. Urte Berritan gaurko giroa baiño gozoagorik ez degu askotan arkituko.

Izketan asi zan eta doministiku batzuk egin zituen gure gudari xaarrak. Beldurtu egin zan eta ala erantzun zion Joxeri:

–Bai. Ori ala da, Joxe. Biar arte jardungo nintzake zurekin izketan. Baiña, giro gozoa badago ere, arin samar jantzia etorri naiz eta ni neguan sartua izaki. Zaartua, alegia, eta joan egin beariko. Oztutzen ari bainaiz. Gazte batentzat ere ez da ori ona; baiña emen jarduntzea nerezat eriotza litzake.

–Giro epel onekin ere oztutzen asi al zera? Gutxienez, ordubeteko itzalditxo bagenduela uste nuen ta...

–Ez da naiaren paltarik, baiña beldurtu egin naiz. Alare, emendik alde egin baiño leen, jakitea komeni zai-

zun arraixku bat agertu bear dizut. Kontuz, Joxe. Zure etsai bat inguruz inguru mendi ontan ikusi det.

–Nor? Patxi Biurri?

–Urxaxe bera. Onuntzean or topatu det.

–Ez da esaten duten bezin gaiztoa. Garai bateko izkirimiri aiek ezkeroztik elkarrekin askotan itzegin degu. Baita dirua ere eskatu zidan oraintxe berriro, eta nik al detan aiñean lagundu egiten diot, ez badu merezi ere. Beti on egiten dizun bati laguntzeak zer meritua dauka? Ori jentillak ere egiten dutela ez digu esaten Jesusek ebanjelioan?

–Bejondeizula, Joxe! Ori da benetako kristaua izatea. Baiña alare kontuz, aldarte gaiztoak izaten omen dituta. Baliteke arek zuk bezela ez pentsatzea. Nik, beiñepein, abisoa ematen dizut.

–Datorrela. Ez daramat nerekin arma txarra.

–Ustegabekorik izan ez dezazun esaten dizut ori.

–Eskerrik asko. Ori baiño etsai gaiztoagorik ez baldin badaukat, banebilke lasai. On egiten zaionik nekez jarriko da txarrerako.

–Agur, bada. Gaizki esanak barkatu. Ea datorren igandean berriro emen elkar ikusten degun. Eta bertso oiek ere beste papertxo batean idatziak ekarriko dizkizut.

Lasaialdi ederra artu zuen Joxeren biotzak. Ura joan ta oraindik bertan geratu zan eskupeta kargatzen, badaezbada, beartzen bazan. Giro ederra zegoen eta oraindik beste ordu erdiren bat mendian igarotzeko asmoa zeukan.



## Joxe baitua

---

Mikelek Joxe agurtu ta oraindik berreun bat metro igaro gabeak izango zituen. Motel-motel ibiltzeraiño etorria baizegoen. Larogei urte beteak.

Jose, lurretik eskupeta artzeko makurtzen asi zanean, poliki-poliki burua naastutzen asi zitzaion. Igerri zion ondoeza zetorkiola, ordura arte bein ere ezagutu etzuen bezelakoa, ezereen oiñazerik gabe. Kontua joaten ari zitzaion. Begietara, berriz, lanbroa zetorkion; eta begi bista, berriz, itzaltzen.

–Txorabioren bat zetorkidak, noski –zion berekiko–. Sekula ez ta orain, bakarrik geratu naizenean.

Zergatik izan ziteken etzion antzik ematen. Naiz Urte Berria izan, etzuen jan-edanean asekadarik egin.

Mikeli deituko ote zion zalantzan ibilli zan. Baiña ordurako urrutira joana izango zala ta etzion oiurik egin. Berdin bai-baizekien etziola entzungo. Gorraireak artua zegoen. Entzun ta ere, ura etortzerako ordu erdi bat baiño geiago pasako zuela ta bakarrik geratu zan.

–Nere biotza, olako matxurarik gabe, ondo ibilli dek beti orain arte. Orren ustegabeko eraso gaiztoren bat ote datorkit?

Eskumuturrean bere taupadak artu zituen eta biotza lasai-lasai zebillela iruditu zitzaion, bere ustez beiñepein.

–Ez dek orkoa izango.

Badaezbada, eskupetari kartutxoak kendu ta ura ari-tzaren adar batetik zintzilik utzi zuen. Bera, berriz, gero

ta naastuago eta zorabiatuago. Ia etzuen ezer ere entzuten; ikusi ain gutxi.

Kristau zintzoa zan ezkerero, ordu artan Jainkoaz oroitu zan, eta otoi egiñez bere borondatera makurtu. Mendian ta bakarrik, bere maiteengandik urrun, eraman nai bazuen eraman zezala. Ordu larri artan oroitzen zitzaizkion bereak. Katalin gaixoak naiko lanak izango zituen, sei seme-alaba txiki aiek mantentzen. Zer deabrukeri ote zan ura?

Begien bista lanbrotu zitzaion. Eztarrian gora alako naigabe bat zetorkion; eta, erorikada bat egin baiño leen, luze-luze etzan zan ortzaz gora, poliki-poliki zetorkionari itxogiten. Auspez erori ta bertan itotzeko arraixkua ere bai-baizeukan, alde z aurretik neurriak artu.

Bereala begietako bista joan zitzaion; eta, mundu ontarako, beiñepain, bere zentzua galdu bazuen ere, barrukoa ez. Gozo-gozo gero ta alderago entzuten zuen urrundik zetorren txistu alai baten doiñua. Ura dana amets gozo bat zala iruditzen zitzaion.

–Nondikako ote da ori? Garai ontan eta mendian ez dek txistularirik ibilliko –zion berekiko, bere ustez ametsetan–. Gure erri aldetik datorren soiñua ez dek izango. Egoaizea zebillek eta au ipar aldera zegok, eta emendik urruti samar. Arrigarria da, orratik, au. Zer gertatzen ote zait neri?

Txistuaren otsa, gero ta urbillago eta ozenago, ain gozo zetorren... Atsegiñez, amets batean bezela doiñu ezti ura entzuten zegoela, bat batean kantari asi ziran euskal doiñu eder batean, euskera garbian gaiñera, aingeruak ziruditela. Gure Jakintsuak etzekien zer pentsatu.

Bi doiñu aiek, kantu ta txistu, entzuten zegoela, bi-tarte ortan bere begiak asi ziran zabaltzen poliki-poliki barrurako, kanporako itxita zeuzkanak.

Lilluragarritzko argitasun batek zeukan inguratua. Usai gozoa zetorren bere sudurretara. Gorputzak, ber-riz, etzeukan kargarik. Antz eman zion alaitasun artan globo dizdiratsu batean aidean zebillela bakar-bakarrik.

–Illa izango nauk eta Jaunaren auzitara joan bear-ko dit. Edo au ez al dek zorioneko ovni oietakoren bat izan-go? Olako alaitasunarekin datorrenean, ezer txarrik ezin nezake itxaron. Jainkoa xuxena dek, baiña errukitsua. Arek etzerabilkik iruzurrik.

Berriro, ovni baten barruan egongo zala etorri zi-tzaion burura, eta aidean zebillela.

–Nora ote naramate?

Gero ta argiago, kantua ere gero ta urbillago.

–Alaitasun zoragarri au ezin litekek txarrerako izan.

Arrituta zebillen, bada, argitasun artan murgildua; zoriontasun arekin zorabiotua. Baiña jakin ez ura zertan bukatuko zan.

–Il ote naiz eta au ote da zerua? Baiña olako bakar-dadean, au ere luzarora aspergarria izango uke benetan.

Ori burutik igaro zitzaion orduko, txistu ta kantu otsak ixildu ziran bat batean. Argitasun artean, urrunetik, aizeak daraman ke moltso bat bezela azaldu zan, be-ragana zetorrela. Norbaiten itzala iruditu zitzaion, zer-bait bizia, pinpilipauxa bezela urbiltzen-urbiltzen. Bai-ña zenbat eta urbillago, orduan ta arrituago zegoen Jo-xe. Ovniren barrura sartu orduko ezagutu zuen nor zan, eta izu laborreak artu zuen.

Barrabas esaten zioten bere etsairik gaiztoena zan, asarre aldi batean Joxe baiño leenago iltzen bazan globo

oietako batean inpernura eramatera etorriko zala zema  
egin ziona, eta mundu ontan elkarri barkatu gabe gera-  
tuak. Ura indarrean zetorren eta aren aurrean etzeukan  
zer egiñik.

## Etxeko larritasuna

---

Seme-alabak lasterka etorri ziran amonari etxeraiño lagunduta, ordurako aita etxera etorria izango zalakotan, ari galdera batzuk egiteko asmoan: ea sortaldetik azaldutako suzko bola zer zala iruditzen zitzaion. Aren iritzia jakin nai zuten, baiña etzan oraindik azaldu. Leen, garai artarako, geienetan etxean izaten zan. Etzuen iñongo tabernetan sartzeko oiturarik. Ortan xuxena zan.

Atarian ordu erdiren bat jolasean ibilli ondoren, sukaldera sartu ziran amari laguntzera. Gazteak izaki.

Ama bakarrik an ari zan aparti legea prestatzen. Sartu bitarte, garbitutako erropak konpontzen eta botoi paltak eransten. Emakumeak sukaldean, lan bat mar txan daukatela, bestea billatzen dute. Beti badaukate zer egiña, batez ere seme-alaba txikiz inguratua dagoen amak. Bakarra baida konpontzen ari dana, eta sei-edo, berriz, austen. Seme-alabak, kozkortu arte ez dakite amaren berri.

–Jainkoak gabon, ama –denak batera oiuegin zioten.

–Baita zuei ere. Amonari lagundu al diozute?

–Bai, ta etxeraiño. An ere goxo batzuk eman dizkigu.

–Biotza besterik ez dik emakume orrek.

–Gureztat ona da, beiñepein –erantzun zioten denak.

–Eta goxoen ordez erritan emango balizuetekete?

–Orduan ez genioke etxeraiño lagunduko.

–Zuen maitasuna ere ondo arlotea ta zeronkoia dek, bada.

–Aita ez al da oraindik etorri?

–Ez. Goizago etortzen bazekik, baiña gaurko giro onekin...

Zarrenak telebista piztu zuen eta ari begira geratu ziran. Denbora bazijoan eta etzan aitarik ageri. Ordulariari maiz begiratzen zion amak.

–Zer gertatzen ote zaio gure gizonari? Kanpoan izketan aritzeko beranduegia ere badek. Neri abisatu gabe, berriz, batez ere lagun artera joan bear badu, beti esaten zidak.

Urduritzen ari zan Katalin. Joxek etsai gutxi zituen, baiña bat edo bi bai gaiztoak. Batek esan ere egin zion, asarretua:

–Ovni badan edo ez nik erakutsiko dit. I baiño leen iltzen banaiz, oietakoren batean etorriko nauk, i artu ta inpernura eramatera.

–I aurretik joaten baaiz, beldur gutxi. Jainkoak sutara botako au, geiago aterako ez aizen lekura. «Noiz arte egon bear degu?» oiuka aritzen omen dituk; eta suzko barrun illun artan ba omen zegok erloju aundi bat. Aren eten gabeko erantzuna ala omen dek, inpernuko txulo guzietatik entzuten dana: «Beti! Beti!». An sartu ezkerro, andik ateratzeko itxaropen gutxi. Obe dek aurretik neurriak artu –erantzun omen zion Joxek.

Sortaldetik agertutako suzko bolari beldur gutxi zion Kataliñek. Senarrak bezela pentsatzen zuen: bein emendik joaten zanik etzala etortzen.

Apal ordua iritxi ta aita palta. Ustegabekoren bat gertatu ote zitzaion? Etzekien zer pentsatu.

–Umeak, ordua dek eta atozte apaltzera.

–Eta ez al diogu aitari itxogin bear?

–Guk apaldu dezagun. Etortzean egingo dik berak.

–Nora joan bear zuen, bada? Txakurra aspaldi etorri zan.

–Egia al dek ori? –galdetu zien amak.

–Bai, ama. Suzko bola pasa ta bereala. Izutu samarra zirudien, gaiñera.

Ama larritu samarra zegoen, ez suzko bolaren bel-durrak. Sinisten zuen bazebiltzala. Etzan senarra bezin egoskorra ortan. Baiña txakurra beti nagusiarekin batera etorriko zan. Bere iritzian, bola oiek etzebiltzan gizon lapurretan.

–Eizera joan dala bazekiagu. Gero andik norako martxa artu duen, ori etzekiagu. Biar goizerako azalduko al dek.

–Suzko bola ori ikusi al duen galdetu nai genion ta...

–Ezer ez dala ori aitortzeko arrazoi xebreren bat asmatuko digu.

–Zerbait badala sinistua zegok aita bera ere. Baiña parte txarrekoa ote dan...

–Ea berak eraman duen –esan zuen batek.

–Deabruak ez dik onenbeste indar. Eskupeta ere berekin zeraman eta ilko zituen.

–Deabruak iltzen ez diranak ez dira, bada?

–Bai; ala erakutsi zigutek. Baiña orrela ibiltzeko askatasunik gabeak. Leku onean geundekek, bestela. Askok ez badute sinisten ere, guk gure begiekin ikusi diagu eta etzegok ukatzerik. Gaur etzirudiken sua zanik. Laiño moltso gorri baten itxura zeukaken. Baiña orren barruan ez dek iñor ibilliko. Norbait eraman duenik, berriez, ez diagu entzun –amak.

–Beti emen gaiñean dabil. Bein urrunduko balitz, pa-kea emango luke.

–Amerikar edo errusitarren baten asmakizun gaizto-  
ren bat izango dek ori, beste elkar iltze negargarriren  
baten moldaketan.

Ama, bere larritasuna zerbait arintzeko, izketan ari  
zan. Ez baizegoen lasai. Bere kezak bazituen, ez ovnik  
eramana izango zalakoan. Eta zenbat eta beranduago,  
orduan ta larriago. Eskupeta arma beldurgarria irudi-  
tzen zitzaion, ustegabeko gaiztoak ekartzen zituena.  
Edo alako erorikadaren bat izan ote zuen? Edozer ez-  
bear gerta zitekean. Bi etsai gaizto ere bazituen. Bat il-  
berria izan arren, gaiztoena oraindik bizi zan.

Begi-belarri zeuden seme-alabak ere, atean ezere  
otsik nabaitzen ote zuten. Beti txakurra etortzen zitzaion  
aurretik, eta bere atzaparrekin atean deitzen zuen. Ura  
zan bere betiko oitura. Baiña ura aspaldi etorri zan,  
nagusia nonbait galduta. Onak zer pentsatu gaiztoa ematen  
zion amari. Leen beti nagusiarekin batera etortzen zan  
aurrexeagotik, eta orain izutua eta bakarrik etzeratzeko  
zer gertatu ote zitzaion? Ori ezin zuen ulertu. Baiña etxe-  
ko larriak etzeukan erantzunik. Aita palta zuten. Orduak,  
berriz, geldi-geldi aurrera zijoazen.

Etsi zutenean apaldu zuten, eta seme-alabak, amari  
musu bana eman ta «Jainkoak gabon deizula» agurtuz,  
joan ziran lotara. Baiña ez amari galdetu gabe:

–Zergatik ez ote da etorri aita?

–Lagunen batekin topo eginta-edo, tabernara era-  
man eraziko zin, ta andik ateratzen, berriz, zailla izaki,  
bein lagun artean sartu ezkeru.

–Globo orrek eramane ote du, bada?

–Etzeukagu oraindik orrela pentsatzeko arrazoirik.  
Biar zuek jeikitzerako emen izango dek. Erlojua ere ez  
dek beti xuxen ibiltzen.



Seme-alabak kezketan joan ziran oiera; baiña goize-rako andik edo emendik azalduko zan itxaropenetan.

Amak, ordea, bazeukan bere larritasuna. Txakurra iges etortzeari benetan itxura gaiztoa artzen zion.

Etxe barruko lanak egin ta luzaroan sukaldean bertan jarraitu zuen. Baiña alperrik gaixoa. Etzan aitaren aztarrenik.

Oiera baiño leen, larritasuna ezin arindurik, bolara batean leioan ere egon zan, ezeren otsik entzuten ote zuen. Karrikako burrundara bai, baiña berak nai zuenik ez, beiñepein. Zer gertatu ote zan or?

Zerua izarratua zegoen. Illargia geldi-geldi gora zetorren. Itxasoan arrantzan zebiltzanen argiak ikusten zitu-  
tuen. Erria pake-pakean zegoen. Mozkorrak, bart egin-  
dako parrandan aspertuak, ixilik. Itxasoak zalaparta pi-  
xar bat bazerabilkien, ego aldetik jotzen zuenean gutxi-  
tan bezela. Baiña giro gozo orrek etzion Kataliñi lasaita-  
sunik ekartzen. Bere biotza itxasorik asarreena baiño  
nastuago zebillen, eta bere burua beste zerbaitez pen-  
tsatzen.

–Zer gertatu ote zaio Joxeri?

Emazteak seguru badaki naita, beiñepein, ez duela arek olakorik egin. Ez dala, alegia, naita iñon geratu. Ez badator, ezin duelako da.

–Arek badaki gu nola ibilliko geran. Egundo ez ta gaur.

Etsi ondoren, leioa itxi ta joan zan andik bere gelara. An ere, noski, loaren orde z negar egitera, ezin lasaituz. Oierakoan ere, bere buruari galdetzen zion:

–Non ote dabil Joxe?

Larritasun ori berekin zerabilkiela, etzuen lo pula-  
menturik egin. Otsik txikienera belarriak erne. Baiña

etzuen ezertxo ere nabaitzen. Bi edo iru aldiz txakurra bai zaunkaka. Ura izango zalakoan, noski, atea noiz jo-ko zuen zai zabaltzeko. Alaxe joan zitzaion arratsa, begirik itxi gabe.

Goizean jeiki zanean, larriago zebillen oraindik Katalin. Bera ez esnatzearren, ixil-ixilik beste gela batera joana izan zitekela-ta, aztertu zuen dana. Baiña etzan iñor ere sartu. Joxe etzegoen etxean.

Leenengo lana, beste iñora jo baiño leen, bere gizonak sartzeko oitura zuen tabernetara abisatzea izan zan, ea Joxe norbaitek an ikusi zuen. Denetatik ezezko erantzuna eman zioten.

–Zer egin bear det nik orain? Nolako erabakia artu? Nondikan asi? Suzko bola madarikatuaren lana ote da ori? Iñor bai ote dabil or? Onak edo gaiztoak?

Bere amaren etxera abisatu zuen urrengo.

–Ori ere gertatu al zain? –erantzun zion onek–. Ez geiegi larritu. Laster or naun. Itxogin pixar bat, semeak zer esaten didaten.

Zaarrena jarri zan urrutizkiñean. Arek ere, larritua, ala erantzun zion:

–Ori ez da Joxeren oituretan sartzen dana.

–Ez. Nere berri gabe etzuen olakorik egingo. «Illun-terako etorriko naiz» esan ta joan zan etxetik.

–Eta iñora abisorik eman al dezu?

–Tabernetara deitu det, ea aren berririk bai ote duten. Ezetz erantzun didate: egunak dirala ez dutela ikusi.

–Ori, Katalin, ez dago ortara uzterik. Gaur larunbata da ta laster or gera amarekin batera. Gorabeera au bukatu arte or geratuko da ama bizitzen. Irratira ere bialiko degu abisoa. Inguru oiek denak aztertu gabe ezin utziko ditugu.

Urrengo deia Joxeren etxetik artu zuten.

–Ori ere bai al dezute? Geiagok ere jakingo dute orren berri.

–Bai. Amaren etxera abisoa biali det. Gaur larunbata dala ta badatozela. Irratira ere abisoa bialtzekotan geratu da. Ni ere bi seme zaarrenekin laster or naiz, zuloren batera eroria edo zauritua ere arkitu liteke ta.

Kataliñek bazter guziak aizkatu zituen. Ezjakiñean etzedilla iñor ere geratu. Ez baidaki benetako maitasunak atzera egiten. Baiña berak joaterik ez. Zerekin poztua baleukake: denak beren atsedetak utzi ta ordaiñik gabeko laguntza eskeiñi diote. Baiña Joxeren gorabee-rak garbitu arte nola lasaituko da?

Irratitik dei larria zabaldu zuten inguru guzira. Bai jendeak ondo erantzun ere.

# Billatzailleak

---

Amona bi semerekin bereala etorri zan. Kataliñen lau seme-alaba, Joxeren bi anai, bi semerekin, beren txakur ta guzi. Aiek ara irixterako, mendi inguru ura guzia aztertzaillaz betea zegoen. Gizon ta mutil gazte, baita neska gazteak ere, ausarditsu an azaldu ziran, irriaren dei larria entzunda mendiratuak.

Guardiazibillak ere bai; ordurako an zebiltzan. Inguruko baserritarrak zer esanik ez, beren seme ta guzi. Aiek ondoena ezagutzen zuten mendi ura. Bazan txakur zaunka ere ugari. Olakoetan badaki jendeak supritzen duenarekin bat egiten.

Aiek mendian zebiltzan bitartean, amonak etxeko martxa jarri zuen. Katalin oso eroria baizegoen. Etzan ezertarako gauza.

–Katalin, garbi-garbi mintzatuko natzain –esan zion amonak alabari–. Obe den etsipena artu. Nik etzeukanat Joxe ez bizirik ez illik ikusteko itxaropenik. Ire gizona ondo ezagutzen baidiñat. Arek ez din egundo olakorik egin, ezta egingo ere, zuek zabilzaten zalantza ortan, gaiñera. Iñondik ere suzko laiño aren lana den ori. Arek baitu duela, alegia, Arrastaka, bederenik, etorriko unan, bizizik egotera.

–Ai zer nolako atsegiña ematen didazun orrekin, ama!

–Onuzkero ni ezagutzeko ordua baden. Nere iritzia gordin-gordin azaltzen diñat. Orregatik, aren itxaropenetan bizi gabe, etxe ontako martxa antolatu bearra zeukanagu. Negar egitea ondo zegon, ire biotzeko maitaga-

rrienetako bat galdu baiden, zerbait lasaitzeko. Baiña eguneroko lanari aalmen guziaz atxikita. Sei seme-alaba eder badauzkan ire bizi pozerako. Ire eginkizun nagusiena ori den gaurtik aurrera. Ni, berriz, nere seme-alabak balira bezela saiatuko naun.

–Suzko bola orren lana bada, banaka-banaka denok eraman arte ez da geratuko.

–Zer gertatzen dan ez dakigula, ez gaitun bati ta besteari aitzaki ematen ariko eta beldurrez negarrez.

–Baiña nondik eta nora asi bear det nik orain?

–Senarrak ekartzen zuen bezelako sari koxkor bat bear-bearrezkoa, eta ortarako an edo emen lana billatu bear den. Etxeko gobernuaren kezketan ez ibilli. Emengo martxa ondo jarri arte, urtebete bear bada ere, ni emen biziko naun. Seme-alabak ere kozkortzen ari zaizkin, Jaungoikoaren laguntzarekin. Arek ez gaitzin bein ere bere eskutik utziko. Agon jakiñaren gaiñean. Joxeren palta andik edo emendik ordainduko zigun. Gure borrontatez eskuak lotu dezaizkiogun lanari. Leen ere esan diñat: ire seme-alabak aurrera ateratzea ire munduko eginkizunik nagusiena ori den. Batzen bagera eta osasunak laguntzen badigu, beiñepein, dena burutuko diñagu.

Amak, bada, argi ta garbi ta gordin esan zion bere alabari etzedilla beti negarrez ari eta kezketan bizi, batez ere senarraren itxaropenetan. Beste bat zala bere eginkizuna, eta lotzeko eskuak lanari. Etzitzaiola bear zuena, mana bezela, zerutik etorriko.

Bere naigabe guzien artean poztu zan Katalin, bere ama etxean geratzekotan zala entzun zuenean. Zalan-tzarik gabe, benetako martxa jarria zeukaten. Etxea nork zaindu eduki ezkeru, aterako zuen etxebizitzak

garbitzetik edo beste edozer lantegitik famelian bear zuten aiña.

Gure menditarrak, berriz, ainbeste jenderen artean inguru aiek zeatz-zeatz aztertuagatik, etzuten ezer, ez bizi ez illa, aren aztarrenik arkitu. Asieran bezin illun geratu zitzaien dena; illunago agian.

Aztertzailleak jarraitu zuten oraindik, batez ere ertzain eta guardiazibillak. Baiña arkitzeko itxaropen gutxi, mendi inguru aietan, beiñepein. Alare, etzuten sinisten ura illa zanik, norbaitzuk baitu egin zutela baizik.

Joxe galdu zala irratitik entzun da billatzera joan zan batek eman zien argitasun pixar bat. Mikel, gudari xarra, zan ori. Joxeren aideak joaterako, an zebillen ura, irriaren dei larria entzunda, bere aal zezakeana egiteko asmoan.

–Ordubete baiño geiago –esan zien–, aritz aundi onen ondoan exerita, mundu guziko gorabeerak konpondu genituen; eta, nik agurtu nuenean, ustua zeukan eskupe-ta kargatzen geratu zan. Ordurako illundu samar zegoen: bostetatik aurrera, noski. Ezeren okerrik ez izatera, aixa illuntzerako etxean bear zuen. Nere iritzia ori da: etzala ura orduan iñora joan. Nik berreun metro igaro baiño leen, motel ibiltzen bainaiz, alako laiño moltso argi bat ikusi nuen aritz aundi onen ondora jexten. Zorioneko ovni oietakoa izango zan, noski, besterik ez da itzegiten gaurko egunean ta. Baiña ordurako Joxe etxerako bidean ortik urruti samarrera joana izango zan, noski. Igaz leku beretik igaro zan bezelakoa, bereala aldegin zuen ortik zeru aldera. Baiña jakiñaren gaiñean jarri nai zaituztet: bere garai bateko etsai amorratua mendi ontan inguruz inguru zebilela; Patxi Biurri zeritzana, alegia. Joxeri ere esan nion erne ibiltzeko. Orregatik, badaezbada, bete zuen eskupeta. Nik, jaunak, ez dakit geiago.

–Naikoa esan diguzu. Eskerrik asko denarengatik. Orain badakigu emendik etxera bitartean galdua dala. Etzan ura orduan bere borondatez beste bazterren batera joango. Zuk diozun etsai maltzur ori nor da?

–Denen ezaguna dan Patxi Biurri erdi ero ori.

–Bai. Ume iñoxente edo txoro samarra dirudi orrek; baiña sube gorri baten biotza du.

–Berri au kontuan edukitzekoa da –esan zuen Kataliñen anaiak–. Orrek, aal badu, ez dio alargunari pakerik emango.

–Arrigarria benetan, etxera zijoan ta.

–Orain zerbait badakigu. Illun bistan bizi zala. Emendik etxera bitartean, ezin ziteken galdu. Eskerrik asko berriro, Mikel.

–Emazteak esan digunez, eskupetarekin etorri zan –esan zuen Joxeren anaiak–. Non galdu da? Aztarrenik ez degu.

–Ori dek beste galdera, erantzunik ez duena.

–Kontuz orrekin. Joxeren etsai amorratua izan da ori beti.

–Bai. Gonengatik datozenak dira etsai okerrenak.

–Ez det uste ori Patxi Biurriren lana izan danik –zion Joxeren anaiak–. Oiek aspaldi pakeak egin zituzten.

–Ni ere zurekin bat nator. Joxe zuk bazenekien emen zebilela. Berak txakurra bazuen; eskupeta ere bai. Mikelek dionez, kargatzen geratu zan. Zoaz ortara datorren baten aurrera. Ni ere eskupeta non dan geiena arritzen nau.

–Dena argituko dan itxaropenik ez det galdu.

–Patxi Biurri ez da, gaiñera, askok uste duten bezin emakumezalea izan. Lorea ugari eta kito. «Bai zoragarria zerala zu, benetako pitxi garestia! Nere biotzaren

atsegiña! Ai nerea baziña!» olako loreak edo txorakeriak esango dizkio oraindik ere edozein neskatxari. Katalin berari ere bai askotan, mutillarekin zijoala, eta auek par egiten zioten. Ez dakit zergatik jarri zioten “Joxeren etsai amorratua” izen gaizto ori, ez da bein ere ala izan ta. Badakit iñoiz dirua ere eskatzen diola. Al duenean, eman ere bai. Onek eskertu ta andik aurrera ezer ez. Lore goxo oiek edozeiñi botako dizkio. Baiña ez da tontoa ori. Jakiña, mozkorra dagoenean, loxintxa ugari. Beste gaiñerakoan, arrazoi onean dagola, neskatxen igesi ibiltzen da ori. Arrobian lanean ari giñan batean, urte batzutan elkarrekin jardunak baigera, orduko orren ateraldi bat ondo gogoan daukat oraindik. Orduan ere erdi mozkorra zegoen gure Patxi Biurri. Lanean aritzen giñan lekuan barrena egunero pasatzen ziran arratsalde erdi aldera senar-emazte dotore batzuk, arrobi ondo artatik. Ez dakit zenbait milloiren jabe omen zirala, jendeak zionez.

–Amar duro jokatuko dizkit bere senarraren aurrean musu goxo bat eman baietz nik emazte dotore orri.

Gure Patxik apustu ori egin zion, bada, gure lagun bati.

–Ardo usai ederra nabaituko dik. Baiña i, olakorik egin baiño leenagotik, eroriko aiz lotsatuta edo senarrak eskuan daraman bastoi orrekin ire buru aundi ortan jo ta autsiko dik, motell.

Amar duro oiek jokatu zituzten. Bai gure Patxik ere berea egin. Ez tontoa izaki. Leenengo senarrari baimena eskatu zion, ango langille batekin nolako apustua egin zuen esanez.

–Bai, motell. Gazte baten musuarekin bera geiena poztuko dek.



Urbildu zitzaion eta lotsa gutxirekin:

–*Ay qué guapa es usted! ¡Si me dejara darle un beso!*

Guk masailleko ederren bat emango ziola pentsatzen genduen, baiña beirok: emakume dotore arek aurpegia luzatu zion; eta, eskatu ziona eman zionean, emakumeak parrez-parrez berak beste musu batekin saritu zuen. Bai-baizekien leenengo senarrari eskatu ziola baimena. Eta, nazkatu samarrean, ala esan zion:

–*Vaya olor a vino que lleva usted!*

Arek irabazi zuen amar durokoa. Ez genduen parra gaizki egin. Olakoxea da Patxi Biurri. Baiña au ez da orren lana.

–Gu berriketan ari gaituk, baiña bere emaztea-ta ez dituk lasai egongo.

–Zer egingo diagu, bada? Batean bati tokatzen eta urrengoan besteari.

Illunarekin batera, leer gaizto egiñak eta benetan aspertuak, biurtu ziran etxera. Baiña Joxeren aztarrenik etzuten arkitu.

Seme-alabak apaldu ta xuxenean oiera biali zituzten aiek. Bai arrats artan lo ongi egingo zutela. Anaiak eta koiñadoak sukaldean bertan geratu ziran, Katalin ezin lasaiturik.

–Zeru txiki batean bizi giñanak! Zer egin bear det nik orain bakarrik? –zion Kataliñek, malkoak zerizkiola.

–Beste alargunik geienak egiten dutena: biren lekua batek bete bear. Ortarako laguntzaren paltarik ez dezu izango. Seme-alabak ere egunetik egunera goraka dijoaz. Baiña aren utsuna nork bete?

–Ez dezute ezeren aztarrenik arkitu orduan?

–Seirak aldean agurtu omen zuen Mikel gudari xarrak, an dagon aritz aundi baten ondoan exerita elkarre-

kin izketan jardun ta gero. Mikel txarraka-txarraka etxera, eta Joxe ere bai. Andik onera bitartean eta azkeneko minutuetan galdu da. Iñora iges egin duenik ezin gentzake pentsatu. Bere burua il duela gutxiago. Tiro-otsik izan balitz, Mikelek nabaituko zuen. Guk ere billatuko genduen. Norbaitek il ta ezkutatzea, berriz, ez da orren erreza. Gaiñera, armatua zetorren eta bere txakur ta guzi. Onek aldez aurretik abisoa emango zuen.

–Aritz ondo artatik kilometrotara, guk aztertu gabe ko lekurik ez dago. Bost edo sei txakur ere bagenituen. Norbaitek baitu ta norabait eramatea, iritzi ori bakarra geratzen da zutik. Oraindik ura nonbait azalduko zai gun itxaropenik nik ez det galdu; gaiñera, bizirik.

–Mikelek esan digu, bai, ego aldetik sartu zala laiño dizdiratsu bat, aiek izketan aritu ziran aritzaren inguru artara. Ordurako Joxe andik aldegiña izango zala. Patxi Biurri ere an omen zebilela, mendi artan bertan. Ori ere Mikelek esana.

–Orren beldurrik ez daukat nik. Ori ez da olakoa. Azken aldi ontan ondo konpontzen ziran. Diruzko laguntza ere egin omen zion bein baiño geiagotan Joxek.

–Oraindik ezer ez dakigu ta obe degu orren arin ez epaitzea. Ura oraindik an edo emen bizi dala dio biotzak; eta, nonbait illa billatzen ez degun arte, uste ori edukiko det. Gizonik ez da orren errez galtzen.

–Nora joan bear degu orain? Alper-alperrik izango da aren billa ibiltzea. Denborarekin zerbait argituko dan itxaropena.

–Katalin, baldin badaukazu, ekar zaiguzu beraren argazki bat, dezun berrienetakoa. Biarko izparringian agertu bear degu. Gertatua salatuz, auzitegira biali, epailleak jakiñaren gaiñean jarriz.

–Gu, zuk ulertuko dezu, noski, Katalin, ezin giñezke emen atzera-aurrera ibilli. Beste egin bear batzuek lotzen gaituzte. Biar, igandea, gaur bezelaxe saiatuko gera. Baiña astelenean lanera joan bearko degu. Ori da gure egitekoa. Urrengo larunbatean ere, ez badute bitartean billatzen, egingo degu gaur bezelako saioa. Dena, bestela, guadizibil ta ertzaiñen esku geratuko da.

–Bai, Iñaki, bai. Emen bizitzeko eskubidea denok daukagu, eta eskerrik asko.

Aiek joan ziran andik; baiña Katalin, naigabe guzien artean, bakarrik geratu zan. Alare, edozertarako berekin zeuzkan ama ta seme-alabak. Orduan bere etxera joana bazan ere, laster etorriko zan ama. Anai eta koiñadoak ere zerbaitetan lagunduko zioten. Etxeko martxa eramateko naikoak baziran.

# Ama-alabak

---

Ama ezin zan lasaitu. Ainbeste oldozpen pillaka zetozkion burura, naita ere ezin aztuak, eta denei aurpegi eman bear. Beste leku batera bizitzera joango ote ziran ere bazerabilkien buruan, oroipen gaizto aiek aizkatzeko. Ori bere iritzi bat besterik etzan; baiña beste buruauste larriagoko batzuek erasotzen zioten orain.

Etxeko martxa nola jarri ezin asmatu dabil. Seme-rik zaarrenak amabost urte. Karrera txiki bat ikasten ari zan, eta oso ondo zijoan. Etzuen ura geratzerik nai. Iñora morroi bialtzerik ain gutxi. Bere ikastaroak bukatu arte jarrai zezala, aitaren borondatea ori zan ta. Nonbaitik sortuko al zuen bizitzeko bear zuten ainbeste, baldin osasunak laguntzen bazien.

Etzeukan diruzko laguntzaren itxaropenik. Anaiak agian. Beretarretan etzan alako aberatsik. Etziran miserian bizi, baiña lanari gogotik eutsirik eta xuxen beren kastuak neurtuz.

Amak, bai, lagunduko zion. Diruz ez, noski; lanarekin bai, ordea, beraren etxean geratzen zan ezkeru. Seme-alabak, berriz, asko maite zuten.

–Ametsetan ederki ari aiz, Katalin –zion bere buruari–. Non billatuko iretzat moduko lana, sos batzuk irabazteko?

Bezperan bezela, sukaldeko lan pixarrak bukatu ondoren, oatzera joan zan Katalin. Alare bazekien etzuela pulamentuzko lorik egingo, ots guzietara belarriak erne. Bein ala iruditu zitzaion. Baita jeiki ere. Baiña dena

iruzurra. Oldozpen triste oiek burutikan ezin kenduz, goiza etorri zitzaion.

Leenengo lana, bezperan bezela, beste gelara joana izan zitekela ta ura ikustera joan zan. Baiña alperrik; arentzat etzegoen alako pozik.

Illak mundu ontan etzuten ezerean bearrik. Bizi ziranak bai, ordea. Malkoak alperrik ziran. Zetorkionari eldu bearra zeukan. Bearrak lagunduko zion. Alako maisu ta erakuslerik ez dago munduan.

Seme-alabak jeiki baiño leen, errira jetxi zan, bertan baizeukaten, eta egunerokoa erosi zuen, ea arek zerbait bai ote zekarren. Bai ta an ageri zan bere senarraren argazkia, eta txeetasun guziekin ematen zuen gertatzen zanaren berri: Urte Berri illunabarrean berarekin mendian itzegiñak bazirala; urrengo egunean mendi alde aiek guziak aztertu zituztela, baiña etzutela beraren aztarrenik ere arkitu; txakurra ta eskupeta berekin zera-mazkiela; txakurra azaldu zala; iñork deitu gabe, bera etxeratu zala; baiña eskupetarik etzala agertu. Etxetik nola jantzia atera zan ere bai.

Irratiak ere, beste berri askoren artean, ematen zuen orrena.

Billobak jeiki baiño leen etorri zitzaien amona, bere alaba Kataliñek bear zuen arte etxean geratzeko asmoan. Ura ikusi zuenean, bere naigabe guzien artean, poztu zan Katalin. Laster asi zitzaion alabari aolkuak ematen.

–Ez adin iñoren itxaropenetan bizi. Askotan esan diñat ori. «Katalin gaixoa nola geratu dan!» maiz entzungo den ori, baiña gutxi lagundu. Berak ondo dabiltzan ezkeror, laster aaztuko ditun itzaz. Guk atera bear dizkiñagu gazte auek aurrera, bat ere erretiratu gabe, beren

ikastaroak bukatu arte. Baiña, ortarako, leenbaileen lana daukan billatu bearra. Atzo ere esan niñan etxeko kezketan ez ibiltzeko. Ni oraindik emengo gorabeerak eramateko aiña banaun. Seme-alabak jeiki al ditun?

–Oraindik ez.

Aiek jeiki ziranean, beren agurrak egin ondoren, leenengo galdera:

–Aita etorri al da?

–Ez, maiteak. Ez dek azaldu –malkoak zerizkiola, amak.

Triste geratu ziran, zer geiago galdetu etzekitela.

–Onuzkero ura gabe etsi bearco diagu. Aitak ez dik gauza onik. Goikoak edo beekoak, leen ildakoak edo bizi diranak, etzekit nor diran, baiña aita, noski, betiko galdu zigutek. Alare poztu gaitzen: amona etorri dek gurekin bizitzeko eta nola edo ala konponduko al gaituk!

–Guk gaur jai degu eta gosaltzean mendira noa –esan zuen zaarrenak.

–Baita gu ere –erantzun zioten besteak.

–Zoazte!

Baiña txikienari etzion utzi amak:

–Galdu egingo zera ta.

Negarrez asi zan gaixoa.

Aideak gertatuaren berri ikasi zutenean, etxera etorri zitzaizkion batzuak. Besteak urrutizkiñez bialdu zizkionten beren dolu-miñak. Laguntza eskeiñi ere bai, bearrean arkitzen bazan. Aien artean bat, Patxi Biurri.

Kataliñentzat suprikizunik amorragarriena ori izango zan. Maitasunez zetozkion, baiña beti gauza bera entzun bearrak samintzen zuen amaren biotza.

Egun aietan, giro ona edo txarra, etzegoen mendi inguru aietan anka non jarririk. Ertzaiñak, guardiazibillak, maisuak beren eskola-umeekin, eta beste asko beren borondatez zijoazenak. Aien artean, baserritarrak. An etzan metro bat ere astindu gabe geratu. Ango ar zulo guziak –sakon askoak baziran–, aiek ere danak aztertu zituzten, beren txakur ta guzi gaiñera. Baiña dena alperrik denbora galdu. Joxeren aztarrenik etzuten arkitu.

Urpekoak ere ibilli ziran, olakoetan oi dan bezela, ibai ta itxas bazterretan; baiña alperrikako lana. Non ezkutatu ote zan ura? Illa zala zan askoren iritzia, baiña ez Ondarribiko mendietan. Geienak, ordea, baitua izango zala uste zuten, eta oraindik bizirik azalduko zan itxaropena.

Katalin etzan iritzi ortakoa, eta arrunt galdu zuen bere itxaropena: etzala geiago bere gizonik azalduko.

Etsi zutenean, aztertzaileak ere banaka-banaka erretiratu ziran. Baiña emaztearen biotzetik etzan Joxeren oroitzapenik galdu. Erria aaztu bazan ere, ez Katalin. Amaika meza atera zituen bere senarraren izenean.

Denak erretiratu ziran, bada, gurdiazibillak izan ezik. Auek egunero jarraitzen zuten an eta inguruko mendietan. Baiña denbora galdu besterik ez.

Iñoizka, tabernetan edo Katalin ikustean, jendeak esango zuen:

–Non galdu ote zan gure Jakintsua, Kataliñen gizona?

–Auskalo! Oraindik agian bizirik egongo da, bazterren batean lotua.

–Il da zuloren batean ezkutatua bai, eta kito!

Kataliñek senarraren utsuna somatzen zuen; baiña ura ere jarria: fameli ederra bazeukan eta aiekin ondo lanpetua.

# Patxi Biurri

---

Guardiazibillak asi ziran galdezka, ta, susmurgarriena bezela, bereala Patxi Biurri lotu zuten. Kataliñen iritzian, errugabea.

Nor zan Patxi Biurri? Ezbear batean beren gurasoak il ta anai-arrebak biak bakarrik, oraindik txikiak, geratu ziran umezurtz.

Osaba-izeba egoskor batzuen eskuetan erori ziran. Beste seme-alaben tartean artuak, auek bezela artuak azitzeko. Baiña gaixoak etzuten asko irabazi. Oso baztertuak eta lanpean eduki zituzten, guraso eta seme-alaben morroi. Zerbait kozkortu ziranean, berriz, astoaren ordezt, auek egiten zituzten ango lanik geienak, gogorrenak beiñepein.

Bertako seme-alabak baiño azixeagoak ziran eta jakiña, asarretzean, auek gaillentzen zirala. Egitazko seme-alabak negarrez joaten ziranean, bazekiten laster zer zeukaten: jipoia eta ez masailleko bat bakarra ere.

–Nork jo zaitu? –galdetzen zieten.

–Patxi Biurrik.

Ordurako izengoiti ori jarria zeukan.

–Aizak: ator onera! –aitak edo amak, leenengo zegoenak.

Gaixoak bazekien zer egingo zioten, eta auzoko baserriren batera joango zan. Beraren billa araiño etorriko etzirala bai-baizekien. Angoak, urrikalduta, zerbait emango zioten. Baiña illuntzerakoan:

–Patxi. illuna gaiñean dek eta oa etxera.



–Jo egingo naute, ordea.

–Ez dituk orren gaiztoak izango. Onuzkero pasa zaiek.

Eskutik artuta ekarriko zuen norbaitek; baiña Patxik bazekien etzietela barkatuko; zigortuko zutela. Goxo-goxo artuko zuten, auzoa aurrean zegoen bitartean. Arek aldegitean izango ziran kontuak; batez ere, aitak arrapatzen bazuen. Ama askoz goxoagoa zan; eta, ura azaltzean, arengana joango zan.

Olaxe, etxeko seme-alabak guri-guri bizi ziran bitartean, auek ziran etxeko astoak. Alare, ama ordekoari eskerrak, ikastera bialtzen zituzten. Aita ordekoaren partetik, ezta orixe ere.

Berri auek guziak iritxi ziran erriko bikarioarengana, ama ordekoak esanta, noski. Baiña ango morroitzatik nola atera? Ezin asmatu.

Zigor ta benetako lanpean azitzen ari ziran, bada, Patxi Biurri ta bere arreba. Udalari salatu zioten, baiña onek etzuen ezer egin. Onen esku omen dago zuzengabekeri auek moztea. Ala bear ere. Baiña buruauste pixar bat dakarrenean, or konpon egiten dute askok, beiñepein, beren egin bearrak besteren bizkar utzita. Emen ere, jakiña, nork egin bearko zuen? Bikario jaunak beste iñork ez.

Olakoak dira tarteka-tarteka agintari dauzkagunak, batzuk beiñepein. Askotan salatuak izan arren, ankapean zeuzkaten bi gazte auek bezela, udalak ez du aintzakotzat artuko.

Bikario jaunak egin zuena ere etzuten ontzat artu. Baiña onek, berak egin zezakeana, ori egin zuen.

Aitzaki-maitzaki, errikoren batek lagunduta, mojetarra biali zuen neska. Bertan eta bertako geratu zan, eta

orain India alde ortan bizi dala uste det mixiolari. Beste, berriz, geixego erakutsita, apaizgai biali.

Guraso ordekoak benetan sumindu ziran: aiek ezin azirik ainbeste kosta ta gero, kendu. Asarretu ziran eta larrutzen zuten, gaizki esaka, erriko bikarioa. Etxean betiko astotzat edukitzeko asmoan al ziran, bada? Orrela bota zien bikarioak zorrotz aurpegira. Oso tratu txarra ematen zitzaiera kontatu ziotela ari. Aiek ere pertsonak ziran.

Erritarretan ere, ainbeste salaketa egin ondoren, bikario jaunaren bitartekotza gaizki artu zutenak baziran. Olakoxeak gera gu: ez balu ezer egin, gaizki esaka larrutuko zuten; egin zuelako, berriz, ea nor zan ura besteren fameliak naasteko.

Arreba, beiñepein, mixiolari bizi da. Patxi Biurri, bein emezortziren bat urte zituela, bere ikastaroak utzi ta atera zan seminariotik. Geroztik lantegi asko estraiñatu zituen, baiña etzeukan lanerako gogorik. Taju aundirik ere ez. Lana ez egiteagatik, batez ere norbaiten menpeko bizi nai etzuelako, bereala galtzen zituen lantegiak. Batzuak ez, gaiñera, txarrak.

Erdi txoro bat bezela, kapazo zikin bat eskuan, egunsentia orduko, erdietan oiñutsik ikusiko zuten erri inguruko baserrietan. Bere bidean ezer onik arkitzen bazuen, laster joango zan kapazora. Arek etzuen egundo ontzi ura utsik ekarriko; eta, norbaiti zerbait palta bazitzaion, aren susmurra egingo zuten. Bai geienetan asmatu ere.

Bein, gatzezko tiro bat sutu ziotenean bere atze alde artara, an omen ziran karraxiak eta saltoak!

Au ibilli omen zan, bada, Katalin goxoaren atzetik, bere kapazoa eskuan, artza bera baiño ere illez josiagoa, loretxoak neskari eskeiñiz eta bertsoak kantatuz. Katali-

ñek ondo artzen zuen, eta aren txorakeriak entzun ta itzegin ondoren, par egiten zuen.

Baiña gero, neska Joxerekin asi zanean, sekulako gorrotoa artu omen zien neska-mutillei; bie, alegia.

Alare, bein baiño geiagotan Joxeri dirua eskatu zion. Baita onek eman ere borondate onez, aal zezakean aiñean. Oni gorroto gaiztorik edukitzeko etzeukan, bada, arrazoirik.

Joxe galdu zan arratsalde artan, beraz, au azkenik ikusi zuten inguru artan omen zebillen Patxi Biurri; eta guardiazibillak beste arrazoirik gabe baitu omen zuten, nonbaitik asi bearra zeukaten ta.

Beraren zoritxarrerako, Joxeren eskupeta eta kartera txiki bat arrapatu zizkioten, bera bizi zan txabola txiki batean.

Oso susmur txarra egin zuten, jakiña, guardiazibillak. Leen gorroto gaiztoa omen ziola ta Joxeren inguruan ikusi omen zutela; ta orain, berriz, arek mendian zerabilkien eskupeta beraren txabolan arkitu. Aren karteratxoa ere bai. Gaiñera, nondikakoak zituen aiek? Ez al zan bera izango iltzaillea? Txeetasun auek guziak batera indar aundia zeukaten gero. Patxi Biurrik ere bazekien orrenbeste. Epailleak auzitara deitu eta asi ziran galderak:

–Zuk ezagutzen al zenduen Joxe?

–Nik Joxe asko ditut ezagunak.

–Ero itxurak egin, baiña maltzurra zera zu. Mendian galdu dan ori.

–Ezagutuko ez nuen, bada, nere ongillea zan ta?

–Zure ongillea, baiña iltzeraiñoako ezin ikusi gaiztoa zeniona.

–Garai batean ala nion. Orain ez, ordea.

–Eta ori zergatik?

–Neri andregaia ostu zidalako.

–Orduan zu Kataliñen atzetik ibillia zera?

–Bai; egia da ori. Baiña neskak etzuen batere galdu. Nerekin etzan bein ere ezkonduko, ta ia ogei urte badi-ra ori gertaturik. Ni ere garai artan gazteagoa ta ederra-goia nintzan.

–Eta zuk oraindik ezin ikusia al diozu?

–Ikusten detan bakoitzeko alako amorru pixar bat ematen dit, bai; baiña ez da gorrotoa. Neretzat, gaiñera, oso oparoak dira.

–Ura galdu zanean, zer egiten zenduen zuk mendi artan?

–Galdera xelebrea orixe! Zer egiten zuten beste gaiñerakoak? Aiek bezela, eguraldi bikaiña zegoen ezkerro, egurastu. Ez ote daukat mendira ateratzeko eskubiderik edo...? Nik ez nuen iñor ikusi.

–Arratsalde guzian aren inguruz inguru ibilli ziñala ikusitakoak badira.

–Ori salatu dizuna ez da nolanaiko txibatoa. Gezur biribillak kontatu dizkizu, epaille jauna. Nik arratsalde guzian ez nuen Joxerik ikusi. Ala izanta ere, ez nezaio-ken nik ezer egin, eskupetarekin omen zan ta.

–Nola dakizu ori?

–Ala kontatu didate.

–Txibatoak, noski, or ere. Norenak dira, bada, karte-ra txiki au eta eskupeta?

Eta maaiaren gaiñean jarri zizkion.

–Auek zu bizi zeran txabola txiki artan arkitu dituzte. Nondikakoak dituzu?

–Billatu egin nituen mendian.

–Eta norenak diran ez dakizu?

–Nik ez, jauna.

–Joxerenak dirala esan digu bere emazteak, eta auekin zala mendian.

–Argitasun bat ikusi nuen eta, zer gertatzen zan ikustera joan nintzanean, eskupeta au arkitu nuen, aritz adaxka batetik zintzilik.

–Ez gera eskola-umeak ori sinisteko.

–Nik, berriz, egia diot.

Maai gaiñean zegoen karteratxo ura erakutsiz:

–Eta au nondikakoa dezu? Zure txabolan arkitu zuten au ere.

–Eskupeta zegoen aritz ipurdian billatu nuen.

–Aritz aberatsen baten ondora urbildu ziñan, orratik!

–Epaille jauna, sinistu beza. Ez naiz gezurretan ari.

–Eta ez dakizu norena dan?

–Ez det oraindik zabaldu ere.

–Mundu guziari diru eske ta lapurretan ari zeran orrek, kartera mendian billatu ta oraindik ez dezula zabaldu?

Epaileak argazki txiki bat atera zuen karteraren barrenetik, eta Patxiri eskura luzatuz:

–Au nor dan ezagutzen al dezu?

–Bai, jauna. Orain galdu dan Joxe nere lagun maitearena.

–Orduan, kartera au norena dan ez dakizula zertako ari zera gezurretan? Orren aixa iruzurtuko nauzulakotan?

–Ez nekien. Leen ere esan dizut ez nuela oraindik zabaldu.

–Ori sinistuko dizun gizon-emakumerik ez dago munduan.

–Nik, berriz, egia diot, epaile jauna.

–Iltzaille batek, eroa ez bada beiñepein, gorde egiten ditu illaren aztarrenak, zuk bezela. Non ezkutatu dezu beraren gorputza?

–Epaile jauna, nik ez det iñor ere il. Non dituzu lekukoak?

–Ona emen non dauzkagun, maaiaren gaiñean, kartera txiki, bere argazki ta guzi, eta eskupeta, Joxe izketan aritu zan lekutik artuak. Zer erantzuten diozu orri? Nere ustez, ez dago auek baiño lekuko oberik.

Alde batera, egia esaten ote zuen zalantzan zegoen epailea. Bestera, berriz, susmur txarra ematen zioten maaiaren gaiñean zeuzkan Joxeren eskupeta eta beste kartera txiki arek.

Badaezbada ere, lengo lekura biali zuen epaileak Patxi Biurri, espetxera alegia. Onek etzuen, noski, orrekin naigabe aundirik artu. An aterpe ona bazeukan, eta nai-ko jana ere emango zioten, an bizi zan arte.

Alare, bere erritarretan etzuen iñork sinisten ura Patxiren lana izan zitekenik. Ori baiño kristauagoa zan.

Gaiñera, Joxe an jakiñaren gaiñean zegoen bezela, ura uste gabean arrapatzen lan zailla zan: eta eroska arek zerbait egitezkeroz ala bearko zuen. Baiña Kataliñi ondo zetorkion, bestela etzion bizitzen utziko ta.

Epaileak bat bazuen susmurgarria ta ari eutsiko zion.

# Amaren kezakak

---

Bein etsipena artu zuenean, Kataliñek ala zion berekiko:

–Ildakoak ez dute gure otoitza besterik bear. Joxek askotan esaten zuen ori. Baiña bizi geranok bai oraindik. Leen aren irabaziarekin eta baratzari kentzen genionarekin, ondo bizi giñan, ez aberats, baiña pasa moduan. Errian geienak okerrago zebiltzan. Bearrenekorik etzitzaigun palta. Aora eramateko ogi ta jakirik ain gutxi. Jantzian ere iñoren aurrerako ez genbiltzan lotsagarri. Ori dena bukatu da Joxeren paltan. Nola sortu orain ori dena?

Berena zuten etxea, ezkondu aurretik bien arte eresia eta berak beren eskuz nai zuten bezela antolatua. Seguru bazekien ordaindua zegoela. Etzioten kenduko. Bota ere ain gutxi.

Leen, olako ta alako alargundu zirala entzuten zuenean, jakiña, naigabe artzen zuen. Baiña etzion garrantzi geieirik ematen. Orain bere larruan probatuko zuen zer zan ori: ume txikirekin bakarrik geratzea.

Seme-alabak jarrai zezatela, ordura arte bezela, beren ikastaroak bukatu arte.

–Baiña nondik atera diru ori guzia? –zion askotan.

Negar egin ta kontuak ateratzen aritzeak etzuela balio. Lana zeukala billatu bearra; eta ortarako, leenengo, nonbaiteko atea jo bearko zituela.

Guk ez dakigu noraiño iritxi giñezken. Bearrak erakusten digu olako estuasunean zenbat gentzaken. Kata-

liñi ere berdin gertatu zitzaion: berak zezakeala uste zuen baiño askoz geiago zala laster igerri zion. Amaika ate jo zituen; baiña denetan erantzun berdiña:

–Naigabean laguntzen dizugu, Katalin. Baiña ez daukagu lan aukerarik. Leengoak ere pozik bakanduko genituzke. Bai; tristea da zure egoera. Ulertzen dizugu, baiña guk ezer ezin gentzake.

Lanik billatuko etzuela etsi ta gero, beren inguru samar txalet batean bizi zan emakume aberats baten atetan jo zuen: ea etxea garbitzen-edo arentzat lanik ba zeukan galdetu ere.

–Katalin, badakit egoera kaxkarrean geratu zerala –erantzun zion etxekoandre aberats arek–. Baiña ia ogei urte auetan badet etxe-garbitzaillea, eta ni oso kontentu nago berarekin. Jakiña, ulertuko didazu: arrazoi geiago gabe ez nuke bota nai. Ez dezu etxe bat bakarrik billatuko.

–Zer egingo degu, bada? Sei seme-alaba txiki azitze-ko, aurrera ateratzeko, alegia, ederki geratzen naiz ni oraintxe.

–Ez larritu, Katalin. Zuk nai bazendu, beiñepein, lan-tegi on bat banuke nik zuretzako. Etxea garbitzea baiño obeagoko ta garbiagokoa eskeintzen dizut. Baita an lanean ari danari aiña ordaindu ere.

–Nolako lantegia da ori? Badakizu, ama palta zaidanean, etxerako bakarrik geratuko naizela.

–Lasaitu zaitte. Denaren berri badakit. Olako erropa denda nerea da. Non dagoen jakingo dezu, noski. Orain arte bi emakume aritzen ziran dendako martxa eramaten. Bat leengoan, uste gabean, Goikoak beregana eraman zuen, eta beraren lekurako, nik nai ta nai ez, beste bat bear det. Nai badezu, beiñepein, nik pozik artuko



zinduzket. Badakizu zortzi orduko lana izaten dala: goizetik lau, arratsaldetik beste lau.

–Eskerrik asko. Ez dago gaizki.

–Eta zure etxeko martxa eramateko moduan konponduko al zera?

–Bai, ta ederki, gaiñera. Seme-alabarik etxean geratu gabe, gaiñera, ama gurekin bizitzera etorri baita. Beren ikastaroetan ondo dijoaz, eta ez nituzke atzeratu erazi nai. Uste det orko sariarekin konponduko naizela.

–Ezagutzen det zure ama. Urteak izango ditu, baiña oraindik emakume gordiña dago. Sariaz gaiñera, egokiera onak izango dituzu merke aldietan, erdi prezioan bear dituzunak erosteko. Etxekoak dira leenak. Seme-alaba asko dauzkazu eta aientzat etzaizu gaizki etorriko. Baiña etzazu lan geiegirik artu. Bestela, gaixotu egingo zera ta ura okerragoa izango litzake.

–Ez orren beldurrik eduki. Nere amak etxeko martxa eramaten duela, ia senarra bizi zanean baiña lasaiago geratuko naiz. Zuk dakizun bezela, famelia ere kozkortu samarra baidaukat.

–Ondo dago. Nik bat bear det. Matematika askoren bearrik ez daukazu ango martxa eramateko, eta an ari dan lagunaren ondoan bereala jarriko zera.

–Berrero ere eskerrik asko. Ez dakizu orrekin nere kezkek zenbateraiño arintzen dituzun. Asteleenean or nauzu.

Jakiña, senarraren utsuna or geratuko zan, baiña bizimoduari martxa ederki jarriko zion, eskerrak lagun-tzailleei. Ia atarian zeukan denda eta etzeukan presaka ibilli bearrik.

Leen esan bezela, bearrak erakutsi zion Katalin gai-xoari berak uste zuen baiña geiago zezakeala. Dendako

lana komeni zitzaion ango jendearen joan-etorriarekin bere larritasunak utzi ta oldozpen tristeak aaztutzeko. Ederki irabazia zeukan arratseroko atsedena.

Aldaketa berriak etorri arte olaxe jardun zuen Kataliñek, eta gaixotu gabe, seme-alabak ere erruz laguntzen baizioten.

# Joxeren illetak

---

Martxa jarri zuenean, bada, kristaua zan ezkerro, bi illebete igaro ziran ori gertaturik, baiña Joxeri oraindik etzizkioten illetak ospatu. Ordurako, baikorrena ere etsia zegoen: berak bere burua ilda edo, bestela, beste norbaitek il da gero, itxasora botea izango zuela. Bizirik arkituko zuten itxaropenik etzuten, beiñepein. Kezka orrekin joan zan bikarioarengana.

Bizi zanik etzekitela, baiña seguruago zala illa izatea; illetak ospatzea, berriz, etziola iñori kalterik egingo, esan zion bikarioak.

Egitekotan geratu ziran, bada.

–Bai; garaiz abisatuko dizut –esan zion–. Bere burua illa izango dala ere esan didate; baiña gauza garbirik ez. Gaizki itzegitea erreza da, eta gizon ondradu baten izen garbia zikintzea ere bai.

–Salaketa gaizto oiek egiten dituztenak ez luteke bizen artean egoteko eskubiderik. Oiek benetako deabruak dira. Erori bazan, etzekien zer egiten zuen, eta Jainkoaren aurrerako ez dauka erantzunkizunik, eta illetarik ezin ukatu. Kristaurik jatorrenetakoa zan ura. Ori zedorrek ere badakizu. Gaiñera, benetako etxe mai-talea –erantzun zion alargunak.

–Kristau zintzo baten egin bearrak zuzen asko bete-tzen zituela ez dit iñork erakutsiko. Ori neronek ikusia naiz. Mendian azkeneko ikusi eta itzezin zuen Mikel gudari xaarrarekin ere itzezin nuen. Arek etzuen uler-tzen zer gertatu zan une artan. Zoritxarreko laiño mol-

tso argitu bat jetxi zala, ura zegoan aritz ondora. Ala kontatu zidan; eta geroztik ez degu aren berririk.

–Eta zer da ori?

–Ez dakit, baiña noizbait ikasiko degun itxaropena badet. Geroztik ez da azaldu.

–Etzuen arek tabernarako oiturarik. Mendia maite zuen. “Azokara joaten banaiz, berriz, diru madarikatu orren pozean iruzurra ugari bata besteari. Bost balio duena amarrean saldu nai, eta ori lagunak lagunari. Tabernara sartu ezkerro, bat mozkorra, bestea biraoka edo lagun urkoetzaz gaizki esaka, okasioa ugari”. Ori esaten zidan askotan. Benetako pake zalea zan ura; eta, orregatik, asko maite zuten gizona.

–Azkeneko bere erorikada artatik zerbait lasai erazteko egin genduen elkarrizketan, ederki ezagutu genduen etzala axalekoa aren sinismena.

–Illetak ospatzeko eskubidea izango degu orduan.

–Bai, Katalin. Bi illebete joan dira, beiñepein, ura palta dala, non dan ez dakigula. Beraren gorputzarik ere ez degu billatu. Itxuraz badirudi baitua izan dala. Baiña nork? Daukagun zalantza ontan ere ezin ukatu illetarik, ez dio-ta iñori kalterik egingo. Olako egun eta ordutan mezetarako deia egiteko naiko denbora badaukagula uste det.

–Bai, jauna, bai; eta eskerrik asko.

Ordua etorri zanean, eliza gaiñezka zegoen. Illetak ospatzen ari ziran bitartean, Kataliñi gutxiena uste zuena urbildu zitzaion eskari:

–Aizu, Katalin: leku pixka bat egidazu.

Nor zan ikusteko begiratu zuenean, Patxi Biurri zan. Joxeren illetak entzuteko baimena eskatu ta espetxetik aterea, bere ondoan zekarren erriko agoazilla.

Etzion, noski, atsegin aundirik emango; baiña, berak uste zuen bezela, garbi erakusten zuen ura etzala bere senar maitearen iltzaillea.

Apaizak itz batzuk egin zituen, baiña gutxi. Ainbeste itzezin al zan, izan ere, ortaz bi illebeta aietan.

–Illa dan edo oraindik bizi, zalantza pixar bat bada-go. Non dago, bestela, bere gorputza? Orratza sartzeko lekurik ez da geratu aztertu gabe, ta odei argitsu arek baitu bazuen... Oraindik, beiñepein, itxaropena.

Leen esan degun bezela, eliza gaiñezka betea zan, eta apaizaren zalantza zegoen oraindik erritar askotan.

Illetak bukatu ziranean, bada, erriaren dolumiñak artzeko gogorik etzeukan Kataliñek. Xuxenean, bere seme-alabekin etxera etorri zan, eta anaiak jarri ziran beraren orde.

Ondoren, bere anai-arrebak Kataliñen etxera bildu ziran bazkari lege bat egiteko, gure baserrietan oitura dan bezela.

Maai inguru artan iritzia bazan pranko; baiña ez det uste iñork asmatu zuenik. Ama-alabak martxa polita jarri zutela bai. Bearrak nola eragiten duen lana!

–Aizu, Katalin: zergatik ez dezu zure seme zaarrena gure taillerrera bialtzen? Opizioa ikasiz, zerbait emango genioke, zure buruaustek arintzeko. Zure seme-alabak erruz bear dute.

–Beraren aitag etzuen zurgintzarako bere semerik eman nai. Ez nik ere. Okerrenak pasa ditudala uste det. Bere ikastaroan ondo dijoa nere semea, bai, ta jarrai dezala. Nik, berriz, orain arte ezin ordaindurik ez daukat, batzuetan larri samar ibilli banaiz ere. Eskerrak nere seme-alabei. Oien baratzako lanetik ateratzen det nereari palta zaiona. Amak, berriz, etxeko martxa dotore dara-

maki. Zer geiago eska nezake? Senarraren utsuna beteko balitz...

–Baiña martxa ortan gaixotu egingo zera...

–Neke geiegiatik ez, beiñepein. Osasuna, saltzeko ere badaukat. Seme-alabak, berriz, egunetik egunera gora ta gora dijoaz. Ama ez baneuka etxean, zerbait pentsatu bearko nuke. Baiña orain...

–Jarrai zazu, jarrai, ortara. Benetan baikorra zera, eta orrek zure bizimodurako on aundia egingo dizu.

Patxi Biurrirentzat etzan aaztutzen Katalin. Bai-bai-zekien bere senarrarengatik zegoela espetxean, eta bai errugabea zala ere. Tarteka-tarteka ikertxo batzuak egiten zizkion. Beti zerbait eraman ere bai. Patxi Biurri, beraz, itxian bazegoen ere, kontentu samar bizi zan espetxean.

Katalin ere, bada, bere egoeran izan ziteken aiñean kontentu zegoen. Etxeko martxa jarri zuen ta bere senarrak irabazten zuen aiña ateratzen zuen dendako lanetik, eta saltzeko zerbaiten ajea zuten jantzi asko ematen zizkion etxeakoandreak erdi utsean. Baiña Kataliñentzat etzan gaizki etortzen ori.

Bazirudien etxe artan etzegoela ezeren paltarik. Emaztearentzat, bai, ordea. Seme-alabak ere askotan oroitzen ziran aitaz.

Aztarrenik ez uzteko, non galdu ote zan, bada, Joxe? Amaika aldiz azaltzen zitzaion aren irudia. Mendira jexi zan suzko bola inpernuko arek eraman ote zuen, bada, geiago billatuko etzuten lekura? Ez ote zan, gero, deabruaren asmakizun gaiztoren bat, munduan enbarazu egiten zioten gizonak galtzeko? Askotan zetorkion oldozpen gaizto au. Baiña ori ezin ziteken, Jainkoak denen gaiñetik agintzen zuen ezkeru.

Pentsamentu gaizto auek orduak kentzen zizkioten Kataliñen loari. Aalegiñak egiten zituen, baiña ezin aaztua, eta egunsentia orduko jeiki bear. Alare etzan geiegi nekatzen. Osasunak ondo laguntzen zion.

Beste alargun asko ezagutzen zituen. Bere egoera, ordea, etzan berdiña. Aiek bazekiten beren senarrak illak zirala; baiña berak ez ori ere. Nonbaiten bizi edo illa, galdu zala besterik ez. Benetan bizimodu tristea, maite duen batentzat.

# Joxe

---

Iñork ez bazekien ere, guk badakigu Joxe Jakintsua bizi dala oraindik, eta illunabarrean mendian sartu zan ovni deritzaion laiño argitsu arek baitu zuela, eta bere etsairik maltzurrenaren mendean utzi genuen.

Joxe paketsua zan, baiña arekin etzegoen pakerik. Satorra zeukan izengoitia, eta bai Txulo ere, beti zuloan aritzen zalako. Iñor norbaitengatik ondo itzegiten asten bazan, gure Txulok laster billatuko zuen zulo egiteko modua, eta elkarrizketari aldaketa gaiztoa eman. Egu-berriak baiño leenago illa zan, bizi izan zan bezela, bizi ziranak eta etziranak madarikatuz. Deabru bat bezela bizi, ta il ere bai.

Amaika eztabaida eduki zuen Joxerekin. Eta, arrazoiaren ordeaz, birao, gaizki esaka eta zemaia ugari.

Txulo tabernan sartzen zanean, eta Joxe barruan bazegoen, onek bereala andik aldegiten zuen, ez arekin beldurtzen zalako, beraren ondoan eskasa baizan ura, baiña biraoak ez entzuteagatik. Benetan mingain zikiñeko gizona zan, ta bazekien bereala zirika asiko zitzaiola, eta eztabaidaka lotu, ta asi baiño leen. Okerrago geratuko baiziran bakoitza berearekin, eta erreminduak, gaiñera. Aren biraoetan errudun bezela artzen zuen Joxek bere burua, ari erantzun da laiñeza ematen ziolako.

Bein baiño geoagotan eskuetaraiño etorri ziran, baiña jendeak berezten zituen. Joxek berezko ona zuen. Oso gizon iztun argi eta gozoa zan. Tabernariak benetan maitatua, batez ere pakezalea zalako. Edozeiñi barkatuko zion, eta aal zuen ondoen konpontzeko moduak



egingo zituen, eta pakeagatik askotan baita amore eman ere. Olakoxea zan Joxe. Baiña, Txulorekin astean, kirio guziak naasten zitzaizkion, eta zer esaten zuen etzekiela geratzen, benetan lotua.

Ezin zan arekin konpondu. Itxurak diranez, benetako gorrotoa zion Txulok. Gaizki esaka asten zan eta gogor erasotzen zion. Orregatik, aal zuenean, okasioari iges egingo zion Joxek, ortaz jendea oartzeraifio.

Gure Joxe Jakintsua biraolariarekin eztabaidaka nasten zanean, Txulok isekaz bi edo iru gorrienak botako zituen, eta lasai par egin. Entzuten zutenetan denetatik ziran: aldekoak eta etsaiak. Baiña Txuloren biraoketa ori etzuen iñork barru artan ontzat ematen.

–Ori zer dek? –esango zuen–. Jaungoikorik ez dek; eta nori kalte egin bear zioz orrek? Oraindik ez dek illargi edo izarririk erori.

–Ai gizarajoa, gizarajoa! Tonto ederra aiz, ez dan bati biraoka ari baaiz. Baiña i ortara zirikatzen auen deabruak bazekik ondo Jainkoa badala eta birao oiek aren kontrako isekak dirala. Baita orrekin ere buruari arrika ari aizela.

Esan bezela, biak lotu eta tabernariak eta bertan zegoen jendeak berezi ta pakeak egin bear. Bestela, Joxe, askoz indartsuagoa zan eta txikituko zuen egunen batean.

Ez dakit Joxek zer zuen aren aurka. Ezin zuen irentsi. Urteetan etzuten artu-emanik eduki. Txulorekin ezin zitekela zioten.

Joxek ikasi zuen Txulo gaixo zegoela, eta ikertxo bat egiteko asmoak artu zituen, ea pakeak egiten zituzten. Apaizik ere etzuen Txulok artu nai izan. Joxek bere aldetik, beiñepein, aalegiñak egin. Jainkoaren aurrerako dena irabaziko zuen. Bere kontzientzia lasaitu ere bai.

Ara joateko bezperan ikasi zuen Txulo il zala. Jainkoak barka zezaiola.

Norbaitek esan zion Joxek ikertxo bat egin nai ziola il baiño leen, pakeak egiteko. Aren erantzuna gaiztoa izan zan:

–Dijoala apaizarengana. Ura ere ez nian artu, eta okasiotarako moduan ez niok.

Illetak egin zizkioten. An zan Joxe ere. Bere iritzia, ordea, auxe zan: ea deabruari illetak egitea ez al zan pekatu.

Bikarioaren belarrietara iritxi zan ori, eta mesedez olakorik ez zabaltzeko eskatu zion. Azken orduan baten biotzean zer gertatu liteken ez genekiela; eta, gaiñera, beraren aideak asarre jartzen zirala arrazoi oiek entzunda.

Bein, tabernan suzko bolaz itzegiten ari zirala, Joxe etziranen aldekoa bazan, bestea zearo aldekoa. Jainkoa ez bazuen sinistuko ere, sorginkerietan bai, eta ala esan zion amorruez Joxe Jakintsuari:

–Ni, i baiño leenago iltzen banaiz, globo oietakoren batean etorriko nauk ire billa, inpernura eramateko.

–Zoroa aleena! Jainkorik ez dala esaten ez dek, bada? Ire iritzia egia balitz, ezerezera biurtuko intzake, eta iretzat onena ori izango uke, gaiñera. Ez eternidade osoan oiñazetan eta amorratzen bizi.

–I supritzen ikusteagatik, orixe ere ontzat artuko nikek.

–Etzekit neregatik edo ez. Baiña artu bearko dek. Eta zer uste dek: olako askatasuna emango ditekela demonioak? Ondo lotuko aute, orain agon baiño ere estuago. Ik nere oiñazean gorrotoa aseko uken bezela, aiek irean aseko ditek; eta aolku bat emango nikek, ontzat artuko bauke: orain eta munduan dala zorrak ordaintzeko ga-

raia, eta beranduegi damutzeak ez duela balio. Zein aldetara erortzen aizen, betikotasun osoan ala bizi bearko dek, aldaketarik egin gabe, supri arazteko egindako lekua dek ura ta.

Emazteari ere kontatu zion Joxek etsaiaren zemai ori. Ura il zala ikasi zuenean, bazirudien orren beldurrak zegoela. Arritzekoa zan Joxek ortara pentsatzea.

## Joxe etsaien erdian

---

Joxek, mendian lo zorro artatik esnatu zanean, bada, aurrez aurre Txulo ikusi zuen, lagun gutxiko muturra-ekin. Bereala urbildu zitzairen irugarrena, Jakintsuaren laguna izandua, baiña ordu txar batean bere burua il zuena. Arritua, izutua, zer esan etzekiela geratu zan Joxe, eta berekiko ala zion:

–Oraintxe galdu nauk. Deabruak baitu niotek. Gizon auek, beiñepein, oietakoren batzuk dirala ez dit zalan-tzarik egiten. Jainkoak sinismenik gabeko pekatariak gaiztoaren gaiztoz zigortuak daudenak, orrenbeste askatasun eta eskubide bai ote daukate? Zer nai ote dute egin nerekin?

Bein zerbait lasaitu zanean, ala agurtu zituen, eskua luzatuz:

–Jainkoak egun on. Ongi etorriak.

Etzuten aren eskurik artu. Erantzun ere ez.

–Orren gorrotogarria al nauzute?

–Nik itza bete dit. Gero gerokoak.

–Txulo, ala jainkia! Inpernuan deabruen serbitzari, ondo ordaintzen al ditek?

–Ori laster ire buruan ikasiko dek.

–Zuen artean ez, beiñepein. Jainkoa bizi dek eta.

Leenengo lotu egin zuten, eta ala galdetu zioten:

–Oraindik ere eure arrokerian bizi al aiz?

–Demoniñoen artean arrokeririk etzaidak komeni neri. Baiña otoitza bai. Orrek egingo niok zuengandik aske.

–Oneraiño ez dek Jainkorik sartuko.

–Ez intzake, bestela, biziko. Emen ere Jainkoak agintzen dik. Naiz zuek aren eskutik erdi utziak bizi, nere biotzean bazegok, bada.

–Emendik Arek aterako auen itxaropenik galdu zak.

–Ortaz geroago itzegingo diagu. Jainkoak maite duenik, ez dik inpernuetan ere galtzen utziko.

–Ire itzekin erantzungo dit: ori gero ikusiko diagu.

–Zuek lotu nauzute, baiña ez Arek ikusi gabe, eta ez dit uste aaztuko danik.

–Jainkoari serbitzen iola ta amaika arrokerizko oiua atera itun beeko mundu ortan. Eta orain ire etsaien eskuetan utzi ez au, bada? Nik zerrikeri guziak egin dizkit, eta i birao bat entzun orduko otoitzean asten intzan. Zer aurreratu dek, ainbeste atsegin gozo Jainkoagatik utzita?

–Maite dan batengatik biotzez supritzeak dakarren atsegiña, atsegiña dek; iraunkorra, gaiñera. Ez, aragi zikin orrena bezela, unetxo batekoa. Eta, maite detalako, sari on baten itxaropenetan bizi nauk, gaiñera; betikota-sun osoan berdin iraungo duen atsegiña.

Orri etzioten entzun. Aientzat atsegiñak bukatu ziran betiko, eta berriz etorriko ziran itxaropenik ere ez.

–Berriz mundura joaten naizenean ere, berdin-berdin jarraituko dit, azken arnasa eman arte nere maitearengatik garbi irauten.

–Ametsak, Jakintsu. Ez dek geiago eguzkirik ikusiko. Ere gorputz ta animak emen betiko inpernuan utzi bearko dituk.

–Gorputza balitekek, baiña nere anima Jainkoaren grazian zegok, eta ori kenduko didan deabrurik etzegok inpernu guzian.

–Zer esaten ari aiz? Arrokeri oiek uzteko ordua ere etorriko dek.

–Zer dek inpernua?

–Gu bizi geran lekua.

–Eta zer moduzkoa?

–Sekula sekulorum igaroko ez dan zulo bat zegok zeruaren eta inpernuaren erdian. Zerua maitasun aberria dala ziotek. Ango nagusia, Jainkoa, maitasuna omen dala. Baiña nik ez dit ikusi. Eta gu bizi geran lekua, inpernua, alegia, gorroto zulo bat. Milloiak bizi gaituk an, ori bizitzea bada. Nik denak gorroto dizkit: nerekin bizi diranak, Jainkoa, zerua, gizonak, nere gurasoak eta nere burua. Pozik txikituko nitek nere burua, baiña eziña.

–Ori dek bizimodua! Esan nin berandu damutzeak etzuela balioko.

–Ago ixilik, Jainkoak bere aurretik onera bota niñunean, maitatzeko ere doaia kendu zidaken.

–Eta ere burua iltzea zeñek galerazten dik?

–Zigortu niñunak.

–Aurki antz emango diok ezetz.

–Ire Jainkoak ez dik i emendik ateratzeko indarririk. I betiko emen gure artean geratuko aiz.

–Leen ere esan dit gorputza balitekela, baiña ez nere anima. Ori Jainkoarena dek. Eta beste galderatxo bat: nerekin zer egin bear dezute?

–Emengo deabruak gorroto ikaragarria zigutek gizon guziei. Orain ez gaituk ori ere. Jainkoa madarikatzen ditek; batez ere Jesus. Gorrotoaren gorrotoz, urtero, Eguberri alde ortan, gizon bat baitu ta inpernuan gurutzean iltzen ditek.

–Ai zer nolako oitura! Orrekin zer aurreratzen ditek?

–Eta nerekin zer egin bear dezute? Zerbaitetarako ekarriko niñuzuten.

–Esan ez dit, bada? Jesus il zuten bezela, gizon bat zigortu ta iltzeko oitura ditek, eta i aukeratu aute ortarako aurten, munduan bizi aizela oien aginteari kalte ikaragarria egiten omen diok eta. Gorrotoz kiskaltzen jarzen dituk Jesusen izena entzun orduko, Arek kendu baizien munduko agintea. Ura zigortu ta il zuten bezela ilko aute i ere, Jesus il zuten garaia irixten danean.

–Eskerrik asko, motell. Neretzat ez dek nolanaiko ondra, nere Salbatzailleari dioten gorrotoagatik, Arek bezela gurutze batean nere bizia ematea.

–Ordua etortzean ez dek ori esango. Beti emen gure artean geratu bearko dek.

–Gorputza bearbada bai; baiña anima Jainkoarekin zeukat eta, leen ere esan dit, ori Ari kenduko dion etsairik ez dek inpernu guzian.

–Orain artekoak il dizkitek eta i ez aute azitarako utziko.

–Ilko nautela etsia artua dit; baiña itxaropen osoa zeukat anima salbatuko detala, nere biotzetik Jainkoa botako duenik ez dek eta.

Usai zikin guzien nazka zegoen zoko batera eraman zuten eta illunpean bakarrik an utzi. Baiña suzko globo aren barrenean. Andik kanpora etzuen arnasik artzen. Iñor ikusi ere ez.

–Beraz, nik iges egingo detan beldurrik etzeukatek.

Bakardade artan asko pentsatu zuen: «Beraz, ni Jainkoari dioten gorrotoagatik iltzera nakartek. Berari ezer egiterik ez eta nere oiñazetan begiak asetzeko ekarri nio tek onuntza, orrek dionez. Orduan gorriak ikusteko naxiok. Iltzeak ez niok ikaratzen; bestela ere il bear diagu. Orain nere zaintzaille daukadan onek zemai egin zidaken, ni baiño leen iltzen bazan, nere billa etorriko zala, eta

iritxi egin dik. Aalegiñak egingo dizkit, bada, Jainkoaren izena leku onean uzteko. Datorrena datorrela, berdin Aren laguntzarik etzaidak paltako. Nere maiteak, batez ere Katalin, otoi egingo zioK Jainkoari nere alde. Guru-tzean iltzen banaute, Salbatzaillearen oiñazeak nere aragian probatuko dizkit, eta martir bat izango nauk. Non ote naukate: inpernuan, munduan, linboan? Emengo nagusiak, beiñepein, deabruak dituk. Aingeru deabruak, alegia; eta gizon deabruak ixil-ixilik beti aien mendeko. Jesus bezelaxe, ni ere txikituko niotekek. Baiñan denean dagoen Ura, emen ere deabru guzien gaiñetik dago. Usai nazkagarriak somatzen dizkit. Nondikakoa ote dek ori? Deabruak ez ditek, bada, kaka ta pixarik egingo.

Beste lagun bat ere etortzen zitzaion, bi urte leenago bere burua ildakoa.

Egoera larri artan bereak zetozkion gogora eta onela zion:

–Ez ote ditut nere maiteak berriz ikusiko? Nola ote dabilta? Zer pentsatzen ote dute nitzaz? Onuzkero nonbait il da ezkutatua izango nautela edo bazterren batean baitua edukiko nautela.

Egunak zeramazkien bakar bakarrik, usai gaiztoko illunpe artan, osoro Jaunaren borondatera jarria. Suzko globo artatik kanpora etzuen ezer ikusten. Jan bearrik ere etzeukan. Barrun artan deabruak ibilliko ziran, baiña etzituen nabaitzen.

Asper-asper egiña, bere etsai amorratuen mende, tarteka Txulok ikertxo batzuk egiten zizkion, ez laguntzeko asmoan, noski. Beti muturje asarrean agertzen zitzaion, eta gaizki esaka, ederrak ikusteko zegoela zemai egiñez. Izan ere, inpernuko oiñazeak berekin zeramazkien eta atsedeen artzerik ez.



# Leenengo auzia

---

Bere egoerak atzera edo aurrera laster bukatzeko zoratzen zegoen. Il baiño geiago zer egin bear zioten? Aspertu ta eroria zegoen batean etorri zitzaion zaintzalea:

–Luzifer eta beste deabru batzuek auzitara deitzen aute.

–Orain ikusiko diagu munduan bezin arro mintzatzzen aizen oien aurrean –bota zion Txulok aurpegira.

–Nik errespeto guziarekin itzegingo ziek, nere etsai amorratuak izanagatik, ni zigortu ta gaizki tratatzeko arrazoi txarrik eman gabe. Jesus gure Salbatzaillea Samedriñen aurrean bezela, ni ez nauk gezurretan nere burua zuritu nairik asiko. Etsaien galderei argi ta garbi erantzungo ziet.

–Auzi beldurgarria egingo ditek.

–Jainkoa bakarra dek beldurgarria; Jesusek dionez, bat su leizera jauzi edo askatzeko eskubidea duena. I ontaratu iñuna, alegia. Bati bere irabazien arauera ordaintzen diona. Xuxena, beti ere errukia gogoan daukana.

–Bai, Jesus! Lagun urkoak asko maite omen dizkik. Ez dik itxura aundirik.

–Lurrean bizi izan giñan urte aietan amaika aldiz esan nin beranduegi damutzeak etzuela balio.

Txulo amorruz, baiña ixilik geratu zan. Joxe ere, bada, ixilik geratu zan, bere baitara bildua eta otoitzean, deabruen aurrean azaltzeko larritasunaren beldurrak.

–Euskeraz bai al zekitek?

–Ik eta nik baiño obeto.

–Deabruak ezin ikasi zuelako utzi zuela etziotek, bada?

–Oiek txorakeriak dituk.

Joxe otoitzean asi zan bere baitan:

–Mundu aldi artan aalegiñak egin nituen, eta emen ere saiaturko naiz al detan ondoena Zuri serbitzen, eta lotsa ta beldurrik gabe zure izena goratzen deabru guzien aurrean. Lagun zadazu emen ere Zu ta zure maiteak leku onean uzten, eta ni oso-osorik zure eskuetan zure borondatera jartzen naiz, Jauna.

Eta otoitz eder au egin ondoren, Txulo zaintzaillearen aurretik leku argitsu batera eraman zuten. Bai-baizekiten Joxek illunpera etzuela ezer ikusiko.

Naastu samarra geratu zan, baiña etzegoen bakarrik. Jainkoa zeukan bere biotzean eta bere alde, deabru guzien gaiñetik zegoena; eta bazekien etzuela galtzen utziko. Ori zan bere itxaropena.

Auzi lekura sartu zutenean, izutua geratu zan Joxe. An bost deabru ikusi zituen, bera epaitzeko aukeratuak. Ez gazte, ez zaarrak, zer adin zuten ezin antz eman zitzaioten oietakoak. Baiña etziran gizonetik deabrutuak, leenengo pekatuan Aita aal guztienaren aurka aizkatu ziranak baizik, eta Onek su leizera jauzi zituenak eta aingerutik deabruak egiñak; inpernuko aingeru gaiztoak. Auek aginduko zuten, eta mundu ontatik pekatuan joaten ziranak istilluak ikusi bearko zituzten auen mende. An etzuten elkar maitatzen, ez baizegoen maitasunik; eta, nere iritzi apalean, ez surik ere. Aiek kiskaltzen zituena gorrotoa zan, noski.

An sartu ziranean, Joxek igerri zion Txulo, bera bezelaxe, beldurrak sartu zala aien aurrera. Dirudienez, inpernuetan oien igesi ibiltzen dira.

Leen nonbait esan dedanez, beste gizon deabru bat ere bazegoen, garai bateko Joxeren laguna. Ura inpernuetan aurkitzeak etzuen batere arritzen, bere andre-gaia il da gero bere burua galdu zuen ta. Iñondik ere auek izango zituen zaintzailleak. Salatzaillerik etzuen bear. Anima bakoitzak bai omen dauka bere begiratzaillea. Guri ala erakutsi digute.

Guri beti deabruak itxusiak, akerren antzekoak eta sube pozoidunak bezela jarri dizkigute. Baiña Joxek aurrean zeuzkan aiek ederrak ziran. Alare, beste guziak bezela, berekin zeramaten suprikizuna: elkarreki-ko gorrotoak kiskaltzen zituen. Doairik zoragarriena palta zitzaien: Jaungoikoaren grazia. Ori gabe, naiz deabrua naiz gizon izan, zoritxarrekoa dek emen, eta gero-ora ere ala izango dek. Baiña bost deabru aiek izaki ederrak ziran.

Maai borobil baten inguruan zeuden eseriak. Maaiaren gaiñean zegoen irudietako bat Luzifer izango zan. Baiña auzi egitera etorria ez, noski. Ura lan oietatik aske geratuko zan. Alare, izena aipatu gabe etzan auzia asiko; bukatu ere ez.

Orregatik, bost aien aurrera sartu zanean, antz eman zioten gizon ura Jainkoaren grazian zegoela, eta auzia egin ala ez beren zalantzak izan zituzten; baiña baiezkoak irabazi zuten, eta aietako batek ala esan zion:

–Emaiok laztan gozo bat irudi orri. Inpernuko nagusia dek; gurea ere bai. Luzifer, alegia.

–Nik ez det ezagutzen. Guk beste Jainko bat daukagu. Ura maite degu, Jainkoa alegia; ez deabrua.

–Maitatzeko iñork ez dik agindu. Emen etzegok maitasunik, baiña agurtu zak eta emaiok, ire Jainkoari bezela, ospea.

–Zuek benetako gorrotoa diozute elkarri. Txikituko ziñateke. Guk, berriz, maitasuna degu Jainkoa, eta gorrotorik ez degu nai; an ere, zoritxarrez, ez gera denak elkar maitatzen baiña.

–Emaiok ospea.

–Ez, jaunak. An Luziferren izena madarikatua dago. Bera izan baizan leenengo pekataria. Zuek leitzera jauzi ziñuztena ere bai, eta Jainkoak sortu berria zuen gizona berdin. Ni maitasunaren alde nago, bada. Ori da gure Jainkoa.

–Luziferri emaiok ospea! –oiu egin zuten berriro etsaiak.

–Ez, jaunak. An Luziferrek izen gaiztoa dauka. Madarikatua dago. Inpernuko zigortzailletzat artua dauka erriak. Ala sinisten du, beiñepein.

–Eta ik ere bai?

–Bai, jauna. Jaungoikoaren asmo on guziak aren arrokeriak ondatu zituen. Ain eder egin zuenaren aurka zutituko zan, bada? Bai ondoren bikaiñak ekarri ere zuentzat eta guretzat. Ain etorkizun gozoa geneukana, dena betiko ondatua. Orren izena entzuteak nazka ematen dit.

Erantzun gogor au entzun zuenean, masailleko bat eman zion Txulok, oiu egiñez:

–Orrela erantzuten al diok ire jabeari?

–Esaidak zertan paltatu detan. Nik egia garbi esan dit. Neretzat ez dek Jainkoa beste jaberik. Izadiaren etsai izan uan, eta dek oraindik, Luzifer munduan. An bizi intzanean, bost xentimorik ez uan balio. Emen al dauzkak indarrak?

Iñor etzan atera Joxe Jakintsuaren alde. Ondoren, auzi maaiiko buru egiten zuenak ala galdetu zion salatzailleari:

–Zer moduko gizona izan dek au munduan?

–Oso-osorik zuen etsaia, gorputz ta anima.

–Egia al dek ori?

–Nik ez diot iñori gorrotorik eduki. Nik Jainkoa maitte izan det biotz-biotzez, eta ordu ontan ori da nere itxaropena: orrela serbitu dion bat ez duela bere etsaien mende galtzen utziko.

–Jarrai zak sinisten orrela eta laster ikusiko diagu Jainko orrek gure atzaparretatik ateratzen auan. I emen geratuko aiz gorputz ta anima.

–Gorputza baliteke, deabru jauna; baiña ez nere anima. Jainkoak bakarrik galdu edo salbatu lezake gure anima, eta ez zuek. Ni Jainkoaren grazian nago, eta ori ortik bota eraziko duen deabrurik ez da.

Berriz ere jotzeko asmoan asi zan Txulo, baiña deabruak etzion utzi.

–Eta bere bizitzan nolako oiturak izan dizkik?

–Zearo biraoaren etsaia. Berak etzuen esango eta besteei berdin erakutsi.

–Egia al dek ori?

–Bai, jauna; eta ez nago ukatzeko. Egia da ori, eta nerretzat benetako arrobidea.

–Arro mintzatzen aiz; baiña ori dena gure aurrerako iseka dek.

–Nerretzat, berriz, atsegiñik aundiena.

–Eta jendeari berdin erakutsi al ziok?

–Bai, jauna, bai. Erriko bikarioak baiño geiago predikatzen zuen onek.

–Bai, jauna, bai. Zuek galdu egin zenuten izadia, zeron buruarekin batera, pekatu egin eraziz; eta gure Jainkoak, errukiturik, gizonaren aragiz jantzirik, bere erio-

tzarekin salbatu. Nor maiteko det: iltzaillea edo salbatzaillea?

–Nola mintzatzen aiz orren arro? Ez al dakik gure eskuetan agola?

–Jainkoak nai duen arte, bai. Nik biotzean daramat nere Jainkoa. Ori ez du indarrean ortik iñork kenduko, eta zuek ere obe dezute umil-umil makurtuta agurtu.

–Naiago diagu inpernuan geran bezela bizi, gure zigortzaillearen aurrean umildu baiño.

–Izan ere gorrotoa zerate, ta zergatik Jainkoari, Jesusi eta gizonari gorroto ori?

–Jainkoari, gure zigortzaillea dalako: Jesusi, gizona salbatu eta gutzaz errukitu etzalako; eta gizonari, guk galdu genduen a oiek irabazi zutelako.

–Eta Jainkoa, Jesus alegia, umetxo baten gorputzean Belenen jaio zanean, agurtzera joan al ziñaten, umil-umil zuen pekatuen barkazioa eskatuz?

Itz auek entzun orduko, denak zutitu ta masaillekoak, baiña piñak, eman zizkioten.

–Eskerrik asko, Jainkoa, Zuregatik iraiñak eta masaillekoak artzen ditudalako. Egin bedi, Jauna, zure borondatea.

Karrasi bat egin zuten denak, eta eriotz-pena eman zioten. Jesus beren galtzaillearen ordeztu eta gorrotoztu zigortu ta iltzeko aukerako gizona iruditu zitzairen. Ostiralero zigortuko zuten.

Auzia motz bukatu zuten epaileak. Esan ere bai:

–Olako agurtzailleak nai genizkekek, eta bejondeio-la. Oraindik salbatu inteke, emendik joaten uztegatik, gure alde zabalkundea egingo ukela aginduko baiguke.

–Azkeneko arnasa arte nere Salbatzailleari omen egingo diot.

–Ondo zegok. Ea orain gure atzapparretatik salbatzen auen ire Jainko orrek.

–Ez det oraindik itxaropenik galdu.

–Baikorra aiz orratik benetan!

Esan bezela, auzi motxa egin zioten. Bukatu eta deabruak aldegin zuten, eta Jesusek aukeratutako ordua iritxi arte etsai aien mendeko utzi zuten Joxe Jakintsu gizarajoa, zigortu zezaten.

## Bere senideak

---

Gure Joxe Jakintsua, eriotz-pena eman ta aukeratutako egunean zigortu zezaten, bere etsai aien mende utzi genduen. Aietako bat, txikitatik lagun izana, elkarrekin erri batean bizitakoa. Leen amaika atzera-aurrera egingakoa, orain etsai amorratua, deabru artera erori zana.

Bestea ere ezaguna zuen. Globoak bazirala eta etzirala ainbeste eztabaida egiña, eta suzko globo oietan berak eramango zuela zema egiña.

Oien mende gure Jakintsua utzita, goazen Joxeren senide artera, ea nola pentsatzen zuten aiek

Lurbirari buelta eman zion Joxe Jakintsuaren izenak. Inguru aiek milla bider aztarrikatuak. Oraindik ere etzan aspertu jendea, ertzaiñak batez ere. Guardiazibilak ia egunero, inguruak zaintzeko aitzaki orrekin, an ikusiko zenituen. Larunbat eta igandeetan inguru ari azterketa bat eman gabe etzuten utziko.

Arritua zegoen jendea. Baita erriko bikarioa ere. Jen-deak galdera ugari zerabilkien: zer zan globo ori? Noren izenean zebillen? Jaungoikoaren lana zala aitortzen zaila zala zioten, eta globo arek eramana zala ziotenak baziran. Eta nora eraman zuen? Non zeukaten? Ezin erabaki zan. Ezin ziran batera jarri. Denbora luze zijoan eta etzioten aztarrenik arkitu, eta arkitzeko itxaropenik galdu zan oraintxe.

Ezer garbirik etzegoen ezkerro, bakoitzak bere erara pentsatzen zuen, eta era askotako iritziak agertu ziran. Baiña bai sartu ere askoren biotzetan, batez ere Katalin emaztearenean. Ovni oietakoen beldurra batzuek; beste



askok, berriz, irri egiten zuten. Ez gera denok iritzi berekoak, eta Joxeri gertatutako ortan ezta ere. Denetatik agertu ziran: batzuek bere burua illa izango zuela eta itxasora jauzia. Emaztearekin asarretu ta zapuztuta, ixil-ixilik urrutietara bizitzera joana ere bai beste emakume batekin.

Askori entzuten zitzaion ori, eta Katalin bere onetatik ateratzen zan, olakorik entzuten zuenean. Baita batekin baiño geiagorekin eztabaida beroak eduki ere. Min ematen zion benetan iritzi gaizto orrek, bere Joxe etzan olakoa ta.

Alare, geienak gudari zaarraren iritzia artzen zuten ontzat. Ovni oietakoa jetxi zala Joxe Jakintsua zegoen lekura, eta arek baitua izango zala, zalantzarik gabe.

Baiña baitu? Zergatik? Ezin ulertu zuten arrazoi ori. Gudari zaarra izan zan, ordea, azkeneko Joxe ikusi zue-na, eta berarekin itzegiña. Aren aztarrenik berdin etzan iñon ere azaltzen, aalegiñetan saiatu arren.

Beste munduko jendea asi bazan lantegi ortan, bana-ka-banaka baitutzen, alegia, eta, ziotenez, parte txarrekoak, etzegoela oien aurkako babesik mundu ontan, illezkorrak eta ikusten etziranak ziralako.

Jakiña. bero-beroan asko itzegin zan, baiña pixkana aaztu. Aurreragoko egin bearrak bazeuden mundu ontan. Gizon bat geiago edo gutxiago, munduari eta mundukoei zer ajola bear zien? Egunero etziran, bada, millakak erortzen? Munduak berdin jarraituko zuen. Baiña bere emazte, guraso, seme-alabak eta anai-arrebak, adiskide eta ezagunak, etziran berealakoan aaztuko.

Leen Joxe Jakintsuak etzuen sinisten, baiña orain aitortu bearko zuen. Oietako batek baituta bere barruan

zerabilkiela, iritzirik geiena sinistua ori zan, baiña garbi aitortzeko etzekiten illa zan edo ez.

Katalin larri zebillen ovni oien izena nabaitu orduko, eta tripa jaten, karrikan ori berritzen ziotelako. Agurtu ondoren, leenengo galdera:

–Senarraren berririk bai al dezu, Katalin?

–Ezta aztarrenik ere. Leenengo egunean bezelaxe gaude. Ni, berriz, larri nabil. Illa edo bizia agertuko baltz, lasaituko nintzake. Besteak ere iltzen dira. Sei ille-bete igaro diran arren, ezertxo ere ez dakigu.

Azkenerako, jendea errukitu egiten zan eta etzioten galdetzen. Deabruaren asmakizuna, izen orrekin bataiatu zuten, eta andik aurrera errian askok orrela deitzen zioten.

Deabruak eraman zutela bere gizona, ori zan Katalin-ñen iritzia. Beldurgarria benetan! Zer txarrik egin ote zuen, bada, bere biotzeko Joxek, deabruaren esku uzteko? Ez ote zan kondenatua izango! Ia bere burua galtzeraiño Katalin eramango zuen iritzia zan ori. Oso eroria geratu zan.

–Etxeko martxa ondo jarrita, orain ori? Joxeren gertakizunari ezin zion arrazoibide on bat arkitu. Deabruak zertarako baitu bear zuten gizon bat?

Beraren emaztea eta seme-alabak, berriz, kezketan bizi ziran. Leenengo egunetan naigabetu baiña baikor artu zuen. Zenbat eta geiago pentsatu, ordea, etzuen ortarako argibide jatorrik billatzen. Jainkoak aske uzten bazuen deabrua, gureak egin zuen. Milloika gizon bizi ziran munduan, eta bere gizona sarean arrapatu?

–Zuk sinisten al dezu Jainkoa? –ori zan beti amaren galdera.

–Bai orixe! Sinistuko ez det, bada? –alabak sutsu erantzungo zion.

–Baiña nolakoa?

–Aal liteken guzia lezakena.

–Deabruaren gaiñetik dagoena orduan?

–Bestela, gixaixo errukarriak gu! Gu neurri gabe maite gaituena, gaiñera.

–Olako Jainko on batek eta aalguztidunak, nola utzi-ko dio deabruari, beste arrazoirik gabe, fameliko gizon jator bat ondatzen?

–Ortan arrazoi ematen dizut. Ez det ulertzen.

–Baiña nola gertatu liteke, bada, ori?

–Lurbira ontan gertatzen diran beste eriotz guziak bezela. Amaika ezbearrez iltzen da mundu ontan urtearen buruan. Aiek zergatik erori diran txetasun guziak aztertzen asten bazera, ez dezu ezer garbirik aterako. Neretzat ez dago ondoren datorren arrazoi au baiño oberik: ordua irixten zaienean, Jainkoak eraman egiten dituela, gure Joxe maitea bezela. Deabruak ez dauka ortan naasteko indarririk. Ondo mendean dauka Jainkoak deabrua. Bestela, leku onean geundeke.

Illebeteak bazijoazen Joxe galdu zala eta Katalin ari zan lasaitzen. Beste geiago ere bizi ziran alargun; eta seme-alabak goraka zetozen, ederrak eta osasuntsuak. Senarra bizi balitz, bere zoriona litzake.

## Eskeleto bat

---

Katalin lasaitu samarra zegoela esan degu leenago, baiña beti Urte Berriaren beldurrak. Urbiltzen ari bai-zan, eta aurrekoan, bere etxe gaiñetik igarotzen ikusi zuenean suzko bola ura, benetakoko larritasuna sartu zitzaion.

Ontan, Urte Berria noiz etorriko zai zeudela, eskeleto bat billatu zutela zabaldu zan berria.

Mikel ta Joxe azkeneko izketan aritu ziran lekutik kilometroren bat inguru samar eta beste erri batean, bazan txara edo sarpardi itxu bat, arkaitz zuloetatik jaiotako zugaitz xartakaz estalia, aundi ta txiki naasian eta erabat. Aritz, gaztain, urritz, ote, elorri, Jainkoak daki zenbat zugaitz motaz itxia zegoen. Zugaitzen gaiñera aterekak, berriz, lar, endalar eta otsalarrak; eta, jakiña, aienak armiarmaren sare batekin bezela josia dana, arrunt itxia, eguzkiaren argirik sartzen etzan lekua, udaran beiñepein. Baiña negu aldean ipar aizeak jotzen zuen, baita txara soildu ere, egi-egian arrapatzen baizuen gaiñera.

Aidetik erortzen zana etzan azpiraiño pasako; sasi gaiñean geratu bearko zuen. Ain zan itxia.

Baiña txara itxu arek bazuen azpitik bide txigor bat luze samarra, subea joaten dan bezela biurrian biraka, arkaitzik arkaitz igo ta jetxi ta jauzika eta kontuz pasa bear zana.

Udara aldean atsegiña zan azpi artatik igarotzea. Arratsean, berriz, beldurgarria, gatzetxo batentzat beiñepein. Dena lapurrez betea zegoela baizirudien, batez ere illargitan eta aizea zebillenean.

Ango berri gutxik jakingo zuten nik bezin ongi. Sekulako larriak antxe igaro nituen bein arrats batean. Osaba batzuen etxetik nentorrela, uste baiño leenago illundu zitzaidan, eta bakarrik. Gutxi gora-beera, amar bat urte izango nituen. Ondo gogoan daukat oraindik.

Sartu nintzan bide txigor itzaltsu artara, eta arririk arri igo ta jetxi banentorren jauzika, etxerako txangoa asko mozten baizitzaidan andik. Bestela ere beldurrak aidean nentorren, benetan illun baizegoen azpi artan, otsik txikienera daldaraka.

Amaika aldiz igarotakoa, baiña arratsean beti beldurrak, orbel artan nere oin ota besterik entzuten ez nuela. Arnasa ere lasai artzeko izutua, banentorren bixi-bixi etxe aldera.

Alako batean, ni baiño aurreraxeago eta txarraren goi aldetik, *txiiiixt* egin zidan norbaitek. Ala uste izan nuen beiñepein.

Nere orduko larriak! Ikusten nuen guzia bazebillela iruditzen zitzaidan. Illargi bikaiña zegoen, aize pixar bat ere bazebillen, itzala ta argia dantzan zebiltzan ara ta onera, eta alako itxura beldurgarria artzen zuten igarobear nituen puska guziak.

Atzera egin edo aurrera jarraitu ezin erabakirik nenez billela, berriro *txiiiixt* nabaitu nuen leen bezela, ni baiño aurreraxeago eta pitin bat goraxeago.

–Nor ote dabil emen? –nion nere kiko–. Ni aiñean zertorrek bera ere. Bazirudik ni izutu nairik dabilela, aurretik bera ere.

Ni poliki-poliki baninjoan aurrera, baiña beldurrak aidean. Jakiña, noiz edo noiz norbaitek erasoko zidalakoan, ixil-ixilik.

Irugarren aldiz entzun nuen *txiiist* ots motx beldurgarri ori, leenengoan bezela. Ni, berriz, bertan negarrez ta oiuka asteko zorian. Tunel artatik laxter aterako nintzala ta aurrera jarraitu nuen, nere arnasari ere aal nuena eutsiz.

–*Kubik! Kubik!* –ots egiñez egatu zan. Ontza izaki. Arek egiten baidu orrela. Joan zan nere larritasuna.

–Urdea aleena! *Txiiix*-taka i al intzan? Ez didak nola-naiko izua eman.

Biok elkarren beldurak etorri giñan txarape guzian. Andik aurrera laxterka batean etorri nintzan etxeraíño.

Beste bati ere entzun nion; baiña etzan ni bezin umea eta, zirudienez, katu erdian zetorren gaiñera. Arek ere egundoko larriak igaro omen zituen, baiña ez ontzak izututa. Tunelpearen erteeran, bada, txintzarri otsak entzun zituen, eta jotzen zuena bazebillela. Txintzarria, beiñepein, astintzen zuen.

–Or badek zerbait parte txarrekoa –esan zigun, izutua etxera etorri zanean.

Aitaren erantzuna zorrotza izan zan.

–Neurrian etorri izan baintz, ez uan txintzarri otsik entzungo.

Urrengo goizean, ots aiek zerk ateratzen zituen joan zan ikustera. Beeko artegitik iges egindako ardi bat zegoen sasian trabatua, eta lepotik txintzarria zeraman zintzilik.

Noiznai inguru artan genbiltzan gu; baiña iñork etzekien txara itxu artan norbaitek illa ekarri ta arri penditz batetik beera botatako gizon baten eskeletoa zegoanik, urte batzuk onuntza. Bera baiño goraxeago txakur batena ere bai.

Leen kontatu dizuedan zugaitzpeko bide txigor orrek, erdi bidean leize txiki-txiki bat bazuen, gaiñetik

agerian. Etzan artzuloa. Idekia, baiña arrunt itxua zuzgaitz eta sasiz.

Leitze itxu onek bazuen goiko aldetik gorria, soilla alegia, sasi guzien gaiñetik agerian. Ortze bost bat metro inguruko saltua andik beera, eskallera buru baten antzera. Gu askotan ibiltzen giñan arkaitz penditz orren gaiñean. Andik metro gutxira gizon baten eskeletoa zegoela, norbaitek leendik nonbait il ta eramana edo penditz aren gaiñean il ta gainbeera jauzia, iñork uste etzuen.

Leitze sakona zan eta luze samarra, baiña beetik idekia, berdiñean eta larre garbian bukatzen zana. Kristaurik sartu ezin ziteken lekua, oso itxua. Mundua sortu zan ezker, ango ezkutuak etzituzten aztertuko.

Illunabar batean, San Jose eguna zala uste det, norbaitek su eman zion, eta leitze egal ura guzia kiskali zan. Iñork etzuen negarrik egin. Su ta garretan ikusi zutenak baziran; aietako bat ni. Baiña non zan igerri nioñean, nere gisa, etzan beste iñor ere itzaltzera azaldu. Erre zedilla. Etzion iñori kalterik egingo. Bitartean mendia garbituko zuen.

Izan ere, orduan egurrak gaur baiño geiago balio zuen. Sua ere orregatik emango zioten. Barrutiaren jabeak, alegia, egurra ebaki ta saltzea pentsatuko zuen, eta sakon ura gero iratzetarako garbitu.

Zugaitz kiskali aiek ebaki aiñean beeko berdiñera zeramazkitela, ildakoren baten ezur pilla bat an bazegoela oartu ziran.

Astoren batenak izango zirala zabaldu zuten garbitzailleak, beren iritzia bezela. Baiña eroak ere antz eman bear zion astorik ezin zitekela sapardi aren barruraino sartu. Il ta ara eramaten, berriz, etzala iñor alperrik ne-

katuko. Gizonen baten ezurrak izan zitezkeela; agian Joxerenak.

Bai; gizonen baten ondakiñak ziran. Berekin zeuzkan oraindik iltzerakoan zeramazkien kate eta medailak. Alde batera, Jesusen Biotzaren irudia; bestean, berriz, Arantzazuko Ama Birjiñaren irudia, zillarrezkoak. Arantzazuko Amaren irudia eramateko, dirudienez, abertzaleetakoa izango zan. Iñondik ere, emengoa beinpein.

Goraxeago, beste eskeleto bat. Ura txakurrarena, noski; baiña zalantzarik gabe biak goitik, penditz gaiñetik, jauziak.

Gizon arek, il zutenean, txapela ere bazeraman berekin; baiña orduan etzeukan ubela besterik. Oiñetakoan aztarrenik ere ez. Oin uts gorrian botako zuten noski, il ta gero oiñetakoak lapurtuta, onak eramango zituen eta. Jantzia ere usteldua, baiña ezagutzeko moduan. Oiek ziran beraren ezaugarriak.

Ura, iñondik ere, zortzi bat illebete leenago aztarrenik utzi gabe galdu zan Joxerenak izango zerala zabaldu zuten otsa.

–Eta txakur ori? Joxerena etxean bizi dek eta bi eskeletoak batetsukoak dituk –zioten, jakinduri ortan ikasiak zeudenak.

–Orrek zer ikusi zeukak nik esan detanarekin?

Aztertzailleak etzetozen bat. Laxter jarri ziran zalantzan.

An eskeleto bat azaldu zala zabaldu zutenean, norbaitek zemai gaiztoa egin omen zien baserri artakoei:

–Erne gero iñork orren berririk zabaldu! Bestela, orren lekura laxter joango zerate zuek ere!

Zemai ori egin zuenak zerbait bazekien.



Kataliñen aldetik joan zan Joxeren ezagun bat ikustera, eta arek oni abiso triste bat biali zion: Joxe iruditu zitzaiola.

–Gizarajoa! Lekutara eraman dute, iñori azio txar bat egin gabeko gizona!

Baiña bera etzan joan ikustera. Barrenak etzion agintzen, eta Iñaki, Joxeren kuiñadoari, esan zion nolako abisoa biali zioten, eta ea bere ordezt joango zan, etzala bera ausartzen ta.

–Bai, Katalin, kuiñadoa nuen ta. Baiña arazo oien berri dakien bat eramango det nerekin, eta ortarako sendagillea baiño aukeragokorik ez dago.

Ari deitu zion.

–Pozik joango naiz, Joxe lagun maitea nuen ta.

Eskeleto ori arkitu zuten lekura joan ta ikusi zutenean:

–Ezur auek ez dira Joxerenak –esan zuen sendagilleak.

–Zertan antz ematen diozu? –galdetu zion Iñakik.

–Ezur auek zaarrago ta luzeagoak dira.

–Usteldu ta aragirik gabe luzeagoak emango dute ta...

–Ez. Orain ziur nago. Au zaarragoa da. Arek ortz bakarra palta zuen, eta aren utsuna zillarrezko berri batekin betetzen zuen. Onek, berriz, erdiak palta ditu.

–Bai. Zillarrezkoa zuen bat; baiña erori bazaizkio?

–Oiek ezurrean ondo sartuak izaten dira; oso zaillak erortzen. Ikusten al dezu ezkerreko oin ori?

–Bai. Orrek autsi ta sendatua dagoela dirudi.

–Ori da emen ikusten deguna. Txiki-txikitatik ezagutzen nuen Joxe; arek etzuen ezur autsirik. Eskeleto au zaarra da; leen ere esan dizut. Onek urteak daramazki. Au, seguru asko, joan zaneko gudate negargarri artako oroigarria da, zalantzarik gabe. Ixilka egindako eriotza.

–Eta txakur ori, berriz, nondikakoa izan liteke?

–Auskalo! Joxerena ez beiñepein. Ura etxean bizi da.

–Suak ez al zuen zerbait ondatuko?

–Bai, zalantzarik gabe. Arrazoi orrek badu bere indarra. Baiña aurrean dauzkagun ezaugarri auek ez dira, alderatzekorik ere, Joxerenak. Leen esan bezela, onek urteak daramazki emen. Bestea, berriz, orain zortzi ille-bete galdu zan.

–Au dena ixilik eta gordeka egindako lana, ezin iku-siagatik agian. Baita ere ura galdu ta aren lantegia ar-tzeko.

–Bai, seguru asko.

Eskeletoak zeuzkan kate-medailak artu zituzten. Praketako tela zatitxo bat ere bai, urdinxta. Bere emazte Kataliñi erakusteko etxera ekarri zituzten, Joxerenak zi-ran edo ez emazteak ezagutuko zituela ta.

Kataliñek, eskuetan artu orduko, ala esan zuen:

–Auek ez dira nere senarrarenak. Arek etzuen olako medaillarik ibiltzen. Jesusen Biotzarena bai; bestea Erro-sarioko Amarena. Ona emen bere argazkia. Eta epailea-ri abisoa eman bear al diozute?

–Joxerena ez dan ezkerro, guk ez daukagu naaspil or-tan zertan sarturik. Billatu dutenak egin bezate nai du-tena.

Joxeri zer gertatu zitzaion leen bezin ezkutuan gera-tu zan.

# Ondorenak

---

Ikusten zuten eta Joxe ezagutzen zuten guziak, aiek etzirala Jakintsuaren ondakiñak zioten.

Inguru artan bazan bertsolari bat. Ura ere joan zan, etzeukan etxetik oso urruti ta. Iñon aztarrenik utzi gabe galdutako bertsolari bat bazan, ainbeste aldiz elkarrekin bertsotan saioak egiñak, Aldundiko bide-garbitzaillea; eta berekiko onek ala zion:

–Iñondik ere au olako dek –ederki antz ematen zion–. Gizon luzea uan ura, eta ezkerreko oiñetik erren pixar bat egiten zuena. Nere lagunik maiteenetako bat uan, biotza besterik etzuena. Tabernaren batean biak bildu ezkeru, beti bertsotarako prest. Ona non daukan ezur autsi ta konpondua.

Leen esan degunez sendagilleak, beiñepein, garbi esan zion Iñakiri:

–Au ez da Joxerena; eta, emaztea zalantzatik atera-tzeko, ezaugarri auek Kataliñi eraman bear dizkiogu.

–Ori da ondoena pentsatua!

Eta, bere asmoen berri iñori eman gabe, ixilka etorri-ta Kataliñengana, ala esan zioten:

–Olako bertsolarik ezagutu du ildakoa nor dan. Bera ere bertsolaria, maiz asko elkarrekin saioak egiñak. Aldundiko bide-garbitzaille bezela, olako erritan lan egi-ten zuen. Beraz, bertsolari bezela erri auetan ezagutua. Gudate ortan aztarrenik utzi gabe galdu zana, oraindik bizi da bere alarguna. Gajoa! Zu bezela, ura ere oraindik beldurrak. Eta, orko gorabeeren berri zabaldu orduko,

norbaitek deabruzko zemai egin die: berri ori zabaltzen dutenak aren martxa berbera eramango omen dutela.

Ori da arrazoia! Batzuek iltzeko ere badute eskubi-dea; besteak, il dutela esateko ere ez. Ori da gaurko eguneko zuzentasuna.

Sendagillea ta kuiñadoa agurtu ziran. Aiek bete zuten beren eginkizuna. Bertsolaria geratu zan alargunarekin.

–Ura dan ala ez, konponduko det ori ango alargunarekin, eta zu orduan askoz lasaiago geratuko ziñake orrela.

–Eta nork galerazten dizu? Ortarako nere baimena bear al dezu?

–Ez didazu ulertu. Arek bere senarra dan ezagutzezerokoz, nai ta nai ez ezaugarriak bear ditu, eta zuri eman dizkizute.

–Badakit nondik nora zoazen. Orain ulertzen dizut: kate, medailla ta tela puxka ura bearrezkoak dituzula, arek garbi ezagutzezerokoz.

–Ori da arrazoia!

–Ez dira nereak, ordea. Epaileak eskatzen bazituen ere, emen ezkutatzeko agindua eman zidaten neri.

–Angoa bukatzean, txintxo asko ekarriko dizkizut.

Bereala eskura eman zizkion, etziran bereak ere ta.

–Eskerrik asko, Katalin. Gorrotoak eraginda, munduaren erdia negarrez dago, alargun gaixo ura bezela.

–Ebanjelioko itzak ez ditugu betetzen, ez gera elkar maite ta.

–Au dena, Katalin, nere ixilleko lana da eta ez nuke zuk bestek jakiterik nai, oraingoz beiñepein. Beste alargunarengatik diot ori –ulertuko dezu ori–, ari ere, gaxoari, zemai egin omen diote ta.

–Bazoazke lasai. Arek ere, nik ezik, bere itxilluak ibiliko ditu.

Andik egun gutxira etorri zan bertsolari ori, ango alargunaren gizonaren ezurrak zirala esanez.

–Beraz, zuk ez daukazu zer ikusirik. Aren senarra galdu zanean, dolumiñak eskeintzera etorri zitzaion etxera; baiña il zuenari kendu zizkion bota berriak jantzita. Alargunak oiñetara begiratzen omen zion, negar zeriola; eta iltzailleak asarre: «Zer espezialik diten oiñetako auek, aueri begiratzeko?». «Nere senarra oiñetako oiekin joan zan atzo lanera». Ez omen zion erantzun. Au, gaixoa, etxetik bota zuten bi seme txikirekin batera, eta onen lekuan iltzaillea jarri. Bai aren lantegia artu ere. Olaxe geratu ziran asko. Zu lasaitu, bada, Katalin. Aren gorputza azaldu da. Zurearena ere, illa edo bizia, bazterren batean azalduko da.

## Urte Berritan

---

Joxe galdu zala laxter beteko zan urtea, eta galdu zanean bezin illun zegoen arazo ori. Etzuten ezeren aztarrenik atera, eta ez bada saiatu etziralako. Geienen iritzian, Joxe, bizia edo illa, lur auetatik eramana zala. Bestela nonbait azaldu bear zuen.

Mikel gudariak izango zuen arrazoi: ovnik eraman zuela. Eta zer zan ori? Auskalo. Ona ez, beiñepein, batez ere Kataliñentzat.

Au, leenengo illebeteak larriak igaro bazituen ere, gero ia bere burua galtzeraiño etorri zan, naiz gero poliki-poliki jarri zan arren. Baiña berriro azken aldera etsitzeraiño.

Urtea luze joan zitzaion. Egun batzuk itxaropen-tsuak, besteak zearo etsiak, mundu guziari bezela igaro zitzaizkion Kataliñi ere. Urte zear, alare, ama alargun baten eginkizunak, bakarrik, iñoren laguntza gabe, ederki burutu zituen. Baiña urte berria inguratzen asi zitzaionean, ama gero ta larriago ari zan jartzen. Zer gertatuko ote zitzaion? Egun orren beldurrak, beti pentsamentu ori zerabilkien buruan, eta ezin kendu.

–Igaz senarra eta aurten nor?

Askotan esaten zuen ori berekiko. Igaz gizona eraman ziotenak, aurten noren txanda izango ote zuten?

Seme-alabak ere igerri zioten ama etzebillela ondo; zerbaitek larriagotu zuela.

–Zer gertatzen ote zaio gure amari? –galdetzen zioten bata besteari–. Orain arte ondo ibilli da, eta zer ote du gure amak?

Larrituak seme-alabak eta, beartzen bazan, laguntzeko prest. Seme zaarrenak, gizontxo bat egiña amasei urterekin, aita zana baiño luzeagoa noski, ala galdetu zion beste anai-arreben aurrean:

–Ama, zu etzabiltza ondo.

–Ezeren gaitzik etzeukat, baiña benetako larria biotzean. Orrek etzidak atsedenek artzen uzten, alderatze-rakorik ere. Ez dit lorik ondo egiten. Jan ere, ez pulamentuz.

–Orrenbesteraíño zerk estutzen zaitu?

–Zuek lasai bizi zerate. Ez baidaukazute Jaunaren aurrerako nik bezelako erantzunik. Ez al zerate oroitzen igaz aita nola eraman ziguten, aztarrenik utzi gabe? Ziur esateko zer gertatu zitzaion etzekiagu, eta aurten nor? Daldaraka jartzen nauen galdera ori dek, burutik ezin bota detana. Oraindik emen zebillek suzko globoa, gutakoren bat eramateko egokiera billa. Etz zer dek ori?

–Bageneki, babestuko giñake. Baiña ez dakigu ezer ere.

–Bein baiño geiagotan ikusi dezute. noski.

–Bai; eranegun azkeneko.

–Ori betiko emendik galdu arte, ni ez nauk lasaituko  
–zion amak.

Dendan berarekin lanean aritzen zana ere, larritu samarra zegoen, Katalin, ainbeste seme-alaba gazteren ama, bera ere berrogei urtez beerakoa oraindik, egunetik egunera ondutzen ari zala oartzean.

Laxter Urte Berritan sartuko ziran. Igaz egun ortan gertatua gero ta larriago zetorkion oroimenera. «Eta aurtengo ontan nor?» galdetzen zion ixillean bere buruari. Agian bera edo danak banaka-banaka. Orrela jardungo ote zuen, denen azkenean bera eramateko?

Ordura arteko ezbear eta ezin guziak burututa, ia ezerezetik asita, martxa bikaiña jarri zuen. Ama bakarrarentzat lan ikaragarria ori. Jakiña, amonak ere asko lagundu zion, bai, leenengo illebetetan beiñepein. Baiña ura illebete batzuetarako etxera joana izanagatik, ama-lau urteko alabatxoak ederki txukundu ta antolatzen zuen etxea, ama lanean zuen bitarte.

Baiña laxter besteren bat eramango zioten beldurrak bizi zan, bada, Katalin. Berak zionez, atsedena artzen uzten etziona, lasai ta pakean bizi besterik etzutenak.

Bere senarra zergatik eraman ote zuten arrazoiak biltlatzen asten zanean, arteerarik etzuen ate-sarrera batean lotua geratzen zan, zirrikitu guziak itxita.

–Deabruaren lana da ori.

Beste arteerarik ez ta ortan korapillatua gelditzen zan.

–Gure etsaiak eskubide oiek baditu, ez dauka indar aundirik gure Jainkoak.

Bere arrazoi guziak or bukatzen ziran.

Ama gero ta okerrago ta naastuago jartzen ari zala-ta, azkenean berriro amona etorri zan etxera, ama lasaituko bazan. Auldua zegoen eta etzezala dendako lana besterik egin. Ala agindu zioten sendagilleak, eta bai bere etxeko eta adiskideak ere. Barrungo martxa guzia amonak eramango zuen, egun larri oiek igaro bitarte. Bere ondoan lasaituko zan, noski.

Larritasun guzi oien artean, ordea, kristau zintzoa zan ezkeror, etzan aaztutzen joandako bere Joxe maitez. Aren alde meza asko eskeiñi zituen, eta galdu zan urte burua ere meza batekin ospatu nai zuen; ura galdu zitzaion eguna, alegia. Esan degunez, urtearen zear bazituen geiago atereak, eta bizi zan arte ortan jarrai-



tuko zuen. Benetako sinismen orrek eusten zion Kataliñi zutik.

Eguberriak etorri ziran eta oroigarritzko eginkizun ori ospatzeko garaiz asi zan moldatzen. Ea Urte Berritarako mezaren bat Joxeren izenean ateratzeko modurik izango zuen jakitera bikarioarengana joan zan: nola gizona egun ortan galdu zitzaion, al baliteke beiñepein, mezaren bat ateratzea nai zukeala.

–Meza ori Urte Berritan ateratzea nai zenduke orduan?

–Bai, jauna, arratsalde ortan galdu zan nere gizona ta.

–Jaia dan ezkeror, orduz kanpora ezin ariko gera.

–Zedorrek ikusi, al baliteke beiñepein.

–Igandean ematen dan meza oietakoren bat, bai, asmo orrekin.

–Bat bederatzieta da, noski?

–Bai; igande ta jaiero bezela.

–Libre badago, beiñepein, ori nai nuke. Denok etorriko baigera.

–Bai. Libre dago.

–Orduan ori, ta eskerrik asko. Senide arte guzia emen izango gera.

–Entzun detanez, larri omen zabilta, Katalin –esan zion apaizak.

–Galdu berrian estu artu nuen eta illebete pareren batean gaizki ibilli nintzan, gertakari gaizto ura etzan gutxiagorako ta. Baiña ama etorri zitzaidan eta bereala jarri giñan martxan. Ni bezela ikusten ditut beste emakume asko alargun, eta ni bat geiago. Baiña ez da ori txarrena. Zer gertatu zaion, illa dan edo bizi, ain gutxi ezin azturik nerabilkien, beti nere gogoan. Orain, berriz, bere eguna, bera galdu zan garaia urbiltzen ari dan ontan, ez naiz ne-

re buruaren jabe. Larri ta estu nabil, bai. Arratsak, beñe-pein, daldaraka igarotzen ditut, bikario jauna. Aurten noren txanda izango dan burutik ezin kendu.

–Aurten, ikusiko dezu, iñorenik ez. Pentsamentu gaizto oiek bota itzazu betiko. Bestela, osasuna galduko dezu; eta zure fameli gazte orrek, ondo ibiltzekeroz, oraindik bear-bearrezkoa zaitu.

–Ai, bikario jauna! Aolkuak ematea bai erreza dala; baiña pentsamentu oiek nere burutik botatzea ez. Eziña neretzat. Zenbat eta geiago botatzen saiatu, orduan-ta lotuago geratzen zaizkit. Osasuna galdu diozu? Leenago ere naiko auldua daukat. Aurten ez bada alako gertakari gaiztorik, lasaituko naizela uste det. Joandakoaz etsita jarrita nago; baiña besteren bat eramango didaten beldur orrek estutzen nau. Globo zikin ori emen baidabil oraindik inguruka.

–Maite duen ama batentzat zalantza gaizto ori burutzea ez da erreza izango, ez. Osasunez gaiñezka zegoen gizon ura modu orretan, ez bat eta ez beste, galtzea, eta zure ustez baitu zuena oraindik noiznai etxe gaiñean barrena dijoala ikustea, larria izango da biotz maitekor batentzat. Pentsamentu gaizto ori gau ta egun buruan darabilkizula, azkenerako ezertarako gauza etzerala utziko zaitu.

–Denak gaude arraiskuan. Suzko bola zikin orrek baitu zidan gizona, gudari xaarrak ikusi zuen bezela. Eta zer da ori? Ordain-saririk ez du eskatzen, berriz.

–Esamesa ugari badabil, baiña jakinduriz aitortzeko iñork ez daki zer dan ori. Zerbait badala ikusia dago. Noiznai ta nonai azaltzen baida.

–Ez dezala aurtengoan Jainkoak olakorik nai. Bestela, eraman nazala neroni. Ez ditut seme-alaba guziak banaka-banaka nere ondotik eramaten ikusi nai.

–Lasai zaite, Katalin. Aurten agian berri onen bat izango dezu.

–Zerbaiten bearra badaukat. Bestela, urrengo urterik ez det arrapatuko. Ai Urte Zaar ta Urte Berri auek iga-roak baleude!

Meza dirua ordaindu ta urduri samar etxera etorri zan ama.

Etxera etorritakoan, kontatu zuen seme, senide ta adiskideen artean nola Urte Berritan bederatzietako meza Joxeren oroimenez ospatuko zala erriko elizan.

Noizbait Urte Zaarra ere etorri zan. Apari bikaiña egin zuten, alako egunari tokatzen zaion bezelakoa.

Elkartasuneko apari eder artan leengo urteko konturik iñork etzuen aipatu. Baiña denak zeuden larrituak. Baita amona bera ere. Aurten noren txanda izango zan, zalantza ori zeukaten denak.

Apalondoan, oitu baiño leenago, urduri samar, seme-alaba guziak joan ziran atsedentzera. Amona ere bai. Larrituak denak. Alare, Katalin betiko leiora irten zan. Jakiña, leengo urteak oroituz, negar egitera.

Leen biak egoten ziran urte guziko berri on ta txar-rak oroituz, asarrerik gabe eztabaidaka. Gaur bakarrik dago, eta beretzat tristea ta samingarriena, berriz, zer gertatzen zan ez jakitea. Illa bada, non ezkutatu dute? Bizi bada, berriz, non dabil, urte guzian ez billatzeko?

Alare, senarraren palta ori garaitua zeukan. Olakoxea baida mundu ontako gorabeera: bein bistatik galdu ezker, danik eta maitagarriena izan, biotzetik ere ateratzen zaigula.

Berarekin dendan lana egiten duena emakume alarguna da. Baiña lasai bizi da etxera ezkonduetako seme batekin. Une artan Kataliñentzat okerrena biarko egun

ortan zer gertatuko dan ez jakitea. Beldurra dago sartua ezurretaraño, eta badaki etxeko guziak, bera bezela, izutuak daudela. Baiña ez du iñork aipatu nai, besteak tristetu egiten dira ta. Zalantza ori da Kataliñen larria. Oroipen triste auek ausnartuz erdi negarrez ari zala, jo zuten elizako ezkillan amabietako kanpaiak.

Ain zoramenez ta itxaropentsu artutako urte zaarra bukatu zan. Leio artatik senar-emazteak ain pozik eta zoriontsu agurtu zuten beraren sarrera. Orain, berriz, gorrotozko azken agur bat egin bearko zion, berak uste bezelakoa izan etzalako, suerte onik etzien ekarri ta. Ea zetorrena ohea izaten zan. Zerbaiten bearra bazeukaten.

«Egin bedi Jainkoaren borondatea» esaten degu; eta, guk aukeratutako bidetik garamazkigunean, dena ondo dijoa. Urte bikaiña da. Baiña Jainkoak beste bide batera sartzen bagaitu, ta guk nai ez deguna, orduan larritzen gera. Baita gaizki esaka asi ere, ori baizan aren naia ta ez gurea.

Erriko parrandero jendeak oiur batekin ospatu zuen Urte Berria. Suzko ziriak ere aizkatu zituzten, beren otsarekin lo zeudenak esnaraziz. Itxas-ontziak ere egundoko turutak atera zituzten. Baiña Kataliñen biotzetik urruti zebillen poza. Ona izan edo txarra ez baizegoen aren eskuetan. Sendi guzia beldurrak aidean zegoen, bada.

Amaika paltako ziran Urte Berria igaz zoriontsu artu zutenak. Bat, leio berean eta bere ondoan agurtu zuena, berarekin ain bat egiña zegoen senar maitea. Zaarra, berriz, bukatu zan. Norberari egindakoa gogoan eduki zuten askok madarikatuz artu ere.

Berria goxo-goxo zetorren. Ego ariña zebillen. Bazterren batean laxter erakutsiko zituen bere ortz zorrotzak.

Katalin naastu samarra zegoen, eta kanpoko ixkanbillak utzi ta lotara joan zan, begietan malkoak eta biotzean ikara zeramazkiela. Arrats guzian etzuen, noski, begirik itxiko.

Goizean goiz jeiki ta seme-alabak txukun-txukun jantzirik, etxea zaintzen lengusu bat utzita, amona ta guzi joan ziran beren illen oroitzez eta Joxeren urte betetzean ateratako mezara. Senide arteko geiago ere baziran.

Jainkoak betiko atsegiñera eraman zitzaiz eta zigor gaizto ori urrun zedin beren fameli artekoetatik biotz-biotzez Jainkoari eskatuz, zaarrak eta gazteak denak airtortu ta Jauna artu zuten.

Oso jende gutxi zan. Baiña ordu artan oraindik karrrika aietan bazebillen jendea, erdi mozkortua. Ainbeste aldiz palta zan Joxek salatua. Aiek etzuten mezarik entzungo, eta agian, aiek urte zoriontsu bat igaroko zuten bitartean, berak, Elizaren aginduak eta Jainkoarenak xuxen betetzen zituztenak, urte zoritxarrekoen bat pasa bearko zuten.

Meza bukatu zanean, denak batera etxera etorri ziran. Erdi mozkor asko zebillen oraindik karriketetan oieratu gabeak. Zer ajola zien, atsedentzeko gero egun guzia beren mende zeukaten ta?

Alako giroa al zegoen, izan ere. Ego aldeko aizea zebillen arin-ariña: baiña dena utzita xuxenean etxera aldegin zuten andik.

Etzien iñork Joxeren berririk eskatu. Aspaldi artan aztua zegoen garai batean gertatutako eriotza, il zala etsiak zeuden-ta ura ezagutzen zuten geienak.

Alare, bakarren batzuk, sendi guzia mezetan ikusita, oroituko ziran. Baiña galdezka aritzea alperrikako lana zan. Zer berririk jakin bear zuten?

Amonak eta amak, egun ori ospatzeko, bazkari eder bat jarri zuten, urte berriaren sarrera bear bezela ospatzeko eta beren kezak goxatzeko. Baita itzegin ere aita-tzaz, urtemuga bukatua zan ezkeru.

–Aita palta den –zion amonak.

–Bai, ama –zion Kataliñek–. Egia diozu. Ura emen izan bazan, gaur ere karrikako moxkorrak astinduko zituen. Min ematen zion, batez ere biraoka nabaitzen zituenean.

–Egunen batean mundua kixkaliko digu Jainkoak, Sodoma ta Gomorra bezela.

–Jesus etorri ezkeru, ez da olakorik gertatzen.

–Guda madarikatu oiek zer dira, bada?

–Gizona askea da eta bere lanen saria edo zigorra, merezi bezela, gero jasoko du; eta deabrua izango omen du salatari.

–Bazkari oni bere umorea emateko Joxe palta dala egia da, bai. Alare, neretzat okerrera mundu au nola bukatu ta non ezkutatu zuten ez jakitea da. Beste gaiñerakoan garaitua daukat ezbear ikaragarri ori, Jaungoikoaren borondatera makurtuz. Seme-alabak ere gorakada ederrak eman dizkigute.

–Baita ni ere etsipena artua nago –zion amonak–. Baiña tristeena ori da. Il bear degula badakigu; baiña non utzi zuten ez jakiteak zapaltzen nau geiena.

–Nere iritzia gaiztoa da: deabruaren lana dala ori; eta oiek nolako tratua emango zioten, il badute; eta nola ibilliko duten, bizi bada –zion amak.

–Ez, Katalin, ez. Deabruak ez dauka olako indarrik. Leku onean geratuko giñake bestela, orrek olako abillidadeak baleuzka.

–Jainkoa ere ez da, bada, ibiliko orrela. Ori gaiztake-  
riz egindako lana da.

–Deabrua bakarra al da gaiztoa? Or dezu gizona, ura  
bezin gaiztoa eta askea. Zenbat eriotz ez da egiten egu-  
naren buruan? Geienetan deabrua zirikatzaile izango  
dala baliteke; baiña ez Jaungoikoaren borondaterik ga-  
be. Len esan degunez, berea kobratuko du, txuxen asko  
gaiñera.

–Orduan pekaturik ere ez da egiten Jaungoikoaren  
borondaterik gabe.

–Utziogun arazo oni, Katalin. Au serioegia da gure-  
tzako. Elizak jakintsuak badizkin eta aiek erakutsiko di-  
gute.

–Jaungoikoaren borondatea bete dedilla, bada, gure-  
kin ere, mundu ontako geienon bukaera berdintsua da  
ta. Batzuek gazterik, besteak zaartuta, mundu ontatik  
ordu onean joatea, ori da bearrezkoena. Beste gaiñera-  
koak ipuiak dira; txorakeriak, alegia.

–Bai; ortan, sinismena degun ezkerro, biok batera ga-  
toz.

–Gaur ere azalduko da globo sutsu ori, urte guzian  
ez degu ikusi baiña –zion amak.

–Bai, ama, geronekoan –erantzun zioten seme-ala-  
bak.

–Bai; egia diozute. Betiko lekutik pasako da, gaiñera  
–aitortu zuen amak.

Beldurrak zeuden eta ixildu egin ziran. Egun artako  
elkarrizketa ura tristea zan benetan urte berritan, gaiñez  
ori zeukaten baiña.

Urduri xamar bazkaria bukatu orduko, seme-alabak  
jolasera joan ziran. Amona ta Katalin, berriz, sukaldeko  
lanak egiten gelditu ziran.

Gizona galdu zuen ordua urbiltzen ari zitzaion, eta Kataliñen ezin egona, berriz, nabarmen-nabarmen azitzen zijoan.

–Agon lasai, Katalin –esaten zion amak, alaba suspertu nairik–. Ikusiko den nola ez dan ezeren txarrik gertatuko.

–Jainkoak entzungo al dizu. Bestela, nereak egin du.



# Joxe

---

Deabruak auzia egin ta eriotz-pena emana, gurutze-ko zigorra, alegia, gure Jesus Salbatzaileari bezela, utzi genduen Joxe, bi gizon-deabruren mende zaindu zezaten, inpernuko zoko batean, ostiralero zigortzeko aginduarekin. Baiña zaitzaille auek bazirudien aingeru deabruak baiño goxoagoak izango ziran.

Zigortzeko agindua betetzen zuten, baiña bere neurrian, geiegian asten baziran ilko zitzaien beldurak. Gurutzean ikusi nai zuten. Alare zoko batean, artatik etzuten ateratzen. Urtebete ortxe igaroa zeukan eta etzuen deabruak besterik ikusten, eta aiek amorratuak. Biraorik gaiztoenak entzun bear izaten zituen; baiña alperrik. Jesusek San Pablori esan zion bezela: «Ai, Pablo, Pablo! Gaiztoa dek akuillu-etzenari ostikoka aritzea».

Jesus gurutz-iltzatu zuten ordu berean nai zuten gurutz-iltzatu Joxe ere. Deabruak egun orren berri izango zuten, noski.

–Nik zer egin dizutet? –galdetu zien Joxek bere zaitzaillei.

–Ik egiten dekan guzia deabruarentzat pekatua dek.

–Urtero gizon bat iltzen ditek, gurutzean alegia, inpernuan gorrotoz kixkaltzen dauden deabruak. Batez ere Jesusi ziotek ikaragarritzko ezin ikusia. Onek bere eriotzarekin kendu baizien munduko agintea. Baiña aren aurka etzeukatek ezer egiterik, eta gizon bat auke-ratzen ditek, ari dioten gorrotoa asetzeko. Jainkoak gizona maite duelako, alegia. Eta gizon-deabruak ere gi-

zonari ziotek gorrotoa, aiek pekatuarekin galdu zuten zeruetako zoriona auek irabazi baizuten.

–Ortarako gizon bat aukeratzen ditek, eta aurtengon i erori aiz gure egoera negargarri ta zigorpe ortan. Orrela aseko dit nik ere gazte-gaztetatik diten ezin ikusia. Orixe dek emen gure atsegin bakarra.

–Motel, il baiño geiago zer egingo zigutek? Zigor ori an ere bete bearra geneukaken. Eta nork aukeratu bear nioken ni?

–Ortarako deabru bat zeukatek gizon ori billatzeko. Ura izan dedilla urko ta Jainkoarekiko gizon ta kristau xuxena. Pekataririk ez ditek nai. Ori gerora ere berentzako izango dan ustetan uzten ditek. Zenbat eta iseka geiago egin Jainkoari, ura ta naiago ditek.

–Nik esan nin, bada, iri, i baiño leenago iltzen banintzan, globo oietako batean ire billa etorriko nintzala.

–Ordurako ik emengo berri ba al ekian?

–Ez. Esan bat dek ori. Neri galdetu zidanean, nik ala erantzun nioken: gure errian bazala gizon bat oso maitea, artu-emanetan xuxena eta elizako joeran oso beroa. Ortan emen agintzen duena aingeru-deabrua dek; ni, berriz, gizon-deabrua. Aingeru-deabruak agintzen ditek gurekin. Gu ez gaituk oien ankapeko batzuk besterik. I ekartzeko agindu zidaken; eta orain, gure ezin ikusia asetzeko, gurutze batean josiko aute, eta gure artean geratuko aiz betiko, gu bezelaxe zigortua.

–Ilko naizela sinisten dit. Sortu nintzaneko izenpetu zidateken ori. Baiña ori ez dek zigorra. Nere Salbatzaillea bezela gurutze batean bizia uztea neretzat zoragarria dek. Baiña nere biotzean zegok Jainkoa eta ori ortik kenduko duenik ez dek sortu. Ez-ta deabru guziak bat eginda ere.

–Kontuz! Ire arrokeri oiek apaltzeko ez abil leku txarean.

–Umil araziko niotek. Baiña Jainkoa dan arte munduko agintea kendu ez diotenean, ez-ta nereko agintea ere ez ziotek kenduko.

–Ori ikusiko diagu.

–Emen ere Jainkoak agintzen dik; ez deabruak.

–Iritzi zebreak baitun len. Oraindik beraiekin jarraitzen dek?

–Baita jarraituko ere. Orduan ni onera ekarriaren erruak ik dituk.

–Geienak beñepein bai, benetako gorrotoan aukat eta.

–Ik benetako inkurria didakela ta nik, berriz, maite aut i.

–Nik maite al baneza, une berean zeruan niñukek, Jainkoa maitasuna dek eta.

–Orduan zuen inpernuak etzeukak aldaketarik?

–Ez, zoritxarrez. Gu kiskaltzen gaituna gorrotoa dek; ez sua. Gabiltzan lekuan gabiltzala, orrek kiskaltzen gaitzik. Gu baiño geiago oraindik aingeru-deabruak.

–Eta zer moduz bizi zerate emen?

–Gaizki. Aal bagendu, oraintxe inpernu guziak bere burua ilko likek. Zeruan Jainkoaren maitasunak batzen dituen bezela, emen Jainkoarekiko ta zuekiko gorrotoak batzen gaitzik. An denak elkar maite diran bezela, emen denak gorrotatzen gaituk.

–Eta zerk galerazten dizute?

–Eziñak.

–Nik beti leen esan ditena: emen ere Jainkoak agintzen duela eta zuen zigorra betikoa izango dala, zuen zigortzailleekin batera.

–Zoritxarrez, bai noski. Emen denak nere iritzikoak dituk. Balitezkek, bai, Jainkoa gorrotatzen jarduteagatik bizitzea naiko lutekenak. Nik, beiñepein, ez izatea naia-go dit.

–Orduan gorrotoak agintzen dik emen?

–Egia diok. Gizon-deabru auek aingeru-deabruen ankapean bizi gaituk. Oien jostailu besterik ez gaituk gu. Oiek agintzen ditek, bada. Gu zigortzea dek oien atsegiña, eta gorroto gaitun batek zer ez dik egingo?

–Eta zeruko berririk bai al dezute?

–Zoritxarrez bai. Zerbait, guri supri erazteagatik, erakutsi zigutek, eta ori dek gure naigaberik aundiena, alako aukera eskuetara etorri ta galdu degulako. Berandu damutzeak, berriz, ez dik balio. Betikotasun osoan gorrotopean bizi bearra, ori dek gure zigorrik gaiztoena. Munduan guri erakutsi zigutek bezelako zerurik ez dek: auspez jarri ta “santu ta santu” beti agurtzen. Gizona zeruan aske-askea dek, nai duen barrena ibiltzeko. Jainkoa danean dagoen ezkeru, beti aren aurrean bizi dek, Jainkoan alegia eta benetan maitatuz. Jainkoa dek, bada, gizonaren zerua. Jainkoa bere baitan neurri gabeko zoriontsua dek. Ez dik iñoren bearrik. Gizona, ordea, ura gabe ez dek zorionekoa izango, gu inpernuan bezela.

Galdutako gizon baten berandu damutzeak eta erru guziak bere buruari emateak, egindako aitortza orrek, berotu zuen Joxeren Jainkoarekiko maitasuna, eta onela zion gizon deabruengatik:

–Gizarajoak! Aukera guzia eskuetara eman ta baliatu etziralako, beti-betiko alperrikako negarra!

# Etxean

---

Urte berria aurrera zijoan. Arratsaldera arte lasai xamar igaro zuten. Ama-alabak betiko martxa zeramaten: etxe-txuloan beren lanetan eta beldurrak.

Auek etxe kontu utzita, mendi aldera joan ziran gure gazteak, Joxeren seme-alabak alegia, aita baitu zuten lekura. Itxura duanez, auek etzituen kutsatu ama-amonen beldurrak. Aitaren billa ibili ziranean bezela zegoen oraindik guzia. Baita gurutze bat ere, aritz sendoaren ondoan jarria, idatzi onekin:

«Emen galdu zan, aztarrenik utzi gabe, Joxe Jakintsua. Aita gure bat beraren alde».

Gure gazteak ondo bete zuten an jartzen zuena, aitaren alde aita gurea errezatuz. Gurutze jartze ori gudari xaarraren lana omen zala.

Guardiazibillak ere ikusi zituzten inguru aiek azertu ta zaintzen. Ori baida beren eginkizuna.

–Zer zabilzate emen? –galdetu zieten gure gazteei.

–Gaur urtebete emen galdu zanaren seme-alabak gera.

–Eta onera etortzea nola ausartu zerate?

–Noren beldurrak atzeratu bear gaitu? Guk ez diogu iñori ezeren txarrik egin. Ez gera emen ezagunak.

–Aita ere gizon on bat zenuten eta etzan ezaguna. Baiña aretzaz norbait oroitu zan.

–Oso ezaguna zan gure aita. Jakintsua esaten zioten gaiñera. Errian etzan beste bat izango dalako globo oien etsai gaiztoagorik. Arek etzuen sinisten eta txorotzat artzen zuten sinisten zutenak.

–Eta azkenean berak eraman.

–Bai. Geienen iritzia ala da, eta amak ori deabruen lana dala dio.

–Deabruak gizonak baitzen asten badira, leku onean sartu gera.

–Oroitzen zerate orduan igaz gertatuaz. Badaezbada, zer gerta ere, zaintzera etorri zerate.

–Ez dezute geroztik aren berririk?

–Ez-ta aztarrenik ere. Eta zuek orren beldurak zabilzate?

Pusillak erakutsiz, ala erantzun zieten:

–Auek izketan asten diranean, kontuz.

Guardiazibillak iñora joaten ziranean, laster jartzen zuten errespetua. Gazteak bertan utzita, inguru aiek aztertu ondoren ezkutatu ziran guardiak.

Aiek aldegin ta gazteak gurutzea aztertzen ari zirala, azaldu zan gizon bat xarraka-xarraka. Gudari xaarra omen zala, beren aita Joxe azkeneko mundu ontan ikusi zuena. Joxeren seme-alabak ezagunak zituen, auek era bai ura eta izketan geratu ziran.

–Zer egiten dezute zuek emen? –galdetu zien.

–Gaur urtebete galdu zan emen gure aita zana, eta ikusi eta aztertu inguru auek.

–Nik ikusi nuen azkeneko. Aritz sendo onen ondoan exeri ta itzezin ere bai.

–Eta gurutze au nork jarri du emen?

–Nik. Ain lagunak al giñun, izan ere. Joxeren aita, zuen aitona alegia eta ni, leengo gudate gaizto artan elkarrekin ibilli giñun. Baiña obe dezute emendik aldegin. Guardiazibillak au zaintzera etorriak dituk, norbaitzuk eramateko asmoan berriz azaldu litezkela ta. Gaiñera, arratsalde bikaiña egin dik; baiña orain enbata zetorrek,

eta ni ere baniak. Guardiazibillak emen geratuko dituk. Oiek zainduko ditek, zer gerta ere, leku au.

Gudari xaarraren aolkua ontzat artu zuten eta, agur goxo bat egin ondoren, eguraldia gaiztotzen ari zuen ta erasoak arrapatu baiño leen aitona bertan utzi ta lasterka etxerako bidea artu zuten.

Inbiriz begira egon zitzaien gudari xaarra. Zer ote da gaztea izatea! Lasterka etxera irixtean, suzko globoa gainean barrena.

–Ama, ama! Goitik badator suzko laiño argitsua! –oiu egin zuten seme-alabak.

Ama-alabak, gazteak zer ote zuten, lasterka atera ziran kanpora.

–Zer dezute orrela oiuka?

–Ara non dijoan ovni deritzaion globoa!

Garbi-garbi ikusi zuten polliki-polliki mendira jexten, aita baitu zuten inguru artara, bistatik galdu zitzaizen arte.

–Ai, Jainko maitea! Urrikal zaitez gutzaz –zioten izutuak ama-alabak.

–Gudari xaarra mendian zebillen eta an arrapatuko zuen.

–Eta mendian izan al zerate?

–Baita gudari xaarrarekin itzegin ere. Gurutze bat dago jarria. Gudari xaarraren lana omen dala. Guardiazibillak ere, gu etortzerakoan, nonbait an geratu dira, diotenez mendia zaintzera etorriak.

–Eta nola ausartu zerate?

–Arratsalde santu guzian zerbait egin bear degu. Gudari xaarrak ez bazigun esan laster euria zekarrela eta obe genduela etxera etorri, sinistu egin diogu. Aita baitu zutenak orain guardiazibillak arrapatuko dituzte.

–Eta etxera etortzen bazaigu?

–Litekena da ori ere. Baiña bakarria etortzen bada, beiñepein, orrenbesteren artean zapalduko genduke.

–Egitezkeroz, guk egin bearco. Guardiazibillen itxaropenetan ez gaitezen bizi. Lasai asko bazterren batean or pasako ditek arratsa.

Ama-alabak beiñepein izutu ziran.

–Zertara jetxi dek bestela?

–Eta ekartzera etorri bada? –esan zuen norbaitek.

–Ez da gureztat olako zorionik izango, ez.

Suilka euria asi zuen eta denak etxera sartu ziran. Amak etxeko ate ta leioak ondo itxi zituen, eta aparria preparatzen asi ziran.

–Sartu bear badu, aizea txirrikietatik bezela sartu bearco dik.



# Joxeren Kalbarioa

---

Urtea bazan baitu zutela eta kalabozo zikin eta illun artan aspertua zegoen, noiz edo noiz eta bein betiko berrekikoak egiteko zai.

Ilko zutela etsia zegoen, Jainkoak ez bazuen miraririk egiten; baiña bere anima zainduko zuela etsai guzien eskuetatik. Kontzientziak esaten zion Egillearekin pakean zegoela, eta Jaunak betiko atsedenera eramango zuela ere bai, Jainkoari zioten gorrotoagatik iltzen bazuten beiñepain, eta ortarakoxe baitu zuten. Jainkoagan ezin ase zuten beren gorrotoa, eta gizonaren aulerian beteko zuten gorroto ori.

Nola utziko zuen, bada, Jainkoak, berarengatik bizia ematen zuen bat betiko zigorpean deabruen mende?

Urte osoan zegoen lekuan ia orduero bazuen norbait isekaz eta biraoka, eta zearo nazkatua zeukaten. Ezin gentzake pentsatu ere egin zenbateraiñoko gorrotoa dioten deabruak gizon gizarajoari.

Aspertua eta Jainkoari otoika zegoen batean, ala esan zion, bada, Joxek deabruen buzuzagiari, beragana etorri ta biraoka letani saio baten ondoren:

–Onetsia izan bedi, Jauna, zure izena!

Bulartsu eman zion erantzun ori. Eta deabruak:

–Oraindik ere arro mintzatzen al aiz? Ez dek aurki olakorik esango!

–Nik gurutzean ere Jainkoa goratuko dit. Urteetan arengatik gurutzean zintzilik supritzen igarota ere, ez dit Jainkoari diodan zorrik ordainduko. Maitasuna dek,

dena nere onerako egin zin eta itxaropena bazeukat, bai-  
ta segurtasuna ere, nik nai badet beiñepein, betiko bere  
altzoan zoriontsua egingo nauela.

–Ik nai dekana esan. Ez dek aurki berdin pentsatuko.  
Guk aukeratutako garaia iritxi dek. I ere biar gurutz-  
iltzatuko aute. Urtero bat berexten diagu ortarako. Ea ik  
maite dekan orrek gure atzaparretatik askatzen auen.

–Zuen gorrotozko zigortzaille oiek baiño seguruago.

–Kontuz! Ire berriketak entzuten badituzte, goxoak  
jarriko dituk.

–Il baiño geiago zer egin bear zidatek? Oien indarra  
or bukatzen dek.

–Gu sekulako galdu gaituk eta dena gorrotoa diagu,  
iñoren onik nai ez izateraiño. Guri zerua kendu zigunak  
zuei eman zizuten, eta zuek ere, bada, guretzat gorroto-  
garriak zerate. Gure saillean bizi bearko dek betikota-  
sun osoan, maite dekanarengandik berex eta oiñazetan.

–Ilko nauzutela sinisten dit. Nere ezurrak agian  
emen geratuko dituk; baiña ez nere anima. Ori ortik  
kenduko duen indarrrik etzegok inpernu guzian.

Biraorik gaiztoenak esanez aldegin zuen andik dea-  
bruak. Ura joan orduko, arro-arro an azaldu zan Txulo.

–Ire arrokeriak ere laster bukatuko dituk, bada.

–Arrokeriak diok? Leku onean naukazute ortara  
pentsatzeko.

–Biar goizean etorriko gaituk olako ta ni, i gurutze-  
ra eraman aurretik astindu eder bat ematera; eta andik  
aurrera guk etzeukagu irekin zer ikusirik. Aingeru-de-  
abruak jabetuko dituk; baiña, gu bezelaxe, betiko oi-  
ñazetan gure artean emen geratuko aiz. Oien atzapa-  
rretatik kenduko auen indarrrik etzegok zeruan eta lu-  
rrean.

–Ori ez iñondik ere. Bearbada ilko nauzute, naiz eta ori ere ez dan segurua. Eta nere ezurrak emen utzi be- arko dizkit. Baiña nere anima Jainkoak beregana era- mango dik.

–Emen ez dik, ordea, arek agintzen.

–Ori gero esateko ez dek txarra izango.

Aspaldian etorri zai zeuden egun ori ere iritxi zan, bada. Zutoi bati lotu zioten, larru gorririk jarrita. Zutik ezin egoteraiño zati-zati egiña utzi zuten.

Gero txapel gorri bat jarri zioten buruan, eta kaiña- bera bat eskuan; eta, exeri arazi ondoren, deabru asko banaka-banaka zijoazten beraren aurretik, masaillekoak emanaz eta isekaz esanez:

–Ea ire Jaungoiko Salbatzailleak askatzen auen!

Deabruen saila ugaritzen zijoan. Gurutzetik zintzi- lik iltzen ikusi nai zuten, eta Jainkoari zioten gorrotoa gizonaren oiñazetan ase.

Joka ta isekaz aspertu ziranean, gurutze astun bat ja- rri zioten bizkarrean. Gurutzbide artako buru egiten zuenak ikaragarriak esan zituen Jainko eta batez ere Je- susen aurka. Ederki nazkatu erazi zuten beiñepein Joxe gizarajoa.

Oin batetik lotuta lokarria jarri zioten, berak nai zu- tenean tira ta botatzeko.

Joka ta isekaz tratu txarra eman zioten gurutz-iltza- tuko zuten lekuraiño igo bitartean. Aien gorrotoak etzeukan neurririk.

Larru gorrian jarri ta gurutz gaiñera bota zuten; eta buru egiten zuenak, berriro eten gabeko biraoen artean, ala esan zion:

–Oraintxe ire azken minutuak kontatuak zeudek. Dei akiok ire Jainkoari ea gure atzaparretatik salbatzen auen.

Bide guzian otoitzean etorri zan Joxe. Zirudienez, azken ordua etzuen urruti. Baiña etzan bereak eta bost esan gabe mundu ontatik joango.

–Gorputza emen uzten detala sinisten det. Baiña bai nere anima ez dala zuen artean geratuko ere. Nerekin dago Jainkoa, eta ori ortik kenduko duen deaburik ez da sortu.

–Emen guk agintzen diagu, eta ez adilla aren itxaropenetan bizi.

Joxeri munduan *Jakintsua* esaten zioten eta Bibliako gertakari asko memoriz zekizkien. Luzifer Jainkoaren aurka aizkatu zanean, onek inpernua sortuz denak buruz beera jauzi zitueneko berri ikasia zegoen. «Nor Jaikoa aiñakorik?» Mikel deunak oiur egin zuenean, aurka nabarmendu ziran aingeru denak deabru egiñak erori ziran. Jainkoa bera zan; deabruak ere bai. Aien atzaparretatik askatuko zuen itxaropena indartzen ari zitzaion.

Deabru guzieren aurrean, bada, larru gorririk gurutze gainean etzan erazi eta ikaragarriak esan ondoren, ala esan zion deabruen buru egiten zuenak:

–Iretzat maite dekan Jainkoa galdu dek; eta gorrotzko zulo onetan, nai badek eta ez badek, gurekin biziko aiz gorrotogarri. Motel, eskatu akiok ea gure atzaparretatik askatzen auen.

Orduan bere sinismen ta itxaropena aal zuenean piztuz eta indartuz, eta Jainkoari egiten zizkieten iseka ta biraoak ixil erazteko, bere indar guziekin ala oiur egin zuen, begiak zerurontz jasorik:

–Zeruan, munduan eta inpernua dagoen guziaren jabe bakarra da Jainkoa! Nor, bada, Jainkoa aiñakorik?

Eta, aize purrustada batek orbelak aidean daramazkien bezela, deabru guziak norabait ezkutatu ziran an-

dik, eta gure Joxe larru gorririk gurutze gaiñean etzanda utzi zuten; baiña zoriontsu, Jainkoa beti Jainko dala sinistuz eta eskerrak emanez.

Baiña oraindik etzan dena bukatu. Zer egingo ote zioten orain? Bere artan, laguntzarik gabe, iltzen utziko ote zuten?

Ez. Noizbait Txulo azaldu zan, gorroto ta amorruez betea, eta Joxeri begiratu gaizto batzuk egiñez eta aren galderei erantzun gabe.

–Nork agintzen dik emen: Luziferrek ala Jainkoak?  
–esan zion Joxek.

Ixilla izan zuen erantzuna.

Globo artan, Joxe beti aren barruan bizi baizan, Txulo ere sartu zan, eta biak bakarrik atera ziran inpernutik. Etzion noruntz esan. Etzuen espero, beiñepein, Txulok ango arazoa txarrean bukatuko zuenik. Txulori, berriz, bizitzan Joxeri zion gorrotoa azi egin zitzaion.

Bereala antz eman zion Joxek inpernutik kanpora bazterren batean utziko zuela. Deabruak uraxe inpernurako nai zuten, baiña etzuten iritxi. Joxek, bidean zetozela, ala esan zion:

–An ere, inpernua izanagatik, Jainkoa nagusi!

Txulok etzion erantzun, baiña amorragarritzko begiratu bat egin zion.

Etzekien non utziko zuen. Baiña, sarrerakoan bezela, uzterakoan ere galdu zuen bere zentzuna; eta, non etze kiela unetxo bat igaro ondoren, etorri zan bere onera. Asi zitzaizkion begiak argitzen. Dena estraiñoa, dena bestelakoa, leen ez bezelakoa iruditu zitzaion orain, eta aritza sendoaren ondoan exerita arkitu zuen bere burua, txorabioan geratu zan bezela. Baiña, munduko iñor ikusi gabe, muturje gaiztoarekin utzi zuen ekarri zuenak.

–Zer da, ordea, au? –zion berekiko–. Ai nolako ametsa egin detan!

Zoritxarrez dena ametsa izaki, ordea.

–Ez ote dit gero norbaitek droga gaiztoren bat eman? Olako ametsak egin erazten dituen, gaiztoa benetan!

Ebatsi zuten zugaitzaren ondoan zegoen bere ustez. Andik etzuten iñora eraman; ekarri ere ez, jakiña. Txakurrari txistu egin zion eta etzan azaldu.

–Oraindik etzidak olakorik egin orrek: ni bakarrik utzi ta mendian aldegin. Dena dek emen arrigarria.

Aritzean txintxilik utzi zuen eskupeta ere palta zan. Patrikatik kartera ebatsi zioten. Lo zegoela norbaitek lapurtu ote zizkion?

Ordu erdi artan eguraldiak ere etzuen aldaketa txikia egin. Aizeak eraman bear zituen bazter guziak, eta ortotsa ari zuen. Alako giroa geratu ta enbata gaiztoren baten lana izango zan. Baiña min zeukan bizkarrean, eta laster oartu zan odol gorritan zeukala eta oiñazetan.

–Ez dek dena ametsa izan.

Gertatua edo iruditu zitzaiona nork sinistu? Zalan-tza ortan, ekaitzak arrapatu baiño leen etxerako bidea artu zuen.

Zaintzen jarri ziran guardia zibillak argitasuna ikusi zuten eta lasterka etorri ziran. Baiña an etzuten aritz aundi ura besterik arkitu.

# Etxean

---

Gazteak jolasean zebiltzala, eta igazko ordu eta leku berean, ikusi zuten ovni suzko bola oietakoa mendira geldi-geldi jexten.

–Ama, ama! Zerutik badator suzko bola!

Lasterka atera ziran eta garbi-garbi ikusi zuten dizdika igazko leku berera jexten, eta txaran galdu zan.

–Ai Jainko maitea! Urrikal zaitez gutzaz –zioten izutuak ama-alabak.

–Mendian guardia zibillak zaintzen geratu dira. Arrapatuko dute.

–Bai. Ikusten diranak izango dituk. Berak ez badi-tuzte eramaten...

–Aiek armatuak geratu dira.

–Guardien beldurragatik etxera etorriko zaizkiguk.

–Aita ekartzera etorriko zan agian –esan zuen norbaitek.

–Onezkero, aita bazterren batean ezur pilla bat egiña egongo dek.

Aita berriz ikusteko itxaropen gutxi zegoen etxe artan.

Arrats benetan gaiztoa zetorren eta denak etxera sartu ziran. Baita ama-alabak ere. Giro txar arek denak erretiratu zituen, eta leio eta atea ondo ixteko agindu ere, uste gabeen sartu etzedin.

–Barrura etorri nai badek, zulorik ez dagoen lekutik sar adi!

Zer gertatu ziteken larri zeuden, batez ere ama-alabak. Otsik txikienera erne gazteak eta zaarrak. Aiek en-

tzun gabeko kinkiorik etzan ateratzen etxe barruan eta kanpoan.

Joxe etxera urbildu zanean, bidera atera zitzaion txakurra, nagusia nondik agertu ote zitzaion, jauzika eta eskuak miliskatuz. Arek oraindik etzuen bere nagusia aaztu. Joxerentzat gertakari atsegiña izan zan ori. Etzan asiera txarra. Txakur maitagarri arek poztu zuen benetan. Jauzika ta Joxeren gorputzaren inguruan birak emanenez etorri zan atariraiño. Joxe laster aterako zan zalantzatik, ametsa zan edo ez.

Alako batean, zer gertatuko larri zeudenak, atarian sarrerako atean ots batzuk nabaitu zituzten, giltzarekin atea zabaltzen ari balira bezela. Karraxi bat egin zuten ama-alabak.

–Ez al dezute atariko atea itxi? –oiu egin zuen amak.

–Bai, ama. Beiñere ez bezela bi bueltak emanta, gaiñera.

–Nola sartu dek, bada, ori, zulorik ez dagoen lekutik edo...?

–Aita izango da ta... Arek beti berekin ibiltzen zituen giltzak –zion batek.

–Ea ari kendu dizkionen bat datorren...

Bitartean, aita bera ere arritua zetorren zurubiak gora.

–Zergatik itxi ote dituzte atea? Ez al zekiten ni palta nintzala?

Oraindik ere zalantzan dago amets egin ote duen. Baiña ez ordu betekoa bakarrik. Ezaugarri geitxo dago amets bat baiño geiago ez ote dan izan.

Sukaldea goian zeukaten, eta oin-otsak gero ta urbi-lago zetozen. Aurki ango atea joko zuen. Baiña arrigarrria. Bai zai zeudenei lasaitasun pixar bat eman ere. Gora zetorrena iritxi baiño leen, nabaitu zuten txakurra, le-



en oitua zegoen bezela, sukaldeko atean bere atzaparrekin karraskaka, nagusiak aurretik biali balu bezela. Baserri askotan dute, etxera sartzeko, txakurrak oitura ori.

–Ori gure txakurra da, eta gora datorrena ezaguna du. Orrek, bestela, zaunkaka laster erasoko zion.

Txakur mazala berri ona ematera etorri zan; baiña sarrerako atea, leen egundaiño ez bezela, itxita arkitu zuen. Noizbait iritxi zan Joxe, eta bat-batean atea zabaldu.

Jesus piztu berria juduen beldurrak apostoluak itxituran zeuden lekura sartu zan antzera azaldu zan agurtuz gure Joxe Jakintsua.

–Jainkoak gabon, etxeoak.

Bat-batean denak txutik jarri ziran, arritu ta larrituak arpegira begiratzen ziotela, aita zala baiña ez aragizkoa noski, aren irudipena edo anima baizik. Pentsamentu auek guziak igaro ziran larri txutik zeuden aien buruetatik.

Aien larritasunez oarturik, aidak etzekien zer pentsatu. Ez al zan ura bere iganderoko martxa? Baiña laster ulertu zuen egun batengatik etxeoak etzerala larritzen, askoz denbora geiago igarota izango zala bazterren batean.

Etzion iñork agurrari erantzun, eta etzioten ezer ere galdetzen. Etziran itzegitera ausartzen. Nolako asmoak ote dakarzki? Ez ote zetorren besteren baten billa?

–Zer gertatzen zaizute? Lau ordu igarota xuxenean etxera nentorrela uste nuen ta...

Amona izan zan leenengo lasaitu zana: aragizko Joxe zala ura eta iñori kalte egiteko asmoan etzetorrela, eta bera ausartu zan itzegitera ere.

–Bai; egia, Apostoluengana Jesus bezela sartu zera. Ez dakit il ta piztua ote zatozen; baiña guretzat ala baiña bezela. Lau ordu diozu? Gaur urte bete ezkerro palta

zera zu etxe ontatik. Jainkoak daki zenbat gora-beera eta atzera-aurrera zure billa egin duen jendeak. Baiña etzuten aztarrenik arkitu. Piztu baziña bezela zatoz, bada, guregana, baiña urte bete igaro ta gero, agian norbaitek baitua eduki ta errukitu ondoren. Ori ez dakigu.

Urrikalduta geratu zan Joxe, maai inguruan beraren beldurak txutik jarrita arkitu zituenean, itzegiteko ere ausardirik gabe.

–Nere beldurak al zaudete?

–Egia diozu –erantzun zioten.

–Etxera baiño leen dena estraiñoa zitzaidan. Bein ere ez bezela, txakurrak iges egin dit andik. Eskupeta ebatsi didate. Sakelean neraman karteratxoa ere bai. Lau orduren buruan aldaketa auek nola egin ote zitezken ezin ulerturik nengoen, eta amonak esandako itzekin txunditua geratu naiz.

–Eta nondikan zatozen jakin al genezake?

–Inpernutik. Urte bete inpernuan igaro det. Ostirale-ro zigortzen niñuten.

Eta bizkarra erakutsi zien, dena larrutua.

–Eta gurutzean oraindik geiago txikitua. Baiña ez dute berak nai dutenik egin.

–Jesus! –oiu egin zuten denak–. Ori sendatu bearra dago!

Oraindik ere batzuek ezin sinisturik zeuden, eta banaka-banaka besarkatu zituen. Orduantxe sinistu ta benetan poztu ziran.

–Oraindik ere gureztat badauzka Jainkoak mundu ontarako ere atsegiñak!

–Benetan diozute, bada: inpernutik nator. Txulok eraman niñun globoan artuta. Arek eta olakoak zigortzen niñuten, biak deabru egiñak. Ezin ulertu litekena

da aiek diguten gorrotoa. Urtero gizon bat ebatsi ta il-tzen omen dute, Jesusi ta guri diguten gorrotoz, ari munduko nagusitza kendu zielako eta guri aiek galdu-tako zeruaren jabe egin geralako. Nerekin kalbarioa egin dute, deabruak atzetik joka ta isekaz. Gurutzean josterakoan, ala oiua egin didate:

»-Deitu akiok ain maite dekan Jainkoari, ea orain gu-re atzapparretatik askatzen auen.

»San Migelek egin zuen oiua bera egin det nik:

»-Nor Jainkoa aiñakorik?

»Aize purrustada batek orbelak eramaten dituen be-zela, denak bat-batean aizkatu dira andik, eta bakar-ba-karrrik utzi naute. Noizbait Txulo etorri da eta arek eka-rrri nau baitu niñuten lekuraiño. Aurten ez dute beren kalbariorik bukatu.

-Arrigarria da orratik ori!

-Apaltzera zoazte noski?

-Bai. Zu etorri aurretik asmo ortan giñan.

-Apal zagon, bada. Urte guzian ez det ezer artu ta gosetu egin naiz. Apaldu bitartean kontatuko dizutet ikusi ta entzuna.

-Ez al dizu kalterik egingo?

-Ez nintzan gosetuko bestela. Alare, nere neurriak artuko ditut.

-Bizkar orrek sendatu bear du.

-Leenbaileen, gaiñera. Ori nai nuke.

-Jakintsua esaten dizutela? Zer esanaren paltarik etzenduen ekarriko eta nori kontatua ere etzaizu paltako.

-Nik emen dena kontatuko det; baiña kanpoan ez naiz berriketan ariko. Ez baididate sinistuko, eta nere bizkar par egin naiko baidute. Alare, bikario jaunari, nai badu beiñepein, asi ta buka, dena.

Aspaldian egin zuten aparirik gozoena izan zan ura fameli artakoa.

Sekulakoak zabaldu ziran, batzuk alde, besteak kontra, baiña Joxek kontatua ez. Etsi zuten eta pakean utzi zioten. Egoskor otsa zabaldu zioten inguruan.

Geroztik ez da suzko bola ori emen azaldu.



## Aurkibidea

---

Itzaurrea .....	7
<b>Berezko iltzaillea</b> .....	11
Ondarribi .....	13
Beste kezka bat .....	20
Aurtzaroon .....	28
Berexi bearra .....	34
Nere txanda .....	42
Kasimiro .....	47
Itxasoan .....	55
Merienda .....	59
Ixabel erregin .....	64
Pilota-txapelketa .....	67
Estropadak .....	77
Erriaren omena .....	83
Pedro edo Maxkarra .....	88
Terexaren kezkak .....	91
Oporraldiak .....	95
Maxkarra enbarazuak kentzen .....	102
Aizunkeria .....	112
Ama-semeak .....	117
Izurritea .....	120
Bastoi a nai al dezu? .....	126
Kasimiro .....	130
Gora-beerak .....	134
Azkena .....	138
<b>Ovni</b> .....	141
Eztabaidak .....	143
Joxe jakintsua .....	151
Fameli berria .....	156
Urte Zarra eta Berria .....	161
Aparia .....	164

Urte Berri .....	169
Bazkaritan .....	177
Gudari xaarra .....	187
Azkeneko langan .....	190
Joxe baitua .....	196
Etxeko larritasuna .....	200
Billatzailleak .....	207
Ama-alabak .....	215
Patxi Biurri .....	219
Amaren kezkak .....	226
Joxeren illetak .....	230
Joxe .....	235
Joxe etsaien erdian .....	239
Leenengo auzia .....	244
Bere senideak .....	251
Eskeleto bat .....	255
Ondorenak .....	262
Urte Berritan .....	265
Joxe .....	276
Etxean .....	280
Joxeren Kalbarioa .....	284
Etxean .....	290